

Nazioarteko Harremanetako 14 Giltza-hitz

Autoreak: Iratxe Perea Ozerin, Montserrat Pintado Lobato, Andrea Bertomeu Navarro, Oscar Abalde Cantero, Iker Zirion Landaluze, Eneko Compains Silva, Itziar Mujika Chao, Miren Odriozola Gurrutxaga, Unai Vazquez Puente, Ander Gutiérrez-Solana Journoud

Koordinatzailea: Ander Gutiérrez-Solana Journoud

INPERIALISMOA

SUBIRANOTASUNA

GIZARTE

ZIBIL

GLOBALA

AUTODETERMINAZIO

ESKUBIDEA

NAZIOARTEKO GIZARTEA

GLOBALIZAZIOA

GOBERNANTZA NAZIOARTEKO

SEGURTASUNA GIZA ERAKUNDEAK

NAZIOARTEKO ESKUBIDEAK

GATAZKAK

BOTEREA

NAZIOARTEKO

JUSTIZIA

PENALA

HEGEMONIA



**Nazioarteko harremanetako
14 giltza-hitz**

Nazioarteko harremanetako 14 giltza-hitz

Koordinatzailea:

Ander Gutiérrez-Solana Journoud

Autoreak:

Iratxe Perea Ozerin

Montserrat Pintado Lobato

Andrea Bertomeu Navarro

Oscar Abalde Cantero

Iker Zirion Landaluze

Eneko Compains Silva

Itziar Mujika Chao

Miren Odriozola Gurrutxaga

Unai Vazquez Puente

Ander Gutiérrez-Solana Journoud

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

Nazioarteko harremanetako 14 giltza-hitz [Recurso electrónico] / Ander Gutiérrez Solana-Journoud (koordinatzailea) ; [autores] Iratxe Perea Ozerin ... [et al.]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2017]. – 1 recurso en línea : PDF (216 p.)

Ed. electrónica de la ed. impresa.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-597-6

1. Relaciones internacionales. I. Gutiérrez Solana-Journoud, Ander, coord. II. Perea Ozerin, Iratxe, coaut.

(0.034)327

Aurkibidea

Sarrera. Helburuak eta justifikazio metodologikoa	9
1. Globalizazioa	
<i>Iratxe Perea Ozerin</i>	11
2. Boterea	
<i>Montserrat Pintado Lobato</i>	27
3. Hegemonia	
<i>Montserrat Pintado Lobato</i>	43
4. Inperialismoa	
<i>Iratxe Perea Ozerin</i>	59
5. Nazioarteko Gizartea	
<i>Andrea Bertomeu Navarro eta Oscar Abalde Cantero</i>	75
6. Nazioarteko Erakundeak	
<i>Ander Gutiérrez-Solana Journoud eta Iker Zirion Landaluze</i>	87
7. Subiranotasuna	
<i>Eneko Compains Silva</i>	99
8. Segurtasuna	
<i>Iker Zirion Landaluze</i>	113
9. Nazioarteko Gatazkak	
<i>Itziar Mujika Chao</i>	127
10. Giza Eskubideak	
<i>Miren Odrizola Gurrutxaga</i>	139

11. Nazioarteko Justizia Penala	
<i>Miren Odriozola Gurrutxaga</i>	153
12. Gobernantza	
<i>Unai Vázquez Puente</i>	169
13. Autodeterminazio Eskubidea	
<i>Eneko Compains Silva</i>	185
14. Gizarte Zibil Globala	
<i>Ander Gutiérrez-Solana Journoud eta Iratxe Perea Ozerin</i>	199

Sarrera

Helburuak eta justifikazio metodologikoa

Talde lan honen helburua, NAZIOARTEKO HARREMANETAKO 14 GILTZA-HITZ, Nazioarteko Harremanetako nozio gakoekiko hurbiltze berri bat eskaintzean datza. Diziplina honetako hamalau indar-idea eta kontzepturen aukeraketaren bitartez, lan honek eztabaidarako gaiekin lehenengo kontaktua suposatuko du. Sarritan, irakasgai honetako zailtasunetariko bat termino zehatzen erabileran datza; diziplina beraren garapena markatu eta azalpen bat merezi duten nozioak. Aukeratutako metodologiak, kasu honetan tematikoa baino, kontzeptuala, ez dauka eskuliburu klasikoa ezta esanahiez osatutako ohiko hiztegi bilakatzeko asmorik. Irakaskuntza anglosaxoiaren metodologietan oinarriturik, ideia gako bakoitza sakonki aztertzen da, diziplinaren autore nagusien aipamenaz eta erabileraz, eta ikasleek uler dezaten idazkera lañoaz.

Gako bakoitzak egitura berdintsua dauka: doktrina-definizioak aztertu, fenomeno edo gako teorikoan zehar ibilbide historikoa egin, kontzeptu bakoitzeko oinarritzko ezaugarriak ordenaturik aurkeztu eta egungo eztabaida teoriko nagusiak erreparatu. Material hau, Europako Unibertsitate Eremuan baliagarri izan dadin, nazioarteko errealitatean teoria enpirikoki aplikatu ahal izateko, atal bakoitzaren amaieran adibide praktikoak eskaintzen dira.

Egitura honen bidez ikasleek, nazioarteko ikasketei aurre egiteko, ezagupen teoriko, doktrinal eta praktiko nahikoak izango dituzte eskura. Lan honek, beraz, hiru xede ditu: nazioarteko ikasketetan oinarritzko material bilakatzea, diziplinaren gako eta erakunde desberdinen inguruan kontsultarako gida azkarra eskaintzea eta horien ulermen praktikoa bermatzea.

Norentzat

Nazioarteko Harremanak oinarri duten graduiko ikasgaientzat ikasmateria prestatzea, ikasleak arlo horretako gako-hitzak entzuten hasten direnean azalpen bat izan dezaten, gaiaren sarrera gisa.

Nazioarteko Harremanetako Sailak hainbat irakasgai irakasten ditu Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, han eskaintzen diren bost gradutan: Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Soziologia, eta Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoa.

Gainera, Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko graduan ematen diren hiru irakasgai gehiago ditu euskaraz (Europako Integrazioa, Gatazken Analisia eta Ebazpena eta Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak). Hala ere, ez genuke ahaztu behar gaztelaniazko ikasle askok euskara badakitela eta haien-tzat baliogarria izango litzatekeela hau bezalako material bat eskuragarri izatea. Zuzenbidea ikasten dutenen kasuan, batzuek nazioarteko zuzenbidean interesa dute eta nazioarteko harremanetako hitz-gako hauei esker haien nazioarteko ezagutza zabaldu eta sakonduko lukete.

1.

Globalizazioa

IRATXE PEREA OZERIN

1. DEFINIZIOAK

Globalizazioa nazioarteko gizarte garaikidearen eboluzioan funtsezko prozesu bat izan da.

1980ko hamarkadan kontzeptua hedatu zen, eta handik aurrera arlo akademikoan, politikoan, zein enpresetan edo komunikabideetan etengabe entzuten da hitza.¹ Globalizazioari buruzko ikerketak, teoriak zein artikulua ugaritu dira azken hiru hamarkadetan. Baina kontzeptua zehazteko unean ez dago adostasunik adituen artean. Hainbat definizio aurkitzen dira; askok alderdi ekonomikoan jartzen dute arreta, baina globalizazioa dimentsio anitzeko fenomeno da.²

Zabalak diren definizioen artean, Anthony Giddens-ena aurkitzen dugu.³ Haren ustez, globalizazioa honela definitu ahal da: «gizarte-harreman globalen areagotzea, urruneko lekuak elkartzen dituen, tokiko gertaeretan handik aparte gertatzen diren kontuek eragiteko moduan».⁴

Era berean, David Held-ek eta Anthony McGrew-k fluxu globalak aipatzen dituzte, gero eta ugariagoak zein estuagoak direnak, estatuak eta gizarteak mundu mailako egituretan edo sareetan korapilatuz. Globalizazio-prozesuaren bidez, munduko bazter batean jazotzen diren gertaerek, erabakiek edo

¹ García Segura, C., «La globalización en la sociedad internacional contemporánea: dimensiones y problemas desde la perspectiva de las Relaciones Internacionales», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 1998*, Leioa eta Madril, UPV/EHU eta Tecnos, 1999, 321.-323. or.

² Arenal, C. del, «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las Relaciones Internacionales», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2008*, Leioa, UPV/EHU, 2009, 215.-219. or.

³ Giddens, A., *Consecuencias de la modernidad*, Madril, Alianza, 1999; jatorrizko edizioa: *The Consequences of Modernity: Self and Society in the Late Modern Age*, Cambridge, Polity Press, 1990.

⁴ Jatorrizko bertsiotan ingelesez edo gaztelaniaz dauden aipua autoreak berak itzuli ditu, komatxoaren arteko sistema erabiliz. Ohar honek testuan zehar agertzen diren itzulpen guztientzat balio du.

jarduerak ondorioak dituzte aparteko lekuetan dauden pertsonentzat eta komunitateentzat.⁵

Held-ek berak dio globalizazioa espazioarekin lotu behar dela: aldaketa bat dakar gizakien antolaketa eta jardueran espazioaren aldetik, eredu transnazioaletara pasatzen da jardueran, interakzioetan zein boterearen erabilieran.⁶

Jan Aart Scholte-k bereizten ditu *internazionalizazioa* eta globalizazioa. Lehenak herrialdeen arteko loturen areagotzeari erreparatzen dio; internazionalizazioaren ondorioz, harremanak eta kontaktuak ugartu arren, mugak eta distantziak mantentzen dira. Aldiz, prozesu edo dinamika globalak berehalakoak dira, distantziarik gabekoak. Scholte-k dio *supraterritorialak* eta *transmundialak* direla, lurraldeen mugak gainditzen dituztelako.⁷ Horren harira, Manuel Castells-ek azpimarratzen du informazio-teknologiaren iraultzak izan duen rola globalizazioaren aurrerabidean.⁸

Bere aldetik, Roland Robertson soziologoak aitortzen du globalizazioak, munduaren konpresioaz gainera, beraren osotasunaren kontzientzia dakarrela.⁹ Robertson-ek osagai subjektiboa sartzen du eztabaidan: objektibitatea, txikiagoa den munduaren errealitatea da; subjektibitatea, aldiz, horren jabe-kuntza da, eta nazioarteko aktoreen jardueran eragiten du.¹⁰

Azkenik, bere definizioan Ulrich Beck-ek onartzen du mundu-ekonomiaren rola globalizazioaren izaeran, baina prozesu horien ondorio politikoak nabarmentzen ditu, estatuaren higadura eta ongizate-estatuaren suntsiketa salatuz: globalizazio-prozesuen ondorioz, «Estatu nazional subiranoak nahasten eta inbrikatzen dira aktore transnazionalen bitartez, horien botere-probabilitateen, orientazioen, identitateen eta sareen bidez».¹¹ Beck-en analisisa kontuan hartzekoa da krisi sistemikoaren egungo agertokian.

Horiek horrela, globalizazioa deskribatzean denbora eta espazioa gainditzearen gaiak berebiziko protagonismoa lortzen du. Globalizazioarekin lotu-

⁵ Held, D. eta McGrew, A., «The great globalization debate: an introduction», Held, D. eta McGrew, A. (ed.), *The Global Transformations Reader. An Introduction to the Globalization Debate*, Cambridge, Polity Press, 2. argit., 2003, 3.-4. or.

⁶ Held, D., *Cosmopolitanism. Ideas and Realities*, Cambridge, Polity Press, 2010, 28.-29. or.

⁷ Scholte, J.A., «The globalization of world politics», Bayliss, J. eta Smith, S. (ed.), *The Globalization of World Politics. An Introduction to International Relations*, Oxford, Oxford University Press, 2. argit., 2001, 14.-15. or.

⁸ Castells, M., *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 1: La sociedad red*, Madril, Alianza Editorial, 1997; *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2: El poder de la identidad*, Madril, Alianza Editorial, 1998; *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 3: Fin de milenio*, Madril, Alianza Editorial, 1998.

⁹ Robertson, R., *Globalization. Social theory and Global Culture*, London, Sage, 1992, 8. or.

¹⁰ García Segura, *op. cit.*, 323. or.

¹¹ Beck, U., *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Bartzelona, Paidós, 1998, 29. or.

tako prozesuak planeta osora hedatzen dira, eta berehalakotasuna dute ezau-garri. Gainera, fenomenoaren inguruan garatu den kontzientziak berebiziko garrantzia du, gizartearen partetik erantzuna eragiten duelako, bai horretara moldatzeko bai horren kontra jarduteko.¹² Azkenik, ikusiko dugunez, globalizazioari buruzko teorialariek eztabaida sakona zabaldu dute Estatuaren protagonismoaren gainean nazioarteko harremanetan eta mundu-ekonomian.

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Gaur egungo globalizazio-prozesuen aurrekariak eta ibilbidea deskribatzerakoan, teoria bat baino gehiago daude:

i) Gehienetan fase ezberdinak bereizten dira. Ikuspuntu horretatik, fenomeno asko aipatu dira globalizazioaren lehenengo aztarna gisa: lehenbiziko mundu-erlijioen agerpena V. eta VI. mendeetan, komunitate islamiko transnazionalaren (*umma*) sortzea VIII.ean, Eliza katolikoaren zabaltzea, geografia garaikidearen hasiera eta egutegi gregoriotarraren agerpena XV.ean. Garai horretatik aurrera maila globalean hedatu ziren merkataritza-harremanak ere adierazgarriak dira. Halere, dinamika global horiek oso mugatuak ziren oraindik.

Robertson-en arabera, XIX. mendearen amaieran horrelako globalizazio-joerek nazioarteko gizarte bat eratzeko prozesu bakar bati bide eman zioten, lau erreferentzia-puntutan oinarrituta: gizarte nazionalak, gizabanako orokorrak (baina ikuspegi androzentriko batekin), nazioarteko gizartea eta giza-terria. Azken biak gero eta gehiago ikuspuntu komun batetik ulertzen ziren; subjektibitate globala, hain zuzen, faktore nabaria izan zen prozesuan, baita komunikazio-teknologiaren aurrerapena ere. Izan ere, Scholte-ren esanetan, 1850. urtearen ondorengo ehun urteetan globalizazio-dinamika aipagarriak gauzatu ziren: komunikazio-teknologia globalen agerpena; migrazioak, garraioaren aurrerapenak eta mugikortasun globala; nazioarteko merkatuen finkatzea; edo finantza globalen hedapena. Dena den, lehenengo globalizazio horrek ez zeukan zerikusirik etortzekoa zen bigarren fasearekin.¹³

Bigarren zikloa, zeinak globalizazio garaikidea finkatzen duen, Bigarren Mundu Gerraren ondoren abiatu zen, arlo askotan funtsezko eraldaketak gertatu zirenean: komunikazio-azpiegituren aurrerapena; jendearen mugimendu globalen gehiagotzea; nazioarteko erakundeen hedatzea eta protagonismoa; gobernantza globalerako erregimenak eta agentziak; ekoizpenaren internazionalizazioa; merkatu globalen ugalketa; Bretton Woods akordioetan oina-

¹² García Segura, *op. cit.*, 324.-325. or.; Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 220.-221. or.

¹³ Scholte, J.A., *Globalization. A Critical Introduction*, New York, Palgrave Macmillan, 2005, 2. argit., 87.-101. or.; Robertson, *op. cit.*, 58.-59. or.

rritutako diru-sistema globala, mundu mailako finantza-operazioen kopurua-
ren hazkundea; ekologia eta beste arazo global batzuen garrantzia, eta arlo
militarraren globalizazioa.¹⁴ Dinamika horiek ia munduko populazio osoa,
eskualde guztiak eta giza jardueraren arlo gehienak ukitu dituzte. XX. men-
dearen bigarren erdian garatutako prozesu globalek aurrekoak gainditu zi-
tuzten, bai era kuantitatibo batean, bai desberdintasun kualitatibo asko era-
kutsiz. Gerraren ondorio estrukturalak fenomeno global garaikideak eragin
zituzten: europar inperioen amaiera, deskolonizazioaren azken fasea, Gerra
Hotzaren testuingurua, Nazio Batuen sistema politikoa, Bretton Woods-ko
akordioak eta Mendebaldeko hegemonia Ameriketako Estatu Batuen prota-
gonismoarekin.¹⁵

ii) Horrez gainera, aipagarria da mundu-sistemaren teoriaren ekarpena,
zeinak globalizazioa kapitalismoaren eboluzioarekin lotzen duen. Teorialari
hauen arabera, Amerikaren konkistatik aurrera kapitalismoaren hedapenak
«mundu-sistema» jakin baten sorrera bultzatu du. Kolonialismotik aitzina
mundu osoa progresiboki sartu da mundu-sistema kapitalista horren hiru es-
kualdeetan: zentroa, erdi periferia eta periferia. Eskualde bakoitza produk-
zio-sistemaren prozesu ezberdinetan espezializatzen da: zentrokoak langile
gaituak, teknologia aurreratuak eta kapitalen inbertsioa behar dituzten proze-
suetan; eta periferiakoak lan-indar merkea eta lehengaiak erauztea eskatzen
dituzten horietan.¹⁶ Ikuspegi horretatik globalizazioa kapitalismoaren be-
rezko ezaugarria da.¹⁷

iii) Celestino del Arenal-ek, bere aldetik, hiru prozesu nagusi bereizten
ditu nazioarteko gizartearen eboluzioan: *mundializazioa*, *interdependentzia*
eta *globalizazioa*. Lehenaren ondorioz, konkista eta kolonizazioaren bidez,
XV. mendeko munduak, nazioarteko zenbait gizartetan banatua bera (islami-
koa, Txinatar Inperioa, Bizantziar Inperioa), mundu-gizarte bakarraren itxura
hartu zuen: Mendebaldeko Kristandadearena. Estatu administrazio-anto-
laketa gisa azaldu zen, eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Asiaren eta
Afrikaren deskolonizazioaren amaierak¹⁸ mundializazioari bukaera eman

¹⁴ Scholte, *Globalization...*, *op. cit.*, 101.-117. or.

¹⁵ Held, D. eta McGrew, A., Goldblatt, D. eta Perraton, J., *Global Transformations. Politics, Economics and Culture*, Cambridge, Polity Press, 1999, 424.-426. or.

¹⁶ Arrighi, G., Hopkins, T.K. eta Wallerstein, I., *Movimientos antististémicos*, Madrid, Akal, 1999, 24.-25. or.

¹⁷ Amin, S., «Capitalismo, imperialismo y mundialización», SEOANE, José eta TADDEI, Emilio (Arg.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001, 15. or.

¹⁸ Afrikan Mendebaldeko Sahararen salbuespena aurkitzen dugu. 1976an, Espainia handik irten ondoren, Fronte Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen. Hala ere, Nazio Batuen aginduaren kontra, lurraldeak Marokoren kontrolpean jarraitzen du.

zion, Nazioarteko Zuzenbidearen erregimena maila unibertsean finkatuz. Bigarrenari dagokionez, nazioarteko aktoreen arteko interdependentzia politiko eta ekonomikoak nabarmen aldarazi zuen mundu-gizartea XIX. mendearen amaieran; halere, Bigarren Mundu Gerraren ondoko nazioarteko gizar-tean areagotu ziren interdependentzia-prozesuak. Hortik aurrera giza jarduera guztietara hedatu dira, eta harreman-sare globaletan, Estatuez gainera, beste aktore batzuek ere parte hartzen dute. Testuinguru horretan, integrazio-prozesuek aurrera egin dute, nazioarteko hainbat arau-erregimen garatu dira, eta nazioarteko erakundeek berebiziko protagonismoa dute.¹⁹ Arenal-en ikuspuntutik, horiek ez dira globalizazio-prozesuak, baina globalizazioa prozesu horiekin lotuta dago: mundializazioaren ondorengo fasea da mundu-gizar-tearen osaketan, eta interdependentziaren barneko funtsezko dinamika da. Egungo globalizazioaren lehenengo pausoak 1970eko edo 1980ko hamarkadetan kokatzen ditu.²⁰

Teorialari batzuen ustez, 1970eko hamarkadan arlo ekonomikoan garatutako interdependentzia-prozesu horiek egungo globalizazioaren hasiera finkatu zuten. Baina, Arenal-ek, García Segura-k eta beste autore batzuek argudiatzen duten moduan, interdependentzia globalizazioaren faktore nabarmena bada ere, dinamika ezberdinak dira.²¹

iv) Azkenik, García Segura-k berak azpimarratzen du globalizazio-prozesuek lehen ez bezalako dimentsio kualitatibo eta kuantitatiboak 1980ko hamarkadan hartu zituztela. Globalizazioa garapen kapitalista historikoarekin lotuta dagoela aitortzen du, eta 1970eko hamarkadan areagotu zela interdependentzia ekonomiko sakontzearen ondorioz. Baina gaur egun ezagutzen dugun dimentsio anitzeko fenomeno globala 1980ko hamarkadatik aurrera gauzatu zen.²²

Robert Cox-ek deskribatzen ditu hamarkada horretan arlo ekonomikoan gertatu ziren bost aldaketa giltzarri: (a) ekoizpenaren internazionalizazioa (edo deszentralizazioa) kostuak aurrezteko; (b) Estatuaren internazionalizazioa, hortik aurrera gobernuen lehentasuna ez da barneko merkatua kanpoko indarretatik babestea, baizik eta ekonomia nazionala mundu-merkatura moldatzea; (c) nazioarteko lanaren banaketa berria, zeinak garapen ezberdina bultzatzen duen; (d) petrolioaren prezioen igoera eta mundu-krisi ekonomikoa, non garapen-bidean zeuden herrialdeen kanpo-zorra izugarri igo zen; (e) hegoaldeko herrialdeetatik iparralderako migrazioak, aipatutako aldaketa es-

¹⁹ Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 184.-215. or.; Arenal, C. del, «La nueva sociedad mundial y las nuevas realidades internacionales: un reto para la teoría y para la política», *Victoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2001*, Leioa, UPV/EHU, 2002, 29.-48. or.

²⁰ Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 215.-219. or.

²¹ *Ibidem*; García Segura, *op. cit.*, 328.-330. or.

²² García Segura, *op. cit.*, 330.-331. or.

trukturalen ondorioz.²³ Komunikazioen eta ekoizpenaren aurrerapen teknologikoekin batera, aldaketa horiek globalizazio garaikidearen izaera birmoldatu zuten. Cox-en aburuz, dinamika horien ondorio nagusiek —merkatuen liberalizazioa, itun sozialaren apurtzea, ongizate-estatuaren suntsipena, eta gobernuen eta kapitalaren arteko aliantza— egungo globalizazioaren izaera definitu dute.²⁴

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Arestian esan bezala, nahiz eta historian zehar dinamika globalak izan diren, globalizazio garaikidea fase edo prozesu (ikuspegiaren arabera) berri bat da, eta ezaugarri bereziak ditu:

i) Dimentsio anitzeko prozesua. Nahiz eta globalizazio ekonomikoari arreta gehiago jarri izan, fenomeno globalak giza jarduera guztiei eragiten die. Izan ere, globalizazio ekonomikoa, politikoa, soziala, ekologikoa edo kulturala lotuta daude; arlo horietan gauzatzen diren prozesu globalen artean interdependentzia bat dago. Horregatik Beck-ek dio globalizazio garaikidea *atzerazina* dela.²⁵

García Segura-k globalizazioaren zazpi alderdi azpimarratzen ditu: ekonomikoa (integrazioa merkataritzan, produkzioan eta finantzan), politiko-instituzionala (Estatua ez diren aktore eta instituzio transnazionalak ugaritzen dira), arauemailea (printzipio eta balio politikoen inguruko erregimenak mundu mailan hedatzen dira, bereziki giza eskubideekin lotutakoak), psikologikoa (mundua esparru bakar gisa ulertzen da), ideologikoa (aurrekoarekin lotuta, globalizazioari izaera ideologiko bat ematen zaio, balio positiboekin erlazionatzen da), ekologikoa (arrisku ekologiko globalek munduaren globalitateari buruzko kontzientzia bultzatzen dute), eta kulturala (homogeneizazio kulturalaren eta tokiko praktiken agerpenaren arteko tentsioa).²⁶

ii) Lurraldeetatik harantz. Globalizazioarekin nazioarteko aktoreen jarduerak espazioaren eta denboraren mugak gainditzen ditu.²⁷ Mota guztietako fluxu globalek, harremanek eta sareek inoiz ez bezalako neurria, intentsitatea, abiadura eta eragina hartzen dituzte. Horrekin lotuta, globalizazioak lurraldetasun-printzipioa zalantzan jartzen du: eraso militarra ez da

²³ Cox, R., «The global political economy and social choice», 1991, Cox, R. eta Sinclair, T.J., *Approaches to World Order*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996, 192.-197. or.

²⁴ Cox, «The global...», *op. cit.*, 197.-204. or.; García Segura, *op. cit.*, 330.-331. or.

²⁵ Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 218.-219. or.; Beck, *op. cit.*, 29. or.

²⁶ García Segura, *op. cit.*, 334.-335. or.

²⁷ Arenal, «La nueva sociedad...», *op. cit.*, 29.-48. or.

Estatu-nazioaren lurralde-osotasunerako mehatxu bakarra, bestelako erronkak ere azaleratzen dira.²⁸ Held-en arabera, testuinguru horretan, non aktore eta prozesu transnazionalak gero eta protagonismo handiagoa duten, erantzukizunaren kontua ez dago argi; horren aurrean, nazioarteko harremanak ulertzeko eta kudeatzeko *kosmopolitismoaren* ikuspegia proposatzen du berak.²⁹

iii) Glocalizazioa. Globalizazioak ez ditu nahitaz tokiko balio eta kulturak ukatzen, baizik eta tentsio bat dago integrazioaren eta fragmentazioaren aldeko indarren artean. Homogeneizazioa sustatzen badu ere, globalizazioak tokiko balioak eta praktikak nazioarteko agertokian azaleratzea ahalbidetzen du. Estatuak ez diren aktoreek aukera gehiago dituzte esparru transnazionalen parte hartzeko; beraz, fragmentazioa ere bultzatzen da.³⁰

Robertson-ek unibertsaltasun/partikulartasun dikotomia horretan sakontzen du. Haren ustez, globalizazioak homogeneizatze globala dakarrela mito bat da, baita munduaren *McDonaldizazioaren* gaineko teoriak ere. Aitzitik, *glocalizazioari* buruz hitz egin beharko genukeela defendatzen du. Kontzeptu hori enpresa-arloaren salmenta-estrategia globalarekin lotuta dago: produktuak mundu-merkatuetan kokatzeko, askotariko bezero taldeetara moldatzen dira. Robertson-ek ideia hori *global/tokiko* afera azaltzeko erabiltzen du. Tokiko ideologiak edo praktikak, neurri handi batean, prozesu globalen barruan garatu dira; era berean, kultura globala leku ezberdinen arteko interkonexioei esker sortu da. Hortaz, globala eta tokikoa ez dira aurrez aurre dauden prozesuak; globalizazio-prozesuetan homogeneizatzea eta heterogeneizatzea elkarren osagarriak dira.³¹

iv) Oposizioa. Kritika andana eta oposizio zabala sortu dituen prozesua da, bai arlo akademikoan (hurrengo atalean ikusiko dugunez) bai kaleetan.³² Globalizazioaren kontraesanak maila guztietan gauzatzen dira, eta, arestian esan bezala, herritarrok gero eta kontzientzia gehiago dugu fenomenoari buruz. Hala, kontrako jarrerak arlo askotan (sozialean, ekonomikoan, kulturean) nabaritzen dira.³³ Aldi berean, paradoxikoki, informazio-teknologietako aurrerapenak, zeinak ia munduko txoko guztietara ailegatu baitira, globalizazioaren aurkako mobilizazio soziala bultzatu dute.

²⁸ Held eta McGrew *et al.*, *Global...*, *op. cit.*, 430.-431. or.

²⁹ Held, D., *Cosmopolitanism...*, *op. cit.*, 27.-50. or.

³⁰ Beck, *op. cit.*, 30. or.

³¹ Robertson, R., «Glocalization: time-space and homogeneity-heterogeneity», Featherstone, M., Lash, S. eta Robertson, R. (ed.), *Global Modernities*, London, SAGE, 1995, 25.-44. or.; Robertson, *Globalization...*, *op. cit.*, 97.-114. or.

³² Held, D., *Un pacto global. La alternativa socialdemócrata al Consenso de Washington*, Madril, Santillana, 2005, 23.-25. or.; jatorrizko edizioa: *Global covenant. The democratic alternative to the Washington Consensus*, Polity Press, 2004.

³³ Held eta McGrew *et al.*, *Global...*, *op. cit.*, 430. or.

1980ko hamarkadan doktrina neoliberala nazioarte mailan hedatu zen, Ronald Reagan-en, garai hartan AEBko presidentea, eta Erresuma Batuko Margaret Thatcher-en babespean. Merkatu askeko ekonomia ezartzeko neurriak hartu ziren, estatuaren esku-hartzea inoiz baino gehiago mugatuz. Globalizazioa garai hartan areagotu egin zen, eta neoliberalismoaren itxura hartu zuen. Politika horien ondorioak oso latzak izan dira biztanle gehienentzat, eta berehala garatu ziren horren kontrako erresistentziak. Gobernantza-krisiak, ordezkagarritasunik ezak eta ongizate-estatuaren suntsipenak atsekabetu egin zituzten herritarrek. Testuinguru horretan, gizarte zibilaren kontzientziazioak eta informazio-teknologiaren hedapenak sistemaren kontrako indarren antolaketa erraztu zuten, *erresistentzien globalizazioa* sustatuz.³⁴ Horren adierazpena Globalizazioaren Aurkako Mugimendua delako izan da, zeinek 1980ko hamarkadatik aurrera maila globalean jardun baitu, manifestazioa, foro sozialak eta bestelako ekimenak antolatuz globalizazio neoliberalaren ondorioak salatzeko.³⁵

v) *Mendebaldeko hegemonia*. Globalizazioan *mendebaldartze*-prozesua ere inposatu da.³⁶ Batez ere, AEBk berebiziko protagonismoa du globalizazioaren alderdi guztietan: ekonomikoan, militarrean, sozio-kulturalean edo ekologikoan (kutsadura gehien sortzen duen herrialdea da).³⁷

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

i) *Aktoreen gaineko eztabaida*. Globalizazio-prozesuekin estatu-aktoreen eta estatuetatik aparteko aktoreen protagonismoari buruzko eztabaida areagotu da. Globalizazioak estatuaren erabakitzeko eta arauak bultzatzeko gaitasuna mugatu du, bestelako aktore transnazionalen eragin politikoa sustatuz.³⁸ Enpresa transnazionalek, gobernuz kanpoko erakundeek, gizarte-mugimendu transnazionalek, nazioarteko mafiak, talde islamiko transnazionalek edo Eliza katolikoak, dudarik gabe, berebiziko protagonismoa hartu dute. Diziplinan, nazioarteko agertokiko aktoreen aniztasuna onartu da, baina Estatuari edo bestelako aktoreei ematen zaien garrantzia aldatu egiten da ikuspegi teorikoaren arabera.³⁹

³⁴ Amin, S. eta Houtart, F., *Globalización de las resistencias: el estado de las luchas 2005*, Bartzelona, Icaria, 2005, 11.-14. or.

³⁵ Globalizazioaren Aurkako Mugimenduaren inguruko informazio gehiagorako Nazioarteko Sozietate Zibilaren kapituluak begiratu.

³⁶ Held eta McGrew *et al.*, *Global...*, *op. cit.*, 430. or.

³⁷ Nye, J.S., «Globalization and American power», Held eta McGrew (ed.), *The Global Transformations...*, *op. cit.*, 112. or.

³⁸ García Segura, *op. cit.*, 325. or.

³⁹ Ugalde, A., «La acción exterior de los Gobiernos No Centrales en la Unión Europea ampliada», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2005*, Leioa, UPV/EHU, 2006, 282.-283. or.

Nazioarteko Harremanetan denbora askoan nagusitu den *paradigma errealistaren* arabera, Estatuak aktore protagonista izaten jarraitzen du; errealistentzat, munduaren itxura Estatuaren arteko gatazka iraunkorra da. 1970eko hamarkadan agertutako *transnazionalismoak* garai horretako interdependentziazko eta estatuaren arteko lankidetzazko giroa islatu du: errealismoak defendatutako estatu-zentrismoa ukatu eta gobernu arteko aktoreak zein gobernuz kanpokoak jorratu ditu. Bestetik, *estrukturalismoak* nazioarteko sistemaren izaera ezberdina azpimarratzen du; hala, erreparatzen diete ezberdintasun hori bultzatzen duten aktoreei (enpresa transnazionalak, kapital transnazionala) zein horren kontra jarduten dutenei (gobernuz kanpoko erakundeak, askapen nazionalerako mugimenduak, gizarte-mugimendu transnazionalak).⁴⁰

Oro har, globalizazioak Estatu ez diren aktore askotarikoei nazioarteko agertoki politikoan parte hartzeko aukera eman die.⁴¹ Baina globalizazio-prozesuak modu ezberdinean gauzatzen dira. Estatuaren rola ez da apaltzen kasu guztietan; era berean, aktore transnazional guztiek ez dute eragin politikoa izateko gaitasun berdina. Globalizazioaren testuinguruan estatu *gutxiren* protagonismoa handitu da, baita aktore transnazional *batzuen* garrantzia ere.⁴² Held-en arabera, globalizazioak Estatu-nazioen amaiera ekarri duela mito bat da. Bestelako aktoreek nazioarte mailan eragina badute ere, sistema horretan estatuak protagonistak dira eta oraindik mundu-ordena estatu botere-suek erabakitzen dute.⁴³

ii) Nazioarteko Ekonomia Politikoaren kritika. 1980ko hamarkadan globalizazioaren alderdi onak azpimarratzen zituzten teoriak hedatu ziren.⁴⁴ XX. mendearen amaieran, Nazio Batuek arazo globalak (genero-diskriminazioa, haurren eskubideak, klima-aldaketa edo elikadura) jorrazteko konfrentzia ugari antolatu zituen, eta «globalizazio zoriontsu»aren diskurtsoa nagusitu zen. Baina, aldi berean, arlo akademikoan globalizazioaren kritikak zentraltasuna hartzen zuen.

Held eta McGrew-ek onartu zuten bezala, globalizazioak «ezinbesteko mito» gisa funtzionatzen du, eta politikariek eta gobernuak erabiltzen dute merkatu global askea beharrezkoa eta saihestezina dela sinetsarazteko.⁴⁵ Horrelako irakurketak Nazioarteko Ekonomia Politikoaren alde kritikoa garatu dira bereziki, gehienetan ikuspegi marxistatik.

⁴⁰ Barbé, E., *Relaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2007, 3. argit. (1. argit., 1995); hemen erabilitako argitaraldia: 2003, 2. argit., 57.-58. or.; Ugalde, *op. cit.*

⁴¹ Arenal, C. del, *Etnocentrismo y teoría de las relaciones internacionales: una visión crítica*, Madril, Tecnos, 2014, 141. or.

⁴² Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 219.-220. or.

⁴³ Held, *Un pacto...*, *op. cit.*, 28.-29. or.

⁴⁴ García Segura, *op. cit.*, 337. or.

⁴⁵ Held eta McGrew, «The great...», *op. cit.*, 5. or.

Nazioarteko Harremanen *teoria kritikoaren* ikuspuntutik, Robert Cox-ek argudiatzen du teoriak garatzeko dagoen ordenatik urrundu behar dela, ordena horren zergatiak ikertzeko eta aldaketa bultzatzeko.⁴⁶ Hala, globalizazioa ikertzean, teorialari kritikoek diskurtso neoliberal hegemonikoa saihesten dute, fenomenoaren benetakojatorria bilatuz. Globalizazioaren kontzeptua interes zehatzekin eratu dela salatzen dute, proiektu global neoliberalala legitimatzeko.

Samir Amin-ek, Alex Callinicos-ek eta ildo bereko teorialariek azaldu dute nola globalizazioaren diskurtso nagusiak ukatu duen prozesu horrek harremana duenik kapitalismoarekin, estatuen arteko interdependentziaren ondorio naturala dela argudiatuz.⁴⁷ Fred Halliday-ren hitzetan, globalizazioari buruzko eztabaidak fenomenoaz zertzeko bi gako-hitz alde batera utzi ditu: kapitalismoa eta inperialismoa.⁴⁸ Horrekin lotuta, Nazioarteko Harremanen *materialismo historikoaren* korrontean *globalizazio kapitalistaren* nondik norakoak aztertu dira, marxismoaren aztergai tradizionalak kontuan hartuz: klase sozialak, estatua eta inperialismoa, besteak beste.⁴⁹

Amin-en arabera, mundu-sistema kapitalistak, berez, ezberdintasuna bultzatzen du, eskualdeen arteko gero eta desoreka nabariagoa; eta globalizazioaren fasean dinamika horiek bere horretan jarraitzen dute.⁵⁰ Era berean, Cox-ek zehazten ditu prozesu horren ondorioak: ezberdintasun sozialaren areagotzea; langileen egoera gero eta eskasagoa, ekoizpenaren globalizazioa eta migrazioak direla eta; naturaren suntsiketa; eta herritarren elite politikoenganako atsekabea.⁵¹

Horrez gainera, Nazioarteko Ekonomia Politikoaren analisisian finantza-merkatuen globalizazioa da ardatza. Horren harira, Susan Strange-k deskribatzen du zer erabaki politiko eta ekonomiko hartu zituzten gobernu batzuek 1980ko eta 1990eko hamarkadetan prozesu hori sustatzeko.⁵² Pentsamendu neoliberalak defendatzen du merkatu globala bere kabuz hedatu dela, baina Strange-k eta beste ekonomialari politiko kritiko batzuek azpimarratzen dute egungo globalizazio ekonomikoaren atzean interes politiko zehatzak egon direla.

⁴⁶ Cox, R., «Globalization, multilateralism, and democracy», 1992, Cox, R. eta Sinclair, T.J., *Approaches...*, *op. cit.*, 525. or.

⁴⁷ Amin, S., «Capitalismo, imperialismo y mundialización», Seoane, J. eta Taddei, E. (ed.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001, 15. or.; Callinicos, A., *Imperialism and Global Political Economy*, Cambridge, Polity Press, 2009, 3. or.

⁴⁸ Halliday, F., «The persistence of imperialism», Rupert, M. eta Smith, H. (ed.), *Historical Materialism and Globalization*, London, Routledge, 2002, 76. or. Inperialismoaren gaineko eztabaidarako, liburu honetan bertan gako-hitz horri dagokion kapitulua begiratu.

⁴⁹ Rupert, M. eta Smith, H. (ed.), *op. cit.*

⁵⁰ Amin, S., *op. cit.*, 16. or.

⁵¹ Cox, «Globalization...», *op. cit.*, 529.-533. or.

⁵² Strange, S., *Casino Capitalism*, Oxford, Blackwell Publishers, 1986; *Dinero loco: el descontrol del sistema financiero global*, Bartzelona, Paidós, 1999.

iii) *Ikuspegi teoriko feminista*. Nazioarteko Harremanen bestelako analisietan bezala, globalizazioaren kasuan teoria feministak ikuspuntu androzentrikoa salatu du. Eta emakumeen errealitateak kontuan hartzen dituzten irakurketak eskaini ditu, generoaren arabera hierarkizatuta dagoen nazioarteko gizartea erakutsiz. Ikerketa horietan, Cynthia Enloe-k aldarrikatzen duen «kuriositate feminista» eta antzeko metodologiak erabiltzen dira,⁵³ galdera hauek eginez: non egon dira emakumeak globalizazioan zehar?, zergatik egon dira hor?, zeintzuk izan dira globalizazioaren eraginak haien bizitzetan?

Globalizazioaren inguruko teoria feministen artean, *erreprodukzio sozialaren ikuspegiak* berebiziko protagonismoa dauka. Horren arabera, gizartearen edo komunitateen antolamenduan tradizionalki baztertu diren faktoreek eragiten dute.⁵⁴ Cox-en edo Strange-ren analisisetan, globalizazioak ekarri dituen ekoizpenaren berregituraketa eta merkatuen hedapena aztertzeko, kontuan hartzekoa da emakumeak lan produktiboan sartu zirenetik gertatu den generoaren berreraikuntza. Izan ere, nazioarteko lan-banaketa sexuala egon da.⁵⁵

Hain zuzen, erreprodukzio sozialak hiru alderdi nagusi ditu: erreprodukzio biologikoa, lan-indarraren erreprodukzioa eta zaintza.⁵⁶ Globalizazio neoliberalaren analisisian aldagai horiek aintzat hartzea ezinbestekoa suertatzen da, ongizatea, hezkuntza, osasuna edo arlo horiekin lotutako politika publikoak jorratzen dituztelako. Ikuspuntu horretatik, autore horiek globalizazioarekin lotutako kontraesan gehiago deskribatzen dituzte: lanaren nazioarteko banaketa sexuala, emakumeen lanaren esplotazioa, zaintzaren krisi globala, zaintza-lanaren globalizazioa, migrazio-fluxuen feminizazioa edo pobrezia-aren feminizazioa.⁵⁷

5. ADIBIDE PRAKTIKOA: EGUNGO KRISI SISTEMIKOAREN ONDORIOAK HEGO EUROPAN

2008an nazioarte mailan hasitako finantza-krisiaren testuinguruan, globalizazioaren alderdi guztiak, azken urteotako eboluzioa (batez ere, finantza-arloan) eta eragiten dituen eztabaida akademiko zein politikoak azaleratzen dira.

⁵³ Enloe, C., *Globalization and Militarism. Feminists Make the Link*, Lanham, Rowman & Littlefield, 2007, 1.-18. or.

⁵⁴ Bakker, I. eta Gill, S., «Global political economy and social reproduction», Bakker, I. eta Gill, S. (ed.), *Power, production and social reproduction*, Hampshire, Palgrave Macmillan, 2003, 3.-4. or.

⁵⁵ Benería, L., *Gender, Development and Globalization. Economics As If People Mattered*, New York, Routledge, 2003, 77.-86. or.

⁵⁶ Bakker eta Gill, *op. cit.*

⁵⁷ Bakker eta Gill, *op. cit.*; Benería, *op. cit.*; Federici, S., *Revolution at Point Zero. Housework, Reproduction and Feminist Struggle*, Oakland, PM Press, 2012 (globalizazioarekin lotutako kapituluak); Villota, P. de (ed.), *Globalización a qué precio: el impacto en las mujeres del norte y del sur*, Barcelona, Icaria, 2001; Ezquerro, S., «La globalización desde abajo: hacia una economía política de la reproducción social», *Economía Crítica y Crítica de la Economía*, 2010-09-12.

Izan ere, 2008an AEBn piztu zen *subprime* hipoteken krisiak nazioarteko finantza-sistemaren kolapsoa ekarri zuen, krisi ekonomiko eta estrukturala eragiteaz batera. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan sustatu zen finantza-merkatuen globalizazioak horrelako nazioarteko krisiak errazten ditu. Merkatuen kontrolrik ezak, espekulazioak eta interdependentziak bat-bateko krisiak eta mundu osorako berehalako hedapena bultzatzen dituzte. Horrez gainera, gertaera horiek zalantzan jartzen dute Estatuaren subiranotasuna, nazioarteko finantza-instituzioen mende ageri baitira; politika neoliberalen porrota islatzen dute; eta globalizazio neoliberalaren ondorio zehatzak menpekoak diren taldeentzat (emakumeak, adibidez) erakusten ditu. Dinamika horiek guztiak Hego Europako egungo egoeran nabaritzen dira.

Herrialde horietan (Grezia, Portugal, Italia eta Espainia) nazioarteko krisiaren ondorioz egoera ekonomiko larriak gertatu dira. Kanpoko instituzioen laguntza eskatu behar izan zuen lehenengoa Grezia izan zen. Han baldintza bereziak zeuden, 2009an jakin zelako gobernu grekoak ezkutatzen ari zirela benetako kontuak. Nazioarteko finantza-merkatuetatik kanpo geratu ziren, eta krisi ekonomiko sakonean sartu. Europar Batasunak (EB) eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2010ean «erreskatea» ematea onartu zuten, eta handik aurrera, mailegua (eta beraren interesak) bueltatzeko, Greziak politika ekonomiko zorrotzak bultzatu behar izan ditu. Halere, *troikak* (Europar Batzordea, Europar Banku Zentrala eta NDF) Greziari ezarritako austeritate-politikek krisi sozioekonomikoa sakondu dute. Eze-gonkortasun ekonomikoak krisi politikoa sortu zuen, eta 2015eko urtarrikoko hauteskundeak (aurreratu egin behar izan ziren) *Syriza* ezker erradikaleko alderdiak irabazi zituen.

Alexis Tsipras-en gobernuak politika horiek baztertu nahi izan ditu, eta negozioazioak egon ziren zorra berregituratzeko. Hain zuzen, hasieran gobernu grekoak ez zuen onartzen *troikaren* legimitatea. Baina EBtik kanpo geratzeko mehatxuaren aurrean, instituzio horiek proposatutako maileguaren baldintzak onartu behar izan zituen. Hala, Greziaren gaitasuna politika ekonomikoak eta sozialak definitzeko —hau da, herrialdearen subiranotasuna— zalantzan geratu zen. Batetik, estatuz gairik aktoreen protagonismoa (EBZ edota EB) erakusten du; bestetik, instituzio horien atzean Alemaniaren pisua nabaritzen da, eta, beraz, Estatu batzuen garrantzia.

Azkenik, globalizazioaren oinarrian nagusitu den doktrina sozioekonomikoak (neoliberalismoa) 1980ko hamarkadatik aurrera ongizate-estatu suntsitzeko politikak bultzatu ditu, zeinek krisiaren ondorioak larriagotu baitituzte herritarrentzat. Grezian edo Espainian, emakumeak eta menpeko beste talde sozialek (migranteak, ikasleak edo, oro har, baztertuta dauden kolektiboak) egoera larrienak pairatzen dituzte: berdintasunerako politika publikoak murriztu dira, baita emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako programak ere; haien artean langabezia handiagoa da, jada prekarizata zegoen kolektiboa zelako; estatuak bermatzen ez duen zaintza emakumeek egiten dute (euren lana bikoiztuz), edo lan-indar migrantea (merkea

dena) kontratatzen da (zaintzaren krisia globalizatuz). Laburbilduz, globalizazioaren egungo testuinguruan, Estatu neoliberalak ezgai agertzen da bere populazioaren ongizatea eta biziraupena bermatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- AMIN, Samir, «Capitalismo, imperialismo y mundialización», SEOANE, José eta TADDEI, Emilio (ed.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001, 15-29 or.
- AMIN, Samir eta HOUTART, François, *Globalización de las resistencias: el estado de las luchas 2005*, Bartzelona, Icaria, 2005.
- ARENAL, Celestino del, «La nueva sociedad mundial y las nuevas realidades internacionales: un reto para la teoría y para la política», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2001*, Leioa, UPV/EHU, 2002, 17-86 or. http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2001/2001_1.pdf.
- , «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las Relaciones Internacionales», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2008*, Leioa, UPV/EHU, 2009, 215-219 or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2008/2008_4.pdf.
- ARENAL, C. del, *Etnocentrismo y teoría de las relaciones internacionales: una visión crítica*, Madril, Tecnos, 2014.
- ARRIGHI, Giovanni, HOPKINS, Terence K. eta WALLERSTEIN, Immanuel, *Antisystemic Movements*, London, Verso, 1989; gaztelaniazko ed: *Movimientos antisistémicos*, Madrid, Akal, 1999.
- BAKKER, Isabella eta GILL, Stephen, «Global political economy and social reproduction», BAKKER, Isabella eta GILL, Stephen (ed.), *Power, production and social reproduction*, Hampshire, Palgrave Macmillan, 2003.
- BARBÉ, Esther, *Relaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2007, 3. ed. (1. ed., 1995); hemen erabilitako edizioa: 2003, 2. ed.
- BECK, Ulrich, *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Bartzelona, Paidós, 1998.
- BENERÍA, Lourdes, *Gender, development and globalization. Economics as if people mattered*, New York, Routledge, 2003.
- CALLINICOS, Alex, *Imperialism and global political economy*, Cambridge, Polity Press, 2009.
- CASTELLS, Manuel, *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 1: La sociedad red*, Madril, Alianza Editorial, 1997.
- , *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2: El poder de la identidad*, Madril, Alianza Editorial, 1998.
- , *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 3: Fin de milenio*, Madril, Alianza Editorial, 1998.
- COX, Robert, «The global political economy and social Choice», 1991, COX, Robert eta SINCLAIR, Timothy J., *Approaches to world order*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996.

- , «Globalization, multilateralism, and democracy», 1992, COX, Robert eta SINCLAIR, Timothy J., *Approaches to world order*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996.
- COX, Robert W. y SINCLAIR, Timothy J., *Approaches to world order*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996.
- ENLOE, Cynthia, *Globalization and militarism. Feminists make the link*, Lanham, Rowman & Littlefield, 2007.
- EZQUERRA, Sandra, «La globalización desde abajo: hacia una economía política de la reproducción social», *Economía Crítica y Crítica de la Economía*, 12/09 /2010, http://economiacritica.net/web/index.php?option=com_content&task=view&id=222&Itemid=38.
- FEDERICI, Silvia, *Revolution at point zero. Housework, reproduction and feminist struggle*, Oakland, PM Press, 2012.
- GARCÍA SEGURA, Caterina, «La globalización en la sociedad internacional contemporánea: dimensiones y problemas desde la perspectiva de las Relaciones Internacionales», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 1998*, Leioa eta Madril, UPV/EHU eta Tecnos, 1999, 321-323 or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/1998/1998_7.pdf.
- GIDDENS, Anthony, *Consecuencias de la modernidad*, Madril, Alianza, 1999; jatorrizko edizioa: *The consequences of modernity: Self and society in the late modern age*, Cambridge, Polity Press, 1990.
- HALLIDAY, Fred, «The persistence of imperialism», RUPERT, Mark eta SMITH, Hazel (ed.), *Historical materialism and globalization*, London, Routledge, 2002.
- HELD, David eta MCGREW, Anthony, GOLDBLATT, David eta PERRATON, Jonathan, *Global transformations. Politics, economics and culture*, Cambridge, Polity Press, 1999.
- HELD, David eta MCGREW, Anthony, «The great globalization debate: an introduction», HELD, David eta MCGREW, Anthony (ed.), *The global transformations reader. An introduction to the globalization debate*, Cambridge, Polity Press, 2. ed., 2003.
- HELD, David, *Un pacto global. La alternativa socialdemócrata al Consenso de Washington*, Madril, Santillana, 2005; jatorrizko edizioa: *Global covenant. The democratic alternative to the Washington Consensus*, Polity Press, 2004.
- HELD, David, *Cosmopolitanism. Ideas and realities*, Cambridge, Polity Press, 2010.
- NYE, Joseph S., «Globalization and American power», HELD eta MCGREW (Ed.), *The global transformations reader. An introduction to the globalization debate*, Cambridge, Polity Press, 2. ed., 2003.
- ROBERTSON, Ronald, *Globalization. Social theory and global culture*, London, Sage, 1992.
- , «Glocalization: time-space and homogeneity-heterogeneity», FEATHERSTONE, Mike, LASH, Scott eta ROBERTSON, Roland (Ed.), *Global Modernities*, London, SAGE, 1995.
- SCHOLTE, Jan Aart, «The globalization of world politics», BAYLISS, John eta SMITH, Steve (Ed.), *The globalization of world politics. An introduction to international relations*, Oxford, Oxford University Press, 2. ed., 2001.
- , *Globalization. A critical introduction*, New York, Palgrave Macmillan, 2005, 2. ed.

- STRANGE, Susan, *Casino Capitalism*, Oxford, Blackwell Publishers, 1986.
- , *Dinero loco: el descontrol del sistema financiero global*, Bartzelona, Paidós, 1999.
- UGALDE, Alexander, «La acción exterior de los Gobiernos No Centrales en la Unión Europea ampliada», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2005*, Leioa, UPV/EHU, 2006, 282-283 or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2005/2005_1.pdf.
- VILLOTA, Paloma de, *Globalización a qué precio: el impacto en las mujeres del norte y del sur*, Bartzelona, Icaria, 2001.

2.

Boterea

MONTSERRAT PINTADO LOBATO

1. DEFINIZIOA

Dudarik gabe, boterea nazioarteko harremanetako eta zientzia politikoko kontzeptu giltzarria da. Hala ere, orain arte ezinezkoa izan da kontzeptuaren definizio bakarra adostea.¹ Boterearen inguruko eztabaidetan, gehienetan Robert Dahl politologo estatubatuarraren definizioa izaten da abiapuntua. Haren aburuz, boterea interakzio-prozesu bat da, non estatu bat beste baten ekintzetan eragina izateko gai baita.² Era berean, lehenago Weber-ek boterea modu erlazional batean definitu zuen, norberaren desira besteen artean gailentzeko aukera gisa, baita erresistentziaren aurka ere, aukera hori zertan oinarrituta dagoen inporta izan barik.³ Hori kontuan izanda, Weber-en boterearen kontzeptuari buruzko hiru ondorio azpimarratu ditzakegu.⁴ Lehen, botereak izaera erlazionala dauka; hau da, ulertezina da lehenengoz harreman sozial bat identifikatzen ez badugu. Bigarren, botereari estuki lotuta dago zer toki duen batek sistema baten barruan; beraz, boterea efektu nahiz gaitasun gisa definitzen du aldi berean. Azkenik, boterea ez da bakarrik norberaren nahiak besteen gainetik betetzea, baizik eta besteen laguntzarekin ere erabiltzea horretarako. Ondorioz, botere-harremanek ez dute zertan hierarkikoak izan.

Hala ere, boterearen ikuspuntu erlazionalak ez du zertan hegemonikoa izan nazioarteko harremanetan. Horren ordean, botere nazionalaren ikuspuntua aurki dezakegu.⁵ Horrek, gehienetan neorealismoari lotuta, baliabide

¹ Waltz, Kenneth. N., «Reflections on Theory of International Politics: A Response to My Critics», Keohane, Robert O. (ed.), *Neorealism and Its Critics*, New York, Columbia University Press, 1986, 333. or.

² Dahl, Robert, «The Concept of Power», *Behavioral Science*, II. bol., 3. zk., 1957, 202.-203. or.

³ Weber, Max, *Wirtschaft und Gesellschaft. Grundriss der Verstehenden Soziologie*, Tübingen, J.C.B. Mohr, 1976, 3. or.

⁴ Berenskoetter, Felix, «Thinking about power», Berenskoetter, Felix eta Williams, M.J. (ed.), *Power in World Politics*, Londres, Routledge, 2007, 3. or.

⁵ Baldwin, David, «Power and International Relations», Carlsnaes, Walter, Risse-Kappen, Thomas eta Simmons, Beth A., *Handbook of International Relations*, Londres, Sage, 2002, 185. or.

material sorta baten emaitzatzat dauka boterea. Nahiz eta hainbat elementu aipatu boterearen definizioan, ikuspuntu horrek gehienetan ezaugarri neurgarriak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta, beraz, neurtezinak direnak (eragina edo identitatea, esaterako) kalkulu horretatik kanpo geratzen dira.

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Filosofu eta politologo klasikoen ikuspuntutik, boterearen grina giza naturaren barneko bulkada baten emaitza zen. Estatuak pertsonaz osaturik daudenez, nazioek boterearekiko harreman berekoia izango dute. Haien ustez, beraz, politika beti botere-lehia bat izango da.⁶ Autore klasikoen iritziz, Lehenengo Mundu Gerra egoera berekoi horren adierazlea izan zen. Askotan, gudu horren errua nazioarteko gizartean nagusi ziren ikuspuntu idealistek leporatu zaie. Kritika horien artean, E.H. Carr ingelesarena nabarmendu zen. Carr-ek nazioarteko harremanetan botereak izan behar zuen garrantzia azpimarratzen zuen. Maquiavelli-ren bideari jarraituz, Carr-ek idealistek go-raipatu zuten politikaren eta etikaren arteko lotura desagiteko bidea zabaldu zuen. Haren iritziz, moralitatea gauzatzeko ezinbestekoa da autoritatea. Beraz, moralitatea boterearen emaitza da.⁷ Horrez gainera, Carr-ek boterearen izaera banaezina nabarmendu zuen, bakarrik ikertzeko zatitu daitekeena. Kasu horretan, boterea hiru mailatan sailka dezakegu: militarra, ekonomikoa eta iritziaren gaineko boterea.⁸

Hala ere, historian zehar botereak definizio anitz eta heterogeneoak izan ditu. Gure analisisirako, boterearen inguruko ikerketa nagusiak hiru multzotan taldekatu ditugu.⁹ Lehenengoa, boterea gatazkak irabazteko gaitasunarekin berdintzen du. Joera horren arabera, boterea elementu materialez osaturik dago. Bigarrena, boterea alternatibak mugatzearekin lotzen du. Ikuspuntu horren azpian galdera hauek identifikatu daitezke: zergatik ez daude aukera batzuk nazioarteko debateetan? Nork dauka gaiak eztabaidatik baztertze gaitasuna? Beste modu batean esanda, boteretsua identifikatzeko bakarrik aztertu behar dugu nork alda ditzakeen nazioarteko erakundeen itzalpean ezarritako joko-arauak. Azkenik, hirugarren dimentsioak boterea normaltasunaren moldaketarekin erlazionatzen du. Lukes-ek¹⁰ azaldu zuen moduan, boterea ez da bakarrik gatazketan agertzen, normaltasun-aroetan ere badabil, adostasunak daudenean isiltasunak sortuz eta normaltasunaren irudia taxutuz.

⁶ Schmidt, Brian C., «Realism and facts of power in international relations», Berenskoetter, Felix eta Williams, M.J. (ed.), *Power... op. cit.*, 48. or.

⁷ Carr, E.H., *La Crisis de los Veinte Años (1919-1939): Una introducción al estudio de las relaciones internacionales*, Madril, Catarata, 2004, 110. or.

⁸ *Ibidem*, 164. or.

⁹ Berenskoetter, Felix, «Thinking about power... op. cit.», 3.-12. or.

¹⁰ Lukes, Steven, *Power: A Radical View*, Hampshire, Palgrave Macmillan, 2005, 27. or.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Lehen aipatu den bezala, botereari buruzko ikuspegiak boterearen izaera erlazionalaren eta izaera nazionalaren artean banatu dira. Hala ere, kontzeptuaren garapena teoria baten baino gehiagoren menpe geratu da gehienbat, bakoitzak dituen agenda teorikoekin. Izan ere, boterea oinarritzko kontzeptua den heinean, haren ikuspuntua beste garapen teorikoak baldintzatuko ditu.

3.1. Errealismoa

Errealismoa, bere jatorri klasikotik gaur egunera, boterearen eskola izan da definizioz. Errealistek, ildo guztietakoek, komunitate politikoen arteko harremanak ulertzeko determinatzaile erabakigarritzat jo dute boterea.¹¹ Nahiz eta askotan desadostasun sakonak izan, botereari ematen dioten garrantzia itxurazko segida bat sortzen du korronte teoriko honetan.¹² John Mearsheimer-ek aitortu zuen bezala, errealistentzat boterearen inguruko kalkulak dira estatuek mundua nola ulertzen duten erakusten duten adierazle nagusiak.¹³ Eskuarki, errealismoak garrantzi txikia ematen die ideiei, eta indar materialen izaera eta antolaketa gizartearen oinarritzko gakotzat jartzen du.¹⁴ Hala ere, errealismoaren eta boterearen arteko harremana aldatuz joan da korrontearen barruko debateen eraginez.¹⁵

3.1.1. *Errealismo klasikoa*

Autore klasikoek boterearen ikuspuntu irekiagoa izan zuten, kontzeptuaren barruan elementu materialak eta ez-materialak sarturik. Aitzindari errealisten-

¹¹ Schmidt, Brian C., «Realism and the facets... *op. cit.*», 43. or.

¹² Buzan, Barry, «The Timeless Wisdom of Realism?», Booth, Ken, Smith; Steve eta Zalewski, Marisya (ed.), *International Theory: Positivism and Beyond*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996, 51. or.

¹³ Mearsheimer, John J., *The Tragedy of Great Power Politics*, New York, W.W. Norton, 2001, 12. or.

¹⁴ Wendt, Alexander, *Social Theory of International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1999, 23.-26. or.

¹⁵ Paradigma errealistaren barruan korronte teoriko ugari batzen dira. Hala ere, errealismoaren hipotesi teoriko nagusietan jarraitutasun teoriko bat nabari daiteke, batez ere estatu-zentrismoan eta nazioarteko politika botere lehiatzat deskribatzen denean. Zentzu horretan, errealismoen sailkapen ugari proposa daitezke. Haien artean hedatuena: (1) errealismo klasiko; (2) errealismo estrukturala/neorealismoa; (3) errealismo defentsiboa; (4) errealismo erasotzailea eta (5) errealismo neoklasikoa. Moure, Leire, *El programa de investigación realista ante los nuevos retos internacionales del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009; Sodupe, Kepa, *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.

tzat, nazioarteko harremanetan botereak ikergai garrantzitsuena izan behar du. Lehenengo Mundu Gerran frogatu zen bezala, politika (bai barne-politika bai nazioartekoa) botere-lehia bat da, non estatuek, eurak osatzen dituzten pertsonen menpe, boterea lortzeko bideak bilatzen baitituzte. Giza izatea da, orduan, botere-lehia horren eragilea. Ildo horretan, E.H. Carr-en ustez, boterearen azken-azken arma gerra da, nahia gailentzeko tresna erabakigarriena.¹⁶

Korrante horren barruan, Hans Morgenthau-ren boterearen definizioa lehenengo atalean adierazitako debatearen erdian kokatzen da. Alde batetik, autoreak boterearen izaera erlazonala aitortzen du; alegia, gizaki batek beste gizakien adimen eta ekintzetan eragin nahia. Haren aburuz, botere politikoa bi alderdiren arteko harreman psikologikoa da: bata boterea gauzatzen duena eta bestea botere jasaten duena.¹⁷ Hala ere, botere politikoa ez da biolentziaren parekoa, izan ere, ez da berdin indarra erabiltzearen mehatxua egitea eta hura erabiltzea. Horregatik, Morgenthau-ren ustez, indarkeriaren erabilera botere politikoa abdikazioa erakusten du.¹⁸

Hala ere, Morgenthau-k boterearen alderdi nazionalen defendatzailea da, kontzeptua elementu material eta ez-materialen jabetzarekin berdinduz. Beraren iritziz, bi elementu motak osatzen dute estatu-boterea: egonkorrek eta aldaketa etengabekoek. Lehenengoak, egonkorrak, elementu kuantitatiboz osaturik daude; esaterako, baliabide naturalez, industria-ahalmenaz, biztanleriaz, geografiaz edo prestakuntza militarraz. Bigarrenak elementu kualitatiboek osatzen dituzte, hala nola izaera eta moral nazionalak, gobernuaren kalitateak edo nazioaren diplomaziaren kalitateak.¹⁹

Morgenthau-ren definizio dualista autore klasikoen irekitasun teorikoaren adierazlea da. Izan ere, errealismo estrukturalaren agerpenarekin korrontearen nukleo gogorra zientifikotasunaren bila jardun zen, eta, boterearen kasuan, kontzeptua zenbakarri bihurtzeko joera zabaldu zen.

3.1.2. *Errealismo estrukturala eta neorrealismoa*

Errealismoaren barneko saltorik garrantzitsuenarekin batera,²⁰ boterearen kontzeptuaren inguruko eboluzioa bizi izan zen. Estrukturalismoren itzal-

¹⁶ Carr, E.H., *La crisis de los veinte años... op. cit.*, 164. or.

¹⁷ Morgenthau, Hans J., *Politics among Nations: The Struggle for Power and Peace*, New York, Alfred A. Knopf, 1948, 26.-27. or.

¹⁸ *Ibidem*, 27. or.

¹⁹ Schmidt, Brian C., «Realism and the facets... op. cit.», 49. or.

²⁰ 1950eko hamarkadan, errealismoaren metodologiak lehenengo kritikak jasaten hasi zen, behavioristen eta tradizionalisten arteko debatearen ondorioz. Gainera, 1970ean bizi izandako blokeen arteko distentsioa zela eta, errealismo klasikoak bere pentsamoldea kritikatzan zuten beste joera teoriko batzuei aurre egin behar izan zien. Bidegurutze horretan egonda, eta Gerra Hotza berriro gogortu zela aprobetxatuz, Kenneth N. Waltz-en *Theory of International Politics* liburuak hasiera eman zion errealismoaren aro berriari: errealismo estrukturala edo neorrealismoa.

pean, giza naturaren argudioa desagertu zen. Nahiz eta nazioarteko gizarteak botere-lehia bat izaten jarraitu, errealista estrukturalentzat horren zergatia sistemaren izaera anarkikoan datza. Sistemari bizi diren unitateen bizirau-pena bermatzen duen autoritaterik ez dagoenez, autolaguntzaren printzipioa da nagusi.

Errealismo berri horretan, boterearen eta indar militarren arteko erlazioa estuagoa da, boterea neurtzea helburua izanda. Horren ondorioz, nazioarteko harremanetan bi argudio hartu dira egiazat. Lehena, boterearen adierazle zuzenena gerrak irabazteko gaitasuna dela, estatuen botere-erlazioak segurtasun-posizio bihurturik. Ondorioz, boterea izatea segurtasunaren sinonimo bilakatu da, baita alderantziz ere. Botere-analisia, beraz, segurtasunaren analisia ere bada. Bigarrena, boterearen banaketa zero baturako jokoa da; hau da, baten irabaziak bestearentzat galerak izango dira. Beraz, segurtasunaren dilema boterearen dilema ere izaten da, estatu baten inbertsio militarren hazkundeak besteek mehatxutzat hartuko baitute.²¹

Teoria errealista estrukturalak bi axioma horien garrantzia indartu zuten. Beraz, haien ikuspuntutik, estatu batek bere segurtasuna eta bizirau-pena ziurtatzeko har dezakeen neurririk garrantzitsuen botere kopuru nahikoa metatzea da. Horren ondorioz, botere eta segurtasun kontzeptuen arteko lotura estutu egin zen, nahiz eta korrontearen barnean desadostasunak egon bien artean zeinek zuen garrantzi handiena erabakitzeko orduan. Beste modu batean esanda, estatuen lehentasunetan zeinek zuen garrantzi handiena erabakitzeak zatitu egin zuen neorrealismoa. Alde batetik, errealista defentsiboak kokatu ziren, estatuek segurtasuna bilatzen zutela argudiatzen zutenak. Haien aburuz, boterea segurtasuna lortzeko bitartekaria baino ez da.²² Hala ere, botereak analisisian duen garrantzia izugarrikoa da oraindik. Izan ere, nazioartean izaten diren ekintzak eta ondorioak azaltzeko funtsezko aldagaia da.

Beste aldean errealista erasotzaileak kokatzen dira, boterea estatuen lehentasunezko helburua dela uste dutenak. Ikuspuntu horretatik, nazioarteko sistemaren izaera anarkikoa botere gehiago lortzeko aukerak eskaintzen ditu. Horregatik, estatu guztien azkeneko helburua hegemonia lortzea da.²³

Desadostasunak izanda ere, errealista estruktural guztiek boterearen ikuspegi materialista erakusten dute. Mearsheimer-entzat, esaterako, estatu baten esku dauden baliabide edo aktibo materialak baino ez dira boterea. Ondorioz, armada indartsuena duen estatua izango da boteretsuena.²⁴

²¹ Berenskoetter, Felix, «Thinking about power... *op. cit.*», 6. or.

²² Waltz, Kenneth N., *Teoría de la Política Internacional*, Buenos Aires, GEL, 1979, 186. or.

²³ Mearsheimer, John, *The Tragedy of...* *op. cit.*, 21. or. Hala ere, autore honen ustez, ezinezkoa da sistema osoaren gaineko hegemonia ezartzea, faktore geografikoengatik. Horregatik, estatuak eskualdeko hegemonia lortzen saiatuko dira.

²⁴ *Ibidem*, 56. or.

Hala ere, baliabide materialen sortatzat hartzen badugu boterea, eta hura neurtu nahi badugu, bi arazoren aurrean aurki gaitzke. Lehenengo eta behin, ez dugu ahaztu behar baliabide horiek izaera ezberdinekoak direla; esaterako, barne-produktu gordina, populazioa, inbertsio militarra edo geografia. Nahiz eta alderdi horiek zenbakarriak izan (edo zenbakarriak bihurtzeko aukera izan), izaera ezberdineko gauzak batzen ari gara (dirua eta pertsonak, adibidez). Bigarren, boterearen ikuspuntu honek baliabideek beti nahi izandako emaitzak lortzen dituztela uste du, baina askotan ez da horrela gertatzen, eta gauzatu gabeko boterearen paradoxa sortzen. Horrek adierazten du, David Baldwin-en ustez, gerrak galtzea ez dela ahultasunaren adierazlea, baizik eta botere-konbertsioaren porrotarena.²⁵

3.1.3. *Errealismo neoklasikoa*

Errealismo estrukturalaren materialismoari aurre egin nahian, ideia klasikoak berpiztu dira XX. mendeko azken urteotan. Nahiz eta errealismo estrukturalak sistemari ematen zion garrantzia mantendu, neoklasikoen ustez batasuna eta estatuaren mailako faktoreak alde batera uzteak neorrealismoa teoria erredukzionista bihurtzen du.²⁶ Kenneth Waltz autore neorrealistaren esanetan, estatuaren portaera azaltzeko faktoreak hiru mailatan antola daitezke. Lehenengo mailan, sistemaren ikuspuntuetatik dauden faktoreak kokatu zituen, sistemaren izaerak nazioarteko gertakarien sortzailatzat jotz. Bigarren mailan, berriz, estatu-faktoreak aurki ditzakegu, nazio barneko prozesuak nazioarteko politika ulertzeko aldagai erabakigarritzat hartuz. Azkenik, gizabanakoaren maila, indibiduoaren erabakiak faktorerik garrantzitsuentzat hartzen dituena.²⁷ Sailkapen honetan, errealismo estrukturalak lehenengo mailako faktoreak hartzen ditu kontuan; autore neoklasikoek, aldiz, bigarren eta hirugarren mailakoak. Ikuspuntu hori boterearen inguruko eztabaidara egokituz, neoklasikoek botere nazionalaren garrantzia gutxituko dute, erabakiak hartzen dutenen botere-pertzepzioak sartuz, esaterako.²⁸ Boterea, orduan, ez da bakarrik baliabide materialez osaturiko kontzeptua izango; estatuaren eta norbanakoaren mailako hainbat barne-faktore ere sartu beharko direlako.²⁹

²⁵ Baldwin, David A., «Power Analysis and World Politics: New Trends versus Old Tendencies», *World Politics*, XXXI. bol., 2. zk., 1979, 164. or.

²⁶ Schmidt, Brian C., «Realism and facets of power... *op. cit.*», 46. or.

²⁷ Waltz, Kenneth N., *Man, the State and War: A Theoretical Analysis*, New York, Columbia University Press, 1959, 12. or.

²⁸ Schmidt, Brian C., «Realism and the facets... *op. cit.*», 58. or.

²⁹ Errealista neoklasikoek azpimarratzen dituzten faktoreen artean hurrengoak aurki ditzakegu: nazioaren barne-egiturak, alderdi politikoak, estatuaren erazpen-gaitasuna, estatuaren eta gizartearen arteko harremanak edo agintarien izaera eta emozioak.

3.2. Liberalak/Neoliberalak

Boterearen kontzeptuak errealismoarekin izan ohi duen lotura estua de-
nez, askotan beste teoriarari batzuek egindako ekarpenak ilundu egin dira.
Neoliberalismoaren kasuan, errealismoak mantratzat hartzen duen botere-
banaketari garrantzia kendu ohi zaio. Neoliberalen iritziz, kontzeptu horrek
ezin ditu nazioarteko gertakariak guztiz azaldu, ideiak eta erakundeak ekin-
tza horien alde garrantzitsuak ere azaltzen dituztelako.³⁰ Era berean, neolibe-
ralismoak errealismoaren boterearen definizioari bi kritika nagusi egiten diz-
kio. Lehenik, boterea osatzen duten baliabideak etengabe aldatzen ari direla,
batzuen garrantzia handituz, besteena txikituz. Gainera, aro berezi batzuetan
baliabide berriak sortzen dira, hala nola petrolio edo arma nuklearrak. Bi-
garren, neurgarriak diren botere-baliabideek ez dute automatikoki nahi izan-
dako emaitzarik ekartzen.³¹ Ondorioz, Keohane-k eta Nye-k, boterea ba-
liabideen bidez neurtu beharrean, boterea eraginaren emaitza gisa neurtzea
proposatzen dute.³²

Boterea baliabide sortatzat hartzen duen ikuspuntuaren ordez, boterearen
definizio erlazionalak bultzatu nahi ditu neoliberalismoak. Esaterako, Nye-k
botere erlazionalaren hiru alderdi azpimarratzen ditu: aldaketaren buruzagia
izatea, agendak kontrolatzea eta lehentasunak ezartzea.³³ Boterea, autore ho-
rren ustez, nahi dituzun emaitzak lortzeko eragina izatea da, eta, behar izate-
kotan, besteen jokabidea aldatzeko gaitasuna ere izatea, emaitza berak lor-
tzeko.³⁴ Estatu hegemonikoari boterearen kontzeptua aplikatzean, Robert
Keohane-k ez du ahazten baliabide materialen garrantzia, baina elementu
ukiezinak ere batzen ditu ekuazio horretan. Izan ere, Keohane-ren iritzian,
hegemonak badauka estatuen arteko harremanak gobernatzan dituzten ezin-
besteko legeak mantentzeko behar den boterea, baita borondatea ere.³⁵

Ikuspuntu horretatik abiatuta, Joseph Nye-k nazioarteko eguneroko fo-
roetan famatua egin den kontzeptua sortu zuen: botere leuna.³⁶ Autore ho-
rren ustez, botere materiala pizgarri eta mehatxuetan oinarritzen da. Hala
ere, ez da boterea gauzatzeko modu bakarra. Estatu batek bere nahiak bete
ditzake besteek beraren balioei, kulturari eta adibideari jarraitu nahi diete-

³⁰ Wendt, Alexander, *Social Theory... op. cit.*, 109. or.

³¹ Keohane, Robert O. eta Nye, Joseph S., *Power and Interdependence: World Politics in Transition*, Boston, Brown and Company, 1977, 224.-225. or.

³² *Ibidem*, 18. or.

³³ Nye, Joseph S., *The Future of Power*, New York, Public Affairs, 2011, 10.-11. or.

³⁴ Nye, Joseph S., *La paradoja del poder norteamericano*, Madril, Taurus, 2003, 4. or.

³⁵ Keohane, Robert O., *After Hegemony: Cooperation and Discard in the World Political Economy*, Princeton, Princeton University Press, 1984, 35. or.

³⁶ Ingelesezko izendapenik abiatuta (*soft power*) ez dago oraindik euskarazko esapide fin-
katurik. Beraz, liburu honetan «botere leuna» erabiliko dugu, baina ez du zertan terminologia
bakarra izan. Modu berean, *smart power* kontzeptua «zentzuzko botere» moduan itzultzea era-
baki da, nahiz eta ez izan itzulpen bakarra.

lako. Botere leuna besteen lehentasunak eraldatzen dituen agenda politikoa antolatzeke ahalmenaren menpe dago.³⁷ Izan ere, estatu batek, bere boterea bestek legitimotzat jotzen badute, askoz ere erresistentzia gutxiago aurkituko du bere nahiak gauzatzeko. Kontzeptu horren barruan baliabide ez-materialak sartzen dira, hala nola erakundeak, ideiak, balioak, kultura edo legimititatea.³⁸ Hala ere, botere gogorraren eta leunaren artean ez dago harreman perfekturik. Askotan, botere leunak baliabide materialak baldintzatzen ditu.³⁹ Nahiz eta gaur egun Estatu Batuak nazio boteretsuena izan, bai botere gogorrean bai leunean, haren politikak legitimotzat hartzen ez direnean (Irakeko gerran, esaterako) botere-baliabide material gehiago erabili behar izaten ditu eta emaitzek, halakorik lortzekotan, kostu handiagoak dakartzate. Beraz, botere leuna eta gogorra modu eraginkorrean konbinatzea funtsezkoa da, eta ahalmen horri zentzuzko boterea deitzen dio Nye-k.⁴⁰

3.3. Konstruktibismoa eta teoria kritikoak

Nahiz eta boterearen inguruko garapen teoriko gehienak errealismoaren barnean gertatu, konstruktibismoaren eta teoria kritikoen barruan sar ditza-kegun autoreak izan dira azken urteotan ekarpenik berritzaileenak aurkeztu dituztenak. Alde batetik, 1980ko hamarkadan Susan Strange-k garatutako botere estrukturalaren kontzeptua hegemoniaren inguruko teorien aurkako kritika latza bihurtu zen. Bestetik, eta Strange-ren bideari jarraituz, XXI. mendearen hasieran Michael Barnett eta Raymond Duvall boterearen taxonomiaren inguruko ikerketa eragin handikoa ere aipatzekoa da.⁴¹

Egia esanda, Susan Strange-ren lana nazioarteko harremanen eta nazioarteko ekonomia politikoaren artean koka daitekeen ikerketa da. Hala ere, nazioarteko harremanetan eragin handiko abiapuntua izan ohi da, batez ere teoria kritiko eta konstruktibistentzat. Gerra Hotzaren azken urteen itzalpean, Strange-ren lanak Estatu Batuen hegemoniaren botere-oinarriari arreta jarri badie ere, boterearen ikuspegi zabalagoa eskaintzeko ezinbesteko irakurketa da. Autoreak, Estatu Batuek oraindik sistemaren gaineko posizio hegemonikoa mantentzen zuela argudiatzeaz gainera, herrialde horren boterearen erro sendoak erakutsi zituen botere estrukturalaren analisisa eginez. Haren aburuz,

³⁷ Nye, Joseph S., *La paradoja...* *op. cit.*, 30. or.

³⁸ Nye, Joseph S., *The Future of Power...* *op. cit.*, 21. or. Horien artean, Nye-k hiru jotzen ditu oinarritzotzat: kultura, balio politikoak eta nazioarteko politikak. *Ibidem*, 84. or.

³⁹ *Ibidem*, 21. or.

⁴⁰ *Ibidem*, 215. or.

⁴¹ *Vid.* Strange, Susan, «The Persistent Myth of Lost Hegemony», *International Organization*, XLI. bol., 4. zk., 1987, 551.-574. or.; Barnett, Michael N., Duvall, Raymond, «Power and International Politics», *International Organization*, LI. bol., 1. zk., 2005, 39.-75. or.; Barnett, Michael N., Duvall, Raymond (ed.), *Power in Global Governance*, Cambridge, Cambridge University Press, 2005.

botere estrukturala ekonomia politiko globalaren egiturak aukeratu eta eraldatzeko boterea da, eta beste estatuek, erakunde politikoek, enpresek eta pertsonak jarduteko erabiltzen dituzten egiturak ezartzen ditu.⁴² Hala ere, botere estrukturala ez da egitura bakar batean aurkitzen, gutxienez lau aurki daitezke: (1) segurtasun-egitura, (2) ekoizpen-egitura, (3) finantza eta dibisen egitura eta (4) ezagutza-egitura.⁴³

Beste aurrerapauso bat eman nahian, Barnett eta Duvall-ek boterearen inguruko analisia egin zuten, Israeleko kasuari aplikatuta. Haien ustez, boterea zera da: aktoreek euren zirkunstantziak eta patua zehazteko ahalmenak eraldatzen dituzten efektuen ekoizpena da.⁴⁴ Hain kontzeptu konplexua izanda, autoreek bi dimentsio analitikotan banatu zuten. Alde batetik, boterea zer-nolako harreman sozialen bidez gauzatzen den (interakzio- edo konstituzio-harremanak). Beste alde batetik, nolakoa den harreman hori, zuzena edo zeharkakoa.⁴⁵ Dimentsioak zehaztuta, boterea lau motatan antolatzen dute.

Barnett eta Duvall-en botereen taxonomia⁴⁶

		Harremanen izaera	
		<i>Zuzena</i>	<i>Zeharkakoa</i>
Zeren bitartez	<i>Interakzioa</i>	Derrigorrezkoa	Instituzionala
	<i>Konstituzioa</i>	Estrukturala	Produktiboa

- Derrigorrezko boterea. Definizio klasiko gehienekin (Max Weber, Robert Dahl...) loturik dago. Kontzeptu hau ez dago baliabide materialetara mugatuta, elementu arauemaile eta sinbolikoak ere harren parte dira. Kontzeptu honek aktore bati besteen baldintzak edo ekintzak aldatzeko gaitasuna ematen dioten harremanak lehenesten ditu.⁴⁷
- Botere instituzionala. A eta B aktoreen artean lan egiten duten erakunde formal eta informalei egiten die erreferentzia. Izan ere, erakunde horiek arau eta prozedura jakin batzuen barruan kokatzen dituzte estatuen arteko harremanak. Nahiz eta askotan estatu batek

⁴² Strange, Susan, «The Persistent Myth... *op. cit.*», 565. or.

⁴³ *Ibidem*, 565. or.

⁴⁴ Barnett, Michael N., Duvall, Raymond, «Power and International Politics... *op. cit.*», 39. or.

⁴⁵ *Ibidem*, 39. or.

⁴⁶ *Ibidem*, 48. or.

⁴⁷ *Ibidem*, 49. or.

erakunde batean kontrol dezente izan, ez da haren kontrolpean dagoen zerbait, ezta haren baliabide sortan dagoen beste elementu bat, baizik eta boterea hedatzeko modu bat.⁴⁸

- Botere estrukturala. Aurreko orrialdeetan azaldutako Susan Strangere botere estrukturalak eta joera marxistek proposatu dituzten berrikuntza teorikoen arteko erdiko puntu batean kokatzen da Barnett eta Duvall-ek proposatzen duten botere estrukturala. Kasu honetan, egitura berak eta haren barneko elementuen arteko harremanei egiten zaio erreferentzia, *statu quo* horrek harremanak definitzen eta eraldatzen izaten duen gaitasunari esaten zaio botere estrukturala. Horrek, aktoreen baldintzak eta etorkizuna bi modutan eraldatzen ditu. Alde batetik, egituraren barruko posizio bakoitzak ahalmen eta abantaila desberdinak esleituta ditu; bestetik, egituraren barneko toki horiek eraldatzen ditu aktore bakoitzaren bai interesak bai ikuskera pertsonala.⁴⁹
- Botere produktiboa. Esanahi-sistemek eta giza indarren sareek gauzatzen duten boterea. Botere estrukturalak egiturari erreferentzia egiten badio, produktiboa ezagutza-sistemek eta jardunbide diskurtsiboek osatzen duten sistema da. Horren barruan, kategoría edo etiketa jakin batzuek (europarra, garapena, mendebaldea edo zibilizatua, esaterako) esanahi alderdikoi eta baztertzailak izan ohi dituzte.⁵⁰

Barnett eta Duvall-ek proposatzen duten taxonomiari begira, gero eta argiago ikus dezakegu boterea ez dela aurpegi bakarreko kontzeptua, baizik eta alde anitzeko prisma. Hala ere, boterearekiko dugun harremana nazioarteko harremanen barnean eginiko edozein ikerketa edo analisi baldintzatuko du.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDA

Azken urteotan nazioarteko gertakizunen itzalpean, kontzeptu honen inguruko ikerketa berriek nazioarteko gizartean gertatzen ari diren bi motatako botere-aldaketei jarri diete arreta: botere-difusioari eta botere-trantsizioari.⁵¹

Lehenengoa, botere-difusioa berritzaileena da; izan ere, Westfaliako bakearen ostein, estatuen garrantzia gora joan da beti nazioarteko sisteman.⁵² Globalizazioa eta Internet direla bide, komunitate, estatu, nazioarteko era-

⁴⁸ *Ibidem*, 51. or.

⁴⁹ Barnett, Michael N., Duvall, Raymond, «Power and International Politics... *op. cit.*», 52.-53. or.

⁵⁰ *Ibidem*, 55. or.

⁵¹ Nye, Joseph S., *The Future of Power... op. cit.*, 113. or.

⁵² Mathews, Jessica, «Power Shift», *Foreign Affairs*, 76. bol, 1. zk., 1997. 50.-66. or.

kunde, GKE eta enpresa transnazionalen arteko sareak ugaritu egin dira. Prozesu horrek botereguneak (ekonomiko, politiko eta sozialak, besteak beste) «deslurraldetu eta birlurraldetu» egin ditu aldi berean, eta, hala, botere-difusioa sortu.

Botere-difusioeko prozesuan parte hartzen duten subjektuen artean, ikerketa eta kezka gehien sortu dituztenak talde terrorista transnazionalak izan dira. Lehen bakarrik estatuen esku zeuden teknologia suntsitzaileak gaur egun indibiduo eta talde horien esku daude. Gainera, Internetek eskaintzen duen bozgorailuari esker, gero eta zailagoa izaten ari da talde horien sareen aztarnari jarraitzea.⁵³

Argi dago erronka honetarako betaurreko teoriko berriak behar direla, batez ere errealismoak —joera teoriko hegemonikoa nazioarteko harremanetan— jorratzen dituen hipotesi teorikoak ez direlako betetzen testuinguru berri honetan. Boterearen mugen desagerpenak eta nazional-nazioarteko nahiz ekonomiko-politiko mugen difusioak ontologia berrien bila bultzatu behar ditu ikertzaileak.⁵⁴

Beste alde batetik, botere-trantsizioen gertakizuna askoz ere ohikoagoa izan da munduaren historian. Azken hamarkadan, argi geratu da nazioarteko botere-poloak Ozeano Atlantikotik Pazifikora aldatu direla eta botere berriak sortzen ari direla orain arte bigarren mailako ekonomiak ziren estatuen artean. BRICS etiketapean batzen diren estatuak horren adibide argia dira. Nahiz eta Estatu Batuek gaur egungo nazioarteko hierarkian duten gailentasuna oraindik ukazina izan, haien nagusitasuna ahulduz doa termino erlatiboetan, eta, batzuen iritziz, bi edo lau hamarkadaren artean desagertu egingo da guztiz.⁵⁵ Izan ere, mendebaldetik Asiarantz gertatzen ari den botere-trantsizioa gero eta nabarmenagoa da nazioarteko harremanetako adituen ustean,⁵⁶ eta Estatu Batuak eta Txina izaten ari dira trantsizio horren protagonistak.

Hala ere, gero eta beldur handiagoa pizten ari den gaia da, gerra saihestezinaren erretorika gero eta ugariagoa den heinean. Alabaina, botere-trantsizioek ez dute zertan gatazkatsuak izan. Izan ere, botere berrien gorakadak ez dira guztiak berdinak; horren arabera, Barry Buzan-ek hiru gorakada desberdintzen ditu: gorakada gerrazalea (errealismoak proposatzen duen irudiari ja-

⁵³ Interneten eta talde terroristen arteko loturari buruz, ikus NYE, Joseph S., *The Future of Power... op. cit.*, 113.-151. or.

⁵⁴ Sanahuja, José Antonio, «¿Un Mundo Unipolar, Multipolar, o Apolar? La Naturaleza y la Distribución del Poder en la Sociedad Internacional Contemporánea», Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbide eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007, http://www.ehu.eus/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2007/2007_10.pdf [2015eko apirila], 319. or.

⁵⁵ Tammen, Ronald L., Kugler, Jacek, «Power Transition and China-US Conflicts», *Chinese Journal of International Politics*, 1. bol., 2006, 36. or.

⁵⁶ Cox, Michael, «Power Shifts, Economic Change and the Decline of the West?», *International Relations*, XXVI. bol., 4. zk., 2012, 369. or.

rraituz), gorakada baketsu hotza/negatiboa (gudarik gabe baina nazioarteko ingurune mehatxatzailearekin) eta gorakada baketsu epela/positiboa (giro laungarri eta kooperatiboa).⁵⁷

Determinismoak alde batera utzita, argi dago trantsizioaren izaera Estatu Batuen eta Txinaren esku egongo dela. Goraldian dagoen estatua nazioarteko gizartearen arauak betetzea lortzen badute, hari ere onurak eskainiz, gerra pizteko probabilitatea izugarri gutxituko da.⁵⁸ Izan ere, kasu hauetan egoera arriskutsuena aurkakoa da: lehiakideak eta liderrak nazioarteko arauen inguruan desadostasun sakonak dituztenean eta bion boterea berdintsua denean.⁵⁹

Historian zehar izandako trantsizioei erreparatzen badiegu, Yi Feng-k lau eredu desberdin ditu: ko-dominazioa (Portugalen eta Espainiaren artean), disuasioa (Espainiaren eta Herbehereen artean), konfrontazioa (Herbehereen eta Erresuma Batuaren artean) eta kooperazioa (Erresuma Batuaren eta Estatu Batuen artean).⁶⁰ Zein izango den indarrean egongo dena, kasu honetan, botere parekotasunak eta lehentasunen konbergentziak erabakiko dute.⁶¹ Hala ere, faktore ez-materialak, batez ere identitatea, kon-tuan izan beharreko eragileak izan daitezke, bi estatuen arteko polarizazioa saihesteko batik bat.⁶²

5. ADIBIDE PRAKTIKOA

Nazioarteko Harremanetan oraindik gai polemikotzat jotzen da Gerra Hotza. Bigarren Mundu Gerraren ostean gertatu zen nazioarteko gizartearen zatiketa bukatu arren, gaur egun aro horretako etiketa eta nozio teoriko asko erabiltzen ditugu oraindik. Horregatik, nazioarteko mailan boterearen rola ulertzeko garai interesgarria da. Boterearen ikuspuntuak azaltzeko Berenskoetter-ek⁶³ proposatzen duen eskema erabiltzen badugu, Gerra Hotzaren ikuspuntu zabal eta plurala izango dugu.

Lehenengo eta behin boterearen lehenengo dimentsioari erreparatu beharko genioke. Gogora dezagun eskola errealistei lotuta dagoela, boterea gatazkak eta gerrak irabazteko gaitasuntzat hartzen baitu. Gerra Hotzaren ga-

⁵⁷ Buzan, Barry eta Cox, Michael, «China and the US: Comparable Cases of ‘Peaceful Rise’?», *The Chinese Journal of International Politics*, VI. bol., 2013, 114. or.

⁵⁸ Tammen, Ronald L., Kugler, Jacek et al., *Power Transitions: Strategies for the 21st Century*, New York, Chantam House, 2000, 26.-27. or.

⁵⁹ Yi, Feng, «Global Power Transitions and their Implications for the 21st Century», *Pacific Focus*, XXVIII. bol., 2. zk., 2013, 172. or.

⁶⁰ *Ibidem*, 172. or.

⁶¹ *Ibidem*, 187. or.

⁶² Pintado, Montserrat, «Identidad y Alteridad en un mundo en transformación: Las relaciones entre China y Estados Unidos», *Relaciones Internacionales*, 29. zk.

⁶³ Berenskoetter, Felix, «Thinking about power... *op. cit.*», 3.-12. or.

raian ikuspuntu horren bultzatzaileek nagusiki baliabide militarrean kokatzen zuten gatazkaren gakoak.⁶⁴ Hau da, aldagai garrantzitsuena arma-lasterketan abantaila zuena identifikatzea zen. Alderdi horien barruan, arma nuklearren rola azpimarratu egin zen gehienbat.

Hala ere, lehenengo dimentsio honetan faktore ekonomikoak ere sartu egiten ziren. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren bukaeran Estatu Batuen ekonomia sendotu egin zen, baina Sobietar Batasunarena izugarritzko krisiak jo zuen. Nolanahi ere, Estatu Batuek 1945ean botere-abantaila nabarmena zuten bai alderdi militarretan (bonba nuklearrak gerran frogatu eta gero) bai ekonomikoetan (Europako aliatuen ekonomiak suspertzeko makroplan bat abian jarri zuen: Marshall Plana).

Bigarren dimentsioari erreparatzen badiogu, gaur egungo ordena hegemonikoaren oinarriak Gerra Hotzaren urteetan errotzen direla konturatuko gara. Estatu Batuen boterea 1945. urtearen ostean nazioarteko gizarte eredu alternatiboak baztertzen saiatu zen. Gerra Hotzaren lehenengo urteetan erakunde eta politika liberalen itzalpean hazitako mendebaldeko ordena proposatzen dute Estatu Batuek.⁶⁵ Eredu horrek nazio barneko eta kanpoko politiken arteko mugak lausotzen zituen, eta sistema politiko transnazional eta transgubernamental zabal bat proposatzen, Estatu Batuak erdigunean izanik. Nazioarteko gizartearen alderdi guztiak kontrolpean zituen sare instituzionala eratu zuten: Nazio Batuen Erakundea alderdi politikoetarako, NATO aliantza militarren bermatzailetzat, Bretton Woods-eko erakundeak (Nazioarteko Diru Funtsa eta Munduko Bankua, besteak beste) ekonomia neoliberala zabaltzeko eta kontrolatzeko, eta abar. Modu horretan, nazioarteko gizartearen arauak ezarri zituzten, eta haien legitimitatea lortu zuten, batez ere Mendebaldeko estatuei esker. Sare horrek gaur egungo sistema hegemonikoaren oinarriak osatzen ditu, eta beste estatuen botere-baliabideak (materialak eta ez-materialak) mugatzen.⁶⁶

Azkenik, boterearen hirugarren dimentsioari erreparatuz, Estatu Batuak Gerra Hotzaren garaileak dira zalantzarik gabe. Haren botereak ebazten du zer dagoen normaltasunaren burbuilaren barruan eta zer kanpoan. Horrela, adibidez, globalizazioaren aurkako ereduak zentro horretatik kanpo geratzen dira, eta erradikaltzat jotzen askotan. Estatu Batuen esku dago mundu globalaren eredu tipoa marraztea, eta horrela sistema osoa eredu horretatik kanpo edo bazterretan geratzen diren diskurtsoen aurka doa.

Hala ere, Gerra Hotzaren garaian eredu tipu hori oraindik osatzeko zegoenez, Estatu Batuek sobietar mehatxuaren erretorika erabili zuten beren inguruan sistemako aktore nagusiak batzeko. Gatazkaren garaian bizi zen segurtasun ontologikoa tresna mobilizatzaile indartsua zen gobernurako, baita

⁶⁴ *Ibidem*, 6. or.

⁶⁵ Ikenberry, G. John, *After Victory: Institutions, Strategic Restraint, and the Rebuilding of Order after Major Wars*, Princeton, Princeton University Press, 2001, 202.-203. or.

⁶⁶ *Ibidem*, 36. or.

gizarterako ere. Beste ereduia (Sobietar Batasuna) desagertu eta gero, Estatu Batuen ereduia normaltzat eta bakartzat hartu izan dugu, haren bazterretan bizi diren periferiei erreparatu gabe.

BIBLIOGRAFIA

- BALDWIN, David A., «Power Analysis and World Politics: New Trends versus Old Tendencies», *World Politics*, XXXI. bol., 2. zk., 1979, 161.-194. or.
- BALDWIN, David, «Power and International Relations», CARLSNAES, Walter, RISSE-KAPPEN, Thomas eta SIMMONS, Beth A., *Handbook of International Relations*, Londres, Sage, 2002, 177.-191. or.
- BARNETT, Michael N., DUVALL, Raymond, «Power and International Politics», *International Organization*, LI. bol, 1. zk., 2005, 39.-75. or.
- BARNETT, Michael N., DUVALL, Raymond (ed.), *Power in Global Governance*, Cambridge, Cambridge University Press, 2005.
- BERENSKOETTER, Felix, «Thinking about power», BERENSKOETTER, Felix eta WILLIAMS, M.J. (ed.), *Power in World Politics*, Londres, Routledge, 2007, 1.-22. or.
- BUZAN, Barry, «The Timeless Wisdom of Realism?», BOOTH, Ken, SMITH, Steve eta ZALEWSKI, Marisya (ed.) *International Theory: Positivism and Beyond*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996, 47.-65. or.
- BUZAN, Barry eta COX, Michael, «China and the US: Comparable Cases of “Peaceful Rise”?», *The Chinese Journal of International Politics*, VI. bol., 2013, 109.-132. or.
- CARR, E.H., *La Crisis de los Veinte Años (1919-1939): Una introducción al estudio de las relaciones internacionales*, Madril, Catarata, 2004.
- COX, Michael, «Power Shifts, Economic Change and the Decline of the West?», *International Relations*, XXVI. bol., 4. zk., 2012, 369.-388. or.
- DAHL, Robert, «The Concept of Power», *Behavioral Science*, II. bol., 3. zk., 1957, 201.-215. or.
- IKENBERRY, G. John, *After Victory: Institutions, Strategic Restraint, and the Rebuilding of Order after Major Wars*, Princeton, Princeton University Press, 2001.
- KEOHANE, Robert O. eta NYE, Joseph S., *Power and Interdependence: World Politics in Transition*, Boston, Brown and Company, 1977.
- KEOHANE, Robert O., *After Hegemony: Cooperation and Discard in the World Political Economy*, Princeton, Princeton University Press, 1984.
- LUKES, Steven, *Power: A Radical View*, Hampshire, Palgrave Macmillan, 2005.
- MATHEWS, Jessica, «Power Shift», *Foreign Affairs*, LXXVI. bol., 1. zk., 1997, 50.-66. or.
- MEARSHEIMER, John J., *The Tragedy of Great Power Politics*, New York, W.W. Norton, 2001.
- MORGENTHAU, Hans J., *Politics among Nations: The Struggle for Power and Peace*, New York, Alfred A. Knopf, 1948
- MOURE, Leire, *El programa de investigación realista ante los nuevos retos internacionales del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.
- NYE, Joseph S., *La paradoja del poder norteamericano*, Madril, Taurus, 2003.

- NYE, Joseph S., *The Future of Power*, New York, Public Affairs, 2011.
- PINTADO, Montserrat, «Identidad y alteridad en un mundo en transformación: Las relaciones entre China y Estados Unidos», *Relaciones Internacionales*, 29. zk.
- SANAHUJA, José Antonio, «¿Un mundo unipolar, multipolar, o apolar? La naturaleza y la distribución del poder en la sociedad internacional contemporánea», Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007, http://www.ehu.eus/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2007/2007_10.pdf [2015eko apirila].
- SCHMIDT, Brian C., «Realism and facets of power in international relations», BERENSKOETTER, Felix eta WILLIAMS, M.J. (ed.), *Power in World Politics*, Londres, Routledge, 2007, 43.-63. or.
- SODUPE, Kepa, *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.
- STRANGE, Susan, «The Persistent Myth of Lost Hegemony», *International Organization*, XLI. bol., 4. zk., 1987, 551.-574. or.
- TAMMEN, Ronald L., KUGLER, Jacek, et al., *Power Transitions: Strategies for the 21st Century*, New York, Chantam House, 2000.
- TAMMEN, Ronald L., KUGLER, Jacek, «Power Transition and China-US Conflicts», *Chinese Journal of International Politics*, I. bol., 2006, 35.-55. or.
- WALTZ, Kenneth N., *Man, the State and War: A Theoretical Analysis*, New York, Columbia University Press, 1959.
- WALTZ, Kenneth N., *Teoría de la Política Internacional*, Buenos Aires, GEL, 1979.
- WALTZ, Kenneth N., «Reflections on Theory of International Politics: A Response to My Critics», KEOHANE, Robert O. (ed.), *Neorealism and Its Critics*, New York, Columbia University Press, 1986, 322.-354. or.
- WEBER, Max, *Wirtschaft und Gesellschaft. Grundriss der Verstehenden Soziologie*, Tübingen, J.C.B. Mohr, 1976.
- WENDT, Alexander, *Social Theory of International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1999.
- YI, Feng, «Global Power Transitions and their Implications for the 21st Century», *Pacific Focus*, XXVIII. bol., 2. zk., 2013, 170.-189. or.

3.

Hegemonia

MONTSERRAT PINTADO LOBATO

1. DEFINIZIOA

Etimologikoki, *hegemonia* hitzak jatorri greziarra dauka, eta «buruzagitzaz» adierazteko erabiltzen zen. Izan ere, greziar idazle klasikoen idazkietatik aurrera garatu izan da termino hau, haiek izan baitziren definizio klasikoaren egileak. Gaur egun, laburki esanda, Nazioarteko Harremanen arloan *hegemonia* terminoa erabiltzen da estatu lider batek estatu talde baten barruan dauzkan harremanak adierazteko. Beraz, hegemoniak erabateko ordena eta talde-antolamendua iradokitzen ditu. Hegemoniak ez dauka berezko izaerarik, estatu-sistema baten barruan agertzen da.¹ Zehazki, botere-baliabide multzo zabal baten jabetzan oinarritzen da, baina baliabide horiek ez dute zertan materialak izan. Hala ere, nolabaiteko eztabaida dago Nazioarteko Harremanetan botere-baliabide horiek zein diren zehaztu nahian, horrek baldintzatzen baitu hegemonia nola definitzen dugun. Izan ere, gure jakintzagaietan oraindik zabalik dirau boterearen inguruko eztabaida sakonak.² Beraz, hegemonia, botereak nazioarteko sisteman duen banaketaren isla den heinean, gai polemikoa izan ohi da.

Gaur egungo beharrak asetzen dituen definizio bat eskaini nahian, esango genuke hegemonikoa ezaugarri hauek dauzkan estatu bat dela. Lehenengo, sisteman dauden estatuak baino askoz indartsuagoa da bai ekonomikoki bai militarri. Bigarren, haren botere nagusitasunaren jakitun da, eta nagusitasun hori nazioarteko ingurunea bere interesen arabera moldatzeko prest dago. Azkenik, nazioarteko erakundeen sorreran eta mantentze-lanetan jarrera aktiboa izan ohi du, askotan beste estatu batzuei akordio onuragarriak eskainiz.³

¹ Hala ere, estatuak ez dira nazioarteko gizartean parte hartzen duten aktore bakarrak; nazioarteko erakundeak, multinazionalak, GGKEak edo talde terroristak ere badira, besteak beste.

² Eztabaida honetan sakondu nahi izanez gero, liburu honetan boterearen inguruko kapituluaren kontzeptu honi buruzko azalpen zehatzagoak eskaintzen dira.

³ Lobell, Steven E., Press-Barnathan, Galia, eta Williams, Kristen P., «The leader can't lead when followers don't follow. The limitations of hegemony», Williams, Kristen P., Lobell, Steven E. eta Jesse, Neal G., *Beyond Great Powers and Hegemons*, Stanford, Stanford University Press, 2012, 7. or.

Hala ere, komenigarria da zehaztea polo nagusi bakarra duten sistemek ez dutela zertan hegemonikoak izan. Egia da sistema hegemoniko guztiek polo bakarrekoak izan behar dutela, baina *hegemonia* hitzak gehiago adierazi nahi du. Politikoki, ekonomikoki eta militarki gailentzen den estatuak eraginaren erabilera oinarritutako egitura soziala behar du.⁴ Zehazki, sistema polobakarrak boterearen banaketari egiten dio erreferentzia bakarrik; hegemonia, berriz, estatuen arteko harreman estuagoa behar du.⁵ Beste era batean esateko, Rousseau-k indarra eta nagusitasuna ezberdintzen zituen bezala ezberdintzen dira polobakartasuna eta hegemonia.⁶ Beraz, hegemoniaren gakoak da estatuak nazioarteko gizartean zer eragin duen.

Dena den, argi izan behar dugu *hegemonia* hitza ez dela modu absolutu batean ulertu behar. Munduko historian inoiz ez du estatu bakar batek mundua bere esku izan; beraz, hegemoniak beti izaera erlatiboa du.⁷

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Hasieran aipatu dugun bezala, jatorri greziarra du hegemoniak, eta Antzinateko filosofo greziarretan aurki daitezke kontzeptu horri buruzko lehenengo ideia politikoak. Zalantzarik gabe, Tuzidides-en *Peloponesoko gerraren historia* liburua arlo horretako garrantzitsuenak da, Atenasen eta Espartaren arteko gerra hegemonikoaren azalpen sakona eskaintzen baita bertan. Gaur egun arte, lan horren eragina izugarria izan da hegemoniaren inguruko ikerketa teorikoetan, batez ere Tuzididesen tesiaren inguruan eraiki direnetan. Ideia nagusi horren arabera, trantsizio hegemonikoa eta nazioarteko sisteman gertatzen diren aldaketa sakonenak gerra hegemoniko baten emaitza dira.⁸ Gerra horiek pizten dira, hain zuzen, potentzia berri batek izugarrizko boterea eskuratu eta estatu hegemonikoak bere lidergoa arriskuan ikusten duenean.⁹

⁴ Wilkinson, David, «Unipolarity Without Hegemony», *International Studies Review*, I. bol., 2. zk., 1999, 142.-143. or.

⁵ Lobell, Steven E., Press-Barnathan, Galia. eta Williams, Kristen P., «The leader can't lead... *op. cit.*», 7. or.

⁶ J.J. Rousseauren hitzetan: «Beti nagusi izaten jarraiki bada, den indartsuena ere ez da sekula aski indartsua, non ez duen bere indarra eskubide bihurtarazten, eta, halaber, obediencia aginbide. Hortik dator indartsuenaren eskubidea; ironiaz harturiko eskubidea iduriz, eta egiazki printzipioz finkatuta». Rousseau, Jean Jacques, *Gizarte-hitzarmena*, Bilbo, Pentsamenduaren Klasikoak, 1993, 36. or.

⁷ Gilpin, Robert, *War and Change in World Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1981, 15. or.

⁸ Gilpin, Robert, «The theory of hegemonic war», *The Journal of Interdisciplinary History*, 18. bol., 4. zk., 1988, 592. or.

⁹ Tuzidides, *Peloponesoko gerraren historia I*, Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo, 2005, 55. or.

Hala ere, Nazioarteko Harremanak jakintzagai gisa agertu zirenetik hegemoniaren inguruko lanak erabat baztertuak izan dira, batez ere Europaren kasuan Britainiar Inperioa sortu arte, orduan bipolaritatea edo multipolaritatea nagusitu zirelako. Nazioarteko gizarte europarrean polobakartasunik ezak izugarritzko bultzada eman zien orekaren inguruko tesi eta lanei hainbat alderdi teorikotatik.¹⁰ Esan bezala, britainiarren lidergora arte, eta batez ere Bigarren Mundu Gerraren ostean Amerikako Estatu Batuen nagusitasuna nabarmendu zenean, ikertzaile askoren artean hegemoniaren inguruko ikerketen grina piztu zen.

Gai honi buruzko garapen teorikoen artean bi joera nagusi nabarmendu ditzakegu. Lehenengoa, Tuzidides-ek hasitako bidea jorratzen duena eta trantsizio hegemonikoak eta hegemonia bera botere materialaren ikuspuntu bakarretik aztertzen dituen. Joera horretan, teoriarari errealistak ditugu gehienbat, hala nola Gilpin-en, Organski-ren edo Modelski-ren eragin handiko lanak,¹¹ baita teoriarari liberalen lan gehienak ere.¹² Beste alde batek, bigarren joera bat nabarmendu dezakegu, elementu ez-materialak azpimarratzen dituen, non jatorri teoriko ezberdinetako lanak batzen baitira: konstruktibismoa, eskola ingelesa eta marxismoa, besteak beste. Nahiz eta horien artean desberdintasun oso sakonak egon, boterearen beste alderdi batzuk hartzen dituzte kontuan beren teoriak garatzean, hala nola, eragina, intersubjektibitatea, legitimitatea edo hegemoniaren alde kulturalak, besteak beste.

Hala ere, bai korrante materialistenak bai faktore sozialak azpimarratzen dituztenak, esplizitu edo inplizituki, potentzia hegemonikoen agerpena azaltzeko gerra hegemoniko baten ostean nazioarteko sisteman gertatzen diren transformazio geopolitiko eta ekonomikoetan oinarritzen dituzte bere teoriak.¹³

¹⁰ Ikusi, esaterako, Bull, Hedley, *La sociedad anárquica: un estudio sobre el orden en la política mundial*, Madril, Catarata, 2005; Little, Richard, *The Balance of Power in International Relations: Metaphors, Myths and Models*, Cambridge, Cambridge University Press, 2007; Waltz, Kenneth N., *Teoría de la Política Internacional*, Buenos Aires, GEL, 1979.

¹¹ Gilpin, Robert, *War and Change... op. cit.*; Gilpin, Robert, «The theory of... op. cit.»; Organski, A.F.K., *World Politics*, New York, Alfred A. Knopf, 1965; Modelski, George, *Long Cycles in World Politics*, London, Macmillan Press, 1987.

¹² Nahiz eta zenbait egile liberalen garapen teorikoek gizarte-baliabide batzuk nabarmendu (adibidez, Joseph Nye-ren botere leuna edo Ikenberry-ren hegemoniaren sozializazioa eta legitimitatearen alderdi batzuk), hegemoniaren teoria espezifikokoak urri dituzte, eta gehienak premisa errealistetatik abiatuak. Wendt, Alexander, *Social Theory of International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1999, 2.-3. or. Ikusi, esaterako, Nye, Joseph S., *Soft Power: The Means to Success on World Politics*, New York, Public Affairs, 2004; Ikenberry, G. John, *After Victory: Institutions, Strategic Restrain, and the Rebuilding of Order after Major Wars*, Princeton, Princeton University Press, 2001.

¹³ Saull, Richard, «Rethinking Hegemony: Uneven Development, Historical Blocs, and the World Economic Crisis», *International Studies Quarterly*, LVI. bol., 2012, 327. or.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Hegemoniaren definizioaren inguruan dagoen desadostasuna dela eta, korronte teoriko bakoitzak kontzeptu horren azalpen bereizgarri bat garatu izan du.¹⁴ Hegemonia ikusteko modua, kasu guztietan, erabiltzen den ildo edo ikuspegi teorikoen isla da; beraz, kontzeptu hau jakintzagaia ulertzeko baliabide ezin hobea ere bada.

3.1. Hegemonia errealisten ikuspuntutik: Tuzidides-en oinordekoak

Lehen aipatu den bezala, errealistek boterearen alde materialak bakarrik hartzen dituzte kontuan, eta hori hegemoniaren inguruan garatutako teorie-tan islatzen da. Esan dezakegu errealismoan bi marko teoriko nagusitu direla hegemoniaren inguruan hitz egitean:¹⁵ Gilpin-en Hegemoniaren egonkortasunaren teoria (*Hegemonic Stability Theory*) eta Organski-ren Botere-trantsizioaren teoria (*Power Transition Theory*); lehenengoak estatu liderraren gainbeherari erreparatzen dio, eta bigarrenak suspertzen ari den herrialdeari.

3.1.1. Hegemoniaren egonkortasunaren teoria

Gilpin-en lan klasikoa erreferentzia bilakatu da hegemoniaren inguruko eztabaidetan. Tuzidides-en bidea jorratuz, historia ziklo hegemonikoen segida baten tankeran aurkezten du, eta estatu liderraren ordezkapena potentzien arteko gerra hegemoniko baten emaitza dela defendatzen du. Haren ustez, hegemonak hazkunde izugarria izaten du gerraren ostean, zeren abantaila ekonomiko eta teknologikoei esker lortzen dituen soberakin ekonomiko gehienak garapen militarra sustatzeko erabiltzen baititu. Hiru faktore horiekin (botere ekonomiko, teknologiko eta militarra) jada sistemaren estatu boteretsu gisa finkatzen da, eta nazioarteko ordena ekonomiko eta politiko berri bat ezartzen du, bere boterea berma dezan. Gilpinen iritziz, nazioarteko sistema egonkorra izateko, lidergoa gauzatzen duen hegemon baten beharra du, erakundeak eta arauak ezartzen dituen eta araudi horretatik ondorioztatzen diren legeak betearazten dituena.¹⁶

¹⁴ Nazioarteko Harremanetako korronte teoriko nagusiek garatu dituzten hegemoniari buruzko teoriaren laburpen sakona eskaintzen dute Leire Mourek eta Kepa Sodupek. SODUPE, Kepa eta MOURE, Leire, «Visiones sobre la hegemonía en el orden internacional actual», *Inguruak. Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política. Monográfico especial: Sociedad e innovación en el siglo XXI*, 2010eko otsaila, 82.-92. or.

¹⁵ Nahiz eta korronte teoriko bakarra izan, errealismoaren barruan askotariko ikerketa-programak garatu dira. MOURE, L., *El programa de investigación realista ante los nuevos retos internacionales del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.

¹⁶ Gilpin, Robert, «The Theory of... *op. cit.*», 592. or.

Hala ere, ordena jakin hori ezartzeak kostuak dakartza, eta une batean soberakin ekonomikoak ez dira nahikoak izango ordena hori mantentzeko, bai barneko bai kanpoko ingurunean izandako aldaketen ondorioz.¹⁷ Ahuldura hori ikusita, beste estatu batek haren lidergoari aurre egingo dio, eta gerra hegemoniko batek erabakiko du zer estatuk kontrolatuko duen sistema osoa.

Alabaina, Gilpin baino lehen Charles Kindleberger ekonomialari estatubatuarrek jada hegemoniaren efektu egonkortzaileei buruz hitz egin zuen. Haren ustez, 1929ko krisi ekonomikoren zergatia Estatu Batuen lidergo eza izan zen, hegemon berriak ez baitzituen konplitu haren bost eginkizun ekonomikoa nagusiak.¹⁸

3.1.2. Botere-trantsizioaren teoria

Beste alde batetik, Organski-k hegemonari aurre egiten dion estatuaren hazkundera jartzen dio arreta. Ikuspuntu horrek¹⁹ eragin handia izan zuen, zeren botere-banaketaren aldaketak sistemako ezegonkortasunak nabarmenarazi baitzituen. Zehazki, Organski-k garatutako bi ideia nagusi funtsezko bilakatu dira hurrengo teorietan. Lehenengoaren arabera, esan bezala, botere militarren banaketan gertatzen diren aldaketek, industrializazioaren eta hazkunde ekonomikoaren tasa ezberdinek eraginda, nazioarteko sistema egoera ezegonkor batera bultzatzen dute. Bigarren ideiak, ondorioz, botere militarren kontzentrazio hegemonikoaren onurak azpimarratzen ditu, efektu egonkortzaileak dituelako nazioarteko sisteman.²⁰

Esan dezakegu Organski-ren teoriak botere berrien gorakadaren efektuak azaldu nahi dituela, baina legetzat hartzen du hazten ari den estatuak asmo errebisionistak izango dituela. Izan ere, beraren lanen hipotesi nagusiari jarraituz, sisteman nagusitzen den estatuak ez ditu inola ere partekatu nahi izango nazioarteko ordenatik lortzen dituen abantailak, eta hazten ari den estatuak abantaila horiek bereganatzeko aurre egingo dio. Beraz, potentzia berriak hegemonaren boterearen % 80 lortzen duenean,²¹ sistema kontrolatzeko gerra hasiko du,²² bere aldeko ordena ezarri nahian.

¹⁷ *Ibidem*, 116. or.

¹⁸ Eginkizun horiek: merkaturia erlatiboki zabalik mantentzea arazoak dituzten ondasunentzat, epe luzeko maileguak eskaintzea, kanbio-tasako sistema egonkorra egituratzea, munduko politika makroekonomikoak koordinatzea, eta krisi ekonomikoetan likidezia sustatzea maileguen bidez. Kindleberger, Charles P., *La crisis económica 1929-1939*, Madril, Crítica, 1985, 340. or.

¹⁹ Organski, A.F.K., *World Politics... op. cit.*, Organski, A.F.K. eta Kugler, J., *The War Ledger*, Chicago, University of Chicago Press, 1980.

²⁰ Levy, Jack S., «Long Cycles, Hegemonic Transitions, and the Long Peace», Kegley, Charles W., *The Long Postwar Peace: Contending Explanations and Projections*, New York, Harper Collins, 1991, 151. or.

²¹ Organski, A.F.K. eta Kugler, J., *The War... op. cit.*, 19.-20. or.

²² *Ibidem*, 364.-367. or.

3.2. Hegemonia liberalen ikuspuntutik: ekonomia eta erakundeak

Orokorki, liberalek ez diote hegemoniaren sorrerari arreta jarri, baizik eta hegemoniaren alderdi praktikoei. Nahiz eta korronte teoriko honen barnean teoriarari guztiek gaur egungo hegemoniaren izaera liberala azpimarratu, eginkizun horretan bi alderdi nagusi desberdin ditzakegu. Alde bateatik, Robert Keohane-ren obra eragin handikoa izan zen; nazioarteko ordenak eta erakundeak hegemonia desagertu eta gero nola bizirik dirauten azaltzen zuen.²³ Haren ostean, asko saiatu dira hari horretatik jarraitzen, baina oinordekorik garrantzitsuena G. John Ikenberry izan da, batez ere Gerra Hotza amaitzean Estatu Batuek ezarritako ordena hegemonikoari buruz egindako analisiagatik.²⁴

3.2.1. Erregimen hegemonikoaren biziraupena

Nagusiki, Keohane-ren iritiz, hegemonia lau baliabideren kontrolean oinarritzen da: lehengaiak, kapitala, merkatuak eta lehiatzeko abantailak balioko handiko ondasunen produkzioan.²⁵ Haren teorian ekonomiaren rola zentrala da, batez ere nazioarteko erregimenen arloan. Hauexek dira, hain zuzen ere, nazioarteko sistemaren botere-egitura eta haren barnean lortzen diren hizarmen ekonomiko eta politikoen arteko bitarteko faktoreak.²⁶ Erregimenen eraikuntzan, garrantzia ez dago estatu hegemonikoan, baizik eta nazioarteko ingurunean nagusitzen den interdependentzia ekonomikoan, erregimenak eta legeak ezartzeko behar den interes partekatuak fenomeno horretatik sortzen baitira.²⁷ Horren ondorioz, Keohaneren aburuz, kooperazioa lortzeko ez da hegemoniarik behar; beraz, hegemonia amaituz gero, ezarritako nazioarteko erregimenek ez dute zertan desagertu.²⁸

Alabaina, nazioarteko erregimen ekonomikoek bai izan dezakete eragin zuzena hegemonaren gainbeheran. Haien barnean gertatzen diren prozesu ekonomikoek estatu indartsu berriak sortzen dituzte, euren normak eta lehen-

²³ Keohane, Robert O., *After Hegemony: Cooperation and Discard in the World Political Economy*, Princeton, Princeton University, 1984.

²⁴ Ikenberry, G. John, *After Victory... op. cit.*

²⁵ Keohane, Robert O., *After Hegemony... op. cit.*, 32. or.

²⁶ Keohane, Robert O. eta Nye, Joseph S., *Power and Interdependence. World Politics in Transition*, Boston, Brown & Company, 1977, 21. or.

²⁷ Mitrany, David, *The Functional Theory of Politics*, Londres, St. Martin's Press, 1975.

²⁸ Zehazki, hori *After Hegemony* liburuaren tesi nagusia da, non autoreak 1970etik aurrerako erregimenak aztertzen dituen. Hala ere, tesi horretara heltzeko, Keohanek Estatu Batuen hegemoniaren amaieran sinesten du: «Since the late 1960s there have been signs of decline in the extent and efficacy of efforts to cooperate in the world political economy. As American power eroded, so did international regimes», Keohane, Robert O., *After Hegemony... op. cit.*, 9. or.

tasunak batzen dituzten erregimenak sustatzeko asmoa izaten dutenak, hegemonak ezarritako erregimenak moldeatuz edo suntsituz.²⁹

3.2.2. *Gerra Hotzaren osteko egitura hegemonikoa*

Berrikiago, eta Gerra Hotzaren ondorioen itzalpean, Ikenberry-k gaur egungo sistema hegemoniko estatubatuarrak nazioartean ezarri dituen erakundeen sailkapen xehea egin du. Haren iritziz, Estatu Batuek Gerra Hotzaren ostean ezarritako ordena iraunkorrak izaera konstituzionala dauka, eta nazioarteko erakundeetan oinarrituta dago.³⁰

Izaera konstituzionalaren gakoa haren antolatze printzipioan dago, hala nola legezkotasunean. Printzipio hori gauzatzeko, Estatu Batuek oztopatu zuten beren boterea erakunde lotesleen bidez moderatzeko eta ordena modu aldebakarrean aldatzeko aukera.³¹ Horren ondorioz, ordena hori itsaskorrek diren erakundeetan oinarritzen da, beren bizitza eta logika propioak dituztelako eta, aldi berean, estatuen politikak mugatzen dituztelako.³²

3.3. **Hegemonia kulturala: Marx, Gramsci eta haren oinordekoak**

Alderdi materialenak alde batean utzita, marxistek zabalduriko teoria hegemonikoek oraindik ere alderdi teorikoaren bazter batean dira, batez ere nazioarteko politika praktikoan. Hala ere, proposamen nahiko berritzaileak egin dituzte gai honetan, batez ere Antonio Gramsci-ren ildoari jarraitzen dioten autoreek. Horiek hegemoniaren alderdi kulturalak azpimarratzen dituzte, Gramsci-k egin zuen bezala, hegemonia lidergo-sistema jakin batean nola oinarritzen zen azaldu zuenean.³³ Ildo horretatik, Robert Cox-ek hegemoniaren ezaugarri nagusiak identifikatu zituen,³⁴ hala nola hegemoniek

²⁹ Keohane, Robert O. eta Nye, Joseph S., *Power and Interdependence... op. cit.*, 45. or.

³⁰ Ikenberry, G. John, *After victory... op. cit.*, 3-4. or.

³¹ *Ibidem*, 24 eta 30-31. or.

³² Erakunde itsaskorrek Ikenberry-k garatutako kontzeptua da. Haren ustez, erakunde buzurko teoriak bi alde desberdinetatik garatu dira: erakundeak ez-itsaskorrek direla defendatzen duen ikuspuntua (neoliberalak, erakundeak kooperazioa zihurtatzeko bidetzat jotzen dituenak) eta konstruktibista (erakundeak identitateen emaitza bezala ikusten dituztenak). Ikenberry-k hirugarren bide bat jorratzen du, erakunde itsaskorra. Honen arabera, erakundeak ez dira bakarrik botere banaketaren emaitzak, banaketa hori aldatzeko ahalmena ere badute. Beraz, aldi berean emaitza eta eragileak. *Ibidem*, 16 eta 17. or.

³³ Diez, Thomas, Bode, Ingvild, Fernandes da Costa, Aleksandra, *Key Concepts in International Relations*, Londres, Sage Publications, 2011, 85. or.

³⁴ Konkretuki, Cox eta haren jarraitzaileak autoritate hegemonikoak hurrengo zutabetan oinarritzen dela adierazi zuten: botere ekonomiko eta militarra, ideologia legitimizatzailearen erakunde bilduma bat, ideologia hori globalki transmititzeko eta sozializatzeko erabiltzen dena. Hopf, Ted, «Common-sense Constructivism and Hegemony in World Politics», *International Organization*, 67. bol., 2. zk., 2013, 317.or.

ezartzen duten ordenak beste estatuentzat ere onuragarria izan behar duela eta nola sistema hegemonikoak mundu-mailako ekoizpen-eredu batean oinarrituta egon behar duen eta gizarte- eta kultura-antolamendu jakin baten zabalpena ahalbidetu.³⁵ Hegemonia neogramscitarrean, beraz, estatuaren papera askoz ere lainotsuagoa da, eta estatu-gizarte jakin baten binomioan funtsatzen den nazioarteko lidergotzat hartzen da, eta menderakuntza horren erreprodukzioa beste estatu-gizarteen parte-hartzearen bidez lortzen da.³⁶

Hala ere, aurrekoa ez da teoria marxisten barnean hegemoniari buruz agertu den ikuspegi bakarra. Beste batzuek hierarkia estatozentrikotzat hartzen dute hegemonia,³⁷ edo uste dute esanahi multzo bat batzen duen diskurtso bat dela, hain zuzen jardunbide jakin batzuk sustatzearen ondorioz ordena bat xedatzen duten esanahien biltzailea.³⁸

3.4. Identitatea eta legitimitatea. Konstruktibisten hegemonia

Nahiz eta marxistek eta neogramscitarrek alderdi ez-materialak hegemonian duten garrantzia azpimarratu, konstruktibistak izan dira giza baliabideek nazioarteko sisteman duten zentraltasuna aldarrikatu dutenak. Haietako batzuek ere Tuzidides-en obrara jo dute, bertan ospeak eta identitateak duten garrantzia azpimarratzeko.³⁹

Haien ustez, nazioarteko egitura politikoa materiala nahiz soziala da. Sistema polobakarretan tesi hori indartu egiten da. Izan ere, sistema horietan hegemonaren boterea materialki mugatzeko aukerak hain gutxi dira, ezen giza faktoreak baitira egituraren osagarririk garrantzitsuenak.⁴⁰ Zehazki, teoria konstruktibistek bi kontzeptu jorratu dituzte nagusiki: identitatea (batez ere segurtasunari buruzko teoriari lotuta) eta legitimitatea (hegemoniaren eta Estatu Batuen politiken testuinguruan).

Legitimitatearen inguruan, konstruktibistek uste dute botere politikoa gizarte-truke eta elkarren artean osatutako sareetan txertatuta dagoela. Ondo-

³⁵ Cox, Robert W., «Gramsci, Hegemony and International Relations: An Essay in Method», *Millennium*, 12. bol., 2. zk., 1983, 171.or.

³⁶ Saull, Richard, *Rethinking Hegemony... op. cit.*, 324. or.

³⁷ Arrighi, Giovanni, *The Long Twentieth Century: Money, Power, and the Origins of our Times*, Londres, Verso, 1994, 28. or.

³⁸ Laclau, Ernesto eta Mouffe, Chantal, *Hegemony and Socialist Strategy: Towards a Radical Democratic Politics*, Londres, Verso, 1985, 138.-139. or.

³⁹ Lebow, esaterako, adierazten du Esparta bere prestigioa eta identitatea babesteko joan zela gerrara, eta ez segurtasunarekin loturiko arrazoientatik. Ikusi, adibidez, Lebow, Richard N., *The Tragic Vision of Politics: Ethics, Interests, and Orders*, Cambridge, Cambridge University Press, 2003, 65.-114. or.

⁴⁰ Finnemore, Martha, «Legitimacy, Hypocrisy, and the Social Structure of Unipolarity. Why being a Unipole isn't All is Cracked Up to Be», *World Politics*, LXI. bol., 1. zk., 2009, 58.-59. or.

rioz, botere politiko egonkorra funtsean beti legitimitatean oinarritzen da, eta erakundeek eginkizun erabakigarria izaten dute botere horri eustean.⁴¹ Legitimitatearen rol erabakigarria egitura polobakarraren eraikuntzatik agertzen da. Izan ere, hegemonak lidergora heltzen denetik bere boterea legitimatzea eta hedatzea du helburu nagusi.⁴² Arlo honetan, legitimitatea kontzeptu sozial hutsa da, kutsu materialik gabea, gizarteak aktore baten identitate, interes, praktika edo erakundeei eransten dien ezaugarri bat delako.⁴³ Beraz, nolakotasun desiragarria da legitimitatea hegemonarentzat, batez ere beraren boterea berresten duelako hiru modutan. Lehenengo, beste aktoreen laguntza aktiboa dauka, beren baliabideak eskaintzen baitizkiote. Bigarren, beste aktoreak hark ezarritako legeen arabera jardungo duela ziurtatzen dio. Azkenik, oposizio-tasa baxuek hegemonia mantentzearen kostuak txikituko dituzte.⁴⁴

3.5. Eskola Ingelesa: nazioarteko gizartea eta hegemonia

Azken urteotan, Eskola Ingelesak bultzada handia eman die hegemoniari buruzko teoriari. Nahiz eta jatorriz botereen orekari arreta jarri dion⁴⁵ eta urte askoan errealismoaren barruko teoriatzat joa izan den,⁴⁶ belaunaldi berriak hegemoniaren inguruko proposamen berritzaile eta interesgarriak ekarri dituzte. Nobedaderik nabarmenena trantsizio hegemonikoetarako proposatzen duten bide baketsua da.⁴⁷ Gatazkak, beraz, ez du zertan saihestezina izan.

Autore garaikideen artean, Ian Clark-ek bere ekarpenetan beste aktoreek hegemonian duten papera azpimarratzen du. Ondorioz, polobakarraren legitimitatea beste aktoreen pertzepzioan oinarritzen da, haiek uste dutelako haren posizio nagusia bidezkoa dela.⁴⁸ Legitimazio hegemonikoaren teoriaren ara-

⁴¹ Reus-Smit, Christian, *American Power and World Order*, Cambridge, Polity, 2004, 41. or.

⁴² Finnemore, Martha, «Legitimacy... *op. cit.*», 60. or.

⁴³ Reus-Smit, Christian, «International Crisis of Legitimacy», *International Politics*, 44. zk., 2007, 159. or.

⁴⁴ *Ibidem*, 163.-164. or.

⁴⁵ Ikusi, esaterako, Bull, Hedley, *La Sociedad Anárquica... op. cit.*; Butterfield, Herbert eta Wight, Martin, *Diplomatic Investigations: Essays in the Theory of International Politics*, Londres, Allen & Unwin, 1966.

⁴⁶ Askotan lotu izan da Eskola Ingelesa bai errealismoarekin (autore klasikoek botereen orekari ematen zioten garrantziagatik batez ere) bai konstruktibismoari (ideiek duten garrantziagatik), baina ez dauka zerikusirik ez batarekin ez bestearekin.

⁴⁷ Clark, Ian, «China and the United States: a succession of hegemonies?», *International Affairs*, LXXXVII. bol., 1. zk., 2011. Eskola Ingelesak hegemoniari buruz egin dituen garapen teorikoen laburpena aurki daiteke: PINTADO, Montse, «Reformulaciones teóricas en torno a la emergencia de China: la construcción de una institución hegemónica alternativa», *Trabajos y Ensayos*, 15. zk., 2012, «<http://www.dipriihd.ehu.es/revistadoctorado/n15/Pintado15.pdf>», [2015eko otsailaren 15a].

⁴⁸ Clark, Ian, «Towards an English School Theory of Hegemony», *European Journal of International Relations*, XV. bol., 2. zk., 2009, 204. or.

bera, hegemonaren boterea bere ikuspuntua sozializatzean datza, eta ez ikuspuntu hori inposatzean. Beraz, Clarken ustez, legitimitatea botere-baliabide eraginkorra bihurtzen da.⁴⁹ Legitimitatearen kontzeptua ere konstruktibismoari lotuta egon arren, autoreak desberdintasun garrantzitsu bat egiten du: haren teoriaren kasuan, legitimitatea ez dago estatu nagusiari lotuta, baizik eta horrek eraikitzen duen hegemoniaren erakundeari, kontuan izanik zer-nolako ordena ekonomiko, politiko eta sozial berria dakarren horrek, hegemonaren boterearen jarduera demokratizatzeaz batera.⁵⁰

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDA

Azkeneko urteetako gertakarien ondorioz, hegemoniaren arloan bi joera teoriko nagusi nabarmendu dira. Lehenengoa hegemonaren botereak sisteman dituen mugei buruz jarduten da, batez ere Afganistango eta Irakeko gerrak erakutsi zuten aldebakartasunagatik. Bigarrena botere berrien gorakadaz arduratzen da, batez ere azken urteotan Txinak izandako hazkunde ekonomiko eta politikoagatik.

4.1. Nagusiaren boterearen mugak

Hegemona sistemako estatu nagusia izan arren, beraren boterea ez da erabatekoa. Lidergoa finkatzeko prozesuak berak mugatzen du beraren boterea. Lehenengoz, legitimitatearen bila dabilenean, boterea zabaldu egiten du sistema guztian zehar. Horretarako, besteen boterea onartu behar du, legitimitatearen gakoa beste Estatuak direlako. Bigarren, boterea erakundeen bidez bideratu behar du. Azkenik, erakunde horien barne-legeek hegemonaren erabakiak mugatzen dituzte.⁵¹

Sistemak berak ere mugak ezartzen dizkio nagusiari. Gainera, botere-maila handituz joan ahala, muga horiek gero eta oparagoak⁵² dira: batzuk sistemiko edo estrukturalak (hegemonak sisteman duen toki nagusiaren ondorio direnak) edo baldintzatuak (beraren erabakien ondorio direnak),⁵³ baita beste Estatuak inposatzen dituztenak.⁵⁴

⁴⁹ Clark, Ian, «China and the United States... *op. cit.*», 14. or.

⁵⁰ *Ibidem*, 24. or.

⁵¹ Finnemore, M., «Legitimacy... *op. cit.*», 60.-61. or.

⁵² Brooks, Stephen G. eta Wohlforth, William C., *World out of Balance: International Relations and the Challenge of American Primacy*, Princeton, Princeton University, 2008, 8. or.

⁵³ *Ibidem*, 14. or.

⁵⁴ Schweeler-ek eta Pu-k diotenez, Estatu ahulenek ere mugatu dezakete nagusiaren boterea, modu askotako estrategiekkin. Ikusi, esaterako, Schweller, Randall L. eta Xiaoyu, Pu, «After Unipolarity. China's Visions of International Order in an Era of U.S. Decline», *International Security*, XXXVI. bol., 1. zk., 2011, 48. or.

4.2. Botere berrien gorakada

Gaur egungo aldaketa sistemikoen eraginez, jakiteko dago botere berriak nola egokituko diren Estatu Batuek moldatutako nazioarteko sistema batera. XX. mendeko teoria errealistek defendatzen zuten gerra hegemonikoaren itzala oraindik luzea izan arren, hazkunde baketsuaren erretorika ere jarraitzaile asko batzen ari da azken urteotan. Erronka ez da txikia: nola jokatuko dute potentzia berriek haien boterea gero eta handiagoa egiten denean? Barry Buzan-ek, Txinaren kasua aztertzean, Asiako estatuari erreparatzen dio, eta ez hegemonari, hiru aukera deskribatuz.⁵⁵ Lehenengoa, gorakada gerazalea; errealdisten bideari jarraituz, iradokitzen du potentzia berriak hegemonaren aurkako gerra bat bilatuko duela, sistematik lortzen dituen onurak biderkatzeko. Bigarrena, gorakada baketsu hotza; mehatxuz eta mesfidantzaz beteriko nazioarteko agertoki bat marrazten du, Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko harremanaren antzekoa. Azkenik, hirugarrena, gorakada baketsu epela, agertoki adiskidetsu bat ziurtatzen duena.

Izan ere, potentzia berriak hiru rol joka ditzakete hegemonak ezarritako nazioarteko gizartean, bakoitzak nazioarteko agertoki bat eraginez: jarraitzailea (sistema horretan ardura hartzen duena, hegemonarekin kostuak partekatuz), hondatzailea (sistema suntsitu nahi duena beste berri bat ezartzeko) edo saihestailea (hegemonak hornitzen dituen ondasun publikoetatik onurak ateratzen dituen baina ez duena ezer eskaintzen horien truke).⁵⁶

Dena den, argi dago fenomeno honetan bi aldagaik hartuko dutela parte. Alde batetik, Estatu Batuak, botere berriei gero eta abantaila gehiago eman behar dieten heinean, haien errebisionismoa saihesteko. Beste alde batetik, botere berriaren identitatea eta haren boterearen alderdi ez-materialak, hala nola eragina, diplomazia, identitatea edo interesak.

5. ADIBIDE PRAKTIKOA. ESTATU BATUEN HEGEMONIAREN OINARRIAK ETA GAUR EGUNGO LEGITIMITATE-KRISIAREN ZERGATIAK

Bigarren Mundu Gerraren ostean agerian zegoen Estatu Batuen nagusitasun ekonomiko eta militarra. Horrela izanda, Gerra Hotzaren amaierak berretsitako AEBren lidergoa teoria hegemonikoak egiaztatzeko adibiderik onena eskaini zuen. Sobietar Batasuna desegin ostean, batzuek sistemaren polobakartasuna une estruktural motza izango zela iragarri zuten,⁵⁷ laster sistema

⁵⁵ Buzan, Barry eta Cox, Michael, «China and the US: Comparable Cases of 'Peaceful Rise'?', *The Chinese Journal of International Politics*, VI. bol., 2013, 112. or.

⁵⁶ Schweller, Randall L. eta Xiaoyu, Pu, «After Unipolarity... *op. cit.*», 42. or.

⁵⁷ Krauthammer, Charles, «The Unipolar Moment», *Foreign Affairs*, LXX. bol., 1. zk., 1991, 23.-33. or.

aldeaniztun batekin ordezkaturako zela. Hala ere, nazioarteko gertakizunek hegemoniaren erro sendoak erakutsi zituzten: botere-baliabide guztietan nagusi zen potentzia, eta estatu bakar batek nazioarteko sisteman inoiz izandako nagusitasun-mailarik handienaren jabe zen.⁵⁸

Estatu Batuek erakutsitako lidergoak, oinarri materialez gainera, beste mota bateko zimenduak ere badauzka. Robert Cox-en iritziz, esaterako, Ipar Amerikako hegemonia ezin da bakarrik gako horien arabera definitu. Aldiz, oinarri materialak munduko ordena jakin batekin lotuta daude, eta ordena jakin horrek administratzen duten izaera unibertsaleko erakundeek sorta baten beharra du.⁵⁹ Sailkapen zuzen bat eskaini nahian, Ikenberry-k Estatu Batuen hegemoniaren lau alderdi azpimarratzen ditu,⁶⁰ horiek sendoagoa eta iraunkorra bihurtzen baitute. Lehenengoa boterea da, zeina nabarmentzen baita Estatu Batuen segurtasun-babesean, merkatu ekonomikoen lidergoan eta dollarraren nazioarteko rolean. Bigarrena, Estatu Batuen toki geografikoak eta iragan historikoak haren boterearen mehatxua gutxitzen dute, eta beste eskualde batzuetan egonkortzaile gisa ari daiteke. Hirugarrena, demokraziak eta nazioarteko erakundeek eskaini dizkioten mekanismoei esker garatu duen konfiantza. Eta azkenik, modernizazio-indarretan eta printzipio ezberdintzailetan oinarritutako AEBren gobernantzak nazioarteko garapenean izandako eragina. Ildo berean, Layne-k botere militarra, lidergo ekonomikoa, erakundeak (haien barne segurtasun sareak, eta hegemonia legitimatzen laguntzen duten erakunde ekonomiko eta politikoak) eta botere leuna nabarmentzen ditu hegemonaren boterearen aurpegizat.⁶¹

Hala ere, lidergo sendoaren zergatia ez dago bakarrik baliabide sortan, baizik eta botere hertsatzailean, baterako interesetan eta elkarrenganako onespenean eta interakzio politikoetan.⁶² Esaterako, Nye-k sortutako botere leunaren kontzeptuak botere materiala influentzia eta botere-baliabide ez-materialetan bihurtzean oinarritzen da, horrela nagusitasuna sozialagoa izanik.⁶³ Gaur egun, Estatu Batuak zentro globala bihurtu dira beren influentziari esker, eta handik munduko lotura militar, politiko, ekonomiko, zientifiko eta kultural garrantzitsuenak igarotzen dira. Esteka horietan hege-

⁵⁸ Brooks, Stephen G. eta Wohlforth, William C., «American Primacy in Perspective», *Foreign Affairs*, LXXXI. bol., 4. zk., 2002, 23. or.

⁵⁹ Cox, Robert W., «Social Forces, States and World Orders: Beyond International Relations Theory», Keohane, Robert O., *Neorealism and Its Critics*, New York, Columbia University Press, 1986, 222.-223. or.

⁶⁰ Ikenberry, G. John, «American Power and the Empire of Capitalist Democracy», Cox, Michael, Dunne, Tim eta Booth, Ken, *Empires, Systems and States: Great Transformations in International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 2001, 193.-194. or.

⁶¹ Layne, Christopher, «Conclusions», Williams, Kristen P, Lobell, Steven E., eta Jesse, Neal G., *Beyond Great Powers... op. cit.*, 227. or.

⁶² Ikenberry, G. John (ed.), *America Unrivaled: the Future of the Balance of Power*, New York, Cornell University Press, 6. or.

⁶³ Nye, Joseph S., *Soft Power... op. cit.*

monaren hizkuntza, ideiak eta esparru instituzionalak dira nagusi, kodea eta mezua berarenak izanik.⁶⁴

Alabaina, azken urteotako gertakizunak direla eta, Estatu Batuen hegemonia gero eta lidergo-krisi sakonagoa jasaten ari da.⁶⁵ 2001etik izaniko gertakizunek hegemonia gogor baten agerraldia ekarri dute. New Yorken izandako gertakizunen eraginez hasitako bi gerrek, Afganistangoa eta Irakekoa, hegemoniaren alde maltzurrenak erakutsi dituzte, aldeaniztasuna eta autokontrola alde batera utzita eta Bushen doktrinaren aroa hasita. Irakeko gerran erakutsitako aldebakartasunak nazioarteko erakundeen legitimitatea murriztu zuen, eta Estatu Batuek hasieratik izandako aliatuen artean mesfidantza zabaldu zuen. Askok hegemoniaren gainbehera aurreikusi zuten, lau arrazoi nagusiok azpimarratuz: botere berrien gorakada, hegemoniaren gehiegizko zabalpena, Estatu Batuen lidergo ekonomikoaren higadura eta nazioaren krisi fiskal iraunkorra (dolarrek erreserbako dibisa gisa duen rola kolokan jarritz).⁶⁶

Faktore horien artean, bi azpimarratu ditzakegu. Lehenengoa, krisi ekonomikoak eragindako botere ekonomikoaren higadura da: krisiak AEBren oinarri materialak (bereziki hazkunde ezberdinaren eta eskaintza globalaren arteko zirkulu neoliberal) eta bloke historiko neoliberal ahuldu ditu, baita AEBren hegemoniaren alderdi sozial, ideologiko, politiko eta instituzionalak ere.⁶⁷ Bigarrena, botere berrien hazkundeak, batez ere Txina eta Asia lortzen ari diren arrakasta ekonomikoak, eredu amerikarraren aldearik ahulenak erakutsi ditu, eta, gutxika, susperraldian dauden herrialdeak eredu ekonomiko berriak sortzen ari dira, politikoki duten garrantzia biderkatuz.⁶⁸

Gertakizun politiko eta ekonomiko horien ondorioz, nazioarteko akto-reak Estatu Batuek ezarritako ordena hegemonikoari eskaintzen zioten legitimitatea krisian sartu da. Legitimitate-krisiak inflexio-puntu kritikoak dira, non aktore edo erakunde baten legitimazioaren gainbehera bakarrik bi bide uzten baititu: egokitzapena (birlegitimazioaren edo suspergarri materialen bidez) ala ahalmen-galera.⁶⁹ Hala ere, legitimazio-krisiak ez dira guztiak izaera berekoak, Hurd-ek azpimarratzen duen bezala.⁷⁰ Kasu honetan, legitimazio-

⁶⁴ Ikenberry, G. John (ed.), *America Unrivaled... op. cit.*, 6. or.

⁶⁵ Moure, Leire, *Orden internacional en transición y Relaciones Internacionales: Aproximaciones teóricas al declive hegemónico estadounidense y al ascenso de China como potencia global*, Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 15a.

⁶⁶ Layne, Christopher, «Conclusions... op. cit.», 227.-228. or.

⁶⁷ Saull, Richard, *Rethinking Hegemony... op. cit.*, 335. or.

⁶⁸ Txinaren kasuan, esaterako, APECKo eta Latinoamerikako diplomazian izan duen susperraldia azpimarratu dezakegu.

⁶⁹ Reus-Smit, Christian, «International Crisis... op. cit.», 167. or.

⁷⁰ Hurd, Ian, «Breaking and Making Norms: American Revisionism and Crises of Legitimacy», *International Politics*, 44. zk., 2007, 194. eta 201. or.

krisi sakon baten aurrean gaude. Krisi ekonomikoak eta Estatu Batuen kanpo-politikaren erradikalizazioak agerian utzi dituzte hegemoniaren arrailak. Iraken gertatu den bezala, hegemonia oraindik suntsitzeko gai da munduko edozein tokitan, baina jada ez da eraikitzeko gai. Horrek adierazten du krisiak erro sendoak dituela, eta hegemonak kale itsu horretatik irteko konpromisoak partekatu behar dituela sistemako estatu boteretsuekin, baita instituzio aldeaniztunak bultzatu eta sendotu ere.

BIBLIOGRAFIA

- ARRIGHI, Giovanni, *The Long Twentieth Century: Money, Power, and the Origins of our Times*, Londres, Verso, 1994.
- BROOKS, Stephen G. eta WOHLFORTH, William C., «American Primacy in Perspective», *Foreign Affairs*, LXXXI. bol., 4. zk., 2002, 20.-33. or.
- BROOKS, Stephen G. eta WOHLFORTH, William C., *World out of Balance: International Relations and the Challenge of American Primacy*, Princeton, Princeton University, 2008.
- BULL, Hedley, *La sociedad anárquica: Un estudio sobre el orden en la política mundial*. Madril, Catarata, 2005.
- BUTTERFIELD, Herbert eta WIGHT, Martin, *Diplomatic Investigations: Essays in the Theory of International Politics*, Londres, Allen & Unwin, 1966.
- BUZAN, Barry eta COX, Michael, «China and the US: Comparable Cases of “Peaceful Rise”?», *The Chinese Journal of International Politics*, VI. bol., 2013, 109.-132. or.
- CLARK, Ian, «Towards an English School Theory of Hegemony», *European Journal of International Relations*, XV. bol., 2. zk., 2009, 203.-228. or.
- CLARK, Ian, «China and the United States: a succession of hegemonies?», *International Affairs*, LXXXVII. bol., 1. zk., 2011, 13.-28. or.
- COX, Robert W., «Gramsci, Hegemony and International Relations: An Essay in Method», *Millennium*, XII. bol., 2. zk., 1983, 162.-175. or.
- COX, Robert W., «Social Forces, States and World Orders: Beyond International Relations Theory», Keohane, Robert O., *Neorealism and Its Critics*, New York, Columbia University Press, 1986, 204.-254. or.
- DIEZ, Thomas, BODE, Ingvild, FERNANDES DA COSTA, Aleksandra, *Key Concepts in International Relations*, Londres, Sage Publications, 2011.
- FINNEMORE, Martha, «Legitimacy, Hypocrisy, and the Social Structure of Unipolarity. Why Being a Unipole Isn't All It's Cracked Up to Be», *World Politics*, LXI. bol., 1. zk., 2009, 58.-85. or.
- GILPIN, Robert, *War and Change in World Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1981.
- GILPIN, Robert, «The theory of hegemonic war», *The Journal of Interdisciplinary History*, XVIII. bol., 4. zk., 1988.
- HOPF, Ted, «Common-sense Constructivism and Hegemony in World Politics», *International Organization*, LXVII. bol., 2. zk., 2013, 317.-354. or.
- HURD, Ian, «Breaking and Making Norms: American Revisionism and Crises of Legitimacy», *International Politics*, 44. zk., 2007, 194.-213. or.

- IKENBERRY, G. John, «American Power and the Empire of Capitalist Democracy», COX, Michael, DUNNE, Tim eta BOOTH, Ken, *Empires, Systems and States: Great Transformations in International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 2001, 191.-212. or.
- IKENBERRY, G. John (ed.), *America Unrivaled: the Future of the Balance of Power*, New York, Cornell University Press, 2002.
- IKENBERRY, G. John, *After Victory: Institutions, Strategic Restraint, and the Rebuilding of Order after Major Wars*, Princeton, Princeton University Press, 2001.
- KEGLEY, Charles W., *The Long Postwar Peace: Contending Explanations and Projections*, New York, Harper Collins, 1991.
- KEOHANE, Robert O., *After Hegemony: Cooperation and Discard in the World Political Economy*, Princeton, Princeton University, 1984.
- KEOHANE, Robert O. eta NYE, Joseph S., *Power and Interdependence. World Politics in Transition*, Boston, Brown & Company, 1977.
- KINDLEBERGER, Charles P., *La crisis económica 1929-1939*, Madril, Crítica, 1985.
- KRAUTHAMMER, Charles, «The Unipolar Moment», *Foreign Affairs*, LXX. bol., 1. zk., 1991, 23.-33. or.
- LACLAU, Ernesto eta MOUFFE, Chantal, *Hegemony and Socialist Strategy: Towards a Radical Democratic Politics*, Londres, Verso, 1985.
- LEBOW, Richard N., *The Tragic Vision of Politics: Ethics, Interests, and Orders*, Cambridge, Cambridge University Press, 2003.
- LITTLE, Richard, *The Balance of Power in International Relations: Metaphors, Myths and Models*, Cambridge, Cambridge University Press, 2007.
- MITRANY, David, *The Functional Theory of Politics*, Londres, St. Martin's Press, 1975.
- MODELSKI, George, *Long Cycles in World Politics*, Londres, Macmillan Press, 1987.
- MOURE, Leire, *El programa de investigación realista ante los nuevos retos internacionales del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009
- MOURE, Leire, *Orden internacional en transición y Relaciones Internacionales: Aproximaciones teóricas al declive hegemónico estadounidense y al ascenso de China como potencia global*, Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 15a.
- NYE, Joseph S., *Soft Power: The Means to Success on World Politics*, New York, Public Affairs, 2004.
- ORGANSKI, A.F.K., *World Politics*, New York, Alfred A. Knopf, 1965.
- ORGANSKI, A.F.K. eta KUGLER, Jack, *The War Ledger*, Chicago, University of Chicago Press, 1980
- PINTADO, Montse, «Reformulaciones teóricas en torno a la emergencia de China: La construcción de una institución hegemónica alternativa», *Trabajos y Ensayos*, 15. zk., 2012, <<http://www.dipriihd.ehu.es/revistadoctorado/n15/Pintado15.pdf>>, [2015eko otsailaren 15a].
- REUS-SMIT, Christian, *American Power and World Order*, Cambridge, Polity, 2004.
- REUS-SMIT, Christian, «International Crisis of Legitimacy», *International Politics*, 44. zk., 2007, 157.-174. or.

- ROUSSEAU, Jean Jacques, *Gizarte-hitzarmena*, Bilbo, Pentsamenduaren Klasikoak, 1993.
- SAULL, Richard, «Rethinking Hegemony: Uneven Development, Historical Blocs, and the World Economic Crisis», *International Studies Quarterly*, LVI. bol., 2012.
- SCHWELLER, Randall L. eta XIAOYU, Pu, «After Unipolarity. China's Visions of International Order in an Era of U.S. Decline», *International Security*, XXXVI. bol., 1. zk., 2011, 41.-72. or.
- SODUPE, Kepa eta MOURE, Leire, «Visiones sobre la hegemonía en el orden internacional actual», *Inguruak. Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política. Monográfico especial: Sociedad e innovación en el siglo XXI*, 2010eko otsaila, 82.-92. or.
- TUZIDIDES, *Peloponesoko gerraren historia I*, Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo, 2005.
- WALTZ, Kenneth N., *Teoría de la Política Internacional*, Buenos Aires, GEL, 1979.
- WENDT, Alexander, *Social Theory of International Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 1999.
- WILKINSON, David, «Unipolarity Without Hegemony», *International Studies Review*, I. bol., 2. zk., 1999, 141.-172. or.
- WILLIAMS, Kristen P., LOBELL, Steven E. eta JESSE, Neal G., *Beyond Great Powers and Hegemons*, Stanford, Stanford University Press, 201

4.

Inperialismoa

IRATXE PEREA OZERIN

1. DEFINIZIOAK

Fenomenoaren harira idatzitako liburu banatan, David Harvey eta Alex Callinicos teorialariek inperialismoa definitzen zaila dela aitortzen dute.¹

Ikuspegi zabal batetik, menderakuntza politikoaren modu jakin bat dela uler dezakegu.² Burbank eta Cooper historialariek inperioaren definizio zehatzagoa ematen dute: unitate politiko handiak dira, politika espantsionisten ondorioz pertsonak eta herriak menderatu ahala haien artean ezberdintasunak eta hierarkiak sustatzen dituztenak.³

J.A. Hobson-ek analisi sakona egin zuen, gaur egunera arte arlo akademikoan eragin nabarmena izan duena.⁴ Inperialismoa definitzeko, beste bi kontzepturekin lotu zuen: nazionalismoarekin eta kolonialismoarekin. Kolonizazio-prozesuan nazionalismoaren hedapena gauzatzen da, nazio baten arraza, hizkuntza eta instituzioak geografikoki hedatzen direlako. Gehienetan kolonizatzaileen gutxiengo batek botere politiko eta ekonomikoa bereganatzen zuen kolonietan, beti metropoliaren kontrolpean.⁵ Hobsonen hitzetan, kasu horietan *inperialismo* hitza erabil daiteke.⁶

Kontzeptuari buruzko ikerketarik zabalena korronte marxistak garatu du. Teorialari marxista klasikoek, Hobsonen eragina jaso arren, azpimarratu zuten zer-nolako lotura zuen fenomeno horrek garapen kapitalista historikoarekin.⁷

¹ Harvey, D., *The New Imperialism*, Oxford, Oxford University Press, 2003, 26. or.; Callinicos, A., *Imperialism and Global Political Economy*, Cambridge, Polity Press, 2009, 3. or.

² Callinicos, A., *op. cit.*, 3. or.

³ Burbank, J. eta Cooper, F., *Empires in World History. Power and the Politics of Difference*, Princeton, New Jersey, Princeton University Press, 2010, 8. or.

⁴ Hobson, J.A., *Estudio del imperialismo*, in: Hobson, J.A. eta Lenin, V.I., *Imperialismo*, Madril, Capitán Swing, 2009, 11.-395. or.

⁵ Hobsonen Europako inperioen kasua aipatu zuen.

⁶ Hobson, *op. cit.*, 17.-27. or.

⁷ XX. mendearen hasieran garatu ziren inperialismoko teorien eboluzioan sakontzeko, ikus Roberto Mesa-ren laburpena: Mesa, R., *Teoría y práctica de Relaciones Internacionales*, Madril, Taurus, 1980, 2. ed., 155.-160. or. Edota Anthony Brewer-en analisia: *Marxist Theories of Imperialism: A Critical Survey*. 2. argit. Londres, Routledge, 1990 [1980].

Rudolf Hilferding-ek finantza-kapitalaren hedapena kapitalismoaren azken fase gisa ulertzen zuen, eta inperialismoa fase horren berezko ondorioa zela adierazi zuen.⁸ Era berean, Nikolai Bukharin-en eta Vladimir Lenin-en arabera, inperialismoa sailkapen historikoa da. Lehenak inperialismoa «finantza-kapitalaren politika» gisa definitu zuen, finantza-kapitalismoaren fasearen politika konkistatzaile berezia zela esanez.⁹ Leninek inperialismoaren definizioarik ospetsuena eman zuen: «fase berezi bat da kapitalismoaren garapenean».¹⁰ Hain zuzen, kapitalismoaren faserik aurreratuena edo «fase monopolista» zela adierazi zuen.¹¹

Rosa Luxemburgo-k antzeko ikuspegia zeukan, ñabardura nabariekkin. Kapitala mundu mailan hedatzeko botere politikoaz baliatu zela argudiatu zuen, sistema sozioekonomiko aurrekapitalistak suntsituz eta kapitalismoa inposatuz. Garapen kapitalistaren azken fasean pilaketa mantentzeko, etekina ustiatzen jarraitzeko, politika inperialista beharrezkoa da. Hala, kapitalismoaren hedapena sustatzeko lanabes politikotzat hartu zuen inperialismoa; alegia, garai horretako oinarrizko arazo politikotzat.¹²

Bestetik, aipagarria da Joseph A. Schumpeter ekonomialariaren definizio alternatiboa: «Estatu baten “oinarririk gabeko” hedapen bortitzerako grina mugagabea».¹³ Schumpeter-ek marxismoaren ikuspegia kritikatu zuen, Estatuaren —edo eliteen— interes ekonomikoei arreta gehiegi jartzeagatik. Haren ustez, inperialismoa Estatuaren hedatzeko berezko joera da, kasu askotan historian zehar grina irrazionalen edo instintiboen ondorioz gauzatu dena.¹⁴

Schumpeter bezala, Hannah Arendt filosofoak uste zuen kapitalismoaren eta inperialismoaren logikak ezberdinak zirela. Inperialismoaren politika «hedapena hedapenagatik» zela adierazi zuen. 1884tik 1914rako europar inperioak jorratu zituen. Arendt-en aburuz, une hartan potentziek kontzientzia globala hartu zuten, eta mundu-politika egiteko grina azaleratu zen. Inperialismoak boterearen politika maila globalera eramateko nahia agerrarazi zuen.¹⁵

⁸ Hilferding, R., *El capital financiero*, Madril, Tecnos, 1985, 407.-414. or.

⁹ Bukharin, N., *Imperialism and World Economy*, Londres, Bookmarks, 2003 [1929], 120. or.

¹⁰ Lenin, V.I., *Imperialismo, fase superior del capitalismo*, 487. or., in: Hobson, J.A. eta Lenin, V.I., *Imperialismo*, Madril, Capitán Swing, 2009, 399.-529. or.

¹¹ Lenin, *op. cit.*, 485.-497. or.

¹² Luxemburgo, R., *La acumulación de capital*, in: Luxemburgo, R. eta Bujarin, N., *El imperialismo y la acumulación de capital*, Córdoba, Argentina, Ediciones de Pasado y Presente, 1975, 3.-42. or.

¹³ Schumpeter, J.A., *Sociología del imperialismo*, 6. or., in: Schumpeter, J.A., *Imperialismo. Clases sociales*, Madril, Tecnos, 1986, 1.-105. or.

¹⁴ *Ibidem*, 66.-105. or.

¹⁵ Arendt, H., *Los orígenes del totalitarismo*, Madril, Alianza Editorial, 2006 [1951], 36. eta 211.-212. or.

Gaur egun, marxismo klasikoaren analisia abiapuntu hartuta, Alex Callinicos-ek, Samir Amin-ek, David Harvey-k, Michael Hardt-ek eta Antonio Negri-k, Ellen Meiskins Wood-ek eta ildo bereko autoreek inperialismo garaikidearen nondik-norakoak jorratu dituzte. Leninen definizioa kontuan hartuta, Aminek, adibidez, argudiatzen du inperialismoa ez dela kapitalismoaren faserik aurreratuena, baizik eta sistema horren berezko ezaugarria.¹⁶ Edonola ere, irakurketa horiek inperialismo kapitalistaren analisia berreskuratzen dute.

Harveyren hitzetan, inperialismo hori bi dinamikak osatzen dute: estatu-estrategia politikoa, diplomatikoa eta militarra; eta botere ekonomikoaren eguneroko jarduera gaur egungo kapitalismoan (ekoizpen-praktikak, merkataritza, finantza-fluxuak, informazio-jarioa, migrazioak, eta abar). Sistema kapitalistan, aberastasuna, baliabideak eta boterea modu desorekatuan banatzen dira geografikoki. Beraz, inperialismoa da botere politikoa erabiltzea banaketa asimetriko horretan lortutako abantaila ekonomikoak ustiatzeko eta mantentzeko. Inperialismo kapitalistan kapitalaren logika nagusitzen da lurraldea bereganatzearen gaitetik, nahiz eta kasu batzuetan azken hori ere badaikarren.¹⁷ Wood-ek ere lehentasun hori nabarmentzen du. Inperialismoa «klase-menderakuntza» gisa definitzen du. Inperialismo kapitalistaren berezitasuna «ekonomikoa denaren nagusitasuna» da, nahiz eta ekonomikoa ez den hertsadurarik (politikoa, militarra, judiziala) ere baden.¹⁸ Callinicosen hitzetan, «ekonomikoaren eta lehia geopolitikoaren arteko elkargunea da».¹⁹

Azkenik, Hardtek eta Negri-ek ikuspegi postmodernoa ematen dute. Inperialismoa bukatu dela iragartzen dute: fenomeno hori «Europako estatu-nazioen subiranotasunaren hedapena zen, haien mugez gaindikoa». Gaur egungo gizarte globalizatuan ez dauka lekurik; irau dirauena, bizirik eta sa-soi onean, inperioa da: «subiranotasunaren forma global berria», entitate nazionalen eta nazioz gaindikoen multzo batek osatua.²⁰

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Historiako aldi gehienetan inperioek gizon-emakumeen testuinguru politikoa eta sozioekonomikoa taxutu dute. Hemen inperialismoaren hiru fase nagusi bereiziko ditugu: antzinako inperioak, inperialismo klasikoa eta inperialismo garaikidea.

¹⁶ Amin, S., «Capitalismo, imperialismo y mundialización», in: SEOANE, José eta TADDEI, Emilio (ed.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001, 19. or.

¹⁷ Harvey, D., *op. cit.*, 26. eta 31.-33. or.

¹⁸ Wood, E.M., *Empire of Capital*, Londres, Verso, 2003, 4. or.

¹⁹ Callinicos, *op. cit.*, 138. or.

²⁰ Hardt, M. eta Negri, A., *Empire*, Cambridge, Harvard University, 2000, xii.-xv. or.

i) Antzinako inperioak. Egiptoarra, asiriarra, persiarra, Alexandro Handiaren inperioa edo Txinako lehenengo dinastiak aipa daitezke. Burbank-en eta Cooper-en arabera, lehenengo inperio aipagarriak Erroma eta Txina izan ziren K.a. III. mendean. Denbora luzez iraun zuten, oso tamaina handia hartzeraino; mundu mailako harreman ekonomikoak bultzatu zituzten, boterea mantentzeko instituzio sendoak sortu, eta kultura-markoak hedatu zituzten beren eragina sustatzeko. Beraz, eredu bihurtu ziren ondorengo proiektu inperialentzat.²¹

Erromatar Inperioaren ondoren, lekukoa hartzeko hautagaiak agertu ziren. Bizantziar Inperioa eta Kaliferri Islamiarrak VI. mendetik XIII.era hedatu ziren Mediterraneoko eskualdean, beren artean borrokatuz lurraldea eta baliabideak eskuratzeko. Aldi laburrago batean Inperio Karolingioa erromatarren nagusitasuna berreskuratzen saiatu zen IX. mendean. Epe laburrekoa ere, Genghis Khan-en Mongoliar Inperioa izan zen XIII. mendean, baina Eurasiako lurralde oso zabal bat bereganatu zuen. Otomandar Inperioaren garrantzia XV. eta XVI. mendeetan ere nabaria izan zen. Eta Habsburgotarren inperioa Europan, Amerikara hedatua 1492an hasitako konkistaren ondorioz.²²

ii) Inperialismo klasikoa edo liberala. Liberalismo ekonomikoaren printzipioak zabaltzearekin batera gertatu zen. Britainiar Inperioaren hedapena izan zen inperialismo kapitalistaren lehenengo adibidea, XVI. mendetik hasita.²³ Izan ere, industria-iraultza Ingalaterran hasi zen, sistema kapitalistaren sorlekuan. Britainiar Inperioa Asiaraino eta Afrikaraino iritsi zen, eta hegemonia XIX. mendera arte mantendu zuen. Garai horretan merkataritzako itsasbideak eta lurraldeak kontrolatzeko lehia areagotu zen. Inperialismoaren bidez britainiarrek lortutako abantaila ekonomikoak (lehengaien iturriak eta manufakturak esportatzeko kokaguneak) hedatzeko grina areagotu zuen gainerako potentzietan. Austria-Hungariako Inperioak, Errusiakoak, Japoniakoak, Frantziak, Alemaniak eta Ameriketako Estatu Batuek (AEB) britainiaren nagusitasuna zalantzan jartzen zuten.²⁴

Inperialismoaren irakurketa marxista klasikoak 1900-1920 urteetan garatu ziren, eta europar inperioen hedapen hori garapen kapitalistaren markoan teorizatu zuten. Horien arabera, ekoizpenaren eta kapitalaren kontzentrazioaren ondorioz, garapen kapitalistaren fase jakin batean — XX. mendean, Europan — konkurrentzia librea desagertzen da, eta monopolio kapitalistak nagusitzen dira. Bankuek berebiziko rola jokatzeko dute fase horretan, ordainketak egiteko bitartekariak izatetik kapitala kontrolatzera pasatzen direlako.

²¹ Burbank eta Cooper, *op. cit.*, 4. or.

²² *Ibidem*, 61.-115., 117.-148. or.

²³ Wood, *op. cit.*, 73.-74. or.

²⁴ Callinicos, *op. cit.*, 144.-161. or.

Kontzentrazioa eta zentralizazioa²⁵ gertatzen dira industrian zein finantzetan; industria- eta finantza-kapitalek bat egiten dute, eta finantza-oligarkiak sortzen dira. Potentzia kapitalistentzat lurraldeak bereganatzea bihurtzen da gako, lehengaien iturriak eta kontsumo-merkatuak izateko ez ezik, baita kapital-soberakinak esportatzeko ere. Halere, kolonizazio-prozesuari amaiera eman zioten, lur osoa banatuta baitzegoen, baina eragin-eremuak mantentzeko edo hedatzeko haien arteko talkak areagotu ziren. Momentu horretan inperialismoa gauzatzen da.²⁶

Hain zuzen, ildo marxistatik ari direnek, aipatutako autore klasiko zein garaikideek, defendatzen dute potentzia handien arteko lehia inperialistak Lehengo Mundu Gerraren hasiera azaltzen duela hein handi batean, baita Bigarrenarena ere. Azken horretan, 1929ko krisi ekonomikoak ere berebiziko rola jokatu zuen, potentzien zailtasun ekonomikoak eta grina inperialistak areagotuz.

iii) Inperialismo garaikidea. Bigarren Mundu Gerran, Britainia Handiak AEBren laguntza eta esku-hartzea behar izan zituen Alemaniaren hedapen inperialista gelditzeko. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) ere gako izan zen Hitler-en porrotean. Eta Japoniar Inperioa gerra galdu ondoren desegin zen. Gerratik AEB eta SESB *superpotentzia* gisa irten ziren, eta hala fase historiko berri bat zabaldu zen. Nazioarteko ordena bipolarrera pasatu zen, eta Afrikako eta Asiako deskolonizazioaren inguruan bi potentzien arteko gatazkak piztu ziren, lurralde horietan eragina lortzeko edo mantentzeko. Europar edo Japoniar Inperioen koloniak edo lehengo eragin-eremuak AEBren eta SESBren kontrolpean geratu ziren.

Bipolaritatea egon arren, esan behar da AEBren hegemonia jada nabaria zela, eta nazioarteko ordena ekonomikoa taxutu zuen, merkatu askeko printzipioak bultzatuz. Globalizazioari buruzko atalean ikusi bezala, 1970eko hamarkadan doktrina neoliberal nazioartean nagusitu zen, Ronald Reagan-en AEBk eta Margaret Thatcher-en Britainia Handiak sustatuta. SESBren desagerekin, 1991n AEBren inperialismo kapitalista nagusitu zen.²⁷

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

i) Ezberdintasuna eta menpekotasuna. Burbankek eta Cooperrek azpimarratu bezala, inperioek hierarkiak bultzatzen dituzte beren barruan. Gi-

²⁵ Marxen arabera, kapitalaren etengabeko pilatekak ekoizpen-bideak kapitalista partikular batzuen eskuetan kontzentratzea dakar, baita kapitala zentralizatzea ere kapital txikien desjabetzeen eta absortzioen bidez: Marx, K., *El capital: crítica de la economía política*, I. lib., Mexiko D.F., Fondo de Cultura Económica, 1946, 130.-180. eta 474.-549. or.

²⁶ Lenin, *op. cit.*, 485.-497. or.

²⁷ Dinamika hauetan AEBren inperialismoaren inguruko azken atalean sakonduko da.

zarte menperatuaren eta menperatzailearen arteko ezberdintasuna sustatzen da. Batasun inperialak gobernatzeko modu ezberdinak zehazten ditu inperioa osatzen duten hiritar eta herrientzat.²⁸ Inperioen menpeko lurraldeetan estruktura politikoak eta ekonomikoak guztiz aparteak dira; botere politikoa eta ekonomikoa metropoliek ezarritako gutxiengo batek menperatzen ditu.²⁹

Bestetik, garapen historiko kapitalista ez da berdina izan lurralde guztietan. Lurralde kapitalista aitzindariak ekoizpena eta kapitala kontzentratu zituzten, eta inperialismoaren bitartez soberakinak esportatzeko beharrezko azpiegitura sortu zuten. Kapitalismoan geroago sartu zirenek aurrekoen menpean egin zuten ibilbide hori. Haien funtzio nagusiak izan dira nazioarteko sistema lehengaitz hornitzea eta kapital-soberakinak maileguen bidez jasotzea.³⁰ Prozesu desorekatu horretan herrialde aberatsen eta txiroen arteko alde gero eta nabariagoa izan da. Aldi berean, lidergoa izan duten herrialdeek estruktura politiko eta ekonomiko sendoagoak garatu dituzte; menpean egon direnek, aldiz, egitura ahulak dituzte ezaugarri.

ii) Desjabetzea. Kapitalismoa ezartzeko eredu sozioekonomiko aurrekapitalistak alboratu ziren, eta forma kapitalistak inposatu, beti metropolien premien arabera. Kolonizatzaileek indigenen baliabideak eskuratu zituzten, haien bizibideak deuseztatu, eta tokiko biztanleak era masiboan lekualdatzera behartu edo esklabu hartu zituzten. Dinamika horiek, halere, indarrean jarraitzen dute. Proletarizazioak ezagutza, trebetasun, harreman sozial edo ideia aurrekapitalistak desjabetzea ekarri du. Pribatizazioek prozesu bera bultzatu dute ondasun kolektiboekin (lurra, etxebizitza edo ura). Politika inperialisten bidez aipatutako dinamikak geografia globalean zehar hedatu dira potentzia inperialisten premien eta interesen arabera.³¹

iii) Gatazka. Hobsonek adierazi zuen politika espantsionistak inperio baten baino gehiagok abian jartzen dituztenean nahitaez etsaitzen direla inperiook.³² Marxistek ideia horretan sakondu zuten, garapen kapitalista historikoan kokatuz. Eta korrante horretako egungo teoriariek gatazka armatu garaikideak azaltzen dituzte ikuspuntu horretatik.

Industriako eta finantzako enpresa multzoak sortu ahala, estatuek gero eta rol handiagoa jokatu dute horien jardueretan. Hala, kapital-hedapenaren azken fasean lehia ekonomikoak etengabeko gatazka politikoak ekaritzen ditu. Enpresa multzoen arteko negoziazioak neurri handi batean haien estatuen esku geratzen dira, eta kasu batzuetan gatazka militarrek bultzatu

²⁸ Burbank, J. eta Cooper, F., *op. cit.*, 8. or.

²⁹ Hobson, *op. cit.*, 21. or.

³⁰ Lenin, *op. cit.*

³¹ Harvey, *op. cit.*, 137.-182. or.

³² Hobson, *op. cit.*, 26. or.

ere bai.³³ Aipatutako garapen desorekatu horren ondorioz inperialismoak nazioarteko gatazkak sustatzen ditu. Herrialde bakoitza momentu historiko batean garatzen da, eta garapen ekonomiko maila batera ailegatzean baliabide gehiago eskatzen ditu. Horretarako lehenengo potentzia kapitalistek kolonizazioa erabili zuten, baina, esan bezala, XX. mendearen hasierarako lurralde guztiak banatuta zeuden. Inperialismoaren fase historikoan lehia eta gatazka areagotzen dira.³⁴

iv) Militarizazioa. Logika kapitalistan, hedapena ezinbestekoa suertatzen da, eta inperialismoa hedapen horren funtsa da. Aukerak bukatu ahala, baina, hedapen hori gero eta bortitzagoa izan da. Borroka eta militarizazioa inperialismoaren berezko ezaugarriak dira; Hobsonen hitzetan, militarismoa beraren «aliatu naturala» da.³⁵

Arestian esan bezala, garapen kapitalistaren fase aurreratuetan estatuek gero eta protagonismo gehiago daukate merkataritza-akordioetan. Indar militar handia duten estatuek baldintza hobeak lortuko dituzte beren enpresentzat. Inperialismoaren fasean, dagoen lehia basatia kontuan hartuta, botere militarra osagai garrantzitsua bihurtzen da. Horren adierazpena dugu XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran potentzia handien gastu militar izugarria.³⁶ Gerra Hotzeko lehia inperialistan ere, armamentuak (batez ere nuklearra) berebiziko rola jokatu zuen.

Inperialismo berrian ez dago lurralde gehiago konkistatzeko, ezta kontrolik gabeko merkataritza-biderik ere, baina gaur egungo ekonomia globala menperatzeak inbertsio militar handia eskatzen du. Aktore ugari eta askotarikoek parte hartzen dute nazioarteko eszenatoki konplexu, ezegonkor eta aldakor batean.³⁷ Gainera, Estatuek izandako indarkeriaren monopolioa XIX. eta XX. mendeetako inperioen oinarrizko osagaia zen. Gaur egun, ordea, eragile pribatuek ere indar armatua bereganatu dute, eta horrek zaildu egin die estatuei politika inperialistak sustatzea.³⁸

Militarismoaren nagusitasunak nazioarteko zuzenbidearen eta gobernu demokratikoen deslegitimazioa ere ekarri du. Gobernuak politika inperialistak legitimatzeko gero eta sostengu gutxiago aurkitzen dute gizarte zibilean.³⁹

³³ Bukharin, *op. cit.*, 129.-136. or.

³⁴ Lenin, *op. cit.*, 473.-485. or.

³⁵ Luxemburgo, *op. cit.*, 16.-17. or.; Hobson, *op. cit.*, 375. or.

³⁶ Bukharin, *op. cit.*, 129.-136. or.

³⁷ Wood, *op. cit.*, 143.-144. or.

³⁸ Hobsbawm, E., *On Empire. America, War and Global Supremacy*, New York, Pantheon Books, 2008, 43.-44. or.

³⁹ Borón, A., «Hegemonía e imperialismo en el sistema internacional», in: *Nueva hegemonía mundial. Alternativas de cambio y movimientos sociales*, Buenos Aires, CLACSO, 2004, 131.-145. or.

v) *Finantza-kapitalaren menderakuntza*. XX. mendearen hasieran gertatu zen, eta marxista klasikoen arabera inperialismo kapitalistaren fasea ekarri zuen. Inperioak kapitalismoaren aurretik baziren ere (Erromakoa, adibidez), kapitalismoaren fase monopolistan sortzen diren estruktura sozioekonomikoak ezberdinak dira, eta inperialismo kapitalistaren agerpena definitzen dute.⁴⁰ Oligopolio industrialak eta finantzarioak, eta haien *lobby*ak, aktore nabarmenak dira merkatuak eta baliabideak kontrolatzeko lehian. Aldi berean, menderakuntza ereduak aldatu dira. Lehengo inperioekin alderatuta inperialismo kapitalistan herrialde gehienak, independentzia politikoa izan arren, dependentzia ekonomikoa, finantzarioa edo diplomatikoa jasan ditzakete. Izan ere, finantza-sistema globalaren eta nazioarteko instituzio politikoen zein ekonomikoen kontrola inperialismo garaikidearen zutabea izan da.

vi) *Indar sozial berriak*. Inperialismo liberalak harreman sozial berriak bultzatu zituen herrialde menperatuetan. Kanpoko aktoreak sartu ziren gizarte horien administrazioan, eta tokiko elite bat indar inperialistekin aliatu zen, lekuko burgesia berri bat sortuz.⁴¹ Hain zuzen, tokiko interesekin elkarlanean aritzea eta botere berria legitimatzea ezinbestekoa suertatzen da politika inperialistak betikotzeko.⁴² Beraz, konfigurazio sozial berria kontuan hartzekoa da inperialismoaren inguruko analisisietan.

vii) *Oposizioa*. Politika inperialisten kontrako oposizioa zabala izan da. Ikusi bezala, ikuspegi akademiko batetik kritika zabalena korrante marxistak teorizatu du. Arlo politikoa, ikuspuntu marxista-leninista batetik SESBk, Kubak, Txinak eta ildo bereko gobernu sozialistek potentzia kapitalisten politika inperialistak salatu dituzte. Dena den, horien inperialismoa ere (SESBren espantsionismoa Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, edo Txinaren jarraera Nepalen, adibidez) salatu izan da. Izan ere, sobietar inperialismoarekin lotuta, Europako alderdi komunista batzuek hautsi egin zuten SESBekin 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Horren harira, 1961ean ekimen politiko nabarmen bat agertu zen: Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua. Estatu sortzaileek politika inperialisten kontrako jokabideak hartu zituzten, Gerra Hotzaren barruan neutraltasun aktiboa aldarrikatuz. Arlo sozialean, inperialismoaren aurkako manifestaziorik masiboena AEBren inperialismoaren kontrakoak izan dira. Inperialismo kapitalistak, dena den, protesta sozialaren kriminalizazioa ere dauka ezaugarri.⁴³

⁴⁰ Lenin, *op. cit.*, 442. eta 480.-483. or.

⁴¹ Cox, R., «Social forces, states and world orders: beyond International Relations theory», *Millenium – Journal of International Studies*, 10, 2, 1981, 142.-143. or.

⁴² Hobsbawm, E., *op. cit.*, 11. or.

⁴³ Borón, *op. cit.*, 131.-145. or.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

i) Dependentziaren teoria. Deskolonizazioaren garaian agertu zen 1950eko eta 1960ko hamarkadetan. Eskola horretako autoreek iparraldeko herrialdeek hegoaldean etengabe inposatutako menderakuntza politiko eta sozioekonomikoaz teorizatu dute. Nazioarteko sistema horretan lan-banaketa berezi bat gertatu zen: Iparraldean, sistemaren produkzio-prozesu zentralak, industrializazioa eta garapen teknologikoa kontzentratu ziren; Hegoaldeko herrialdeak, aldiz, lehengaien eta langileen hornitzaile bilakatu ziren. Azken horiek egitura politiko eta ekonomiko ahulak garatu zituzten, iparraldeko premien menpean.⁴⁴ Testuinguru horretan Hegoaldearen azpigarapena saihestezina da, Andre Günder Frank-ek «azpigarapenaren garapena» izendatu duena.⁴⁵

Tesi horiek inperialismoaren teoria klasikoen eraginpean garatu dira, baina autore marxisten artean ere eztabaida zabala sortzen dute.

Hobson-en aburuz, inperialismoak parasitismo sozial eta ekonomikoa sortzen zuen metropolietan. Monopolioek edo oligopolioek sortutako ekoizpen- eta kapital-soberakinei irteera emateko, baizik eta barne-konsumoa sustatzeko politikak ezartzea, kanpoko merkatuak bilatzen dira. Politika inperialistak, gainera, garestiak dira, inbertsio handia eskatzen dute garraioan, armadan eta armamentuan, eta irabaziak enpresa multzoak kontrolatzen dituzten elite kapitalista txikien esku geratzen dira. Aldi berean, periferiako lurraldeetan ez da sustatzen jarduera ekonomiko lehiakorrik, ezta inbertsio publikorik ere.⁴⁶ Hala, ikuspuntu sozioekonomiko batetik politika inperialistak kaltegarriak dira oso, periferian bereziki, baina baita metropolietako gehien-goarentzat ere.

Era berean, Leninen ustez, finantza-kapitalak industriaren gainean daukan nagusitasuna dela eta, potentzia inperialistak Estatu errentadun edo parasitario bihurtzen dira. Monopolioen irabazi-iturri nagusia periferiako lurraldeetara emandako maileguak lirатеke. Inperialismoaren fasean, herrialde kapitalista garatuak hartzekodun bilakatzen dira, eta produkzio-prozesuak Afrikako eta Asiako herrialde azpigaratueta eramaten dituzte.⁴⁷ Industriaren eta teknologiaren transferentzia horren ondorioz baliteke periferiako herrialdeek hazkunde ekonomikoa izatea. Eta metropolietako potentzien parasitismoa kontuan hartuta, horien garapen-mailara ailegatzeta.

Gaur egun, Leninen iragarpenen kontra, produkzio-prozesu zentralek herrialde garatueta jarraitzen dute, eta periferian lehengaiak prozesatzeko lan-

⁴⁴ Amin, S., *op. cit.*; Arrighi, G., *et al.*, *Movimientos antisistémicos*, Madril, Akal, 1999, 24.-25. or.

⁴⁵ Günder Frank, A., *El desarrollo del subdesarrollo*, Madril, Zero, 1974.

⁴⁶ Hobson, *op. cit.*, 92.-114. eta 211. or.

⁴⁷ Lenin, *op. cit.*, 497.-507. or.

tegiak baino ez dira ezarri, jatorrizko herrialdeetan saltzeko.⁴⁸ Kapital-fluxu gehienak iparraldeko herrialdeen artean gertatzen dira. Horiek hartzekodun bilakatu dira, eta, kanpo-zorraren bidez, izugarrizko mozkinak zein abantaila ekonomikoak lortu dituzte Hegoaldeko merkatuetan. Herrialde azpigaratuei emandako maileguez hartzekodunen baldintza politikoak ere ekarri dituzte, herrialdeon garapen-eredua zehaztu dutenak eta kasu gehienetan haien hazkunde ekonomikoa oztopatu.

Aldi berean, dependentziaren teoriak esandakoaren kontra, lehengo herrialde kolonizatueta bai izan da nolabaiteko garapenik. Horren adibideak Txina, Hego Korea, Hego Afrika edo India dira. Estatu horiek eskualdeko potentziak bihurtu dira, eta *azpi-imperialismoak* sustatu dituzte. Callinicosen iritziz, Argentinak 1982an Malvinetan egindako eraso edo Iranen eta Iraken arteko gerra lirateke 1980ko hamarkadako gatazka inperialisten adibide.⁴⁹

ii) Teoria kritikoa, dekoloniala eta feminista. Robert Cox teorialari kritikoa esan bezala, «teoria beti dago pentsatuta norbaiten eta helburu baten alde».⁵⁰ Inperialismoa legitimatzeko pentsamolde jakin bat eratu da XVIII. mendetik aurrera, arlo akademikoan zein sozialean edo kulturean, zeinak mendebaldeko kultura goraitzen baitu eta «beste»aren irudikapen negatiboa (atzerakoa, basatia, behe-mailakoa) sortzen. Izan ere, arrazakeria eta matxismoa politika inperialisten oinarritzeko alderdiak izan dira. Baina inperialismoaren kontrako kritika gehienek ere ez dute menpekotasun-sistema horien intersekzioa teorizatu. Hobson-ek, adibidez, inperialismoaren aurkako kritika gogorra garatu zuen, baina arrazakeriaren aztarnak azaleratzen dira haren testuan zehar. Ez da harritzekoa XX. mendearen hasieran gizon britainiar batek idatzitako liburua dela kontuan hartuta. Horren harira, ezagutzaren jatorria azaleratzea eta «ezagutza deskolonizatzea»⁵¹ ezinbesteko zereginak suertatzen dira.

Teorialari kritikoen, dekolonialek edo feministek ikuspegi hori landu dute. Ramón Grosfoguel postkolonialistak, esaterako, Leninen eurozentrismoa jorratzen du. Nahiz eta inperialismoa kritikatu, bere analisiak ardatz kolonialean (menperatzailea / menperatua edo subalternoa) menperatzailearen aldean kokatzen dira, eta subalternoaren irakurketa baztertzen dute. Garapen historiko kapitalistaren faseak Europaren historiarekin bat datoz, baina kapitalismoa ez zen horrela garatu Latinoamerikan, Afrikan edo Asian, ezta aurreko produkzio-sistemak ere. Hango historia modernoa inperialismoaren menpean gertatu zen: Iparraldeak lan modu ezberdinak inposatu ditu denboran zehar (esklabo-

⁴⁸ Brewer, *op. cit.*, 540.-541. or.

⁴⁹ Callinicos, *op. cit.*, 178.-187. or.

⁵⁰ Cox, *op. cit.*, 128. or.

⁵¹ Grosfoguel, R., «Del imperialismo de Lenin al Imperio de Hardt y Negri: 'fases superiores' del eurocentrismo», *Revista Universitas Humanística Pontficia Universidad Javeriana*, 65, urtarrila-ekaina, 2008, 25. or.,

tza, soldapekoa), eta fase (edo forma) kapitalista eta aurrekapitalista aldi berean izan dira. Hardten eta Negriren inperioa ikuspegi kolonial horren beste adibide nabarmen bat da. Haien inperio modernoan, adibidez, soldatapeko lanak behera egin du, eta lan intelektualak gora. Joera hori Iparraldeko eskualde batzuetan gertatu da modu aipagarrian, baina ez mundu osoan.⁵²

Beraz, inperialismoaren inguruko analisi askotan, kritikoetan ere, irakurketa eurozentrismoa aldarrikatzen da errealitate unibertuala balitz bezala. Era berean, Grosfoguelek salatzen du analisi horietan botere-harreman ekonomikoak nagusi direla. Hedapen inperialistan, kapitalismoarekin batera, beste botere-harreman mota batzuk inposatu dira: eurozentrismoa, kristauzentrismoa, heterosexismoa edo arrazakeria.⁵³

iii) *Globalizazioa eta inperialismoa*. Globalizazioari buruzko kapituluaren esan bezala, prozesu horren inguruko eztabaidetan kapitalismoarekiko eta inperialismoarekiko lotura baztertu da.⁵⁴ Atilio Borón-en hitzetan, globalizazioa «kapitalismoaren etapa inperialistaren beste fase bat da».⁵⁵ Arestian aipatuenez, inperialismoaren teoriarik marxistek lotura kapitalistaz teorizatu zuten, eta haien jarraitzaileek analisisa eguneratu dute globalizazio kapitalistaren fasea aztertuz. Inperialismoaren autore garaikide horien artean, halere, ikuspegi bat baino gehiago bereiz ditzakegu.

Batetik, Hardten eta Negriren arabera, globalizazioaren aroan inperialismoa estatuz gairako eremutik bultzatzen da. Estatuaren sistemak ez dauka lehengo protagonismoa sistema kapitalista globalean; beraz, ez diote marxista klasikoek beste garrantzirik ematen geopolitikari.⁵⁶ Ellen Meiskins Woodek, ordea, luze kritikatu du Hardten eta Negriren irakurketa. Estatuaren sistemak kapitalismoaren zutabea izaten jarraitzen du, baina Bigarren Mundu Gerratik aurrera AEBk inperio sendoa bat finkatu du, lehiakiderik ez duena eta gainontzeko potentzia kapitalisten interesak babesten dituen.⁵⁷ Bestalde, Alex Callinicos, Peter Gowanek edo David Harveyk ere azpimarratu dute geopolitikaren garrantzia globalizazioaren aroan. Haien ustez, nahiz eta AEBk inperio bat sortu, baliteke lehiakideak agertzea (Txina arlo ekonomikoan edo Errusia eremu geopolitikoan) eta interes kontrajarriak egotea eta horrek inperialismoaren arteko gatazkak ekartzea.⁵⁸

⁵² Grosfoguel, R., «Del imperialismo...», *op. cit.*, 15.-26. or.

⁵³ Grosfoguel, R., «La descolonización de la economía-política y los estudios postcoloniales: transmodernidad, pensamiento fronterizo y colonialidad global», *Tabula Rasa*, 4, 17.-48. or.

⁵⁴ Halliday, F., «The persistence of imperialism», in: RUPERT, Mark eta SMITH, Hazel (ed.), *Historical materialism and globalization*, Londres, Routledge; Amin, *op. cit.*, 15. or.

⁵⁵ Borón, *op. cit.*, 134. or.

⁵⁶ Hardt eta Negri, *op. cit.*

⁵⁷ Wood, *op. cit.*

⁵⁸ Callinicos, *op. cit.*, 16.-17. or., Gowan, P., *The Global Gamble. Washington's Faustian Bid for World Dominance*, Londres, Verso, 1999, Harvey, *op. cit.*

Horren harira, aipagarria da marxismo klasikoan egondako eztabaida historikoa Karl Kautsky-ren *ultra-imperialismo* kontzeptuaren inguruan.⁵⁹ Kautskyk aurreikusi zuen kapitalismoa, ultra-imperialismoaren fasean, potentzien arteko lankidetzaren fasean sartuko zela. Leninek tesi hori gogor kritikatu zuen, lehia inperialistak dakarren gatazka amaigabea azpimarratuz. Kautskyren analisiari bi mundu-gerra jarraitu zaizkio, eta Leninen iragarpena konfirmatu. Hala ere, gaur egun potentzien arteko lankidetzaren arrastoak ikusten dira G-8-n, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeetan (NATO) eta ildo bereko erakundeetan. Aipatutako eztabaidan, Hardtek eta Negrik, edo Woodek, interes komunak daudela defendatzen dute, baina Harveyk, Gowanek edo Callinicossek gatazka saihetsezina dela argudiatzen dute. Eztabaida horrek berebiziko protagonismoa dauka baliabideak gero eta eskasagoak direla kontuan hartuta. Testuinguru horretan, lankidetzaren edo gatazka aregotu beharko dira.

5. ADIBIDE PRAKTIKOA: AMERIKETAKO ESTATU BATUEN IMPERIALISMOA

Inperialismo klasikoaren garaian, AEBk garapen kapitalista aurreratua zeukan ezaugarri; beraren nagusitasuna arlo teknologikoan eta ekonomikoan gero eta nabariagoa zen mundu mailan. Garai horretan, bere eragina aldameneko lurraldera hedatu zuen, Erdialdeko Amerikara eta Hego Amerikara. Eta bere imperialismo mota propioa eraikitzen hasi zen. Europar inperioak ez bezala, AEBren erretorika inperialista ez zen hedapen geografikoan edo arraza-menderakuntzan oinarritu, baizik eta haren balioen unibertsalizazioan: demokrazia eta merkatu askea. Deskolonizazioaren testuinguruan politika inperialistek estatu berrien independentzia politikoa bermatu behar zuten. Beraz, bestelako lanabesak erabiltzen ziren: merkataritza-akordioak, presio ekonomikoak edo operazio ezkutatuak. Espantsionismoa legitimatzeko barneko segurtasuna erabili zen aitzakia gisa, mehatxu komunistaren aurrean babestu beharra zegoela eta.

Estrategia hori Bigarren Mundu Gerrarekin finkatu zen. Hortik aurrera, AEBk hegemonia globala bilatu du.⁶⁰ AEB, bere eragin-eremuak Afrikara eta Asiara hedatzen zituen bitartean SESBekin lehia inperialistan, erregimen berri bat eraikitzen ari zen nazioarteko merkataritzan, diru-sisteman eta finantzetan, 1944ko Bretton Woods akordioaren bidez. Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua (MB) sortu ziren (baita Merkataritzako Mundu Erakundea izango zenaren oinarriak ere), biak Washingtonen kokatuta. Arlo

⁵⁹ Kautsky, K., «Ultra-imperialism», *Die Neue Zeit*, iraila, 1914.

⁶⁰ Gowan, P., *A Calculus of Power. Grand Strategy in the Twenty-first Century*, Londres, Verso, 2010, 127. or.

politikoan, 1945ean San Frantziskoko Konferentzian Nazio Batuen Erakundea (NBE) eratu zen, New Yorken egoitza izanda. AEB segurtasun kolektiboaren buru ere bihurtu zen, 1949an NATO aliantza militarra sortuta. Eta beraren nagusitasun kulturala gero eta nabariagoa izan da zineman, musikan eta bestelako adierazpen artistikoetan.

Estatubatuar politika inperialistetan diru-hegemonia nabaria da, batez ere Richard Nixon 1971ean dolarreko urre-patroia kendu zuenetik. Erabaki horren garrantzia azpimarratu behar da, munduko ordainketa gehienak dolarretan egiten zirela kontuan hartuta. Wall Street-i leku pribilegiatua bermatu zitzaion finantza globaletan.⁶¹

Kanpo-zorra ere lanabes adierazgarria izan da. 1973ko petrolio-krisiaren ondoren, gainera, Latinoamerikako eta Ekialde Hurbileko herrialde askok banku anglosaxoien maileguak onartu zituzten. NDFk eta MBk (hein handi batean AEBren kontrolpean) mailegu horiek kudeatu zituzten, doikuntza estrukturaleko programen bidez, non baldintza ekonomikoak eta politikoak ezartzen baitziren herrialde zordunentzat: gastu publikoa murriztea; merkataritza liberalizatzea, eta atzerriko inbertsioei sarbide askea ematea; Estatua-ren enpresak pribatizatzea; soldatak murriztea, eta langileak babesteko mekanismoak kentzea. Neurri horiek Hegoaldeko ekonomiak suntsitu zituzten, eta Iparraldearekiko dependentsia forma berriak sortu.⁶² 1980ko hamarkadan kanpo-zorraren krisiak ugaritu ziren Hegoaldean, eta herrialde horien barne-sistema sozioekonomikoa berrantolatzeke erabili ziren. Atzerriko inbertsioak sustatu ziren, eta Ipar Amerikako, Europako eta Japoniako enpresek merkatu domestikoen kontrola hartu zuten.

Politika inperialista horietan NDFk, MBk eta MMEk jokaturako rola onduz, inperialismoaren kontrako oposizioak aktore horien kontra bideratu ditu kritikak eta protestak, zeinak Globalizazioaren Aurkako Mugimenduaren ibilbidean nabariak baitira.⁶³

AEBren nagusitasun ekonomikoak merkatu askeko akordio asimetrikoak sinatzeko aukera ere eman dio. Aipatzekoa da 1994an Kanadarekin eta Mexikorekin sinatutako Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Ituna (NAFTA).

Horiek horrela, 1945etik aitzina AEBk rol nagusia mantendu du nazioarteko agertokian, harreman politiko, ekonomiko eta kultural asimetrikoak bultzatuz. Globalizazio neoliberalaren beraren hegemoniaren menpean gertatu da, eta gaur egungo nazioarteko erregimen politiko, ekonomiko, monetario eta finantzarioa bere neurri diseinatu du. Sobietar Batasuna desegin ondoren, posizio hori are nabariagoa izan da.

⁶¹ Gowan, *The Global...*, *op. cit.*, 3.-59. or.; Gowan, P., «U.S. Hegemony Today», *Monthly Review*, 55, 3, uztail-abuztua, 2003, 30.-50. or.

⁶² Gowan, *The global...*, *op. cit.*, 48.-51. or.; Bello, W., *Desglobalización. Ideas para una nueva economía mundial*, Barcelona, Icaria, 2004, 66.-68. or.

⁶³ Harvey, *op. cit.*, 62.-74. or.; Globalizazioaren Aurkako Mugimenduaren inguruan begiratu globalizazioari buruzko kapitulua, 3.iv) atala.

Izan ere, Balkanetako gerretatik aurrera, AEBk bere eragin-eremuak Kaukasora eta Asia Erdialdeko estatuetara hedatu ditu.⁶⁴ Mendebaldeko potentzia kapitalisten segurtasunaren monopolioa edukitzen jarraitzen du, zeinak oro har abantailak ematen baitizkio nazioarteko harremanetan. Wooden arabera, 9/11 osteko «terrorismoaren kontrako gerra»ren doktrinarekin, AEBk gerra amaigabea sustatu du, helburu politiko jakinak zehaztu barik. Doktrina horrek egungo inperialismo kapitalistaren premiei erantzuten die, non espantsionismo ekonomikoa izugarrikoa izan baita. Kontrol politikoa eta militarra mantentzeko, estatu asko menperatu behar dira.⁶⁵ Iraken kontrako erasoia 2003an inperialismoaren adibide nabarmen gisa definitu da, nazioarteko zuzenbidearen kontra eta NBERen baimen barik aritu zelako. Arlo akademikoan, Irakeko krisiko AEBren aldebakartasuna eta ordena konstituzionalaren haustura deskribatzeko, *neoinperialismo* edo *inperialismo berri* esamoldeak erabili dira.⁶⁶ Operazio militar horrek, arlo politikoan ez ezik, kaleetan ere oposizio zabala aurkitu zuen, eta manifestazio jendetsuak izan ziren mundu osoan.

Batzuen arabera, 2008ko krisi ekonomikoa eta aipatutako gerra iraunkorrean eginiko izugarriko inbertsio militarrek higadura eragin dute AEBren hegemonian. Finantza-sektorearen nagusitasunak produktibitate industriala baztertu du. Agertoki horren aurrean, Txina superpotentzia ekonomikoarekin edo Errusia lehiakide oiharekin tentsio inperialistak berriro ager daitezkeela aipatzen da, potentzia horiek nork bere eskualdean historikoki grina inperialistak izan dituztelako.

BIBLIOGRAFIA

- AMIN, Samir, «Capitalismo, imperialismo y mundialización», in: SEOANE, José eta TADDEI, Emilio (ed.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001, 15.-29. or.
- ARENDT, Hannah, *Los orígenes del totalitarismo*, Madril, Alianza Editorial, 2006 [1951].
- ARRIGHI, Giovanni, HOPKINS, Terence K. eta WALLERSTEIN, Immanuel, *Movimientos antisistémicos*, Madril, Akal, 1999 [1989].
- BARBÉ, Esther, «Orden internacional: ¿uno o varios? Neoimperialismo, caos y posmodernidad», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2004*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005, 155.-190. or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2004/2004_1.pdf.

⁶⁴ Gowan, *A Calculus...*, *op. cit.*, 128. or.

⁶⁵ Wood, *op. cit.*, 144.-159. or.

⁶⁶ Barbé, E., «Orden internacional: ¿uno o varios? Neoimperialismo, caos y posmodernidad», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2004*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005.

- BELLO, Walden, *Desglobalización. Ideas para una nueva economía mundial*, Barcelona, Icaria, 2004.
- BORÓN, Atilio, «Hegemonía e imperialismo en el sistema internacional», in: BORÓN, Atilio (ed.), *Nueva hegemonía mundial. Alternativas de cambio y movimientos sociales*, Buenos Aires, CLACSO, 2004, <http://bibliotecavirtual.clacso.org.ar/ar/libros/hegemo/boron1.rtf>.
- BREWER, Anthony, *Marxist Theories of Imperialism: A Critical Survey*, Londres, Routledge, 1990, 2. argit. [1980].
- BUKHARIN, Nikolai, *Imperialism and World Economy*, Londres, Bookmarks, 2003 [1915].
- BURBANK, Jane eta COOPER, Frederick, *Empires in World hHistory. Power and the Politics of Difference*, Princeton, New Jersey, Princeton University Press, 2010.
- COX, Robert, «Social forces, states and world orders: beyond International Relations theory», *Millenium – Journal of International Studies*, 10. lib., 2. zk., 1981, 126.-155. or.
- CALLINICOS, Alex, *Imperialism and Global Political Economy*, Cambridge, Polity Press, 2009.
- GOWAN, Peter, *The Global Gamble. Washington's Faustian Bid for World Dominance*, Londres, Verso, 1999.
- , «U.S. Hegemony Today», *Monthly Review*, 55. lib., 3. zk., 2003, 30.-50. or.
- , *A Calculus of Power. Grand Strategy in the Twenty-first Century*, Londres, Verso, 2010.
- GROSFUGUEL, Ramón, «La descolonización de la economía política y los estudios postcoloniales: transmodernidad, pensamiento fronterizo y colonialidad global», *Tabula Rasa*, 4. zk., 2006, 17.-48. or., http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1794-24892006000100002.
- , «Del imperialismo de Lenin al Imperio de Hardt y Negri: «fases superiores» del eurocentrismo», *Revista Universitas Humanística Pontfca Universidad Javeriana*, 65. zk., 2008, 15.-26. or., <http://www.scielo.org.co/pdf/unih/n65/n65a02.pdf>.
- GÜNDE FRANK, Andre, *El desarrollo del subdesarrollo*, Madril, Zero, 1974.
- HALLIDAY, Fred, «The persistence of imperialism», in: RUPERT, Mark eta SMITH, Hazel (ed.), *Historical materialism and globalization*, Londres, Routledge, 2002, 75.-89. or.
- HARVEY, David, *The new imperialism*, Oxford, Oxford University Press, 2003; gaztelaniazko edizioa: *El nuevo imperialismo*, Madril, Akal, 2004.
- HARDT, Michael eta NEGRI, Antonio, *Empire*, Cambridge, Harvard University, 2000.
- HILFERDING, Rudolf, *El capital financiero*, Madril, Tecnos, 1985 [1910].
- HOBBSAWM, Eric, *On Empire. America, War and Global Supremacy*, New York, Pantheon Books, 2008.
- HOBSON, John A., *Estudio del imperialismo*, in: HOBSON, J.A. eta LENIN, V.I., *Imperialismo*, Madril, Capitán Swing, 2009, 11.-395. or.; jatorrizko edizioa: HOBSON, John A., *Imperialism: A Study*, Londres, 1902.
- HOBSON, J.A. eta LENIN, V.I., *Imperialismo*, Madril, Capitán Swing, 2009.
- KAUTSKY, Karl, «Ultra-imperialism», *Die Neue Zeit*, iraila, 1914, <https://www.marxists.org/archive/kautsky/1914/09/ultra-imp.htm>.

- LENIN, Vladimir Illiach, *Imperialismo, fase superior del capitalismo*, in: HOBSON, John A. eta LENIN, Vladimir Illiach, *Imperialismo*, Madril, Capitán Swing, 2009, 399.-529. or.; jatorrizko edizioa: *Империализм, как Высшая Стадия Капитализма*, San Petersburgo, Zhizn i Znaniye, 1917.
- LUXEMBURGO, Rosa, *La acumulación de capital*, in: LUXEMBURGO, Rosa eta BUKHARIN, Nikolai, *El imperialismo y la acumulación de capital*, Córdoba, Argentina, Ediciones de Pasado y Presente, 1975, 3.-42. or. [1921 (1915an idatzia)].
- MARX, Karl, *El capital: crítica de la economía política, I. lib.*, Mexiko D.F., Fondo de Cultura Económica, 1946 [1867].
- MESA, Roberto, *Teoría y práctica de Relaciones Internacionales*, Madril, Taurus, 1980, 2. argit. [1977].
- RUPERT, Mark eta SMITH, Hazel (ed.), *Historical Materialism and Globalization*, Londres, Routledge.
- SCHUMPETER, Joseph A., *Sociología del imperialismo*, in: SCHUMPETER, Joseph A., *Imperialismo. Clases sociales*, Madril, Tecnos, 1986, 1.-105. or. [1919].
- SEOANE, José eta TADDEI, Emilio (ed.), *Resistencias mundiales. De Seattle a Porto Alegre*, Buenos Aires, CLACSO, 2001.
- WOOD, Ellen Meiskins, *Empire of Capital*, Londres, Verso, 2003.

5.

Nazioarteko Gizartea

ANDREA BERTOMEU NAVARRO ETA OSCAR ABALDE CANTERO

1. DEFINIZIOA

Nazioarteko Gizarte kontzeptua ezinbesteko elementu dugu nazioarteko harremanak aztertzeko. Honela ulertu du doktrinaren zati handi batek, onartuz kontzeptu horren definizioak, hein handi batean, nazioarteko harremanak ulertzeko era baldintzatuko duela.¹ Edonola ere, kontzeptu hau ez da eztabai-detatik urrun egon; izan ere, doktrina osoak ez du onartzen halakorik badenik ere, eta gainera ez gaude definitzeko erraza den kontzeptu baten aurrean,aldi berean nazioarteko errealitatea definitzeko helburua duten beste zenbait kontzpturekin batera bizi behar baitu (nazioarteko komunitatea, nazioarteko sistema, nazioarteko ordena...)².

Doktrinak Nazioarteko Gizartea zer den definitu behar izan duenean, askotarikoak izan dira emandako erantzunak: doktrinaren zati batek uste du Nazioarteko Gizartea definitzea ez dela egokia edo ezinezkoa dela, eta hura osatzen duten kideak eta haien arteko harremanak aztertzea jarrera egokia goa dela; doktrinaren beste zati batek uste izan du Nazioarteko Gizartea kontzeptu teoriko baten formulazio muntagabea dela, eta nahiago izan du gizarte hori beste gizataldeetatik bereizten dituen ezaugarri eta elementuak baino ez aztertu; azkenik, doktrinaren hirugarren korrante batek uste du posiblea eta beharrezkoa dela kontzeptu hori definitzea, hortik abiatuta Nazioarteko Gi-

¹ BARBÉ, E., *Relaciones internacionales*, Tecnos, 2007, 130. or.; ARENAL, C., «En torno al concepto de Sociedad Internacional», *Soberanía del Estado y derecho internacional: homenaje al profesor Juan Antonio Carrillo Salcedo*, I. lib., Marina Vargas Gómez-Urrutia eta Ana Salinas de Frías (koord.), Universidad de Sevilla, 2005, 453. or.; TRUYOL Y SERRA, A., *La Teoría de las Relaciones Internacionales como Sociología (Introducción al estudio de las Relaciones Internacionales)*, Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1973 (1. argit., 1957), 62. or.; WIGHT, M., «An Anatomy of International Thought», *Review of International Studies*, XIII. lib., 1987, 3. zk., 222. or.

² ARENAL, C. del, «En torno al concepto de Sociedad Internacional», *Soberanía del Estado y derecho internacional: homenaje al profesor Juan Antonio Carrillo Salcedo*, I. lib., Marina Vargas Gómez-Urrutia eta Ana Salinas de Frías (koord.), Universidad de Sevilla, 2005, 453. or.

zarte horretan izaten diren gertakari zein harremanak modu egokian aztertu ahal izateko ezinbesteko elementutzat harturik.

Lan honen helbururako azken korrante honi atxikiz, Nazioarteko Gizartea oso modu ezberdinetan definitu izan da. BULL eta WATSONen iritzian, Nazioarteko Gizartea «komunitate politikoki independenteen talde bat dugu, sistema bat osatzeaz gainera harremanak antolatzeko eta akordioak egiteko interes komunak onarturik elkarriketaren eta adostasunaren bitartez araubide eta instituzio komunak sortu duena».³ CALDUCHEk antzeko modu batean ulertzen du Nazioarteko Gizartea: «gizarte globala, nolabaiteko ordena batean oinarritutako elkarrenganako harreman bizi, iraunkor eta berdintasun gabeak dituzten eta giza botere autonomoa duten taldeak biltzen dituen (horien artean garrantzitsuenak Estatuak)».⁴ Azkenik, BARBÉk nahiago du modu laburrago batean definitu: «mundu mailan boterea banatzen duen giza harremanezko konplexu bat» dela esanez.⁵

1.1. **Gizartea versus Komunitatea**

Eztabaida terminologiko honek aurreko mendearen erdialdean POCH Y G. De CAVIEDESEk idatzitako artikulu batekin jo zuen goia, eta gaur egun oraindik ere badauka interesa, *Nazioarteko Gizarte* kontzeptua definitzeko lagungarri bihurtu baita.

Autore horrek adierazitakoari jarraituz, bi kontzeptu horiek bakoitzari dagozkion zenbait ezaugarriren arabera desberdindu behar dira. Nazioarteko Komunitateak, Nazioarteko Gizarteak ez bezala, batasun natural bat osatzen du, azken horren artifizialtasunaren aurrean. Nazioarteko Komunitatean integrazioa nagusitzen da, eta Nazioarteko Gizartean, berriz, dibergentziako balioak. Nazioarteko Komunitate batean arlo etikoa nagusitzen da, eta Nazioarteko Gizartean, berriz, arlo juridikoa, legea. Laburbilduz, Komunitatea «izateko» modu bat litzateke, eta Nazioarteko Gizartea «egoteko» modu bat.⁶ Nazioarteko Gizartea Nazioarteko Komunitateak duen nortasun-elementu horren faltak bereizten du. Komunitatea Gizartea baino fase aurreratuago bat da, zeren kideek, interes eta balioak partekatzeaz aparte, nortasun-sentimendu bat partekatzen dute.

Kontzeptu bi horiek baliagarri suertatzen zaizkigu gogoeta egiteko nazioarteko errealitatea bere osotasunean gaur egun hobekien definitzen duen

³ BULL, H. eta WATSON, A., *The Expansion of International Society*, Oxford, Clarendon Press, 1984, 1. or.

⁴ CALDUCH, R., *Relaciones Internacionales*, Ediciones Ciencias Sociales, Madril, 1991, or.

⁵ BARBÉ, E., *op. cit.*, 143. or.

⁶ POCH Y G. De CAVIEDES, A., «Comunidad internacional y sociedad internacional», *Revista de Estudios Políticos*, 6. lib., 12. zk. (1943), 341. or. eta hur.

eskemaren inguruan. Zentzu horretan, egun, nazioarteko harremanetako adituen artean uste zabaldua da komunitate baten aurrean baino gehiago gizarte baten aurrean gaudela. Estatuaren mundua bere osotasunean azaltzeko biderik egokiena hori bada ere, zenbait integrazio-faktorek, batez ere eskualde-mailan aurki daitezkeenak, komunitate-guneak ahalbidetzen dituzte. Horrela, faktore horien garapenak ekarriko du Nazioarteko Gizartetik Nazioarteko Komunitatera salto egitea.

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Lan honen mugak direla eta, Nazioarteko Gizartearen garapen historikoa markatu duten eta hura hobeto azaltzeko eta ulertzeko lagungarri diren bi elementuri erreparatuko diegu: alde batetik, Bigarren Mundu Gerratik abiatuta nazioarteko ordena berria eraikitzea ahalbidetu zuten inguruabarrak azalduko ditugu lerro labor batzuetan; ondoren, Nazioarteko Gizarte horren gaur egunera arteko garapena hobeto azaltzeko ezinbesteko diren krisi edo haustura handiei helduko diegu.

Egungo Nazioarteko Gizarteak Bigarren Mundu Gerran eta bertatik sortutako nazioarteko ordenan ditu erroak. Zentzu horretan, 1945etik aurrera sortutako nazioarteko sistema «klasiko»tzat har daiteke, garaiko potentzien arteko gerraren fruitu baita;⁷ izan ere, mundukoa izan zen gerra, ez bakarrik gertaerei begira, bost kontinenteetan eragina izan zuelako, baizik eta baita ondorioei begira, bertatik sortutako sistemaren mundializazioa ekarri zuelako. Hala ere, jatorri hori ezin da erabat klasikotzat hartu, ordura arte ez bezala gerra horri ez zitzaiohalako amaiera eman, Lehen Mundu Gerran Versalleseko tratatuarekin gertatu moduan, bake-konferentzia baten bitartez, non irabazleek, galtzaileei bake-baldintzak ezartzearekin batera, nazioarteko ordena berria erabakitzen baitzuten. Gerrako aliantzak haren amaierarekin batera bukatuko ziren, eta, nahiz eta orduko konferentzia handiak (Teheran, Jalta, Postdam) bake-konferentzia baten ordezkari izan zirela iruditu, halakoe-tan oso modu zalantzagarrian besterik ez ziren zirriboratu etorkizuneko eragin-eremuak.⁸

Egia esan, 1945etik aurrera sortutako sistema berriak bi errealitate izango zituen adierazgarri: etsaitasun ideologikoa, bereziki bipolarra den ordena baten eraikuntza ekarriko zuena (etsaien ordena aliatuen ordenaren ordezkari), eta aktore berrien agerpena, bereziki deskolonizazio-prozesuaren ondorioz.

Lehenengoari eutsiz, ordena bipolar berri horren ezaugarriak da bi autoritate-eremu daudela, eta eremu bakoitzak oso modu nabarmenean kontzen-

⁷ BARBÉ, E., *op. cit.*, 263. or.

⁸ *Ibidem*, 266. or.

tratuko du boterea. Bai Estatu Batuak bai Sobietar Batasuna, bakoitza bere eragin-eremuaren barruan, buruzagi ideologiko absolutu bihurtu ziren, nagusitasun hori botere militarrean eta, bereziki, arma nuklearren jabetzan oinarriturik. Aldi berean, botere ekonomikoaren eskutik eta Bretton Woods eta GATT sistemen bitartez, bipolaritate horri sistema polobakar bat gehituko zitzaion arlo ekonomikoan, Estatu Batuak buru eta dolar amerikarra ikur zituena. Sobietar Batasuna, bere aldetik, inperialismoaren eskema klasikoago bat uztartuko du, bere inguru hurbilenera zabalduz, kanpo-mehatxuetatik bere burua isolatu nahian. Horren guztiaren ondorioa Gerra Hotza izango zen, ARONek «paix impossible, guerre improbable» idatziz deskribatutako agertokia.⁹ Horren ezaugarri, hain zuzen ere, mehatxu iraunkorra izango dugu, erantzun gisa militarizazio eta arma-lasterketa neurrigabea izango duena; paradoxikoki, elkar suntsitzeko arrisku handiak eragindako ikara dela eta, eremu nuklearizatuenak bake-eremu bihurtuko ziren (bereziki Europa). Kontrapuntu moduan, munduko gainerako eremuak gatazkaz beteko ziren, potentzia biek berezko eragin-eremuak zabaldu nahian planeta osoa xake-taula edo estrategia-eremu bihurtu zutelako.

Bestalde, gerra eta eskema bipolar berriak emandako bigarren mailako papera dela eta, metropolien ahultasunak, uztarri kolonialaren pean zeuden herrien kontzientziazio handiago batekin batera, deskolonizazio-eskaeren aldeko giro aproposa sortuko zuen, alde batetik mendebaldeko nazioek garatutako estrategia neokolonial berriak lagunduta, baina baita sobietar blokeak Hirugarren Munduko Estatuari emandako sostenguak lagunduta. Ondorioz, Afrikako eta Asiako Estatuaren kopurua gehitzearekin, bipolarra zen errealtate horri bere kontrapuntua azalduko zitzaion; izan ere, Estatu horien jarre-erak ez zuen egingo ez bloke baten ez bestearen alde, Gerra Hotzaren errefusa absolutuaren ikur bihurturik.¹⁰

Orain artekoa Nazio Batuen Erakundearen bilakaeran islatu da. Batera jarduteko tresna unibertsal gisa sortutako erakundea izanik, bipolaritatea dela eta, Segurtasun Kontseiluaren ekimenaren bitartez, hasieratik «potentzien direktorio» baten kontrolpean egon zen (Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorrek osatzen zuten direktorio hori), zeren potentzia horiek beto-eskubidea beren interesen babeserako «segurtasun-balbula» gisa baliatzen baitzuten. Halere, Segurtasun Kontseiluaren paralisia deskolonizazio-prozesuaren ondorioz sortutako kide berriak sartuta gaindituko zen, eta, hala, Nazio Batuen Erakundea beste organo baten ekimenez (erakundearen eraldaketa erradikalena bultzatuko zuen Batzar Nagusiaren ekimenez), unibertsalizazio-, bakegintza- eta garapen-tresna bihurtu zen.

⁹ ARON, R., *Le grand schisme*, Gallimard, Paris, 13. or.

¹⁰ Bandung-eko espirituan eta bizikidetzak baketsuaren hamar printzipioetan jatorria duen jarrera hau hiru ideiatan laburtu dute zenbait autorek: potentzien politika kolonial tradizionalaren aurrean deskolonizazioa, blokeen politikaren aurrean neutraltasuna eta bipolaritateak sortutako gatazka-giroaren aurrean bizikidetzak baketsua.

Horrenbestez, Bigarren Mundu Gerratik sortutako nazioarteko ordena konplexua izango da, aldi berean arlo ekonomikoan sistema polobakarra dugulako, arlo diplomatiko zein militarrean sistema bipolarra eta arlo juridiko zein instituzionalean, berriz, sistema multipolarra. Dударik gabe, horrek eragina izan du hurrengo lerroetan aztertuko ditugun eta gaur egungo Nazioarteko Gizartea eratzen lagundu duten krisi eta hausturen agerpenean.

Haustura horiek Nazioarteko Gizarteko bi joera kontrajarriren ondorio dira (globalizazioa eta fragmentazioa), eta kideak nola taldekatzen diren aztertzeko modua ematen du. Ikuspegi horretatik, gutxienez bi dira Nazioarteko Gizarteak aurre egindako hausturak: ekialde/mendebalde haustura eta erdigune/periferia haustura.

Bigarren Mundu Gerra amaitu osteko Gerra Hotzetik etorritako errealitate bipolar horretan dago ekialde/mendebalde hausturaren jatorria. Oinarrian kontrajarriak diren bi pentsamolde ditugu, marxismoa eta liberalismoa, baina bestelako eremuetara zabaltzen da (soziala, politikoa, ekonomikoa...), non alde bakoitzak ere kontrajarriak diren egitura ia simetrikoak sortuko baititu (adibidez, OTAN Varsoviako Itunaren aurrean, arlo militarrean, edo Europar Erkidegoa eta ELGA CAMEren aurrean, arlo ekonomikoan). Haustura horrek, halere, aldaketak izango zituen Gerra Hotza bukatu bitarteko lau hamarkadetan, bereziki hiru gertakariren ondorioz: Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko harremanen gorabeherak [hasierako zurruntasunetik (1947-1955) distentsio-garai batera pasatuko ziren (1968-1975)], bi potentzien lidergoaren gainbehera (alde batean, Frantziak OTANeko egitura militarra bertan behera uztea eta, bestaldean, Hungariako eta Txekoslovakiako krisiak edo Txinaren eta Sobietar Batasunaren arteko haustura) eta bi blokeen lidergoa alde batera utziz sortutako harreman berriak, bereziki Europan (adibidez, Mendebaldeko Alemaniak Ekialdearekiko aurrera eramandako *Ostpolitik*a, eta Helsinkiko Akordioaren eta EBren lana).¹¹

Bestalde, erdigune/periferia haustura aurrekoa baino konplexuagoa eta sakonagoa da. Alde batera utzirik *periferia* terminoaren inguruko kontzeptu-eztabaida, eta hura *Hirugarren Mundu* kontzeptua ere biltzen duen bere esanahi zabalenean ulerturik, dimentsio anitzeko haustura baten aurrean gaude, arlo ekonomiko, politiko, kultural eta erlijioso, besteak beste, ukitzen baititu. BARBÉren iritziz, haustura horretan, bi alde identifika daitzeko: ekonomikoa eta kulturala (edo «zibilizazioarena»). Analisia egiteko zailtasun garbi bat dago: ekialde-mendebalde hausturan aurki genezakeen Estatuaren talde-banaketa argia egiterik ez dago, eta gainera bi irizpideok ez datoz bat Estatuak taldekatzeko orduan. Alde horretatik, erdigunea merkatu libreko ekonomia garatuekin (OCDEko Estatuak dira adibide garbia) eta Mendebaldekoa edo euroamerikarra den kulturarekin identifikatzea erraza-

¹¹ BARBÉ, E., *op. cit.*, 278. or. eta hur.

goa bada ere, periferia definitzea konplikatuagoa dugu, hein batean saskinaski bat bihurtu baita. Arlo ekonomikoan, haustura honek banatzen ditu, alde batetik, munduko erregimen ekonomikoak mantentzea helburu duten Estatuak (Bretton Woods, GATT...) eta, bestetik, halakoak aldatzea edo gainditzea helburu dutenak (77en Taldea, lerrokatugabeko Estatuak). Arlo kulturalean, haustura honek banatzen ditu, alde batetik, Estatuoen europar sistema eta europar zibilizazio zein kultura zabaltzea helburu duten Estatuak eta, bestetik, Europakoak ez diren eta homogeneizazio horren kontra egiteko lokarri kolonialak eta euroamerikar politika zein kultura baztertzea helburu duten Estatuak.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Oro har onartzen da egungo Nazioarteko Gizarteak, gutxienez, honako ezaugarriak dituela: gizarte mundiala, konplexua, dinamikoa, heterogeneoa, zatikatua eta, aldi berean, elkarrekiko dependentea da¹².

1. Nazioarteko Gizartea, bestelako edozein gizarte bezala, eremu espazial batean kokatuta dago. Kasu honetan, historian zehar gertatu diren hedapen geografikoen ondorioz, mundu osoko gizarte bat da gaur egun. Planeta osora hedatzen den gizartea dugu, horren izkina guztietara zabaltzen baita, eta, nahiz eta Estatu independenteen multzoak osatu, ez da estatuarteko gizarte soil bat. Gaur egun, eremu espazial horren muga objektibotzat har dezakegun hedadura mundialeko eremu hau, antzina gertatu den moduan, gainditu egin daiteke etorkizunean, bai aldaketa teknologiko, demografiko eta ekonomikoek baliabide berriak eskainiz gero, bai eremu espazial hori hedatuz gero (adibidez, Lurraz haraindiko eremuetara zabalduz).
2. Gizarte dinamikoa dugu, bertan gertatzen diren aldaketen garrantzia eta intentsitatea dela eta. Aldaketa horiek arlo askotatik datoz. Adibidez, sobietar blokearen banaketa azkarrak Estatu berri askoren independentzia ekarri zuen berekin.
3. Nazioarteko Gizartea gizarte heterogeneo gisa definitzera eramaten gaituzten arrazoiak ere ugariak dira. Hasteko eta bat, hura osatzen duten nazioarteko aktoreen kopuru handia eta haien pluraltasuna, non aktore klasikoekin batera (estatuak eta nazioarteko erakundeak) beste aktore batzuk ere topa ditzakegun (hala nola enpresa transnazionalak, GKEak edo Estatu azpiko gobernuak) horietako

¹² ARENAL, C., «La nueva sociedad mundial y las nuevas realidades internacionales: un reto para la teoría y para la política», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Tecnos, Madrid, 2001, 48. or. eta hur.

bakoitzak bere interes eta helburu propioak dituela (askotan batezuekin). Horri Nazioarteko Gizartearen ezaugarri diren desorekak, bai ekonomikoak bai bestelakoak, gehitu behar zaizkio, hura mundua bitan banatzen dutenetatik hasita (erdigune-periferia, Iparraldea-Hegoaldea, Mendebaldea eta gainerakoak...), eta potentzia handiak eta gainerako Estatuak ezberdintzen dituztenak ere kontuan izanda.

4. Nazioarteko Gizartearen gizarte deszentralizatua, oso zatikatua eta, ondorioz, integrazio gutxikoa dugu, zeren, nazioarteko erakundeen kopurua handia bada ere, instituzionalizazio-maila oso baxua da oraindik. Zatikatzeko arrazoi nagusiak dira Estatuaren subiranotasunaren mantendu nahia eta Estatuaren arteko desoreka ekonomiko, politiko eta kultural handien iraupena.
5. Aurreko bi ezaugarriak izanagatik, egungo Nazioarteko Gizarteak inoiz baino elkarrekiko dependentzia handiagoa du egun. Estatuak independente ez direla inoiz izan defendatuta badaiteke ere, gaur egun inoiz baino zentzu handiagoz baiezta daiteke hori.¹³ Dependentzia hori arlo ekonomiko zein teknologikoan bereziki nabarmentzen bada ere, giza jardueraren edozein arlotara zabaltzea daiteke baieztapena, eta potentzia handien kasuan ere horrela da, inoiz baino behar handiagoa baitute baliabideak eta energia-iturriak eskuratzeko.
6. Azkenik, orain arteko guztiaren ondorioz, Nazioarteko Gizartearen gizarte konplexua dugu. Konplexutasun hori ez dator bakarrik orain arte azaldutakotik, baizik eta bereziki beraren barnean konpontzeko dauden arazo anitzetatik. Horien artean, aipatzekoak dira geldiezin den gorakada demografikoa, garapen-bidean dauden zenbait nazioaren pobrezia gorria, ingurugiroaren hondatzea edo natura-baliabideen agortzea.

Orain artekoa kontuan izanik, egungo Nazioarteko Gizartearen globalizazioaren eta zatiketaren artean, anarkiaren eta ordenaren artean mugitzen dela esan daiteke, horren guztiaren erdian Estatu subiranoa dugularik. Anarkia, Nazioarteko Gizartearen hau osatzen duten subjektuen gaitetik autoritate zentralik ez dagoen heinean eta, ondorioz, modu apalean egituratua eta integratua dagoen heinean. Ordena, subjektu horiek zenbait helburu komun lortzeko nahia duten heinean: Nazioarteko Gizartearen existentzia zaintzea, oinarriko funtzionamendu-printzipioak eta bakea mantentzea; azken horren adibide dugu Nazio Batuetako kide izateko Estatu guztiek duten borondatea.

¹³ ARENAL, C., «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las relaciones internacionales», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Victoria-Gasteiz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2008, 206. or. eta hur.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDA

Egungo Nazioarteko Gizartea definitzeko orduan aipatu berri ditugun ezaugarriek indarrean segitzen badute ere, Berlineko Harresiaren erorketa eta, oro har, bloke komunistaren gainbehera, doktrinan zabaldua dagoen irizti bati jarraikiz, Nazioarteko Gizartearen konfigurazio berri bati buruz hitz egiteko inflexio-puntu garrantzitsua izan dira.¹⁴ Edonola ere, garapen-bidean dagoen prozesu baten aurrean gaudenez ezinezkoa dugu burututako prozesutzat hartzea.

Bi bloketan banatuta zegoen mundu hori desagertzearekin batera, elkarrenganako beldurrean oinarritutako ordena eta egonkortasun erlatiboa ere amaitu ziren, eta boterearen banaketa erabat aldatu da. Aldaketa horrek zera ekarri du: arlo politiko zein militarrean argia zen eskema bipolar batetik zenbait autorek *unimultipolar* izendatu duten sistema batera pasatzea,¹⁵ non superpotentzia batek badirauren baina aldi berean printzipalak diren beste zenbait potentzia ere badauden, oraindik ere txikiagoak diren beste zenbaitekin batera; ondorioz, elkar kontuan hartu gabe jardutea ezinezko zaie.¹⁶

Edozein kasutan, onartu beharra dago egungo Nazioarteko Gizartea bi dinamika hauek baldintzatzen dutela: globalizazioak eta elkarrekiko dependentziak.

Berlineko Harresia erori eta bloke komunistaren gainbehera hasi aurretik sortu zen globalizazio dinamika hori, baina, egoera horiek zekartzaten muga fisiko (burdinazko hesia) zein psikologikoak (aukera politikoak, sozio-ekonomikoak eta abar) desagertzearekin, abiadura handiagoz nabarmenduko zen. Globalizazioa, mundializazioa ez bezala, espazioaren zein denboraren gaintitzeak definitzen du —hau da, teknologia, garraioa eta komunikazioen iraultzak ahalmentutako berehalakotasunak eta aldiberekototasunak—, eta modu horretan subjektuen arteko truke zein interakzioek hazkunde esponentzial bat izan dute. Ekonomiaren zein finantzen ikuspegitik, ondasun eta zerbitzu komertzialen trukearen, nazioz haraindiko harremanen, ekoizpenaren deslokalizazioaren eta kanpo-inbertsioaren zein finantza-globalizazioaren hedapen ikaragarriak ezaugarritzen du globalizazio hau.¹⁷

¹⁴ BARBÉ, E., *op. cit.*, 306. or. eta hur.

¹⁵ HUNTINGTON, S., «The Lonely Superpower», *Foreign Affairs*, 78. lib., 2. zk., 1999, 35.-49. or.

¹⁶ MEDINA MUÑOZ, E., «Cambios en la sociedad internacional a partir de la caída del comunismo», *Revista AFESE*, 46. zk., 91.-92. or.; GRATIUS, S., «Las potencias emergentes: ¿Estabilizadoras o desestabilizadoras?», *Fundación para las Relaciones Internacionales y el Diálogo Exterior (FRIDE)*, 2008ko apirila, 1. or. eta hur.

¹⁷ Bi kontzeptu hauen arteko ezberdintasunen inguruan azterketa sakonago baterako, ARENAL, C., «Mundialización ...» *op. cit.*, 255. or. eta hur.

Globalizazio hori desafio nabarmen bat da Estatuarentzat, beraren lurralde-subiranotasuna ahuldu baita nazioaz gaindiko beste aktore batzuen zein Estatu kopuru mugatu baten mesedean. Ondorio garbiena izan da nazioarteko harremanetan Estatuaren zentraltasuna ahuldu dela, zenbait eremu (kapital, ondasun, informazio edo zerbitzuen zirkulazio askeaz) haien kontrolpetik atera baitira. Indarraren erabilera ere, tradizionalki Estatuaren monopolioa izan dena, aktore pribatu, segurtasun-enpresa eta enpresa pribatuen esku egoten da gero eta gehiago, eta, hala, gerra pribatizatzekeo fenomenoak gertatu da. Gainera, fenomeno hori tradizionalki Estatuarenak izan diren beste arlo batzuetara ere hedatzen da, hala nola osasunera, ekonomiara, hezkuntzara edo komunikabideetara, zeren pribatizazio- zein liberalizazio-prozesu baten ondorioz aktore pribatuen esku geratzen ari baitira. Horrenbestez, Estatuaren politiketan zein Nazioarteko Gizartean gero eta pisu handiagoa duten aktore pribatu horiek (nazioz haraindiko enpresek...) beren interes propioak ezartzen dizkiete Estatuei, edo aurre egiten diete (nazioarteko mafiek, talde terroristek...).

Horrekin batera, egungo Nazioarteko Gizartea bereziki baldintzatzen duen bigarren dinamika bat elkarrekiko dependentzia-maila altuagoa dugu. Elkarrekiko dependentzia hori giza jardueraren arlo guztietara hedatzen da, eta globalizazioak, hein batean, beraren efektuak biderkatzen lagundu du. Estatuaren arteko dependentzia gorakor horrek ahalbidetzen du, alde batetik, mundua mehatxatzen duten arazo globalei (pandemiak, ingurugiroa, natura-baliabideen eskasia, etab.) aurre egiteko kooperazio-maila handi bat, baina,aldi berean, Estatuaren erreferentzia gainditzea dakar berekin, indarra nazioarteko erakunde zein instituzioen sareetan jarriz eta Estatuaren botereari indarra kenduz. Horren guztiaren ondorioz, Nazioarteko Gizartean beste haustura bat agertu da, elkarrekiko dependentzia-maila handia duten Estatuaren (edo beste aktore batzuen) eta dependentzia-maila txikia duten besten artean. Horren ondorio zuzena dugu garatuak diren Estatuaren eta garabidean dauden Estatuaren arteko dependentzia, menderakuntza eta desberdintasunaren gorakada garbia; hori bai, ezari-ezarian datoz ezarpenok, motelago eta sakonago antzina baino (adibidez, indarra ez da erabiltzen).¹⁸

Oro har, Doktrinak bi dinamika horien ondorio hauek aipatu ditu, besteak beste: nazioarteko harremanetan Estatuaren zentraltasuna ahuldu da; Estatuaren barne- eta kanpo-politikaren arteko mugak desagertu dira; Estatu ez diren beste aktore berri batzuk (nazioz haraindikoak eta Estatu azpikoak) garatu eta indartu dira; aktoreen artean boterearen izaera eta banaketa aldatu dira; Nazioarteko Gizartean eskualdea ezinbesteko faktore bihurtu da; segurtasunaren kontzeptu berria sortu da eta gatazka armatuen tipologia berri bat agertu da; Potentzia Handiaren kontzeptua eta erreali-

¹⁸ MEDINA MUÑOZ, E., *op. cit.*, 95. or.

tatea moldatu da; globala den mehatxu- edo arrisku-gizarte bat agertu da; nazioarteko kontsentsu eta elkartasun handiago bat ere bai, eta, azkenik, gizakien eta gizatasunaren dimentsioaren balioa handitu da nazioarteko harremanen eremuan.¹⁹

Aipatutako hori guztia kontuan izanda, Nazioarteko Gizarteaz azken urteotan nolabait forma ezagunak zituen mundu batetik (bipolaritatea, arlo politiko-militarrean; Estatu Batuen nagusigoa, arlo ekonomikoan...) nahasiagoa den eta segurtasun gutxiago duen errealitate batera pasatu da, non *polobakar*, *bipolar*, *multipolar* edo *apolar* terminoek ez baitute egungo Nazioarteko Gizartearen errealitate berri hau argitzen, partziala eta mugatua den ikuskera estatuzentriko batetik abiatzen baitira.²⁰

BIBLIOGRAFIA

- ARENAL, C., *Introducción a las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 1994.
- ARENAL, C., «La nueva sociedad mundial y las nuevas realidades internacionales: un reto para la teoría y para la política», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Tecnos, Madril, 2001, 17.-85. or.
- ARENAL, C., «En torno al concepto de Sociedad Internacional», *Soberanía del Estado y derecho internacional: homenaje al profesor Juan Antonio Carrillo Salcedo*, 1. lib., Marina Vargas Gómez-Urrutia eta Ana Salinas de Frías (koord.), Universidad de Sevilla, 2005, 453.-464. or.
- ARENAL, C., «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las relaciones internacionales», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2008, 181.-286. or.
- BARBÉ, E., *Relaciones internacionales* (3. argit.), Tecnos, Madril, 2007.
- BECK, U., *La sociedad del riesgo global*, Siglo XXI, Madril, 2002.
- BULL, H. eta WATSON, A., *The Expansion of International Society*, Oxford, Clarendon Press, 1984.
- CALDUCH, R., *Dinámica de la Sociedad Internacional*, CEURA, Madril, 1993.
- CALDUCH, R., *Relaciones Internacionales*, Ediciones Ciencias Sociales, Madril, 1991.
- MESA, R., «La sociedad Internacional contemporánea», in: *La nueva Sociedad Internacional*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1992, 109.-136. or.

¹⁹ ARENAL, C., «La nueva...», *op. cit.*, 58. or. eta hur.; ARENAL, C., «Mundialización...», *op. cit.*, 229. or. eta hur.

²⁰ SANAHUJA, J.A., «¿Un mundo unipolar, multipolar o apolar? El poder estructural y las transformaciones de la sociedad internacional contemporánea», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2008, 380. or.; ARENAL, C., «Mundialización...», *op. cit.*, 181.-286. or.; BARBÉ, E., «Multilateralismo: adaptación a un mundo con potencias emergentes», *Revista Española de Derecho Internacional*, 62. lib., 2. zk., 2010, 26. or. eta hur.

- POCH G. eta CAVIEDES, A., «Comunidad internacional y sociedad internacional», *Revista de Estudios Políticos*, 6. lib., 12. zk. (1943), 341.-400. or.
- SANAHUJA, J.A., «¿Un mundo unipolar, multipolar o apolar? El poder estructural y las transformaciones de la sociedad internacional contemporánea», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2008, 297.-383. or.
- TRUYOL Y SERRA, A., «Genèse et structure de la société internationale», *Recueil des Cours de l'Académie de Droit International de la Haye*, 96 (1959-I), 553.-642. or.
- TRUYOL Y SERRA, A., *La Sociedad Internacional*, Alianza, Madril, 1991.
- WATSON, A., *The evolution of international society*, Routledge, Londres, 1992.

6.

Nazioarteko Erakundeak

ANDER GUTIÉRREZ-SOLANA JOURNOUD ETA IKER ZIRION LANDALUZE

1. DEFINIZIOA

Nazioarteko harremanetan aktore ugari daudela ezin da ukatu. Aktore publiko eta pribatuak bereizirik (haien artean erantzukizun-maila desberdina izan arren), pribatuek poliki-poliki gero eta botere handia hartu dutela ohartuko gara. Horrek ez du esan nahi gizarte politikoak, publikoak, kontrola erabat galdu duenik eta gizarte ekonomikoari, hots pribatuari,¹ eman dionik. Baina egia da horrek adierazten duela dinamika aldatzen ari dela eta, horren ondorioz, nazioarteko eremuan boterea berrantolatzen ari dela.²

Nazioarteko gizartean eremu publikoan daudenak Estatuak dira, jakina, eta baita nazioarteko erakundeak (NE) ere. Estatuak, dudarik gabe, nazioarteko gizartea antolatu zuten. Gizarte hori, teoria gehienek ustez, anarkikoa da, eta beste batzuen ustez egitura piramidal eta hierarkiko bat dauka.³ Hala ere, nazioarteko harremanak egituratzeko eta arautzeko eginkizunean Estatuak eragina etengabe txikiagotzeko galdera bat dakar: nora joan ote dira Estatuak galdutako eskuduntzak? Galdera horrekin batera beste bat agertzen da: galdu diren eskuduntzak, nazioarteko erakundeek hartu dituzte ala nazioarteko gizarteko aktore pribatuek bereganatu dituzte? Ikuspuntu horretatik, nazioarteko erakundeen gailentasuna nazioarteko aktore eta Nazioarteko Zuzenbideko subjektu gisa guztiz erabakigarria da.

Nazioarteko erakundeen jatorriaren arrazoiak alde batera utzirik, nazioarteko instituzioen definizioa adostu daiteke. Beraz, J.M. Sobrinok nazioarteko erakundeak honela aurkezten ditu: «Nazioarteko akordio baten bitartez sortutako Estatuak arteko borondatezko elkarteak, organo propio, finko eta independenteak dituztenak, interes kolektiboak kudeatzeko gai

¹ Laidi, Z. eta Lamy, P., «La gouvernance, ou comment donner sens a la mondialisation» in P. Jacquet, J. Pisani-Ferry eta L. Tubiana, *Gouvernance mondiale*, Paris, Documentation Française, 2002, 200. or.

² Gutiérrez-Solana, A., *La legitimidad social de las Organizaciones Internacionales*, Bartzelona, Marcial Pons, 2014, 11.-15. or.

³ Zolo, D., *Cosmópolis. Perspectiva y riesgos de un gobierno mundial*, Bartzelona, Paidós, 2000, 44. or.

direnak eta Estatu kideena ez den borondate juridiko bat adierazteko ahalmena dutenak».⁴

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Nazioarteko gizarte eta ohitura diplomatikoen eboluzioak nazioarteko erakundeen sorrera bultzatu zuen. Hala, Estatuak onartzen dute aldebakarreko ekintzen bidez ezin dituztela beren beharrak bete eta elkarrekin lan egin behar dutela. Aldi berean, Estatuak egunero balio, printzipio eta helburu batzuk partekatzen dituztela ikusten dute. Azken finean, interdependentziak eta elkartasunak usadio diplomatikoak aldarazten dituzte: aldebiko diplomaziatik hasi eta, konferentziako⁵ diplomaziatik igarota, diplomazia instituzionalera heldu arte, organo egonkor eta iraunkorrez egituratutako nazioarteko erakunde baten barruan.

XIX. mendearen bukaeran erakunde tekniko eta ekonomiko batzuk (1874ko Nazioarteko Posta Batasuna edo 1905eko Nekazaritzaren Nazioarteko Bulegoa) sortu ziren gaur egungo nazioarteko erakundeen gisan (hori gertatu baino lehen, beste bide instituzional batzuk hartu zituzten Estatuak; adibidez, Europako Erreka Batzordeak). Erakunde eredu hori gerrarteko garaian hedatu zen; adibidez, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) aurrekoa izandako Nazioen Liga eta oraindik indarrean dagoen 1919ko Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE). Azkenik, 1945ean Nazio Batuen Erakundearen sorrerarekin⁶ behin betiko indarraldia hartu zuen.

Estatuak nazioarteko erakundeak sortzen zergatik hasi ziren jakiteko, nazioarteko kapitala kontrolatzeko asmoa eta beharra zutela onartu behar dugu. Modu horretan, nazioarteko egitura eta ordena babesten saiatu ziren erakunde instituzionalen forma hartuz.⁷ Hala eta guztiz ere, nazioarteko erakundeak hain garrantzitsu bilakatu dira, non aktore horiek aztertu barik ezinezkoa baita nazioarteko errealitate eta gobernantza ulertzea. Dena den, behin independentzia lortuta jaiotako berri diren Estatuak egiten dituzten lehen gauzatariko bat da nazioarteko erakundearen sarean sartzea. Izatez, sarritan, Estatuak ehun nazioarteko erakundetan baino gehiagotan parte hartzen dute.⁸

⁴ Sobrino, J.M., «Las Organizaciones internacionales: generalidades» in M. Diez de Velasco, *Las Organizaciones Internacionales*, Madrid, Tecnos, 14. argit., 2007, 43. or.

⁵ Diplomazia-ohitura aldeaniztunak nazioarteko konferentzia baten barruan.

⁶ Sobrino, J.M., *op. cit.*, 38.-41. or.

⁷ Holly, D.A., *Les Nations Unies et la mondialisation*, Dunkerke, L'Harmattan, 2003, 49. or.

⁸ Jacobson, K., Reisinger, W. eta Matters, T., «National entanglements in International Governmental Organizations» in P.F. Diehl (ed.), *The Politics of Global Governance*, Londres, Lynne Rienner Publishers, 1997, 65.-67. or.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Nazioarteko erakundeak nazioarteko harremanetako aktore funtsezko eta bereziak dira. Erakunde horiek bai arauak bai beharrak ekoizten dituzte. Gainera, hierarkian horiek baino gorago egon arren, Estatu kideekin eta gizartearekin harreman berezi bat dute haien euskarri direlako. Aldi berean, nazioarteko erakundeen barruko dinamikek diplomazia eta negoziazio aldeaniztunak baldintzen dituzte: nazioarteko erakundeek aldez aurreko mugak eta aukerak ezartzen dituzte, eta, horren ondorioz, Estatuaren eta nazioarteko beste aktoreen ekimen-gaitasuna, estrategiak eta helburuak zedarritzen dira.⁹

Ez dago nazioarteko erakundeetarako eredu bakarra, nahiz eta askok Nazio Batuen Erakundea eredutzat hartzen duten beren egitura finkatzeko orduan. Hain zuzen ere, modu desberdinetan sailka genitzake nazioarteko erakundeak: eragin-eremua irizpide moduan izanda, erakunde unibertsalak (NBE) eta eskualdekoak (Europar Batasuna, ASEAN, eta abar...) bereizten ditugu; haien xedekak zeintzuk diren kontuan izanik, baditugu erakunde orokorrak (NBE, EB, eta abar...), eta espezifiko eta teknikoak (LNE, Munduko Osasun Erakundea, eta abar...). Dena dela, nazioarteko erakundeen definizio orokor bat proposatzeko, ezaugarri batzuk azpimarratu behar ditugu:

Lehenengo eta behin, nazioarteko erakundeak beste aktore politiko batzuen borondatezko ekimenetik sortzen dira. Horrek esan nahi du sortzaile eta «sortuak» diren erakundeen arteko harremanak oso estuak direla. Beste hitz batzuekin esanda, nazioarteko erakundeen jatorria nazioarteko tratatu aldeaniztun bat izaten da, eta, horren ondorioz, nazioarteko zuzenbideko subjektu berri bat jaiotzen da.

Beste alde batetik, eta zentzu berean, nazioarteko erakundeen subjektibitate juridikoa ez dator soilik Estatu kideen onarpenetik. Nazioarteko ordenamenduak eta jurisprudentziak *erga omnes* tasun aurkaragarria aitortzen die halako erakundeei,¹⁰ ezaugarri berezi batzuk betetzen baldin badituzte. Subjektibitate juridiko horrek esan nahi du nazioarteko instituzioak beren «sortzaileekiko» independenteak direla, eta, aldi berean, Nazioarteko Erakundeen juridiko izaerak nazioarteko gizartea behin betiko aldatzen du, Estatuaren arteko talde bat berriro sekula ez delako izango.

⁹ Cornago, N., «Elementos para el análisis del proceso político en los regímenes internacionales: el multilateralismo no necesariamente formalizado», *Anuario de Derecho Internacional*, 15 zk., 1999, 211. or.

¹⁰ Casanovas y de la Rosa, O., «Unidad y pluralismo en Derecho internacional público», *Cursos Euromediterráneos Bancaja de Derecho internacional*, II. bol., 1998, 155.-156. or.

Zentzu horretan, eta hirugarren ezaugarri gisa, Sobrino Herediak¹¹ nazioarteko erakundeek barne-organo egoki, iraunkor eta independenteak dituztela diosku bere definizioan, eta horrek instituzioen iraunkortasun-asmoa dakar. Nahiz eta erakunde bakoitzak bere egitura nahi duen moduan antolatzen duen, nazioarteko erakunde guztiek, Estatuetatik bazter, eguneroko lana aurrera ateratzeko eta erabakiak hartzeko barne-organoak dituzte.

Interes kolektiboak kudeatzen dituzten gobernuen barne-organo horiek nazioarteko erakunde guztien laugarren ezaugarria aurreratzen digute: Estatu kideena ez den borondate juridiko bat eduki eta jakinaraztea. Ezaugarri horrek azaleratzen du nazioarteko erakundeak autonomia erraldoia hartzen ari direla eta, nola edo hala, mundu mailako gobernuaren aktore gako bihurtu direla. Hain zuzen ere, nazioarteko erabaki garrantzitsuenak, gero eta gehiagotan, nazioarteko erakunde orokor, tekniko edo eskualdekoen gain uzten dira, eta horrek, *ad hoc* negoziazio aldeko eta aldeaniztunen eremua murriztu du. Nazioarteko erakundeek, Estatuaren eskuordetzearen ondorioz sortu eta gero, beren bizitza propioa hartzen dute nolabait.¹² Nazioarteko instituzioek, haien barruko dinamika eta kulturagatik Estatuaren eskuordetzeaz gain, ustekabe eta arazo anitzi aurre egin behar izaten diete

Estatuaren arteko elkarkidetzak instituzionalizatuak oso goiz gainditu ditu bere mugak. Estatuak nazioarteko erakundeak gobernatu behar zituzten arren, nazioarteko agentzia espezializatuek (adibidez, Munduko Bankuak edo Nazioarteko Diru Funtsak) beren bidea hartu zuten oso goiz, akziodunen eskuetan ez zutelako egon nahi.¹³ Egia esan, nazioarteko erakundeek haien zeregina zehazten duen estatutuaren arabera jarduten dute. Beste era batean esanda, estatutu horrek barne-koherentzia ematen die, eta aukera nazionalen batura hutsetik kanpoko erabakiak hartzera eramaten ditu.

Horrela, eta bosgarren ezaugarri gisa, autonomia hori legegintza-ahalmenak indartuta dago.¹⁴ Legegintza-ahalmena Estatu kideentzat derrigorrezko arau juridiko batzuk sortzeko eskuduntzan datza, eta horrek nolabaiteko hierarkia bat sortzen du Nazioarteko Zuzenbideko arauen artean. Nazioarteko arauen derrigortasuna ukazina da, mailaketa bat egon arren, eta berezko duten galdagarritasunarekin ez nahastea komeni da.¹⁵ Nazioarteko erakundeek legegintza-ahalmen horrek eta horretatik sortutako arauak betearazteko ahalmenak nazioarteko erakundeek gaur egungo garrantzia

¹¹ Sobrino, J.M., *op. cit.*, 43. or.

¹² Jacquet, P., Pisani-Ferry, J., eta Tubiena, L., *Gouvernance mondiale*, Paris, Documentation Française, 2002, 34. or.

¹³ *Ibidem*, 68.-69. or.

¹⁴ Casanovas y de la Rosa, O. eta Rodrigo, A., *Compendio de Derecho Internacional Público*, Madril, Tecnos, 2012, 112. or.

¹⁵ *Ibidem*, 113. or.

azpimarratzen dute. Nazioarteko erakundeek beren tratatu osagarrietatik sortutako eremu «konstituzional» bat daukate, eta, horren ondorioz, beren ahalmen eta eskuduntzen bitartez parte hartzen dute Nazioarteko Zuzenbidearen eraikuntzan. Egia esan, «nazioarteko erakundeei araugintza-ahalmena aitortzen zaie»¹⁶ batzuetan erakundearen barruan eta, bestetan, nazioarteko harremanetan (hots, instituziotik kanpo) erabiltzeko. Bigarren kasu horretan, Estatu kideentzat behar juridiko batzuk ezartzen dituzte, eta, horren ondorioz, Nazioarteko Zuzenbidearen eboluzioan eragina izan dezake. Zentzu horretan, Sobrino Herediak azpimarratzen du nazioarteko erakundeen legegintza-ahalmena «erakundearen barruko gaiak baino garrantzitsuagoa dela eta beste nazioarteko subjektu batzuei eragin diela, baita partikularrei ere noiz edo noiz».¹⁷

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

Gai horri buruzko ikuspuntua, noski, erabiltzen dugun ikusmolde teorikoaren arabera aldatuko da. Hala eta guztiz ere, nazioarteko gaietan Estatuak indarra galtzen ari direla onartuz gero, beharrezkoa da nazioarteko gizartearen errealitatearen eskema bat eraikitzea. Kosmopoliten proposamenek, adibidez, azpimarratzen dute nazioarteko loturak eta interdependentziak Estatu modernoari aurre egiten diotela.¹⁸ Beraz, Estatuenean moduko munduko gobernu bat sortu behar litzateke errealitate berria kudeatzeko. Beste batzuentzat, munduko holako gobernu baten ideia hutsa «inbasiboa eta interbentzionista»¹⁹ da. Hala ere, nazioarteko errealitateak ekintzak kooperazio-egitura baten barnean koordinatu behar direla onartzen dute. Eztabaida hau hausnarketa orokor baten parte da: etorkizunean nazioarteko erakundeen rola nola finkatuko den.

Nazioarteko erakundeei buruzko ikuspuntu teorikoak laburbiltzen saiatu gara, proposamen errealistak, liberalak, konstruktibismo sozialak eta teoria kritikoa zer dioten hona ekarriz.

Errealismoa, ildo batekoa nahiz bestekoa, ikuspegi hedatuena da Nazioarteko Harremanen diziplinan. Teoria horrek adierazten du barruko eta nazioarteko errealitateen azterketak oinarri guztiz desberdinetatik egin behar direla. Barruko eremuan legea errespetatzen den bitartean, nazioar-

¹⁶ Pastor Ridruejo, J.A., *Cursos de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2008, 679. or.

¹⁷ Sobrino, J.M., «Los medios jurídicos de acción: el derecho de las organizaciones internacionales», in Díez de Velasco, M., *Las organizaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2007, 138. or.

¹⁸ Held, D., *La democracia y el orden global. Del Estado moderno al gobierno cosmopolita*, Paidós, Barcelona, 1997, 319. or.

¹⁹ Zolo, D., *op. cit.*, 207. or.

teko harremanak anarkiko eta gatazkatsuak direla ikusten da, Nazioarteko Zuzenbideak ezin baitu bere indarra inposatu. Zentzu horretan, Estatuak, fede onez elkarrekin lan egin beharrean, beren artean lehiatzen dira. Ikusten denez, nazioarteko erakundeen rola minimizatzen da, eztabaida-foro gisa, nazioarteko gatazkak kudeatzeko aktore gisa edo Estatu indartsuen tresna gisa.²⁰

Liberalismoak modu onberan, kantiarrean, ikusten ditu nazioarteko gizartea eta gizakia bera. Estatuak kanpoan pertsona multzo baten ordezkari denez, beren interes eta helmugak era askotakoak eta aldakorrek dira. Beraz, Estatuaren arteko nazioarteko kooperazioa desiragarri izateaz gainera, beharrezkoa eta onuragarria da. Holako kooperazioa helburu komun batzuk lortzeko elkarrekin egiten den lana da liberalismoaren ikuspuntutik, eta, horren ondorioz, estatuaren arteko interdependentzia indar handiagoa hartuz doa. Beraz, liberalismoak eztabaida-forotzat hartzen ditu nazioarteko erakundeak, arazo komunak konpontzeko eta Nazioarteko Zuzenbidea bultzatzeko eta hobetzeko lekua direla iritzirik.²¹

Konstruktibismo sozialak Estatuaren interes eta identitateak sortzeari eta finkatzeari ematen dio lehentasuna. Haren ustez, nazioarteko erakundeak Estatuaren interakzioaren bidez eraiki dira, eta, ondorioz, aldatu egin daitezke. Estatuaren portaera aldatzen da nazioarteko errealtateko instituzio eta arauak buruz duten iritziaren arabera. Estatuaren arteko interakzioak errealtate hori aldatzen du, eta, berriz ere, horrek esan nahi du Estatuaren identitate eta interesen pertzepzioa desberdina izan daitekeela. Nazioarteko erakundeak estatu arteko interakzio-foro bat da haientzat. Beraz, Estatuaren portaera mugatzen duten arau aldeaniztunek erregulatzen dituzte nazioarteko erakundeak eta, azkenean, haien interes eta identitateei eragiten diete. Hauxe da nazioarteko erakundearen benetako boterea konstruktibista sozialentzat: lankidetzan aritzea, elkarri eragitea, eta Estatuaren interesak zehazteko gizarte-eremu bat eskaintzea.²²

Teoria kritikoen euren ikerketak ekonomian oinarritzen dituzte. Zentzu horretan, holako teoriak uste dute nazioarteko errealtatea dela prozesu ekonomikotik sortutako kapitalismoak langile-klaseak menderatzearen emaitza. Kapitalismoa produkzio-bide legez ikusita, produkzioa nork zuzentzen eta nork inplementatzen duten bereiz daiteke. Horrela ikusita, botere- eta mendekotasun-harremanak sortzen dira. Nazioarteko eremuan, ikuspuntua berdina litzateke. Beraz, produkzio-bideak zer klase sozialek zuzentzen dituzten eta nongoak diren ikusi behar da, jakiteko zer klase sozialek eta nongoek jasaten dituzten kapitalismoaren ondorioak —hots, es-

²⁰ Rittberger V. eta Zangl, B., *International Organization. Polity, Politics and Policies*, New York, McMillan, 2006, 14.-16. or.

²¹ Karns, M.P. eta Mingst, K.A., *International Organizations. The Politics and Processes of Global Governance*, Londres, Rienner, 2010, 36.-38. or.

²² *Ibidem*, 50.-52. or.

plotazioa eta txirotasuna—. Ikuspuntu horretatik, nazioarteko erakundeak tresna hutsak dira Estatu indartsuek beren erregimen juridikoak, balioak eta klase kapitalista menderatzeko metodoak inposa ditzaten.²³

5. ADIBIDE PRAKTIKOA: NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

Nazio Batuen Erakundea²⁴ (NBE) 1945eko urriaren 24an sortu zen ofizialki. Haren xede garrantzitsuenak hauek dira: nazioarteko bake eta segurtasuna mantentzea, herrialdeen arteko harreman adiskidetsuak garatzea, giza aurrerapena sustatzea eta giza eskubideak errespetaraztea. Egun, 193 Estatu subirano dira NBEko kide, erakundearen mundu-mailako bokazioaren erakusgarri. Hala ere, nahiz eta munduko erreferentzia-foroa izan alor politiko, ekonomiko, kultural eta abarretan, azpimarratu beharra dago NBE ez dela munduko gobernuia.

5.1. Ibilbide historikoa

Lehen nazioarteko erakundeak XIX. mendean sortu ziren, eta haien helburuak nahiko zehatzak ziren, batez ere alor teknikoan. Urte batzuk geroago, Lehen Mundu Gerrako potentzia irabazleek sortu zuten mundu-mailako bokazioko eta helburu orokorreko lehen nazioarteko erakundea; hain zuzen ere, Nazioen Elkartea. Nazio Batuen aitzindaria da erakunde hori, eta 1919an sortu zen, eratze-agiriaren arabera helburu nagusia izanik «nazioarteko lankidetzaren sustatzea eta nazioarteko bake eta segurtasuna lortzea». Nahiz eta nazioarteko lankidetzaren praktika sustatu zuen, erakundea ez zen gai izan garai hartan egon ziren hainbat gatazka ekiditeko, batez ere Bigarren Mundu Gerra. Hori izan zen, dudarik gabe, Nazioen Ligaren porrot nagusia. Bigarren Mundu Gerraren garaian —1941etik 1945era, hain zuzen ere—, Estatu boteretsuetako buruzagiak bake iraunkorra lortzeko modua aztertzen hasi ziren, topaketa batzuetan lortutako akordio multzo baten bidez. Akordio horietan, Nazio Batuen Erakundearen nondik norako batzuk ere eztabaidatzen hasi ziren.

San Frantziskoko Konferentzian (1945eko apirilaren 25ean). AEBk, Sobietar Batasunak, Txinak eta Erresuma Batuak beste berrogeita sei Estatu gonbidatu zituzten Nazio Batuak antolatzea helburu zuen batzarrerara. Han, Nazio Batuen Gutunaren 111 artikulua idatzi zituzten, lau Estatu garrantzi-

²³ *Ibidem*, 53.-54. or.

²⁴ Gehiago jakiteko Nazio Batuen Erakundeari buruz, ikus daiteke: Iturre M., eta Moure, L., *Nazioarteko erakundeetarako sarrera: Nazio Batuen kasua*, Euskara Errektoreordetza, UPV/EHU, 2008, 34.-54. or.

tsuenen funtsezko eskaerak aintzat hartuz. Gutuna 1945eko ekainaren 25ean onartu zen, aho batez, San Frantziskon bertan.

5.2. Ezaugarriak

Nazio Batuen Gutunaren I. kapituluak («Xedeak eta printzipioak») bi artikulatu ditu. Lehenengo artikulua²⁵ erakundearen xedeak ezartzen ditu. Xede horiek lortzeko, erakundeak eta bertako kideek honako printzipio hauen arabera jardun beharko dute (2. artikulua).²⁶

Nazio Batuen jarduera-alor nagusia nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea da. Izan ere, erakundeak Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen, eta beraren asmoa zen Estatuaren arteko eztabaidetan indarra erabiltzearen debekua ezartzea eta konponketa baketsua sustatzea.

Urteetan zehar, hainbat gatazkari amaiera ematen lagundu dute Nazio Batuek. Hala ere, argi dago gatazka batean baino gehiagotan erakundearen ezintasuna agerikoa izan dela. Bestalde, Nazio Batuei esker giza eskubideen inguruko funtsezko tresna juridikoak sortu dira. Horren ondorioz, historian lehenengoz, gizateriak nazioarte-mailan babestutako giza eskubideen kode unibertsala du; hots, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948an onartutakoa. Horren garapenari esker, alde batetik, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak definitu dira,²⁷ eta, beste aldetik, eskubide horiek sustatzeko eta babesteko eta Estatuari haien betebeharrak hartzen laguntzeko mekanismoak ere ezarri ere bai. Halaber, erakundeak deskolonizazio-prozesuan egindako lana ere bistakoa dugu.

NBE nazioarteko Estatu arteko erakunde bat da. Beraz, bertako kideak Estatu subiranoak baino ez dira. Nahiz eta munduko Estatu guztiak erakun-

²⁵ 1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea; horretarako, neurri kolektibo eragin-garriak hartzea bakearen aurkako mehatxuak saihestu eta ezabatzeko, zein erasoak edo bakearen beste urratze batzuk deuseztatzeko; eta, bide baketsuen bidez, justiziaren eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioen arabera, bakea urra dezaketen nazioarteko egoera edo eztabaidak moldatu edo konpontzea.

2. Eskubide-berdintasuna eta herrien determinazio askearen printzipioen errespetuan oinarrituta, nazioen

artean adiskidetasun-harremanak sustatzea eta munduko bakea sendotzeko neurri egokiak hartzea.

3. Nazioarteko lankidetzak gauzatzea bai izaera ekonomiko, sozial, kultural edo humanitarioko nazioarteko arazoetan zein pertsona guztien giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetuan, garapenean eta sustamenean, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijio-arrazoia direla-eta bereizketarik egin gabe.

4. Helburu komun horiek erdiesteko, nazioen ahaleginak bateratzeko gune gisa balio izatea.

²⁶ Pastor Ridruejo, J.A., *Curso de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid, 2003, 721. or.

²⁷ 1966an onartu ziren funtsezkoak diren «Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna» eta «Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna».

deko kide ez izan, mundu-mailako bokazioa duen erakunde baten aurrean gaude. Guztira, gaur egun, 193 kide dituzte Nazio Batuek. Erakundeko kidea bihurtzeko Segurtasun Kontseiluaren onarpena behar-beharrezkoa denez, ezinezkoa izango da herrialdeak kide iraunkor guztien onespena barik erakundean sartzea. Horregatik, adibidez, Taiwan, Saharar Errepublika Arabiar Demokratiko edo Kosovo ez dira oraindik Nazio Batuetan sartu. Beste herrialde batzuk (Palestina, esate baterako) ez-estatu kide izendatu zuen NBEk. Nazioarteko erakunde batzuk ere behatzaileak dira Nazio Batuetan; besteak beste, Europar Batasuna edo Arabiar Estatuaren Liga.

Nazio Batuen Gutunaren 7.1 artikulua esaten duenez, erakundeak sei organo nagusi ditu. Horietako bost egoitza nagusian daude, hots, New Yorken (AEB): Batzar Nagusia, Segurtasun Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Lurralde Fiduziarioen Administrazio Kontseilua eta Idazkaritza. Seigarrena, Nazioarteko Justizia Auzitegia, Hagan (Herbehereak) dago.

Batzar Nagusian erakundeko kide guztiek parte hartzen dute (Gutunaren 9. artikulua). Horrela izanda, gaur egun, 193 Estatu kidek osatzen dute Batzarra. Batzarrak, urtero ohiko saio bat egiten du era intentsiboan, irailetik abendura arte; Halaber, inguruabarrek hala eskatzen duten bakoitzean, saio bereziak egiten dira. Batzar Nagusiaren eginkizunak honako hauek dira, besteak beste:

- Nazioarteko bakeari eta segurtasunari buruzko gai oro aztertzea, eta, Segurtasun Kontseilua eztabaidan ari ez denean, gomendioak ematea (11.2 art.).
- Nazioarteko bakea edo segurtasuna arriskuan jartzeko moduko egoerak direla-eta Batzar Nagusiak Segurtasun Kontseiluari ohar egin diezaiolke (11.3 art.).
- Alde batetik, nazioarteko lankidetzaren politikoa, nazioarteko zuzenbidearen garapena eta kodifikazioa eta, beste aldetik, giza eskubide eta oinarritzko askatasunen gozamenerako eta alor ekonomiko, sozial, humanitario, kultural, hezkuntzazko eta osasuneko nazioarteko lankidetzaren sustatzeko ikerketak hasia eta gomendioak lantzea (13. art.).
- Estatuaren arteko harreman adiskidetsuei kalte egin diezaielkeen egoerak bitarteko baketsuen bidez konpontzeko gomendioak ematea (14. art.).

Segurtasun Kontseilua nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzearen arduradun nagusia da (24. artikulua). Kontseiluak 15 kide ditu; hain zuzen ere, bost kide iraunkorrez gainera — Errusiako Errepublika, Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Erresuma Batua eta Txina — beste hamar kide ez-iraunkor. Gutunaren VII. kapituluaren arabera (*Bakerako mehatxu, bakearen urratze edo eraso egintzetarako ekintzak*, 39.-51. artikulua), Kontseiluak bere erabakiak betearazteko neurriak hartzeko boterea du, besteak beste, bahitura edo zehapen ekonomikoak ezarri edo aginduak betearazteko indarra erabiltzeko baimena emanaz.

Organo horretako bozketei buruzko nondik norakoak Gutunaren 27. artikulua ezartzen ditu. Kontseiluko kide bakoitzak boto bakarra du, baina boto guztien balioa ez da berdina izaten. Oro har, erabaki garrantzitsuak onartzeko, gutxienez bederatzi kideren aldeko botoak behar dira, baina bederatzi aldeko boto horien artean kide iraunkorren aldeko botoak behar dira. Hau da, Kontseiluko bost kide iraunkorrek beto-eskubidea dute, eta, beraz, erabaki guztiei betoa jar diezaiekete. Gaur, beto-eskubidea Nazio Batuei egindako kritika garrantzitsuenetarikoa da. Izan ere, beto-eskubidea kentzeko proposamenak egon badaude, baina, erabaki hori onartzeko, Gutuna aldatu behar litzateke, eta, horretarako ere kide iraunkorren aldeko botoa behar-beharrezkoa denez, zaila litzateke proposamen hori aurrera ateratzea.

Nazio Batuen Gutunak Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eratu zuen lan ekonomiko eta soziala koordinatzeko, eta, hain zuzen ere, ekonomiako, gizarteko, kulturako, hezkuntzako edo osasuneko gaietarako arduraduna dugu. Izan ere, gai horietan guztietan nazioarteko eztabaidarako foro nagusi gisa jarduten du.

Lurralde Fiduziarioen Administrazio Kontseiluak 1994ko azaroaren leian amaitu zuen bere lana, Palau Pazifikoko uharteak, fideikomisoan geratzen zen azken lurraldeak, Estatu Batuetatik independentzia lortu zuenean, Estatu subirano bihurturik.

Nazioarteko Justizia Auzitegia Nazio Batuen organo judizial nagusia da, eta Hagan (Herbehereak) du egoitza. Beraren estatutua —70 artikulua— Nazio Batuen Gutunaren parte da. Auzitegiak Estatu kideen arteko eztabaida juridikoak ebazten ditu, eta Nazio Batuen organoek eta erakunde espezializatuak eskatutako kontsulta-iritziak aztertzen ditu. Nazio Batuetako kide guztiek jo dezakete auzitegira. Halaber, Nazio Batuetako kide ez den Estatu bat Auzitegiko Estatutuaren parte bihur daiteke. Hala ere, Estatuek baino ezin dute parte izan auzitegiak epaitzen dituen aferetan. Pertsona fisikoek —gizabanakoek—, pertsona juridikoek edo nazioarteko erakundeek —Nazio Batuek salbu— ezin dute jo auzitegira.

Idazkaritza Nazio Batuen eguneroko jardueraz arduratzen da; hain zuzen ere, Nazio Batuen gainerako organo nagusiei zerbitzuak eskaintzen dizkie, eta horien programa eta politikak kudeatzen ditu. Nazioarteko funtzionario gisa, Idazkaritzako pertsonalak eta idazkari nagusiak berak Nazio Batuen aurrean bakarrik ematen dituzte kontuak.

BIBLIOGRAFIA

- CASANOVAS Y DE LA ROSA, O., «Unidad y pluralismo en Derecho internacional público», *Cursos Euromediterráneos Bancaja de Derecho internacional*, II. bol., 1998.
- CORNAGO, N., «Elementos para el análisis del proceso político en los regímenes internacionales: el multilateralismo no necesariamente formalizado», *Anuario de Derecho Internacional*, 15. zk., 1999.

- GUTIERREZ-SOLANA, A., *La legitimidad social de las Organizaciones Internacionales*, Barcelona, Marcial Pons, 2014.
- HELD, D., *La democracia y el orden global. Del Estado moderno al gobierno cosmopolita*, Paidós, Barcelona, 1997.
- HOLLY, D.A., *Les Nations Unies et la mondialisation*, Dunkerke, L'Harmattan, 2003.
- ITURRE, M. eta MOURE, L., *Nazioarteko erakundeetarako sarrera: Nazio Batuen kasua*, UPV/EHU, Leioa, 2008.
- JACOBSON, K., REISINGER, W. eta MATTERS, T., «National entanglements in International Governmental Organizations» in Diehl, P.F., (ed.), *The Politics of Global Governance*, Londres, Lynne Rienner Publishers, 1997.
- JACQUET, P., PISANI-FERRY, J. eta TUBIENA, L., *Gouvernance mondiale*, Paris, Documentation Française, 2002.
- KARNS, M.P. eta MINGST, K.A. *International Organizations. The Politics and Processes of Global Governance*, Londres, Rienner, 2010.
- LAIDI, Z. eta LAMY, P., «La gouvernance, ou comment donner sens a la mondialisation» in Jacquet, P., Pisani-Ferry, J., eta Tubiana, L., *Gouvernance mondiale*, Paris, Documentation Française, 2002.
- PASTOR RIDRUEJO, J.A., *Curso de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2003.
- , *Cursos de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2008.
- RITTBERGER, V. eta ZANGL, B., *International Organization. Polity, Politics and Policies*, New York, McMillan, 2006.
- SOBRINO, J.M., «Las Organizaciones internacionales: generalidades» in M. Díez de Velasco, *Las Organizaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 14. argit., 2007.
- , «Los medios jurídicos de acción: el derecho de las organizaciones internacionales» in M. Díez de Velasco, *Las organizaciones internacionales*, Madril, Tecnos, 2007, 138. or.
- ZOLO, D., *Cosmópolis. Perspectiva y riesgos de un gobierno mundial*, Bartzelona, Paidós, 2000.

7.

Subiranotasuna¹

ENEKO COMPAINS SILVA

Gehienetan, Nazioarteko Zuzenbidean Estatu baten zutoinak zeintzuk diren definitu nahi izan denean, hiru elementu nagusi aipatu ditu doktrinak: lurraldea, populazioa eta antolakuntza politikoa. Lurraldea Estatuaren eskuduntzen erabilerari dagokion oinarri espaziala da. Populazioa, berriz, Estatuaren eskuduntzen oinarri pertsonala, Estatuaren eta pertsona talde baten arteko loturaren adierazle; eta antolakuntza politikoa, hirugarrenik, Estatuaren funtzioak ziurtatzeko gaitasuna duen botere-egitura da, besteak beste Estatuekin harremanak izatekoa.²

Bada, egia izanik aipatu elementuak funtsezkoak direla Estatu izateko, beren horretan utzita gehitu beharko genuke orokorregiak direla, ez baitigute Estatu beste antolakunde juridiko-politiko batzuetatik ezberdintzeko aukerarik ematen. Izan ere, ez al dituzte, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoak edo Nafarroako Foru Komunitateak aipatu irizpideak betetzen? Biek dute lur-eremu jakin eta zehaztua; biek populazio propioa eta baita antolakuntza politikoa ere. Gainera, noiznahi ikusten ditugu haien ordezkariak nazioarteko birak egiten, beste Estatu batzuetako ordezkariekin harremanak garatzen eta baita akordioak ixten ere.

Hortaz, horrek esan nahi al du aipatu bi erakundeak Estatu direla edo Estatu balira bezala eskubide osoz ari daitezkeela nazioartean? Ez, inola ere ez, aipatu bi erkidegoak ez baitira *nazioarteko zuzenbideko subjektu*.³

¹ Burujabetza edo burujabetasuna dira euskarazko sinonimoak. Etimologikoki, latinetik datorren hitz baten aurrean gaude, *super omnia*, 'guztiaren gainetik' esan nahi duena. Hori izan zen, hain zuzen, Jean Bodino subiranotasunaren teorizazioaren aitak erabili terminoa. MARTINEZ DALMAU, Rubén, *Por una Asamblea Constituyente. Una salida democrática a la crisis*, Sequitur, Madril, 2012, 14. or.

² RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J., *Lecciones de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 2001, 97. or.

³ Ordenamendu juridiko orok bere subjektuak zeintzuk diren eta zer ahalmen juridiko duten zehazteko arauak ditu, baita Nazioarteko Zuzenbideak ere. Definizioz, Nazioarteko Zuzenbideko subjektu dira nazioarteko arau juridikoen hartzaile eta egile diren entitateak, halakoen urraketan aurrean erreklamazioak egin ditzaketenak edo zehatuak izan daitezkeenak urratzaileak haiek badira. XIX. mendean, nahiko iritzi orokortua zen nazioarteko pertsonalitate juridikoa zuten subjektu bakarrak Estatuak zirela. Ondorenean, ostera, nazioarteko erakundeak garatu ahala, ikuspegi hori aldatu egin zen, eta, hala, aro garaikidean,

Nazioartean eskubide osoz aritzeko, subiranotasuna beharko lukete.⁴ Subiranotasuna da, hain zuzen, Estatuaren boterea nazioartean ezaugarritzen duen elementu nagusia, independentzia politikoan isla duena. Subiranotasuna da Estatuaren boterea beste entitateen botereetatik bereizten duen elementua. Nazioarteko zuzenbide guztia elementu horren gainean eraikitzen da.⁵ Horregatik, soilik subiranoak diren Estatuak dauzkate, oso-osorik, nazioarteko zuzenbideak aitortzen dituen eskubide eta betebeharrak.⁶ Beren nazioarteko estatusa hiru zutoinetan adierazten da: subiranotasuna, independentzia eta berdintasuna.⁷

Subiranotasuna, beraz, argi gera dadin, funtsezkoa da nazioartean aritu nahi duen Estatu batentzat. Baina zer da zehazki? Nola ezaugarritzen da? Zein izan da historian zehar izan duen bilakaera? Zeintzuk gaur egun planteatzen dituen arazoak? Galdera horiei erantzun argia ematea izango da hurrengo lerroen zioa.

1. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Subiranotasuna, Estatu batek bere aferen gainean duen autoritate gorena da.⁸ Alegia, botere publikoak duen autoritate gorena da,⁹ eta, nazioarteko zuzenbide publikoan, Estatu batek nazioartean eduki dezakeen botere mailarik altuenari egiten dio erreferentzia.¹⁰

Botere subiranoek, esan ohi da, bi ezaugarri nagusi dituzte. Batetik, osoak direla. Hau da, Estatuak Nazioarteko Zuzenbideak onartzen duen ahalmen juridiko zabalena dutela. Eta, bigarrenik, eksklusiboak direla: Estatu ba-

Nazioarteko Zuzenbideko subjektu bat baino gehiago ditugu, hala nola Estatu subiranoak, nazioarteko gobernuarteko erakundeak, Vatikanoa, herriak (kasu batzuetan)... MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público (Parte General)*, Trotta, Madril, 1995, 79.-80. or. eta CARRILLO SALCEDO, Juan Antonio, *Curso de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 1992, 25. or.

⁴ *Ibid.*, 41. or.

⁵ PASTOR RIDRUEJO, José A., *Curso de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 2008, 291. or.

⁶ MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público*, *op. cit.*, 83. or. eta hur.

⁷ RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J., *Lecciones de Derecho...*, *op. cit.*, 98. or. eta hur.

⁸ «Sovereignty is understood as the supreme or final authority of a political entity over its own affairs, frequently associated with a given territory». DIEZ, Thomas; BODE, Ingvild; FERNANDES DE SOUSA, Aleksandra, *Key Concepts in International Relations*, SAGE, 2011, 215. or.

⁹ RAEk emandako definizioa da. Ikus: <http://lema.rae.es/drae/srv/search?id=IrvtV7KaIDXX29OKR68O>

¹⁰ MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público*, *op. cit.*, 88. or.

koitzak bere izenean erabiltzen ditu, eta gainontzeko Estatuak ez daukate bostere horiek erabiltzeko aukerarik.¹¹

Aipatu berri dena zuzen-zuzenean lotzen zaio independentzia politikoa-aren ideiare. Subirano denak, formalki behintzat, eta bere mendeko esparrua-ren barruan betiere, gainontzeko guztiekiko erabat independenteki erabaki dezake.¹² Praktikan, nazioarteko harremanez ari bagara, zer esan nahi da horrekin? Bada, Estatuak eskubide osoa dutela beren atzerri-politika libreki erabakitzeko eta beren interesentzat mesedegarrien izango den kanpo-politika finkatzeko. Horretarako, nazioarteko hitzarmenak egin ditzakete, ordezkari diplomatikoak bidali, nazioarteko betebeharrak hausten direnean beste Estatuak erantzukizuna eskatu, eta abar.¹³

Subiranotasunaren nazioarteko eragin juridikoa bi printzipiotan islatzen da nagusiki: Estatuak berdintasun subiranoa eta Estatu baten barne-afere-etan eskurik ez hartzeko betebeharraren printzipioa.¹⁴

— Berdintasun subiranoa aipatzean, zer esan nahi dugu? Bada, subirano-
tasun oro juridikoki berdina dela. Ezberdintasun ekonomiko, sozial,
politiko, geografiko edo demografikoak egon daitezkeen arren, Estatu
guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte, eta berdintasunean
dira nazioarteko komunitateko kide. Izan handi zein txiki, iparraldeko
zein hegoaldeko.

Berdintasun hori efektiboa den ikusteko elkarrekikotasunaren ezauga-
rriari erreparatu ohi zaio. Hau da, nazioarteko harremanek sortzen di-
tuzten eskubide eta betebeharrak Estatuak artean banatzen diren ikusi
behar da.¹⁵ Nazioarteko zuzenbide publikoan funtsezkoa den elemen-
tua dugu hori.¹⁶

Halere, ez dezagun pentsa berdintasun juridiko hori beti betetzen de-
nik, hausturak askotarikoak izaten baitira. Horren adibide dugu, esa-
terako, NBEko Segurtasun Kontseiluaren osara, non 5 Estatu kidek
eserleku iraunkorra duten, hain zuzen ere beto-eskubidea duten berek
(AEBk, Errusiak, Erresuma Batuak, Frantziak eta Txinak).¹⁷ Ez da
adibide bakarra.

¹¹ *Ibid.*, 89 or. eta RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J., *Lecciones de Derecho...*, *op. cit.*, 98. or.

¹² GARCÍA GESTOSO, Noemí, *Soberanía y Unión Europea (Algunas cuestiones críticas desde la Teoría de la Constitución)*, Atelier, Bartzelona, 2004, 37. or.

¹³ MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público*, *op. cit.*, 89.-90. or.

¹⁴ *Ibid.*, 86 or. eta CARRILLO SALCEDO, Juan Antonio, *Curso de Derecho...*, *op. cit.*, 42. or. eta hur.

¹⁵ *Ibid.*, 92.-93. or.

¹⁶ CARRILLO SALCEDO, Juan Antonio, *Curso de Derecho...*, *op. cit.*, 43. or.

¹⁷ Nazio Batuen Gutunaren 23.1 eta 27.3 artikulua. Ikus: <http://www.un.org/es/documents/charter/chapter5.shtml>

- Estatu baten barne-afereetan esku ez hartzeko printzipioak lotura zuzena du aurrekoarekin. Printzipio honen arabera, Estatu subirano orok eskubidea du kanpoko esku-hartzerik gabe gidatzeko bere afera propioak.¹⁸ Printzipioaren jatorria Latinoamerikan dago, hango herrialdeak izan baitziren lehen aldiz aldarrikatu zutenak, zertarako eta AEBren *Monroe doktrinari*¹⁹ aurre egiteko. Baina gerora, behin Nazio Batuen Gutunean jasota, beraren aitortza formala unibertsalizatu egin zen.²⁰

Hori dela eta, gaur egun nazioarteko zuzenbideak debekatu egiten du Estatu baten borondatea behartu dezakeen ekintza oro, eta ez soilik indar militarra erabiltzen denean, baita bortxa politikoa edo ekonomikoa erabiltzen denean ere, azken horiek identifikatzea zailagoa den arren.²¹

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Subiranotasunaren ideia, behintzat gaur ezagutzen dugun bezala, Estatu modernoaren agerpenari hertsiki loturik dago.²² Errenazimendu-garaian men-debaldeko lurraldeetan jaiotako kontzeptua da.

Jakina denez, Erdi Aroa oso garai gatazkatsua izan zen. Erromatar Inperioaren gainbeherak²³ hutsune nabaria utzi zuen Europan, lurraldez lurralde boterearen batasuna hautsi baitzen. Ondorioz, nagusitu nahi zuten botereen arteko gatazka iraunkorra bilakatuko zen garai historiko berriaren ezaugarri nagusi.

Batetik, eremu kontinentalean utzitako hutsuneak talka eragin zuen Eliza Katolikoaren buru zen pontifizearen eta Erromatar Inperioaren oinordekotza aldarrikatzen zuten dinastia germaniarren artean. Baina, bestetik, tokian-to-

¹⁸ MARINO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público*, op. cit., 95. or.

¹⁹ «Amerika amerikarrentzat» lelopean, kontinentean gertatzen zen europarren esku-hartze oro eraso-ekintzat hartuko zela eta AEBren esku-hartzea eragingo zuela ezartzen zuen. Doktrina horretan oinarrituz, AEBk bere kontrola areagotu zuen kontinente osoan. Beraren eragina kasu askotan ikus daiteke. Adibidez, ikus: CORREA RESTREPO, Juan Santiago, «Colombia y la Doctrina Monroe. El caso del ferrocarril de Panamá y las intervenciones estadounidenses en el istmo», *Memorias, Revista digital de historia y arqueología desde el Caribe*, 22, 2014, 244.-266. or.

²⁰ Nazio Batuen Gutuneko 2.1 eta 2.4 artikuluek printzipio honen unibertsalizaziorako oinarria finkatu zuten.

²¹ MARINO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público*, op. cit., 95. or.

²² HELLER, Herman, *La Soberanía. Contribución a la Teoría del Derecho estatal y del Derecho internacional*, UNAM, México, 1965, 122. or. eta hur.

²³ Erromatar inperioaren gainbehera da Erdi Aroaren irekiera markatzen duen gertakari politikoa.

kian botere politikoaren *atomizazio*-prozesu bat ere gertatu zen,²⁴ eta horrek oso egoera gatazkatsua eragin zuen, ez baitzen inondik ageri ordena jartzeko nagusitasuna lortuko zuen botererik. Garai hartako monarkiak «ahulak» ziren, eta soilik basailutza-harremanen bidez ziurtatzen zuten jauntxoengandik behar zuten babesa. Praktikan, baina, jauntxoen lurraldeetan haiexek ziren botere eraginkorrak zituztenak, hala zergak ezarri eta biltzeko nola justizia emateko.

Baina Erdi Aro berantiarrean egoera aldatu zen. Garapen ekonomikoaren eskutik, eragile politiko berri bat agertuko da, burgesia (edo Hirugarren Estatu). Monarkiek klase sozial berria baliatuko dute gainerako bi estamentuen aurrean beren botereak indartzeko, eta baita lortu ere. Poliki-poliki lotura feudalak hautsiz joango dira eta errege-erreginak izango dira elkarbizitza baketsua eta segurtasuna bermatzeko gaitasuna erakutsiko duten subjektu bakarrak.²⁵

Fenomeno hori XIV. eta XV. mendeetan zehar gertatuko da, eta, XVI. menderako, Europako monarkien bultzadaz, joera zentralizatzaile eta autoritarioak nagusituko dira. Horrela jaioko da Estatu Modernoa,²⁶ monarkia absolutuaren forma hartuz, gatazkaz beterik ageri den aro batean.

Bada, hain zuzen ere, horixe izan zen Jean Bodinok subiranotasunaren inguruan lehen aldiz teorizatu zuenean topatu zuen testuinguru historikoa. Beraren teorizazio osoa erabat loturik ageri da momentu historiko horrekin. Frantzia, erlijio-guden ondorioz, ia desintegraturik zegoen, eta, horren aurrean, errege-erreginen eskutan geratuko zen botere bakar eta batu baten alde teorizatu zuen pentsalari frantsesak.²⁷ Beraren iritzian, Estatuaren (monarkiaren) boterea gehiago indartuz soilik izango zen posible gatazkari amaiera ematea. Hori da nagusiki *Les six livres de la République* (1576) lan entzutezuan bildu zuena.

Bodinoren ustez, subiranotasuna «Errepublika baten botere absolutu eta betierekoa» izango da.²⁸ Absolutua, ahalguztiduna; mugarik gabekoa denbo-

²⁴ *Poliarkia* deritzon fenomeno da. GARCÍA GESTOSO, Noemí, *Soberanía y Unión Europea...*, *op. cit.*, 31.-32. or.

²⁵ *Ibid.*, 33. or.

²⁶ Ordutik aurrera, erregeek, mertzenario-armada iraunkorrak izango zituzten, jaun feudalen leialtasunaren menpekotasunetik askaturik; finantzak berrantolatu eta zerga berriak ezartzeko ahalmenak bildu zituzten orobat, armada iraunkor horiek mantendu ahal izateko. Eta ekonomia ere monarkia indartzera bideratuko zen, ekonomia kapitalistaren garapenaren eta merkantilismoaren bidez. Noblezia ere erregearen bueltan bilduko zen azkenean, gerrari amaiera emateko beharra onartzuz. *Ibid.*, 34.-35. or.

²⁷ GARCÍA ROCA, Javier, «Estatalidad versus Soberanía «(Integración comunitaria y relaciones de competencia entre ordenamientos)» in: PEREZ CALVO, Alberto (koord.), *Estado, Nación y Soberanía*, Departamento de Publicaciones del Senado, Madril, 2000, 294. or.

²⁸ Argitu behar da *errepublika* hitzak hemen ez duela monarkiarik ezarekin zer ikusirik. *Estatu* hitzaren baliokide gisa erabiltzen da. BODINO, Jean, *Los seis libros de la República*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1992, 265. or. eta hur.

rari eta erantzukizunari dagokienez.²⁹ Eta betierekoa, horrela ez balitz beste norbaitek emana izango baitzen; izan ere, agerian geratuko litzateke benetakoa subiranoa subjektu botere-emailea zela, eta ez epe jakin batean soilik erabili zuena.

Horiek ezaugarriak izanik, zertan islatuko da subiranotasuna? Zer ahalmenetan? Haren ustez, nagusiki legeak beste edozeinen baimenik gabe egiteko ahalmenean. Hori omen zen subiranotasunaren ahalbiderik garrantzitsuena, beste batzuk ere aipatu zituen arren, hala nola zergak ezartzea, botere judiziala erabiltzea, gerra eta bakea egitea, txanponak egitea edo funtzionarioak izendatzea.

Subiranotasunaren titulartasunari dagokionez, haren irudikoz, erregea/erregina zen, jainkoaren baimenaz, subiranotasunaren jaberik aproposena, posiziorik onenean baitzegoen bakea eta batasuna bermatzeko.

Bodino lehena izan zen, baina ez zen, noski, bakarra izan subiranotasunaren inguruan teorizatzen. Hurrengo mendean adibidez, antzeko ideiak ikus daitezke Thomas Hobbes-engan. Hobbesek, subiranotasunaren ezaugarritzeari baino gehiago, horren funtsari erreparatu zion.³⁰ Bodinoz bestera, pentsalari ingeles honen ustez subiranotasunaren iturria ez zen jainkoa, «kontratu politiko» bat baizik, «erkidego politiko»ak egiten zuena. Horren bidez errege-erreginei botere absolutua ematen zitzaien; botere indartsu eta beldurgarri bat bakea eta segurtasuna lortu ahal izateko.³¹

Bodinoren eta Hobbesen ideiak *Westfaliako bakean*³² (1648) islatu zirela jo ohi da. Eskuarki, Europako estatu-sistemaren egonkortasunaren mugarritzat hartzen da. Estatuak izango ziren ordutik aurrera Europako potentzia berriak, eta, hala, independentziaren eta subiranotasunaren ezaugarriekin hala moduzko berdintasun batean egongo ziren.³³

²⁹ Edonola ere, Bodinok muga batzuk finkatu zituela aipatu beharra dago. Jainkoaren eta naturaren legea batetik, baina baita ordena sozialetik zetozenak ere, nazioarteko tratatuak kasu. *Ibid.*, 265. or. eta hur.

³⁰ MARTÍNEZ DALMAU, Rubén, «La naturaleza emancipadora de los procesos constituyentes democráticos» in: APARICIO WILHELMI, Marco, *Por una Asamblea Constituyente. Una salida democrática a la crisis*, Sequitur, Madrid, 2012, 15. or. eta hur.

³¹ Hori izan zen Ingalaterrako XVI. mendeko lehen erdi gatazkatsuari amaiera emateko proposatu zuen formula. Paradoxikoa bada ere, Ingalaterrak (Hobbesen herrialdeak) garaiz gainditu zuen absolutismoa, *Glorious Revolution* delakoaren bidez, eta, horrela, subiranotasuna parlamentuaren eta erregearen artean banaturik geratu zen. HOBBS, Thomas, *Leviatán o la materia, forma y poder de un Estado eclesiástico y civil*, Alianza Editorial, Madril, 2009, 153. or.

³² Europan, XX. mendea heldu arte inoiz izandako gatazkarik odoltsuenari amaiera eman zion bake-ituna. Ikus: ELLIOT, J.H., «Europa después de la Paz de Westfalia», *Revista Pederalbes*, 19, 1999, 131.-146. or.

³³ JELLINEK, Georg, *Teoría General del Estado*, Albatros, Buenos Aires, 1978, 280. or. eta JANIS, Mark W., *An introduction to International Law*, Aspen Law & Business, New York, 1999, 160. or.

XVIII. mendean, Estatu Batuetako eta Frantziako iraultzekin batera, aldaketa nabarmena gertatuko zen teorizazio honetan guztian. Batetik, Rousseauren eta beste batzuen ideiei jarraikiz, subiranotasunak errege-erreginen eskuetatik Herriaren eskuetara pasatu behar zuela aldarrikatuko zelako.³⁴ Eta, bestetik, lehen oinarritzko eskubideak agertzen hasiko zirelako, edozein boterek errespetatu beharrekoak, giza duintasunari baitagozkio.

Garai horretan, aurrerapauso nabarmenak eman baziren ere, subiranotasunaren demokratizazioaren oinarriak finkatu zirelarik oraindik bide luzea geratuko zen demokratizazioa errealitate bilakatzeko. Izan ere, XIX. mendean zehar, elite politiko liberal burgesek subiranotasuna «bahitu» egin zutela aipatu behar da.³⁵ Herriaren subiranotasunaz hitz egin beharrean, subiranotasun nazionalaz mintzatu ziren gehienetan, eta, horrela, nazioa zerbait abstraktua izaki, sufragio murriztuaz hautatutako parlamentuen esku geratu zen Herriari soilik zegokiona. Eta hori kasurik onenetan, beste askotan errege-erreginak nagusitu izan baitziren berriz ere.

Horregatik, benetan, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera soilik hitz egiten ahal da herri-subiranotasunaren orokortzeaz. Edonola ere, subiranotasuna, ordurako, ez zen Bodinok ulertu bezala ahalmen absolutu bat izango. Muga argiak izango ditu; besteak beste, nazioarteko tratatuen eta giza eskubideen errespetua.³⁶

3. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK: SUBIRANOTASUNAREN IDEA KRISIAN DAGO?

Dagoeneko subiranotasuna teorikoki definitu dugu, baina, praktikara jotzen dugunean, subiranotasunak Estatuei nazioartean teorian ematen dien berdintasuna betetzen al da? Errealtateari erreparatzen badiogu, aise ikusten dugu nazioarteko harreman politiko eta ekonomikoen ondorioz asimetria nabariak gertatzen direla Estatuaren arteko harremanetan. Estatu subiranoek kanpoko askotariko interferentziak topatzen dituzte beren jardunean, eta Estatuaren arteko berdintasuna eta independentzia oso distortsionaturik ageri dira.

Interes geoestrategikoak direla medio, adibidez, etengabea da potentzia batzuen aldetik Estatu ahulagoen barne-auzietan sartzeko joera, subiranota-

³⁴ ROUSSEAU, Jean Jaques, *Gizarte Hitzarmena*, Klasikoak, Bilbo, 1993, 53. or. eta hur.

³⁵ MARTÍNEZ DALMAU, Rubén, «La naturaleza emancipadora...», *op. cit.*, 24. or. eta hur.

³⁶ REQUEJO PAGÉS, Juan Luis, *Las normas preconstitucionales y el mito del poder constituyente*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 1998, 61.-62. or. eta NOGUEIRA ALCALÁ, Humberto, «Consideraciones sobre poder constituyente y reforma de la Constitución en la teoría y la práctica constitucional», *Revista Ius et Praxis*, XV. urtea, 1. zk., Talca (Txile), 2008, 233. or.

suna desjabeturik. Ikusi besterik ez dago Ukrainako krisian (2013), gobernua kendu eta berri bat laguntzeko Europar Batasunak eta AEBk izan zuten eragiteko gaitasuna. Eta Errusia ere ez zen geldirik geratu, aurrekoek agertoki politikoan eragin nahi izan zutenean, Donetsk, Lugansk eta Krimean herri altxamenduak lagundu zituelarik. Interes ekonomikoak ere hor daude. Estatu askoren menpekotasuna betikotzen duten harreman komertzialak nonahi ageri dira; multinazionalak sekulako gaitasuna dute gobernuen politikak baldintzatzeko, eta lehengaiak lortzeko munduko potentziek dituzten erraztasunak ikusi besterik ez dago Estatu subiranoen teoriako berdintasuna kolokan jartzeko.

Gainera, mundializazio-prozesuak aurrera egin ahala, Estatuak subiranotasunarekin harreman zuzena duten eskumenetariko batzuk Estatuz gaindiko erakundeen esku utziz joan dira (oso ageriko fenomenoak Europar Batasunaren kasuan), eta bide horretatik ere subiranotasunari nabarmenki eragin zaio.

Horregatik, badago galdera hau egitea: krisiak jota dago subiranotasunaren ideia? Erantzunak ez dira ahobatezkoak.

- *Errealismo politiko* eta *neorrealismo* izeneko korronteetatik, adibidez, ez da subiranotasunaren ideia kolokan jartzen. Haien iritziz, Estatu subiranoek nazioarteko harremanetan aktore nagusi izaten jarraitzen dute, eta, ondorioz, subiranotasunaren ideia zalantzan jartzerik ez dagoela baieztatzen dute.³⁷
- Pentsalari *liberalak*, aldiz, ez datoz bat aurrekoarekin. Horiek Estatuaren subiranotasun osoaren kontua gutxiesten dute, eta nahiago izaten dute interdependentzia eta antzeko kontzeptuak erabili. Estatuak eta nazioarteko aktoreen arteko interdependentzia errealitatea deskribatzeko kontzeptu nagusietariko bat litzateke.³⁸
- *Konstruktibismo sozialaren* teorialariak, bestalde, 1990etik aurrera batez ere, Estatu subirano *westfaliarra* ideal bat besterik ez zela izan aipatzen ari dira; inoiz gauzatu ez den ideala. Haien ustean, hobeto ulertuko litzateke *subiranotasun* kontzeptua produktu sozial gisa, denboran zehar aldatuz joan dena eta gaur egun ere aldatzen ari dena.³⁹ Aldatu izanak ez luke esan nahiko subiranotasunaren aurrean ez gaudenik.

Gure ustez, subiranotasunaren krisiaren ideia erlatibizatu beharrekoa da. Batetik, konstruktibismoarekin bat eginez, Estatu subirano *westfaliarra* idealtzat jotzen dugulako, gauzatu den errealitatez joko beharrean. Gustatu ala ez, subiranotasunaren jabe izateak ez die Estatuak erabateko berdintasun eta independentziarik eman. Formalki akaso bai, baina ez errealitatean. Hau

³⁷ DIEZ, Thomas; BODE, Ingild; FERNANDES DE SOUSA, Aleksandra, *Key Concepts in...*, *op. cit.*, 217. or.

³⁸ *Idem.*

³⁹ *Idem.*

da: juridikoki subiranotasun guztiak berdinak direla esaten den arren, praktikan ezberdinak direla gehitu beharko litzateke.

Hori esanda, bistan da formalki subirano izateak, nazioarteko harremantako lehen mailan kokatzen dituela Estatuak, eta funtsezko izaten jarraitzen duela nazioarteko zuzenbideko subjektu izateko. Subiranotasuna, beraz, ez da aski akaso, baina funtsezkoa bai.

Bestetik, ezin aipatu gabe utzi kapitalismoa globalizatu den neurrian, eremu askotan, Estatuaren subiranotasuna ahuldu dela botere pribatuen mesedetan⁴⁰ eta, horrekin batera, Estatuaren eraginpean zeuden eremuetariko batzuk (ekonomia eta finantzak, kasu) desarautu egin direla. Ez da, edonola ere, eremu guztietan gertatu den fenomeno. Beste eremu batzuetan, interes berdinak babestu asmoz, Estatuaren papera berriz arautu eta indartu baita; adibidez, mugen kontrolean.⁴¹ Galdera orduan honakoa litzateke: ez al gara Estatu sozial indartsu batetik segurtasun Estatu minimo eta ahul batera pasatzen ari?

Guk baietz uste dugu. Pisarellok «*merkatarien konstituzionalismo*» deitu dio fenomeno honi. Nazioarteko inbertitzaile eta jabe handien eskubideak nazioartekotu diren bitartean, ez da berdin gertatu gizateriaren gehiengoaren oinarrizko eskubideekin. Subiranotasunarekin lotura zuzena zuten eremu batzuk Estatz gaindiko erakundeen esku utzi diren bitartean (merkataritzak, finantzak eta eremu monetarioa besteak beste aipatzen ditu), beste batzuk, eremu politikoa eta fiskala esaterako, Estatuaren mugen barruan mantendu dira; baina azken horiek hain daude botere transnazionalen mende, tamalez, non ahalmenik gabe geratu baitira botere ekonomikoaren akatsak zuzentzeko eta merkatuetan sortzen diren ezberdintasun sozial itzelak konpontzeko.⁴²

Gauzak horrela, finantza-merkatuetan «*kasino-kapitalismoa*» askatasun osoz garatu den bitartean, munduko eskualde zabalek beren autonomia politiko eta juridikoa galdu dute (azken finean beren subiranotasuna). Eta, gainera, beren egitura ekonomiko eta sozialak galbidera joan dira. Estatuak, *merkataritzako konstituzionalismo* global baten menpeko bilakatu diren neurri berean, boteredun gutxi batzuen interes korporatiboak nazioarteko ordenaren *Grundnorm* bilakatu dira⁴³.

⁴⁰ Paradoxikoki, hori soilik posible izan da Estatuaren beraren bidez, zeinak, gainera, aski indartsua behar baitu bere ahuldadea ziurtatzeko. PISARELLO, Gerardo, «Globalización, constitucionalismo y derechos: las vías del cosmopolitismo jurídico», in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización y crisis de la Soberanía. Algunos efectos en América Latina y Europa*, Publicaciones Universidad de Alicante, Alacant, 2000, 26.-27. or.

⁴¹ Beste eremu batzuetan akaso, Estatuaren papera areagotu egin da; mugen kontrolean, adibidez. DEL CABO, Antonio, «Introducción» in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización y crisis*, op. cit., 17. or.

⁴² PISARELLO, Gerardo, «Globalización, constitucionalismo y...», op. cit., 29. or.

⁴³ *Ibid.*, 31. or.

Horregatik guztiagatik, autore batzuek gogor kritikatu dute pentsalari liberalen eta neoliberalen eskutik subiranotasunaren ideia berriz teorizatzeko egiten ari den saiakera. *Think tank* neoliberalak subiranotasunaren ideia krisian dagoela eta moldatu behar dela esaten dutenean (besteen artean interdependentzia eta antzeko kontzeptuak mahaigaineratuz), mugaz gaindiko kapitalaren interesak defendatzeko ofentsiba ideologiko huts batean sarturik daudela salatzen da.⁴⁴

4. ADIBIDE PRAKTIKOAK

4.1. Europar Batasuna eta Estatu kideen subiranotasunaren ustezko galera

Proiektu komunitarioak, Estatuaren erabaki indibidualerako aukerak murriztu egin dituela gauza argia da; jende guztiak ikusten du. Baina horrek esan nahi du Estatuaren subiranotasunaren galera baten aurrean gaudela?

Nazioarteko zuzenbidean, oro har, jotzen da tratatu bat sinatzeak ez dakarrela subiranotasuna alboratzerik, kontrakoa baizik. Hitzarmen horiek sinatzea eta hartutako konpromisoak betetzea Estatuaren subiranotasunaren ezaugarri litzateke, Estatu subiranoek soilik sinatzen baitituzte halakoak. Azkenean, nazioarteko arau juridikoak haien borondatek eratoritzen dira.⁴⁵

Ikuspegi horretatik, Europar Batasuna nazioarteko erakunde bat litzateke, Estatu subiranoen artean sinatutako tratatuetan oinarritua, zeinean ez baitago subiranotasunaren besterentzerik. Soilik subiranotasunaren erabilera, libreki eta borondatez, murrizketa batzuk onartzen dira, baina jabetza edo titularitatea zalantzan jarri gabe.⁴⁶ Hau da, posibleztat jotzen da eskuduntza subiranoen erabilera efektiboa beste baten alde uztea, baina Estatuak beti bere jabetza gordez, subiranotasunaren titularitatean aldaketarik egin gabe.

Esan beharra dago aipatu fenomenoaren herrialdeetako konstituzioetan jasotzen dela; Espainiakoan kasu, zeinak 93. artikuluan nazioarteko erakundeei boterearen erabilera uzteko aukera aurreikusten baitu.⁴⁷ Horregatik, doktrina konstituzionalaren arabera, gaurdaino ez da subiranotasunaren erregelei da-

⁴⁴ PALACIOS, Francisco, «OTAN-Kosovo. Soberanía, Derecho y lógica bélico-mercantil» in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización y crisis de la Soberanía. Algunos efectos en América Latina y Europa*, Publicaciones Universidad de Alicante, Alacant, 2000, 127.-130. or.

⁴⁵ RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J., *Lecciones de Derecho...*, op. cit., 98. or.

⁴⁶ GARCÍA GESTOSO, Noemí, *Soberanía y Unión Europea...*, op. cit., 81. or. eta hur.

⁴⁷ EK-ko 93. art.: Lege organikoz, baimendu daiteke tratatuak egitea haien bidez nazioarteko erakunde edo instituzio bati esleitzeko Konstituziotik eratorritako eskumen batzuen erabilera. Gorte Nagusiek edo Gobernuak bermatu behar dute, kasuen arabera, tratatu horiek betetzen direla, eta orobat betetzen direla lagapenaren titular diren antolakunde nazioarteko edo nazioz gaindikoen ebazpenak.

gokienez ia ezer aldatu: jabetzak Estatu mugen barruan eta herriaren esku egoten jarraitzen du, eta ezin da, bere izaeratik, ez desjabetu ez eta zatikatu ere. Beti bezala.⁴⁸

Aitzitik, zehaztu beharko litzateke Europar Batasunaren tratatu eta arauak bereziak direla, eta beste edozein nazioarteko araudik baino murrizketa gehiago ezartzen dizkietela Estatu kideei. Eragin konstituzional nabaria dute, halako moldez non batzuk praktikan *mutazio konstituzional*⁴⁹ baten aurrean gaudela baieztatzen heldu baitira.⁵⁰

Baina, horretan ere, autoreek diote ez dela subiranotasuna zalantzan jartzen. Estatu kideek subirano izaten jarraitzen dute, «eskuduntzen eskuduntza» mantentzen jarraitzen dute eta. Alegia, eskuduntza propioak zeintzuk diren zehazteko eskuduntza edukitzen jarraitzen dute, eta, hor-taz, ez legoke subiranotasun-galera dagoela esaterik.⁵¹ Gainera, Estatu ki-deek edozein unetan Europar Batasuna uzteko aukera daukate, *Brexit*arekin ikusi den moduan.

4.2. Mendebaldeko Saharako gatazka. Herri oso baten subiranotasunaren desjabetzeari buruzko aipamen laburra

Badira 35 urte Saharako gatazka piztu zela. Espainiako Erresumak hango lurren subiranotasunari uko egin zionetik, deskolonizazio-prozesua gauzatzeko dago, Marokok, bidegabeki, lur horiek militarri okupatu eta bere subiranotasuna aldarrikatu zuelako.

Zorionez, lur haien gaineko eskubide historikoak aldarrikatu zituenen, Nazioarteko Justizia Auzitegiak ez zion arrazoirik eman, zeren, beraren iritzian, lurralde subiranotasunaren aldarrikapena egiteko baldintzak ez ziren betetzen ez zegoelako subiranotasun-loturarik Marokoko Erresumaren eta Mendebaldeko Sahararen artean. Hori dela eta, auzitegiak Nazio Batuen Era-

⁴⁸ Edozein kasu, ez da gauzak ikusteko modu bakarra. Badira autore batzuk, Borchardt kasu, gaur egun subiranotasuna zerbait zatigarria eta banagarria dela defendatzen dutenak. Ikuspegi berriagoak dira, eta Europar Batasunak subiranotasun-eskubide propioak dituela defendatzen dute, Estatuak haiei zegokien botere legegilearen zati bat haren esku utzi dutelako. BORCHARDT, K.D., *El ABC del Derecho comunitario*, OPOCE, Luxenburg, 2000, 7. or. eta hur.

⁴⁹ Mutazio konstituzionala: fenomeno juridiko bat da, zeinaren bidez herrialde jakin baten konstituzio *erreal*a aldatu egiten den, konstituzio *formala* (testu konstituzionala) aldatu gabe.

⁵⁰ BARRERO ORTEGA, Abraham, «La transformación de la Constitución española a la luz del Derecho Constitucional Europeo», *Revista de Derecho Constitucional Europeo*, 10. zk., 2008ko uztaila-abendua, 378. or. eta hur.

⁵¹ CONSTANTINESCO, Vlad, «Estados, naciones y Unión Europea», in: PEREZ CALVO, Alberto (koord.), *Estado, Nación y Soberanía*, Departamento de Publicaciones del Senado, Madril, 2000, 439. or. eta hur.

kundearen 1514(XXV) adierazpenaren⁵² aplikazioa ezarri zuen konponbide gisa, autodeterminaziorako eskubidea onartuz Saharari.

Marokok, beraz, ezingo luke, teoriarik bederen, lur haien gaineko subiranotasuna aldarrikatu nazioarteko zuzenbidearen arabera. Halere, NATOren babesa duenez, Estatu demokratiko bat izan ez eta giza eskubideak etengabe zapaltzen dituen arren, egoerak bere horretan dirau. Marokok ez ditu azken hamarkadetan Nazio Batuen Erakundearen erreferenduma agintzeko onartu diren hamarnaka ebazpenak bete nahi izan,⁵³ eta, ondorioz, nazio oso bat, milaka eta milaka pertsona, erbesteraturik bizi dira, basamortuan aterpea harturik, handik mugitu gabe 35 urtez. Horiek dira, Sahararen kasuan, Herri oso bati bere subiranotasuna lapurtzearen ondorioak.

BIBLIOGRAFIA

- BARRERO ORTEGA, Abraham, «La transformación de la Constitución española a la luz del Derecho Constitucional Europeo», *Revista de Derecho Constitucional Europeo*, 10. zk., 2008ko uztaila-abendua.
- BODINO, Jean, *Los seis libros de la República*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1992.
- BORCHARDT, K.D., *El ABC del Derecho comunitario*, OPOCE, Luxenburgo, 2000.
- CARRILLO SALCEDO, Juan Antonio, *Curso de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 1992.
- CONSTANTINESCO, Vlad, «Estados, naciones y Unión Europea», in: PEREZ CALVO, Alberto (koord.), *Estado, Nación y Soberanía*, Departamento de Publicaciones del Senado, Madril, 2000.
- CORREA RESTREPO, Juan Santiago, «Colombia y la Doctrina Monroe. El caso del ferrocarril de Panamá y las intervenciones estadounidenses en el istmo», *Memorias, Revista digital de historia y arqueología desde el Caribe*, 22, 2014.
- DEL CABO, Antonio, «Introducción» in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización y crisis de la Soberanía. Algunos efectos en América Latina y Europa*, Publicaciones Universidad de Alicante, Alacant, 2000.
- DIEZ, Thomas; BODE, Ingvild; FERNANDES DE SOUSA, Aleksandra, *Key Concepts in International Relations*, SAGE, 2011.
- ELLIOT, J.H., «Europa después de la Paz de Westfalia», *Revista Pedralbes*, 19, 1999.

⁵² *Herrialde eta herri kolonialei independentzia onartzearen inguruko adierazpena* (1960). Gaztelaniaz: «Declaración sobre la concesión de la independencia a los países y pueblos coloniales. Resolución 1514(XV) de la Asamblea General de Naciones Unidas».

Ikus: <http://www.un.org/es/decolonization/declaration.shtml>

⁵³ PALACIOS, Francisco, «OTAN-Kosovo. Soberanía, Derecho y...», *op. cit.*, 147.-148. or.

- GARCÍA GESTOSO, Noemí, *Soberanía y Unión Europea (Algunas cuestiones críticas desde la Teoría de la Constitución)*, Atelier, Bartzelona, 2004.
- GARCÍA ROCA, Javier, «Estatalidad versus Soberanía «(Integración comunitaria y relaciones de competencia entre ordenamientos)» in: PEREZ CALVO, Alberto (koord.), *Estado, Nación y Soberanía, op. cit. supra*.
- HELLER, Herman, *La Soberanía. Contribución a la Teoría del Derecho estatal y del Derecho internacional*, UNAM, Mexiko, 1965.
- HOBBS, Thomas, *Leviatán o la materia, forma y poder de un Estado eclesiástico y civil*, Alianza Editorial, Madril, 2009.
- JANIS, Mark W., *An Introduction to International Law*, Aspen Law & Business, New York, 1999.
- JELLINEK, Georg, *Teoría General del Estado*, Albatros, Buenos Aires, 1978.
- MARIÑO MENÉNDEZ, Fernando M., *Derecho Internacional Público (Parte General)*, Trotta, Madril, 1995.
- MARTINEZ DALMAU, Rubén, *Por una Asamblea Constituyente. Una salida democrática a la crisis*, Sequitur, Madril, 2012.
- NOGUEIRA ALCALÁ, Humberto, «Consideraciones sobre poder constituyente y reforma de la Constitución en la teoría y la práctica constitucional», *Revista Ius et Praxis*, XV. urtea, 1. zk., Talca (Txile), 2008.
- PALACIOS, Francisco, «OTAN-Kosovo. Soberanía, Derecho y lógica bélico-mercantil» in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización...*, *op. cit. supra*.
- PASTOR RIDRUEJO, José A., *Curso de Derecho Internacional Público y Organizaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 2008.
- PISARELLO, Gerardo, «Globalización, constitucionalismo y derechos: las vías del cosmopolitismo jurídico, in: DEL CABO, Antonio; PISARELLO, Gerardo (ed.), *Constitucionalismo, mundialización...*, *op. cit. supra*.
- REQUEJO PAGÉS, Juan Luis, *Las normas preconstitucionales y el mito del poder constituyente*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 1998.
- RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J., *Lecciones de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 2001.
- ROUSSEAU, Jean Jaques, *Gizarte Hitzarmena*, Klasikoak, Bilbo, 1993.

Araudia eta adierazpenak (kronologikoki)

- Montevideoko Estatuen Eskubide eta Betebeharren inguruko Konbentzioa (1933).
 Herrialde eta herri koloniaiei independentzia onartzearen inguruko adierazpena (1960).
 Espainiako Konstituzioa (1978).

8.

Segurtasuna

IKER ZIRION LANDALUZE

Nazioarteko Harremanen esparruan, segurtasunaren azterketa Segurtasun Ikasketen bidez egiten da. Ikasketa horiek aipatutako diziplinaren azpiesparrua dira, eta gerrarekin, bakearekin, segurtasunarekin eta estrategia militarrekin zerikusia duten gaien azterketa espezifikoa jorratzen dute.

Testu honetan, lehenbizi, Nazioarteko Harremanetan nagusi den segurtasunari buruzko ikuspegiaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditut, laburki. Ikuspegi hori *errealismoak* —hau da, diziplina horretako joera nagusiak (*mainstream*)— defendatu duen segurtasunaren interpretazioarekin bat dator. Ondoren, kontzeptu horren historia aztertuko dut, lehen mundu gerra amaitu (1919) eta diziplina sortu zenetik 1960ko hamarkadara arte, orduan hasi baitziren diziplina horretako beste joera batzuk —hain zuzen, liberalismoa eta estrukturalismoak— ordura arte nagusi izandako segurtasunari buruzko ikuspegi errealista hura zalantzan jartzen.

Lehenengo kritika horiek beren bidea egin zuten, eta 1980ko eta 90eko hamarkadetan nagusi zen segurtasunari buruzko ikuspegi horrekin kritikoak ziren beste joera ugari sortu ziren; besteak beste, konstruktibismoa, teoria Kritikoa, postmodernismoa eta feminismoa. Joera horiek bizirik daude, gaur egun, diziplina honetan segurtasunaren inguruan dauden eztabaidetan. Azkenik, giza segurtasunaren kontzeptua azalduko dut, Kongoko Errepublika Demokratikoaren adibide praktikoa baten bidez.

1. DEFINIZIOA: NAZIOARTEKO HARREMANETAN NAGUSI DEN SEGURTASUNARI BURUZKO IKUSPEGIA

Segurtasunari dagokionez, errealismoaren iritzian mundua nazioarteko sistema anarkiko bat da, gobernurik gabekoa. Horretan, funtsezko gaiak dira potentzien arteko oreka, batetik, eta estatuen interesak eta iraupen-nahia, bestetik.

Errealismoak egiten duen segurtasunaren interpretazioak mehatxu militarrek ditu ardatz, hain zuzen, estatuen kontrako mehatxu militarrek. Izan ere, estatuak diziplina osoaren eta Segurtasun Ikasketen azpidiziplinaren eragile pribilegiatuak —edo eksklusiboak— dira. Segurtasunaren azterketan estatua erreferentzia denez, segurtasuna nazio-mailan interpretatzen da (segurtasun nazionala).

Nazioarteko sistema anarkiko baten eremuan, estatu bakoitzak bere iraupena bermatu behar du. Hala, estatuaren helburua boterea lortzea da, disuasio militarra erabiliz eta aliatuak kontrolatuz. Hori lortzeko, estatu-jardueraren esparru militarra erabiltzen dute, gehienbat. Izan ere, errealismoak Segurtasun Ikasketak eta Estrategia Ikasketak nahastu ditu (azken horiek indar militarren mehatxua, erabilera eta kontrola ikertzen dituzte)¹. Ikuspegi horren arabera, gatazka armatua (gerra) eta segurtasun eza berezkoak dira nazioarteko harremanetan.

Errealismoa ez zen gai izan gerra hotzaren ostean nazioartean gertatutako aldaketa sakonak aurreikusteko. Baina, hala ere, errealismoaren ekarpenak nagusi izan dira Segurtasun Ikasketetan, barne-desadostasunak eta kanpo-kritikak gorabehera. Are gehiago, geroago gertatutakoek —bereziki, irailaren 11ko atentatuek— segurtasunaren ikuspegi errealista biziberritu dute.

Ikuspegi errealistak diziplinaren historian zehar izandako nagusitasuna ulertzeko, kontuan hartu behar da Nazioarteko Harremanen eremuan nolako eragina izan duen joera horrek Amerikako Estatu Batuen kanpo-politikan Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik². Beraz, defendatzen duen segurtasunaren ikuspegia ere ez da neutroa; aitzitik, ikuspegi hori nazioarteko harremanak eta segurtasuna bera interpretatzeko modu partikular eta interesatu baten adierazgarri da.

2. IBILBIDE HISTORIKOA: SEGURTASUN KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Hasierako urteetan, Nazioarteko Harremanen diziplina idealismo izeneko pentsamendu-eskolari lotuta zegoen. Lehen mundu gerraren ostean, gerraren ondorioak nabarmenak ziren, eta idealismoak gerraren kausen azalpena eta, hura ez errepikatzeke, prebentzioa landu zituen. Horretarako, elementu hauetan oinarrituko zen nazioarteko ordena berri bat proposatu zuen: armagabetzea, nazioarteko sistemako kideen —estatuaren— arteko gatazken konponbide baketsua, eta sistemari segurtasuna eta egonkortasuna emateko nazioarteko antolaketa bat.

Geroago, Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan eta Nazioen Gizartearen porrotaren ondorioz, errealismoa diziplinaren joera nagusi bilakatu zen, eta hala da gaur egun ere. Errealismoarentzat estatu burujabeak guztiz zentralak

¹ Battistella, D., *Théories des relations internationales*, Paris, Fondation Nationale des Sciences Politiques, 2009, 509. or.

² Tickner, A., *Gender in International Relations. Feminist Perspectives on Achieving Global Security*, New York, Columbia University Press, 1992, x. or.; Sodupe, K., *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003, 43. or.

dira, anarkikotzat jotzen duten nazioarteko ordena horretako eragile nagusiak —ia eskusiboak— baitira eta botere absolutua baitaukat.

Testuinguru honetan, diziplinaren xedek estatuen arteko gerraren zergatiak eta, modu militarrean, estatuen segurtasuna bermatzeko baldintzak aztertzea izan behar luke. Hala, bada, segurtasuna agenda errealistaren ardura garrantzitsuenetako bat izan da hasieratik; izan ere, estatuek euren segurtasuna bermatzen dutenean soilik bila dezakete onura, boterea edo halako beste edozein helburu³.

XX. mendeko 60ko hamarkadan, Nazioarteko Harremanen diziplinan munduaren eta segurtasunaren bi ikusmolde berri agertu ziren errealismoaren aurrean; liberalismoa eta estrukturalismoa, alegia. Ikuspegi liberalaren arabera, estatuen arteko lankidetzeta eta integrazioa haien arteko interdependentzia eta haien interesen harmonian oinarrituta daude, eta nazioarteko harremanen oinarrietako bat dira. Nazioarteko ordena seguruago eta baketsuagoa sustatzen duten instituzioek (esaterako, mehatxua edo indarra ez erabiltzearen eta eztabaiden konponbide baketsuaren aldeko Nazioarteko Zuzenbideko printzipioak; edo segurtasun-sistema kolektiboak) eta nazioarteko gobernu arteko erakundeek (Nazio Batuek, kasu) babestu behar dute integrazio hori.

Bestalde, estrukturalismoaren arabera, gatazkak eta segurtasun eza ez dira nazioarteko ordenaren anarkiaren ondorio; aitzitik, mundu mailako kapitalismoaren izaera esplotatzailearen ondorio dira. Izan ere, kapitalismoak etengabe bilatzen ditu merkatu eta baliabide berriak, eta gizarte-klaseen arteko zatiketa eta erdialdeko eta periferiako estatuen arteko harreman bidegabeak sustatzen ditu. Ikuspuntu marxista batetik, estatua eliteek euren interesak defendatzeko erabiltzen duten tresna da. Beraz, estatuen kanpo-politikak ez du interes nazionala defendatzeko helburua, eliteen interesak baizik.

Segurtasunaren ikuspegi errealistaren nagusitasun hori eta 1960ko hamarkadan horren kontra sortutako kritikak (liberala eta estrukturalista/marxista) gaur egungo egoeraren abiapuntua dira. Ikuspegi errealista (gaur neorealista) interpretazio hegemonikoa da, oraindik ere. Hala ere, gero eta gehiago eta gero eta indar handiagoz, leku askotakoak diren eta eduki desberdinak dituzten ahots disidenteak entzuten dira. Jarraian, segurtasunaren inguruko gaur egungo eztabaida hori aztertuko dut.

3. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK: SEGURTASUNAREN IKUSPEGI BERRIAK

Aurreko atalean aztertutako korronteez gainera, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90koaren hasieran korronte berri ugari agertu zen diziplina honetan, hala nola teoria Kritikoa, postmodernismoa, postkolonialismoa

³ Waltz, K., *Theory of International Politics*, New York, MacGraw-Hill, 1979, 126. or.

eta feminismoa. Haien artean desberdintasun handiak badaude ere, joera horiek guztiek kritikatu dituzte diziplinan nagusi izan diren ikuskerak, bai munduari eta errealtateari (ontologia) bai zientziari berari (epistemologia) dagokienez.

Segurtasun Ikasketen alorrean ere, joera berri hauek tradiziozko ikuspegi hegemonikoaren kontrako ikuspegi kritikoak sortu dituzte. «Segurtasun ikasketak kritiko»⁴ honako ideia hauek defendatzen dituzte, besteak beste⁵:

- Segurtasunaren definizioa (zer edo nor behar da babestu?; zeintzuk dira mehatxu nagusiak?) definitzailearen ikuspegi eta balioen araberakoa da.
- Segurtasuna ez dagokio esparru militarri bakarrik. Segurtasunaren agenda zabaldu beharra dago beste mehatxu posible batzuk ere barnean hartzeko (ekonomikoak, ingurumenari edo elikadurari lotuak, etab.).
- Estatua ezin da segurtasun erreferente bakarra izan, ezta nagusia ere. Segurtasun ezak pertsonak kaltetzen ditu ororen gainetik. Hortaz, pertsonak, banaka nahiz taldeka (komunitateak, gizarte-mugimenduak, GKE, etab.), rol garrantzitsua bete ahal eta behar dute esparru honetan (mehatxuak identifikatu, segurtasuna eskaini, etab.).
- Gizartearen eraldaketak eta gizakiaren emantzipazioak segurtasunaren inguruko ikerketen eta proposamenen helburu izan behar dute.

Antzekotasun horiek gorabehera, lehenago esan bezala, joera horiek desberdintasun handiak dituzte. Horregatik, segidan, horietako bakoitzaren funtsezko ideiak aztertuko ditugu, segurtasunari dagokionez.

3.1. Konstruktibismoa

Autore nabarmenen artean hauek ditugu: Keith Krause eta Michael Williams; edo Kopenhageko Eskolako Barry Buzan eta Ole Wæver. Buzan⁶, lehenengotariko bat izan zen militarraz aparte segurtasunaren kontrako

⁴ *Segurtasun ikasketa kritiko* esamoldea (minuskulaz) Nazioarteko Harremanen diziplinan berriki sortutako joera horien barruko segurtasun-ikasketei dagokie: Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams, *Critical security studies. An Introduction*, Abingdon, Routledge, 2010, 18. or. Segurtasun ikasketa kritikoekin lotutako korrante eta gaien azterketa sakonago batarako, ikus: Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams (ed.), *Critical security studies, Volumes 1-4: Critical Concepts in Military, Strategic and Security Studies*, Abingdon, Routledge, 2013. Lau liburukiz osatutako argitalpen horretan, egileek Nazioarteko Harremanen azpidiziplina honekin lotutako testu anitz bildu dituzte.

⁵ Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams, *Critical security studies. An Introduction*, *op. cit.*, 21.-24. or.

⁶ Buzan, B., *People, States, and Fear. The National Security Problem in International Relations*, Brighton, Wheatsheaf Books, 1991.

beste zenbait mehatxu identifikatzen (ingurumenezkoak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak).

Konstruktibismoak defendatzen du nazioarteko gizartearen errealitatea eta errealitate horren ezagutza eraikiak direla. Hortaz, segurtasunaren kontzeptua ez da berezkoa; aitzitik, segurtasunaren kontzeptua eragile batzuen (estatuak, nazioarteko gobernuarteko erakundeak, segurtasuneko adituak, hedabideak) zenbait prozesuk, praktikak eta diskurtsok eraikitzen dute⁷. Eragile horiek mehatxu bilaka dezakete egoera konkretu bat.

Ole Waever-ek⁸ Sekuritizazioaren teoria sortu zuen. Teoriak azaltzen du noiz, nola eta zergatik erabakitzen duten estatuek edo eliteek gai bat «segurtasun»-arazo bat dela (zergatik arazoa sekuritizatzen duten). Arazoa larrialditzat jotzean gaia eztabaida politiko «normal» batetik atera dezakete, eta «normaltasun»-egoera batean onartuko ez lirakekeen ezohiko politikak erabiltzea zilegi bihurtzen da arazoa bideratzeko⁹. Sekuritizazio prozesu horren arrakasta faktore hauen menpe dago, besteak beste: zer aktorek egiten duten mehatxuaren diskurtsoa, entzuleek diskurtsoa zenbateraino onartzen duten, konnotazio historikorik baden, zer sentimendu sortzen dituen, eta abar¹⁰.

Beraz, ikuspegi honen arabera, segurtasunaren kontrako mehatxu bat ez da mehatxua berez; aitzitik, hura aurkezteko eta onartzeko moduek bihurtzen dute mehatxu¹¹. Barry Buzan, Ole Waever eta Jaap de Wild-ek¹² adierazi bezala, «muga zeharkatzen duten tankeez aparte, ez dago mehatxu objektibo askorik». Hortaz, mehatxuak eraikitzen dira.

3.2. Teoria Kritikoa

Teoria honen barruan, 1990eko hamarkadan «Segurtasun Ikasketa Kritikoak» direlakoak¹³ sortu ziren. Autoreen artean Galeseko Eskolako zenbait kide ditugu; esaterako, Richar Wyn Jones eta Ken Booth.

⁷ Pérez de Armiño, K., «¿Más allá de la seguridad humana? Desafíos y aportes de los estudios críticos de seguridad», hemen: ZENBAIT EGILE, *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2011*, Madril, Tecnos, 2013, 265. or.

⁸ Waever, O., «Securitization and Desecuritization», hemen: Lipschutz, R. (ed.), *On Security*, New York, Columbia University Press, 1995.

⁹ Buzan, B., O. Waever eta J. de Wilde, *Security. A New Framework for Analysis*, Londres, Lynne Rienner, 1998, 23.-24. or.

¹⁰ *Ibidem*, 23.-26. or.

¹¹ Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams, *Critical security studies. An Introduction*, *op. cit.*, 78. or.

¹² Buzan, B., O. Waever eta J. de Wilde, *op. cit.*, 57. or.

¹³ Segurtasun Ikasketa Kritikoak (maiuskulaz) Galeseko Eskolari lotuta daude. Hori ere teoria Kritikoaren ildo beretik dabil: Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams, *Critical security studies. An Introduction*, *op. cit.*, 17. or.

Segurtasunaren ohiko kontzeptuaren eraldaketari dagokionez, Wyn Jonesek lau estrategia proposatu zituen¹⁴. Lehenik, kontzeptua zabaltzea (*broadening*) —hau da, esparru militarraz aparte, segurtasunaren beste esparruak ere (ingurumena, arlo humanitarioa eta osasuna, besteak beste) hartzea—; bigarrenik, edukia sakontzea (*deepening*) —hau da, segurtasunaren interpretazio indibidual eta kolektiboak lotzea—; hirugarrenik, segurtasunarekin zerikusia duten eragileak estatuaz harago zabaltzea (*extending*); eta, azkenik, segurtasuna giza emantzipazioa lortzeko helburura bideratzea (*focusing*).

Autore horiek *segurtasun* kontzeptuaren izaera estatu-zentrikoa kritikatzen dute, eta estatuek ere pertsonen segurtasuna mehatxa dezaketela adierazten dute. Wyn Jones-en arabera, «segurtasun nazionalaren izenean gobernuek biltzen dituzten armak eta botereak mehatxu handiagoa dira askatasun eta segurtasun fisikoarentzat ustezko edozein kanpoko mehatxu baino»¹⁵. Hala, estatuek zerikusia dute, mehatxu militarrekin ez ezik, biztanleen segurtasun ezaren beste hainbat formarekin ere (elikaduran, ingurumenean, etab.), eta pertsona askoren segurtasunarentzat «Etsaia» ez da mehatxu nagusia, estatua bera baizik¹⁶.

Ikuspegi honen arabera, nazioarteko harremanetan ohi ez bezala, estatuak dira —eta ez pertsonak— «helburutzat baino gehiago bitartekotzat jo behar» lirakekeenak¹⁷. Azterketaren muinean pertsonak egon behar dute. Boterean eta ordenan oinarritu ohi den *segurtasun* kontzeptuaren aurrean, joera honek segurtasuna gizakiaren emantzipazioari lotzen du, gizakiaren emantzipazioa honelakotzat harturik: «pertsonak (bai gizabanakoak bai taldeak) askatzea beren borondatez erabakitakoa egiten uzten ez dien giza bortxakeria fisikotik»¹⁸.

3.3. Postmodernismoa

Errealitatea ezin da ezagutu guk beraren inguruan egiten dugun diskurtsoetik bereizita. Begiratzen duenaren buruaz kanpoko errealitaterik ez dago; ez dago «benetako» mundurik, horren interpretazioak baino; ez dago «egia bat», «lehi» dauden interpretazio bat baino gehiago baizik¹⁹. «Egia»-ren

¹⁴ Wyn Jones, R., *Security, Strategy and Critical Theory*, Boulder, Colorado, Lynne Rienner, 1999, 166. or.

¹⁵ *Ibidem*, 99. or.

¹⁶ Booth, K., «Security and Emancipation», *Review of International Studies*, 17. lib., 4. zk., 1991, 318. or.

¹⁷ Booth, K., «A Security Regime in Southern Africa. Theoretical Considerations», *South African Perspectives*, 30. zk., 1994, 5. or.

¹⁸ Booth, K., «Security and Emancipation», *op. cit.*, 319. or.

¹⁹ Sodupe, K. *op. cit.*, 206. or.

antzeko ezer baldin badago, hura posible egiten duen testuinguru historiko, ekonomiko eta sozialaren arabera aldatzen da.

Gizarteak (nazioarteko gizartea ere) desberdintasunaren eta hierarkiaren arabera egituratuta daude. Hortaz, ezin da sinetsi munduaren (edo segurtasunaren) interpretazio hegemonikoa desinteresatua edo neutrala denik. Botere gehien dutenek, segurtasunaren inguruan duten ikuspegia ezartzeko eta ikuspegi alternatiboak gutxieteko edo baztertzeko ahalmen handiagoa dute. Munduaren interpretazioa hobesten den ereduaren (kasu honetan, europar edo mendebaldar ereduaren) gizarte-, ekonomia- edo kultura-balioen arabera ezartzen da.

Beraz, botereak sortutako diskurtsoek «mehatxuak» sortzeko balio izan dute. Helburu ezberdinekin egin dute; besteak beste, armak erosteko eta segurtasunerako aurrekontuak handitzeko; nazioaren eta segurtasunaren defentsan indarkeria politikoa justifikatzeko; edo beren boterea legitimatzeko eta barne-zatiketa eta disidentzia ezkutatzeko.

«Mehatxuak» sortzeko estrategia horretan, identitatearen eta segurtasunaren arteko harremana estua da. Lehenengoa diferentzian egituratzen da, «beste»aren inguruko diskurtsoak sortuz, mugetan oinarritutako harreman dikotomikoak agertuz, hala nola «barruan/kanpoan», «gu/haiek», «hemengoa/atzerriarra». Kontzeptu eta diskurtso horiek, «porrot egindako estatu»-en, «barbarismo berri»-aren edo «mundu-mailako terrorismo»-aren diskurtsoekin batera, Mendebaldearen tresnak dira bere nazioarteko segurtasun-politikak eta beste herrialde batzuetan egin dituen esku-hartze militarrik justifikatzeko²⁰.

3.4. Postkolonialismoa

Segurtasunaren eta segurtasun ezaren bizipenak oso bestelakoak dira Iparralde eta Hegoalde Globaletan²¹. Lehenik, Mendebaldean *segurtasun* kontzeptua (estatu-zentrikoa) estatu-eredu «westfaliar»aren ezaugarri berezien arabera definitzen da (lurraldearen, biztanleen eta mugen kontrola, indarkeriaren erabileraren monopolioa, administrazio egonkorra, etab.). Eredu hori Mendebaldeko herriena da, eta beste testuinguru batzuetan zalantzan jartzen da²². Gainera, Segurtasun Ikasketek, potentzia handien arteko gatazken esparruan, estatuen arteko gatazkek aztertu dituzte gehien-

²⁰ Steans, J. eta L. Pettiford, *International Relations. Perspectives and Themes*, Harlow, Longman, 2001, 144. or.

²¹ Acharya, A., «The Periphery as the Core. The Third World and the Security Studies», hemen: Krause, K. eta M. Williams (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, Londres, UCL Press, 1997, 303.-304. or.

²² Ayoob, M., «Security in the Third World: The Worm about to Turn?», *International Affairs*, 60. zk., 1983, 42. or.

bat, baina ez ikusia egin diete nazioarteko sistemako estatuaren esperientzia historiko askotarikoei. Estatu horiek, boterea ez duten arren, estatu gehienak dira²³.

Mendebaldeko segurtasun-arazoak ez bezala, Hegoalde Global gehienean segurtasun ezaren jatorria herrialdean berean dago, ez mugaz kanpo²⁴. Era berean, mehatxuak ez dira militarrik izaten; aitzitik, beste alderdi batzuekin dute lotura, hala nola baliabide urriekin, gainpopulazioarekin, azpi-garapenarekin eta ingurumenaren hondamenarekin. Hegoalde Globalarentzat funtsezkoak diren gai horiek ez dira aintzat hartzen Iparralde Globalaren segurtasun-agendan.

«Segurtasunaren Mendebaldeko definizio etnozentrkoa gainditzeko» aldarrikapenaren bidez²⁵, postkolonialismoak, diziplinako ildo nagusia ez ezik, segurtasun ikasketa kritikoak ere kritikatzeko ditu²⁶. Bi horien mundu-ikuskeran Iparralde Globala «ona» da²⁷. Horrek Mendebaldeko kultura eta balioak sendotzen ditu, eta, aldi berean, Hegoalde Globalean esku-hartzeak legitimatzen ditu (politikoak, militarrik, ekonomikoak). Era berean, diskurtso horren eraginez, nazioarteko segurtasun ezaren erantzule gisa Iparralde Globalak duen garrantzia txikitzen da. Izan ere, potentzia handiek segurtasuna bilatzean segurtasun eza sortu dute Hegoalde Globalean (hori argia izan zen gerra hotzaren garaian)²⁸.

3.5. Feminismoa

Joera honek emakumeak diziplinatik baztertuak izan direla kritikatzeko du. Bazterketa hori enpirikoa eta teorikoa izan da: alde batetik, diziplinak ez dituelako emakumeak baliozko ikergaitzat jo, eta, bestetik, diziplinako kontzeptu gakoak —esaterako, segurtasuna— maskulinitatetik eraiki direlako²⁹. Gizonek sortutako ezagutzaz ari gara, zeinak mundua ikusteko modu partzial eta maskulinoa aurkezten baitu.

Are gehiago, segurtasunaren interpretazio hegemonikoa, osoa ez izateaz aparte, neutroa ere ez da generoaren ikuspuntutik; izan ere, gizonen esperien-

²³ Barkawi, T. eta M. Laffey, «The Postcolonial Moment in Security Studies», *Review of International Studies*, 32. zk., 2006, 332. or.

²⁴ Ayoob, M. «Security in the Third World ...», *op. cit.*, 43. or.

²⁵ Ayoob, M., «Defining Security. A Subaltern Realist Perspective», hemen: Krause, K. eta M. Williams (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, Londres, UCL Press, 1997, 139. or.

²⁶ Peoples, C. eta N. Vaughan-Williams, *Critical security studies. An Introduction*, *op. cit.*, 47. or.

²⁷ Klein, B., *Strategic Studies and World Order. The Global Politics of Deterrence*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994, 5. or.

²⁸ Ayoob, M. «Security in the Third World ...», *op. cit.*, 48.-49. or.

²⁹ Daddow, O. J., *International Relations Theory*, Londres, Sage, 2009, 146. or.

tzietan eta ezagutzan oinarritutako testuinguru sozial eta politiko baten emaitza da. Gainera, maskulinitate konkretu batez ari gara³⁰, hain zuzen, maskulinitate hegemonikoaz³¹.

Horregatik, feminismoak analisia eraman du segurtasunaren tradiziozko estatu arteko ikuspegi estatuzentrikotik nazioarteko aktore-, egitura- eta eraldaketa-aukerak hartzen dituen beste ikuspegi batera. Galdera berri hauei eman nahi zaie erantzuna: Nork definitzen du segurtasuna? Nola definitzen da? Norren segurtasunaz ari gara? Nola bermatu eta mantentzen da segurtasuna?³²

Feministek uko egin diote gatazka eta anarkia ardatz hartutako diziplinaren ikerketa horri; izan ere, horrek gizarte-harremanetan dagoen egiturazko indarkeriari eta baliabideak lortzeko desberdintasunei ez ikusia egiten die. Egoera pertsonal, sozial, ekonomiko edo politikoak definitzen du, besteak beste, pertsonak zein neurritan sentitzen diren edo daude «mehatxatuta». Botere-desberdintasunek (emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak barne) menperatze-sistemak sortzen dituzte, eta pertsona askoren segurtasun eza sistema horien emaitza da³³.

4. ADIBIDE PRAKTIKOA: GIZA SEGURTASUNA KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOAN

Giza segurtasunaren kontzeptua ez da Nazioarteko Harremanen diziplinan sortu, Garapen Ikasketetan baizik³⁴ baina funtsezko ekarpenak egin dizkio segurtasunaren ikerketari diziplina horren barruan ere. Kontzeptu hori giza garapenaren kontzeptuari oso lotuta dago. Azken horren helburua da pertsonak euren garapena lortzeko dituzten aukera eta gaitasunak handitzea. Bestalde, *giza segurtasun* kontzeptuak pertsonen eguneroko bizitzaren segurtasuna azpimarratzen du; hau da, gaitasuna garatzea nork bere bizimodua ateratzeko, oinarritzko beharrianak asetzeko, bere kabuz moldatzeko eta komunitatean modu aske eta seguruan parte hartzeko³⁵.

³⁰ True, J., «Feminism», hemen: Burchill, S. *et al.*, *Theories of International Relations*, Basingstoke, Hampshire Palgrave Macmillan, 2009, 247. or.

³¹ *Maskulinitate hegemoniko* kontzeptua gizartearen nagusi den maskulinitate-ereduari dagokio, hau da, gizarte konkretu bateko gizonen bereizgarri eta ezaugarrietan oinarritutako maskulinitate idealari.

³² Mendia Azkue, I. eta D. Saillard, «Feminismo y seguridad humana: encuentros y desencuentros», hemen: Pérez de Armiño, K. eta I. Mendia Azkue (ed.), *Seguridad humana. Aportes críticos al debate teórico y político*, Madril, Tecnos eta Hegoa Institutua, 2013, 231.-234. or.

³³ Steans, J. eta L. Pettiford, *op. cit.*, 171. or.

³⁴ Horregatik aztertzen da atal honetan, Nazioarteko Harremanetako joera kritikoei *segurtasun* kontzeptuari egindako ekarpenetatik bereizita.

³⁵ Pérez de Armiño, K. eta M. Areizaga, «Seguridad humana», hemen: Pérez de Armiño, Karlos (ed.), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Bilbo, Icaria eta Hegoa Institutua, 2000, <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrat/204>

Giza segurtasunak bi dimentsio dauzka: lehenengoa, pertsonen euren oinarrizko beharrianak asetzeko duten gaitasuna; bigarrena, indarkeria fisikorik gabe sentitzeko ahalmena. Bi dimentsio horiek segurtasunaren zazpi osagarri hauetan gauzatzen dira: ekonomia, elikadura, osasuna, ingurumena, banakoa, komunitatea eta politika³⁶.

Giza segurtasunaren ikuspegiak potentzialtasun politiko handiak ditu bai nazio-mailako gobernuentzat bai nazioarteko lankidetzarentzat. Hala ere, kontzeptu horren aplikazio praktikoak kontraesanak ere baditu. Izan ere, kasu batzuetan, estatuko eta nazioarteko botere publikoek txertatu dute, baina haren edukia mugaturik eta haren eraldaketa- eta emantzipazio-ahalmena murrizturik³⁷.

Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, berehala ikusiko dugunez, giza segurtasunaren ildoak lotura asko ditu lehenago aztertutako segurtasunaren ikuspegi kritikoekin; besteak beste, segurtasunaren izaera estatal eta militar hutsaren kritikarekin edo giza emantzipazioa lortzeko helburu nagusiarekin.

Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean, 20 urte inguruko gatazkaren ondorioz, herritarrek ezin dituzte euren oinarrizko beharrianak ase (elikadura, bizilekua, osasuna), ezta indarkeria fisikorik gabe bizi ere. Talde armatuen eta gobernuaren artean hainbat bake-akordio sinatu badira ere, talde armatu asko jardunean daude oraindik ere eskualde horretan. Kongoko legezko armada ere oso aktibo dago eskualde horretan. Batzuek zein besteek eraso, arpilatu, hil eta bortxatu egiten dute. Ehun milaka pertsonak bizilekua utzi behar izan dute, bai herrialdeko beste eskualde batzuetara bai atzerrira alde eginez. Bertan jarraitzen dutenentzat egoera ere ez da ona, gatazkaren ezegonkortasuna eta aktore armatuen ugaritasuna di-rela eta.

Biztanleentzako mehatxuak barnekoak dira, gehienbat, eta, maiz, Kongoko estatuaren beraren jardura militarren emaitza dira. Kanpoko mehatxuak ere ezin dira kontrolatu, Ruandako, Ugandako eta Burundiko mugen iragazkortasuna dela eta. Segurtasunaren estatuko ikuspegi militar klasikoak ez du zentzurik kasu honetan. Izan ere, estatua ahula da, zerbitzu publiko egokiak eskaintzeko ezgaia, eta Kongoko armada ere ez da biztanleak defendatzeko gauza; aitzitik, armada bera biztanleen segurtasun ezaren erantzuleetako bat da.

Beraz, indarkeria fisiko ezari dagokionez, ez dago segurtasunik, indarkeriaren mehatxua etengabea baita. Era berean, ez dago segurtasunik, biz-

³⁶ PNUD, *Informe sobre Desarrollo Humano, 1994*, Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo, 1994, http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_1994_es_completo_nostats.pdf

³⁷ Pérez de Armiño, K., «Seguridad humana y estudios críticos de seguridad: de la cooperación a la emancipación», hemen: Pérez de Armiño, K. eta I. Mendia Azkue (ed.), *Seguridad humana. Aportes críticos al debate teórico y político*, Madril, Tecnos eta Hegoa Institutua, 2013, 53. or.

tanleen bizimodua ateratzeko, oinarrizko beharrianak asetzeko eta komunitatean modu aske eta seguruan parte hartzeko gaitasunari dagokionez. Aipatutako giza segurtasunaren zazpi osagarrien arabera, mehatxu hauek identifika daitezke:

- Segurtasun ekonomikoa: gatazken eraginez, ondasun materialak eta produkzio-ondasunak galtzen dira; desberdintasuna handitzen da.
- Elikadura-segurtasuna: elikagai eskasia orokorra dago, eta horrek desnutrizioa sortzen du; elikagai-aukera murrizta da, eta horrek malnutrizioa sortzen du; kanpoko elikadura-laguntzarekiko menpekotasuna dago.
- Osasun-segurtasuna: osasungaiztasuna eta epidemiak zabaltzen dira, eta edateko ura lortzeko aukerak gutxitzen dira (bereziki, desplazatuak kanpamenduetan); osasun-sistema publikoaren hondatzea orokorra da.
- Ingurumen-segurtasuna: lurraren gaineko presio demografikoa dago; ekosistemak hondatzen dira; baliabideak agortzen dira (lurra erretzeko taktika militarrek eta biztanleen lekualdaketa masibo etengabeek egoera larriagotzen dute).
- Banakoen segurtasuna: indarkeria fisikoak gora egiten du. Hauek dira horren seinale: mehatxuak; lapurretak eta arpilatzeak; hilketak; delinkuentzia; emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeria familiaren barruan; sexu-indarkeria gatazkan eta familiaren barruan.
- Komunitate-segurtasuna: gizarte- eta komunitate-ehuna eta harremanak hondatzen dira; patriarkatua sendotzen da (emakumeak gizonen menpe jartzen dituen sistema); tentsio etnikoak sustatzen dira.
- Segurtasun politikoa: giza eskubideen urraketa gehiago dago; larde-riazko joerak hedatzen dira; biztanleek ez dute parte hartzen erabaki politikoetan (are gutxiago emakumeek edo gutxiengo etnikoek) estatua progresiboki ahultzen eta desegiten da.

BIBLIOGRAFIA

- ACHARYA, Amitav, «The Periphery as the Core. The Third World and the Security Studies», hemen: KRAUSE, Keith eta Michael WILLIAMS (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, Londres, UCL Press, 1997, 299-327. or.
- AYOOB, Mohammed , «Security in the Third World: The Worm about to Turn?», *International Affairs*, 60. zk., 1983, 41.-51. or.
- AYOOB, Mohammed, «Defining Security. A Subaltern Realist Perspective», hemen: KRAUSE, Keith eta Michael WILLIAMS (ed.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, Londres, UCL Press, 1997, 121.-146. or.
- BARKAWI, Tarak eta Mark LAFFEY, «The Postcolonial Moment in Security Studies», *Review of International Studies*, 32. zk., 2006, 329.-352. or.

- BATTISTELLA, Dario, *Théories des relations internationales*, Paris, Fondation Nationale des Sciences Politiques, 2009.
- BOOTH, Ken, «Security and Emancipation», *Review of International Studies*, 17. lib., 4. zk., 1991, 313.-326. or.
- BOOTH, Ken, «A Security Regime in Southern Africa. Theoretical Considerations», *South African Perspectives*, 30. zk., 1994, 1.-30. or.
- BUZAN, Barry, *People, States, and Fear. The National Security Problem in International Relations*, Brighton, Wheatsheaf Books, 1991.
- BUZAN, Barry, Ole WAEVER eta Jaap DE WILDE, *Security. A New Framework for Analysis*, Londres, Lynne Rienner, 1998.
- DADDOW, Oliver J., *International Relations Theory*, Londres, Sage, 2009.
- KLEIN, Bradley, *Strategic Studies and World Order. The Global Politics of Deterrence*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994.
- MENDIA AZKUE, Irantzu eta Dominique SAILLARD, «Feminismo y seguridad humana: encuentros y desencuentros», hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Irantzu MENDIA AZKUE (ed.), *Seguridad humana. Aportes críticos al debate teórico y político*, Madril, Tecnos eta Hegoa Institutua, 2013, 227.-246. or.
- PEOPLES, Columba eta Nick VAUGHAN-WILLIAMS, *Critical security studies. An Introduction*, Abingdon, Routledge, 2010.
- PEOPLES, Columba eta Nick VAUGHAN-WILLIAMS (ed.), *Critical security studies, Volumes 1-4: Critical Concepts in Military, Strategic and Security Studies*, Abingdon, Routledge, 2013.
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos, «¿Más allá de la seguridad humana? Desafíos y aportes de los estudios críticos de seguridad», hemen: ZENBAIT EGILE, *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2011*, Madril, Tecnos, 2013, 235.-308. or.
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos, «Seguridad humana y estudios críticos de seguridad: de la cooptación a la emancipación», hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Irantzu MENDIA AZKUE (ed.), *Seguridad humana. Aportes críticos al debate teórico y político*, Madril, Tecnos eta Hegoa Institutua, 2013, 23-57. or.
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos, «Estudios de seguridad: de la visión tradicional a los enfoques críticos», hemen: ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA (koordk.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Madril, Tecnos, 2015, 301.-328. or.
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Marta AREIZAGA, «Seguridad humana», hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (ed.), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Bilbo, Icaria eta Hegoa Institutua, 2000, <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/204>
- PNUD, *Informe sobre Desarrollo Humano, 1994*, Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo, 1994, http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_1994_es_completo_nostats.pdf
- SODUPE, Kepa, *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.

- STEANS, Jill eta Lloyd PETTIFORD, *International Relations. Perspectives and Themes*, Harlow, Longman, 2001.
- TICKNER, Ann , *Gender in International Relations. Feminist Perspectives on Achieving Global Security*, New York, Columbia University Press, 1992.
- TRUE, Jacqui, «Feminism», hemen: BURCHILL, Scott *et al*, *Theories of International Relations*, Basingstoke, Hampshire Palgrave Macmillan, 2009, 237.-259. or.
- WAEVER, Ole, «Securitization and Desecuritization», hemen: LIPSCHUTZ, Ronnie (ed.), *On Security*, New York, Columbia University Press, 1995, 46.-87. or.
- WALTZ, Kenneth, *Theory of International Politics*, New York, MacGraw-Hill, 1979.
- WYN JONES, Richard, *Security, Strategy and Critical Theory*, Boulder, Colorado, Lynne Rienner, 1999.

9.

Nazioarteko Gatazkak

ITZIAR MUJIKA CHAO

1. DEFINIZIOAK

Atal honek, nazioarteko harremanen diziplinaren barruan, gatazken inguruko ikuspuntu nagusiak aztertuko ditu. Gatazkak «gizarte guztien prozesu natural» eta «giza-bizitzaren beharrezko fenomeno»¹ diren heinean, maila indibidualean, tokiko mailan, eskualde mailan zein nazioarteko mailan gertatzen dira. Aldi berean, eta gatazkak helburu bateraezinen, legitimitatearen edo bestelako desadostasunen gainean bi aktore edo gehiagoren (hauek norbanakoak, taldeak edo gizarte osoak izan) arteko talkak edo egoerak² diren heinean, indarkeria ezean oinarritutakoak izan litezke, edo indarkerian oinarritutakoak. Atal honek indarkerian oinarritutako nazioarteko gatazkei egiten die erreferentzia, eta, beraz, nazioarteko gatazka armatuez hitz egiten denean gerrari egingo zaio erreferentzia.

Gatazken dinamikek aldaketa nabariak jasan dituzte Gerra Hotzaren ostetik hona, eta, ondorioz, gatazken kontzeptualizazioak eta fenomeno horren inguruko ikuspuntuek ere aldaketa sakona jasan dute ordutik. *Gerra* kontzeptuak, tradizionalki, estatuen arteko gatazketan indar armatua erabiltzeari egin dio erreferentzia. Azken hamarkadetan, ordea, eta batez ere 2001eko irailaren 11ren ostean, nazioarteko gatazken inguruko ikuspuntua aldatu egin da, hein handi batean gatazken tipologiaren barruan gertatu diren aldaketan haritik.

Prozesu hori azaltzeko, lehendabizi gatazken inguruko ikuspuntuek izan duten aldaketa azalduko dugu, ondoren egungo definizioak plazaratzen dituen ezaugarri nagusiak aztertu, eta, azkenik, *gerra* kontzeptuaren inguruan nagusi diren eztabaidak agertuko ditugu.

¹ Lederach, J.P., *Construyendo la Paz: Reconciliación Sostenible en Sociedades Divididas*, Bilbo eta Gernika, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, 1998, 91. or.

² Diez, T., Bode, I. eta Fernandes da Costa, A., *Key Concepts in International Relations*, Londres, Sage, 2011, 10. or.

2. IBILBIDE HISTORIKOA: NAZIOARTEKO GATAZKEN BILAKAERA

Gerrak eta haien ezaugarri zein ondorioak aspaldidanik aztertutako fenomenoak dira.³ Alta, xx. mendean aldaketa sakona jasan zuen prozesu horrek, Lehen eta Bigarren Mundu Gerrek zein Gerra Hotzak sortutako ingurumari politikoaren ondorioz.

Westfaliar sistemaren baitan, gerrak elkarren aurkari ziren estatuak definitzen eta egiten zituzten. Gainera, gerra-adierazpen formal batekin hasien ziren, tropak mobilizatzen ziren, borrokalari eta zibilen arteko banaketa egiten, eta tregoa ofizial batekin amaitzen ziren.⁴ Deskribapen nagusi horri jarraikiz, errealismoak nazioarteko harremanen erdigunean kokatzen du gatazka, estatuen arteko gatazka ikuspuntu tradizional batetik harturik, argudiatuz hauek desordena instituzionalaren ondorio direla (errealisten aburuz nazioarteko autoritate komun baten faltan).⁵ Errealismoak onartzen zuen indarkeriarako joera «giza ezaugarri natural» bat zela;⁶ edo, aurkaria norbere helburuak lortzera behartzeko helburuarekin abian jarritako indarkeriazko ekintza bat dela, hau da, «politikaren jarraipena beste bide batzuk erabiliz gauzatu». ⁷ Baina «ez da soilik ekintza politiko bat baizik eta benetako instrumentu politiko bat, harreman politikoaren jarraipena, beste bide batzuk erabiliz gauzatu». ⁸

Tradizio liberalak, artean idealismoaren baitan, nazioarteko harmoniaren eta ongizatearen aldeko apustua egin zuen bi mundu-gerren artean, errealismoaren aldean nazioarteko harremanen inguruko ikuspuntu positiboago eta pluralagoa defendatuz eta nazioarteko aktoreen definizioa estatuetatik harago kokatuz.⁹ Defendatzen zuen gerra zein nazioarteko anarkia ez zirela ezinbestekoak eta hain zuzen ere halakoak gutxiagotzeko aukera

³ Adibidez: Wright, Q., *A Study of War*, Chicago, University of Chicago Press, 1942; Clausewitz, C.V., *On War*, Londres, Penguin, 1978; etab. Autore eta pentsalarien lanez gainera, gatazka armatuak ikuspuntu kuantitatibo zein kualitatibo batetik aztertu dituzten ekimen ugari garatu dira erakunde eta unibertsitateetan, batez ere xx. mendean zehar. Halakoan inguruko informazio gehiagorako ikusi: Wallensteen, P., *Understanding Conflict Resolution. War, Peace and The Global System*, London, Sage Publications, 2002, 17.-23. or., besteak beste.

⁴ Diez, T., Bode, I. eta Fernandes da Costa, A., *Op. cit.*, 155. or.

⁵ Senarclens, P., «El Paradigma 'Realista' y Los Conflictos Internacionales», *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, 127. zk., 1991, 6. or.

⁶ Brown, S., *International Relations in a Changing Global System, Toward a Theory of the World Polity*, Boulder eta Oxford, Westview Press, 1996, 54.-55. or.

⁷ Clausewitz, C.V., *On War*, Londres, Penguin, 1978, 119. or.

⁸ *Ibidem*, 87. or.

⁹ Keohane eta Nye-k *transnacional* kontzeptuari garrantzia eman zioten, honela definituz «estatu mugen artean ematen diren eta nabarmenak edo ez izan daitezkeen elementuen mugimendua, zeinaren baitan gutxienez parte hartzen duen aktoreetako bat ez baiten gobernu edo nazioarteko erakunde bat». Keohane, R. eta Nye, J., (ed.), *Transnational Relations and World Politics*, Cambridge, Harvard University Press, 1971, 332. or.

nazioarteko erakundeak indartzean zetzala, horrek gatazkak kontrolatzeko (eta, idealki, deuseztatzeko) saiakera multilateralla bailekarke. Beraz, nazioarteko gizartearen birrordenatze baten aldeko apustua egiten zuen,¹⁰

Alta, Bigarren Mundu Gerrak, Gerra Hotzaren eboluzioak eta norgehiagoka nuklearrak gatazken dinamiken ulerbide berri baten beharra areagotu zuten.¹¹ Konfrontazio bipolarrak bi ezaugarri nagusi azaleratu zituen:¹² batetik, gatazka zuzena ekidinez bloke bakoitzaren eraginpeko lurraldean gatazka sor ugari indargabetu ziren, baina, bestetik, garapen-bidean zeuden herrialdeetan gatazken kopurua areagotu zen.¹³ Horrenbestez, gatazka armatuen kokapen geografikoa aldatu zen, eta haien izaera ideologikoa azpimarratu. Gilpin-ek harago eramaten ditu Gerra Hotzaren azken hamarkadan jazotakoak, horiek prozesu berritzaletatik harturik, zeinak «aurrekaririk gabeko deskolonizazio-prozesu bat» bezala identifikatzen zituen eta «aldaketa teknologiko azkarrak, botere berrien agerpenak (India, Brasil, Txina), garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatzen ari diren iraultza soziopolitikoak, munduko ekonomian gertatzen ari diren kolpe masiboak eta Mendebaldekoak ez diren zibilizazioen susperraldiak» ezaugarritzen zituen. Haatik, eta Gilpin-en hitzei jarraituz, «bi bloke zentralek eta lerrokatu gabeko periferia handi batek osatutako nazioarteko sistemaren oinarritzko testuingurua, hein handi batean».¹⁴

2.1. Gatazka armatuak Gerra Hotzaren ostean

Gerra Hotzaren osteak eta ordena bipolarren eraketak agerian utzi zuten ordura arte nazioarteko ezaugarri izandako konfrontazio bipolarra atzean geratu zela eta nazioarteko harremanetan zein gatazken dinamikan globalizazio neoliberalak nagusitzen ari zela. Testuinguru berri horretan, gatazkak izaera ideologikoaren bitartez soilik definitzea motz geratzen ari zen:¹⁵ gatazka horien kokapen geografikoa aldatu egin zen eta haien intentsitatea ere aldatzen ari zen.¹⁶ Are gehiago: interdependentziaren inguruan

¹⁰ Kegley, C. Jr. eta Wittkopf, E.R., *World Politics: Trend and Transformation*, New York, St. Martins Worth Publishers, 1999, 24.-27.or.

¹¹ Wallerstein, P., *Understanding Conflict Resolution...*, *Op. cit.*, 33. or.

¹² Lederach, J.P., *Building Peace, Sustainable Reconciliation in Divided Societies*, Washington, United States Institute of Peace USIP, 1997, 5.-6.or.

¹³ Lederach-ek agertzen duenez, azalpen nagusia Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko talka ideologikoa zen.

¹⁴ Gilpin, R., «Change and War in the Contemporary World», in Matthews, R.O., Rubinoff, A.G., Gross Stein, J., *International Conflict and Conflict Management: Readings in World Politics*, Scarborough, Ontario, Prentice-Hall Canada Inc., 1989, 581. or.

¹⁵ Lederach, J.P., *Building Peace, Sustainable Reconciliation...*, *Op. cit.*, 8. or.

¹⁶ Wallerstein, P. eta Axell, K., «Armed Conflict at the End of the Cold War, 1989-1992», *Journal of Peace Research*, 30, 3. zk., 1993, 334. or, in Lederach, J.P., *Building Peace, Sustainable Reconciliation ...*, *Op. cit.*, 8.-10. or.

eraikitako ikuspuntu berriak agerian utzi zuen nolako garrantzia zeukaten nazioarteko ekonomiak, nazioarteko erakundeek zein aktore transnasionalek gatazken testuinguruan, ordura arteko ikuspuntuak landu beharreko hainbat eremu argitara ekarriz: gatazka etnikoak, gerra zibilak, migrazio-mugimenduak, gatazkek emakumeengan zein genero-harremanetan ziztuzten eraginak... Dinamika eta ezaugarri horiek ere nabari-nabariak dira egungo gatazka armatuetan, zeinak erronka berriak azaleratu baitituzte nazioarteko harremanen barruan.¹⁷

3. GERRA GARAİKIDEAK

XX. mendeak aurrera egin ahala, eta batez ere XXI. mendearen hasieran, gatazka armatuen konplexutasuna handituz joan da: ezaugarri desberdinak hartzen hasi ziren, bitarteko sofistikatuagoak erabiltzen, borrokarako zein finantzaketarako metodo gehiago eta desberdinak bereganatzen... Holsti-ren hitzei jarraituz, gatazka horiek agerian utzi zuten gatazken eredu berri bat azaleratzen ari zela, zeina ordura arteko nazioarteko politikaren banaketa teorikoak ez baitzuen azaltzen.¹⁸ Horrek gerra birdefinitzeko premia ekarri zuen, bai eta prozesu honetan «gerra berri»-en kontzeptuaren garapena ere, hein handi batean XX. mende amaieratik aurrera. Definizio berri horrek erantzuten dio «mundu garaikiderako egokiagoa den gerraren analisi berri bat garatzeko beharrari».¹⁹

Bigarren Mundu Gerraren amaierak eta Gerra Hotzaren garapenak aldarazi zuten gerren kontzeptualizazioa, gerra edo gatazka garaikideei beste hainbat kontzepturen bitartez erreferentzia eginez: hala nola «barne-gatazkak», «gerra berriak» edo «gerra txikiak»,²⁰ besteak beste. Dena den, terminologia desberdinaren gainetik, egungo gatazka garaikideen ikuspuntua hiru oinarri nagusitan funtsatzen da: oso litekeena da estatu ez diren aktore batzuek egitea, interes nazionalez gaindi dauden kausengatik eta armada profesioaletatik harago dauden taktika eta bitartekoak erabiliz.²¹ Azken hamarkadetako joerek bistan utzi dute, gainera, gatazka armatuak gero eta gehiago gatazka zibilak direla, hau da, estatuen barruko gatazkak:


¹⁷ Wallenstein, P., «Theoretical Developments in understanding the Origins of Civil War», in Newman, E. eta DeRouen, K. Jr., *Routledge Handbook of Civil Wars*, Londres eta New York, Routledge, 2014, 13. or.

¹⁸ in Butler, M.J., *International Conflict Management*, Londres eta New York, Routledge, 2009, 53. or.

¹⁹ Kaldor, M., «Un Nuevo Enfoque sobre las Guerras», *Papeles*, 94. zk., 2006, 11. or.

²⁰ Butler, M.J., *International Conflict Management*, *Op. Cit.*, 57. or.

²¹ Butler, M.J., *Ibidem*, 57. or.



1. GRAFIKOA

Gatazka armatuak (1946-2013), gatazka motaren arabera²²

Iturria: Uppsala Conflict Data Program (UCDP).

Gerra garaikideen kontzeptualizazioaren zein horien ezaugarrien garapenean aditu den Mary Kaldor-ek honela identifikatzen du «gerra zahar»en eta «gerra berri»en arteko desberdintasuna: gerra zaharrek erreferentzia egiten diote XVIII. mende amaieratik XX. mende erdialdera arte Europan izan ziren gerren «ikuspegi idealizatu»ari, alegia, Estatuaren artean gertatzen zirenean, indar armatuen bitarte, eta borroka bera talka nagusia zenean.²³ Kaldor-ek garatutako «gerra berri»en ikuspuntuari jarraituz, gerrak orain estatuaren artean jazotzen dira, baina estatuaz gaindiko aktore berriak dituzte (enpresa militar pribatuak, gerrilla taldeak, etab.), politika etniko, erlijioso edo identitarioak dituzte borrokagai (eta ez beti lurraldea), biktima kopurua handiagoa da zibilen aurka ere egiten delako, eta, azkenik, «gerrako ekonomia globalizatu»aren bitartez finantzatutakoak dira, zeinaren arabera gerra bera baita helburua²⁴ eta ez bitartekoa.

²² Themnér, L., eta Wallensteen, P., «Armed Conflict, 1946-2013», *Journal of Peace Research*, 51(4), 2014, 541.-554. or. Ikusi: http://www.pcr.uu.se/research/ucdp/charts_and_graphs/

²³ Kaldor, M., «Un Nuevo Enfoque sobre las Guerras», *Papeles*, 94. zk., 2006, 12. or. Gerra zaharren ezaugarrien inguruko informazio zehatz gehiagorako ikusi: Kaldor, M., *Las Nuevas Guerras: Violencia Organizada en la Era Global*, Bartzelona, Tusquets Editores, 2001, 30. or.; edo Kaldor, M., *New & Old Wars: Organized Violence in a Global Era*, Cambridge, Polity Press, 2006, 16. or.

²⁴ Kaldor, M., *Las Nuevas Guerras: Violencia Organizada...*, *Op. Cit.*; Kaldor, M., *New & Old Wars: Organized...*, *Op.Cit.*

3.1. Gerra zibil garaikideen ezaugarri nagusiak

Kontzeptualizazio berri honen baitan, zeinak XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako nazioarteko testuingurua eta orduko gatazken ezaugarriak kontuan hartzen baititu, gatazkek ezaugarri nagusioan arabera sailkatzen dira: helburu politikoa, ideologia, mobilizazio eredua, kanpo-babesa, gerra egiteko modua eta gerraren ekonomia.²⁵

1. Helburu politikoei dagokienez: gerraren helburuak jada ez dira estatuaren kanpo-politikan oinarritutako interesak, baizik eta homogeneotasun etnikoan oinarritutako botere forma berriak;
2. Ideologiei dagokienez: gerra berriek ez dituzte oinarrian demokrazia, faxismoa, sozialismoa edo gisako printzipio unibertsalak, identitate politika tribalistak eta komunitaristak baizik;
3. Mobilizazio ereduari dagokienez: jadanik ez dira hain ohikoak soldadutzarako edo abertzaletasunerako deiak, eta ustelkeriak, beldurraren hedapenak, erlijioak zein komunikabideek hartu dute garrantzia;
4. Kanpo-babesari dagokionez: superpotentzien edo indar kolonial ohien aldean, diasporak, atzerriko mertzenarioek, mafia kriminalak zein eskualdeko botereek indarra hartzen dute;
5. Gerra egiteko moduari dagokionez: lehen, borrokaldiak fronte zehatzetan gertatzen ziren, base militarrek zeuden eta arma astunak erabiltzen ziren; orain, ordea, zatitutako zein sakabanatutako taldeen arteko borrokak izaten dira, talde paramilitar eta kriminalen artekoak sarri asko, haur soldaduak eta arma arinagoak erabiliz eta gerrarako birtarteko edo armatzat harturik basatikeriak, gosetea, bortxaketak zein setioa; eta,
6. Gerrako ekonomiari dagokionez: estatu barruko mobilizazioak egitetik zein gerra zerga-bilketaz finantzatetik larrialditarako kanpo-laguntzen zein ekonomia paraleloen bidez finantzatzera pasa dira (egurraren zein metal preziatuen esportazioa, droga-trafikoa zein lapurretak ere baliatuz).²⁶

Ikuspuntu desberdinen arteko talkan eta aldatzen ari zen mundu mailako testuinguru politikoan, gatazka armatuen ikerkuntzak hiru oinarri nagusiren inguruan kokatu du gatazka armatuen definizioa: inplikaturako aktoreak, batetik, biktima kopurua, bestetik, eta gatazken tipologia bera, azkenik.

²⁵ Miall, H., Ramsbotham, O. eta Woodhouse, T., *Contemporary Conflict Resolution*, Cambridge, Polity Press, 2011, 97.-98. or.

²⁶ Gerra zibil garaikideen ezaugarrien eta kausen inguruko analisi sakonago baterako ikusi: Pérez de Armiño, K., «Aproximación a Los Debates sobre Las Causas de Las Guerras Civiles Contemporáneas», in J.L. de Castro eta G. Orueta (ed.), *Escritos de Internacionalistas en Homenaje al Profesor Iñaki Aguirre Zabala*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Stockholm International Peace Research Institute (SIPRI) ekimenari jarraituz, gatazka armatuak gobernatzearen edo lurralde baten inguruko bate-razintasunezko aferak dira, zeinetan bi aldean arteko (horietako bat estatu bateko gobernuak) indarkeria militarrek urtean gutxienez 1.000 biktima zuzen eragingo baititu.²⁷

Gerren tipologiari dagokionez, gerren ohiko sailkapenak lau gatazka mota identifikatzen ditu: estatuen arteko gerrak, estatuz gaindiko gerrak (zeinak izan baitaitezke kolonialak, estatu baten eta kolonia baten arteko gatazka, edo inperialak, estatu baten eta estatu ez den beste mugimendu baten artekoak), estatu barruko gerrak (zeinak gerra zibilak, eskualde mailako barne-gerrak edo komunitateen arteko gerrak izan baitaitezke) eta gerra ez-estatalak (parte-hartzaileenak ez diren lurralde batean zein estatuen mugez gandi gertatuak).²⁸

1. TAULA

Gerren tipologiaren erlazioak²⁹

I Estatuen arteko gerrak		
II Estatuz gaindiko gerrak	A Koloniekiko gatazka kolonialak	
	B Estatu inperial eta ez-estatuen artekoak	
III Estatu barruko gerrak	A Gerra zibilak	1 Aginte zentralaz jabetzeko 2 Tokiko aferen inguruan
	B Eskualde mailako barne-gatazka	
	C Komunitateen artekoak	
IV Gerra ez-estatalak	A Lurralde ez-estatal batean	
	B Estatuaren mugez gandi	

²⁷ Sollenberg M. eta Wallenstein, P., «Appendix 1A. Patterns of Major Armed Conflicts 1999-2000» in SIPRI, *Yearbook 2001*, Stockholm, Stockholm International Peace Research Institute, 65. or.

²⁸ Sarkeens, M.R., «Patterns of Civil Wars in the Twenty-First Century: The Decline of Civil War?» in Newman, E. eta DeRouen, K. Jr., *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 239. or.

²⁹ Sarkeens, M.R., *Ibidem*, 239. or.

Azken hamarkadetan nazioarteko komunitatea gerra garaikideak «egonkortze»ari lotu zaio,³⁰ halakoek nazioarteko mailak dituzten ondorioak apaltzeko helburuarekin. Hala ere, gatazken eraldaketa-prozesua jarraitua den heinean, horien ezaugarriak ere aldakorak dira. Hala, besteak beste, azken urteotan agerira atera da terrorismoa gerra berrien ezaugarritzat hartzeko beharra,³¹ kontzeptu horren bilakabidearen barruan. Beste hainbat adituk, Mark Duffield-ek edo Dietrich Jung-ek beste hainbaten artean, gatazken ekonomia politikoan, nazioarteko joera liberaletan (eta, tesuinguru honetan, bakearen eraikuntza liberalean) eta segurtasunaren eta garapenaren arteko loturetan kokatzen dituzte gatazken birkontzeptualizazioaren oinarriak.³² Duffield-en hitzei jarraituz, gerra garaikideek herri-tarren, armaden eta gobernuen arteko desberdintasunak lausotzen dituzte, eta, aldi berean, lurraldez besteko sistema eta sareen bidez boterea babes-teko modu berriak abian jartzen.³³

Alta, gerra zibil garaikideen inguruko egungo eztabaida gerra berrien kontzeptuak berak zein horren inguruan sortutako kritikek ezaugarritzen dute.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

Lehendabiziko atalek azaldutako gatazka armatuen ikerketaren eta horren eraldaketaren aurrean, «gerra berri»en kontzeptuak kritika ugari jaso ditu. Egungo eztabaidaren kritikak nagusiki 2001eko irailaren 11ko gertae-rek eta Irakeko eta Afganistango gerrek indartu dituzte,³⁴ hein handi batean bi norabidetan: batetik, gerra berriei egozten zaizkien ezaugarriak aurretik ere bazirela argudiatzen da, eta, bestetik, badira harago jotzen duten def-inizioak identifikatzen dituztenak ere. Biek ala biek gatazka armatuen ikus-puntu errealistaren indartzea aurreikusten dute.

Gerra berriei egindako kritika nagusien artean badira argudiatzen dutenak gatazka berri hauek hain zuzen ere ez direla «hain berriak»: «1990eko hamar-kada abiaburutzat hartzea zuzena zen nazioarteko egitura bipolar “berri” bati zegokion aldetik, baina aldi berean oso okerra, Gerra Hotzaren oinordekotzak hamarkada horretan zehar eta geroago ere eragina izan duelako,»³⁵ eta gerra

³⁰ Kaldor, M., *New & Old Wars: Organized...*, *Op. cit.*, ix-x. or.

³¹ *Ibidem*, ix-x. or.

³² Duffield, M., *Las Nuevas Guerras en el Mundo Global: la Convergencia entre Desarrollo y Seguridad*, Madril, Catarata, 2001; Jung, D., (ed.), *Shadow Globalization, Ethnic Conflicts and New Wars: A Political Economy of Intra-State War*, Londres eta New York, Routledge, 2003.

³³ Duffield, M., *Las Nuevas Guerras...*, *Op. cit.*, 17. or.

³⁴ Jackson, R., «Critical Perspectives», in Newman, E. eta DeRouen, K. Jr. (ed.), *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 79. or.

³⁵ Kennedy, C., eta Waldman, T., «The Changing Nature of Intra-State Conflict and ‘New Wars’», in Newman, E., eta DeRouen, K. Jr., *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 213.-214. or.

berrien ikuspuntuak aipatzen dituen gerren ezaugarriak presente egon direlako aurretiko hainbat gerratan ere.³⁶ Ildo horri jarraikiz, gatazka armatuen izaera errealista agerian da oraindik.³⁷

Alta, eta hein handi batean 2001eko irailaren 11k sorrarazitako testuinguru politiko globalaren aurrean, AEBk abian jarritako gerra bidezkoaren (*just war*) eta terrorismoaren aurkako gerraren (*war on terror*) testuinguruan kokatzen da gerra berrien inguruko bigarren eremu kritikoa, zeinak gerraren diskurtso moralak baitu oinarrian eta gerraren ikuspuntu errealista atzera baitakar,³⁸ bistan utziz «botere handiek, gutxienez horietako batzuek, ez zutela galdu gerra konbentzionalarekiko desira».³⁹

Dena den, eta gatazkak (azken urteetako joerei begiratuz gero hein handi batean gatazka zibil eta estatuen mugen barrukoak) urritzeko joerarik aurreikusten ez den heinean, haien inguruko analisiak ere zabaltzen eta aldatzen jarraituko du,⁴⁰ nagusiki gatazka horiek aztertzekeo garaian dauden ikuspuntu desberdinetatik abiatuta⁴¹ eta gatazkei (edonolakoak izanda ere) egozten zaizkien definizioak oinarri hartuta.

5. ADIBIDE PRAKTIKOAK

Nazioarteko gatazkei dagokienez, gatazka tradizional edo gerra zaharren eta gatazka garaikideen arteko desberdintasunak, argien, adibide praktikoek bitartez identifika daitezke. Gerra tradizionalen adibide dira Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak, adibidez, eta baita Europan horien aurretik, XVIII. mende amaieratik XX. mende erdialdera arte, izandako gerrak ere, zeinak estatuen arteko gatazkak baitziren, estatuak eurek finantzatutakoak, eta non soldaduak eurak baitziren biktima gehienak eta estatu horien iraupena eta osotasuna baitziren funtsa.

Kapitulu honek sakonago aztertu dituen gatazka garaikideen adibide dira, beste hainbaten artean, Bosnia Herzegovinako, Kosovoko, Sierra Leonako zein Kongoko gatazkak. Horien helburu politikoak homogeneizazio etnikoa (lehen bi kasuetan) edo botere zein talde berrien aitortza eta nagusitasuna (azken bi kasuetan) izan dira; hau da, desberdintasun ideologiko eta identi-

³⁶ Newman, E., «The “New Wars” Debate: A Historical Perspective is Needed», *Security Dialogue*, 35. lib., 2. zk., 179. or.

³⁷ Schuurman, B., «Clausewitz and the “New Wars” Scholars», *Parameters*, 2010.

³⁸ Burke, A., *Beyond Security, Ethics and Violence: War Against the Other*, Londres eta New York, Routledge, 2007, 142. or.

³⁹ Kennedy, C., eta Waldman, T., «The Changing Nature of Intra-State Conflict and “New Wars”», in Newman, E., eta DeRouen, K. Jr., *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 218.-219. or.

⁴⁰ Newman, E., eta DeRouen, K. Jr., «Introduction», in Newman, E., eta DeRouen, K. Jr. (ed.), *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 8. or.

⁴¹ Jackson, R., «Critical Perspectives», in Newman, E., eta DeRouen, K. Jr. (ed.), *Routledge Handbook...*, *Op. cit.*, 83. or.

tarioak izan dituzte gatazken oinarrian. Mobilizazio erduei dagokienez, uniformerik gabeko borrokalaria, mertzenarioak zein talde paramilitarrak dira indarkeriaren sortzaile nagusiak, eta, gerra egiteko moduari dagokionez, bi-tarteko hauek erabiltzen dira: zibilen aurkako lekualdatze behartuak zein erasoak, generoan oinarritutako indarkeria sexuala (gehienbat emakume eta nesken aurkakoa), setioa, basakeriak (tortura, gorputz atalen mozketak, etab.)... Gatazkaren babesari dagokionez, ohikoak dira diasporaren zein mafiaren esku-hartze eta finantzazioak. Kosovoko gatazka, eta batez ere Kosovoko Askapenerako Armadaren jarduna, diasporako albaniarrek finantzatu zuten; Sierra Leonako gatazkan, berriz, diamanteak eta horien trafikoa ziren gatazkako diru-iturri nagusia, edo koltana Kongoko kasuan.

BIBLIOGRAFIA

- BROWN, Seyom, *International Relations in a Changing Global System, Toward a Theory of the World Polity*, Boulder eta Oxford, Westview Press, 1996
- BURKE, Anthony, *Beyond Security, Ethics and Violence: War Against the Other*, Londres eta New York, Routledge, 2007.
- BUTLER, Michael J., *International Conflict Management*, Londres eta New York, Routledge, 2009.
- CLAUSEWITZ, Carl Von, *On War*, Princeton, Princeton University Press, 1984.
- DIEZ, Thomas, BODE, Ingvild, FERNANDES DA COSTA, Aleksandra, *Key Concepts in International Relations*, Londres, Sage, 2011.
- DUFFIELD, Mark, *Las Nuevas Guerras en el Mundo Global: la Convergencia entre Desarrollo y Seguridad*, Madril, Catarata, 2001.
- GILPIN, R., «Change and War in the Contemporary World», in MATTHEWS, Robert O., RUBINOFF, Arthur G. eta GROSS STEIN, Janice, *International Conflict and Conflict Management: Readings in World Politics*, Scarborough, Ontario, Prentice-Hall Canada Inc., 1989, 578.-585.or.
- JACKSON, Richard, «Critical Perspectives», in NEWMAN, Edward eta DeROUEN, Karl Jr., (ed.), *Routledge Handbook of Civil Wars*, Londres eta New York, Routledge, 2014, 79.-90.or.
- JUNG, Dietrich, (ed.), *Shadow Globalization, Ethnic Conflicts and New Wars: A Political Economy of Intra-State War*, Londres eta New York, Routledge, 2003.
- KALDOR, Mary, *Las Nuevas Guerras: Violencia Organizada en la Era Global*, Barcelona, Tusquets Editores, 2001.
- KALDOR, Mary, *New and Old Wars: Organized Violence in a Global Era*, Cambridge, Polity Press, 2006.
- KALDOR, Mary, «Un Nuevo Enfoque sobre las Guerras», *Papeles*, 94. zk., 2006, 11.-20. or.
- KEGLEY, Charles Jr. eta WITTKOPF, Eugene R., *World Politics: Trend and Transformation*, New York, St. Martins Worth Publishers, 1999.
- KENNEDY, Caroline eta WALDMAN, Thomas, «The Changing Nature of Intra-State Conflict and “New Wars”», in NEWMAN, Edward, eta DeROUEN, Karl Jr., *Routledge Handbook of Civil Wars*, Londres eta New York, Routledge, 2014, 213.-223. or.

- KEOHANE, Robert O. eta NYE, Joseph S., (ed.), *Transnational Relations and World Politics*, Cambridge, Harvard University Press, 1971.
- LEDERACH, Jean Paul, *Building Peace, Sustainable Reconciliation in Divided Societies*, Washington DC, United States Institute for Peace USIP, 1997.
- LEDERACH, Jean Paul, *Construyendo la Paz. Reconciliación Sostenible en Sociedades Divididas*, Bilbo eta Gernika, Bakeaz eta Gernika Gogoratzuz, 1998.
- MIALL, Hugh, RAMSBOTHAM, Oliver eta WOODHOUSE, Tom, *Contemporary Conflict Resolution*, Cambridge, Polity Press, 2011.
- NEWMAN, Edward eta DeROUEN, Karl Jr., «Introduction», in NEWMAN, Edward eta DeROUEN, Karl Jr., (ed.), *Routledge Handbook of Civil Wars*, Routledge, London eta New York, 2014, 1.-10.or.
- NEWMAN, Edward, «The “New Wars” Debate: A Historical Perspective is Needed», *Security Dialogue*, 35. lib., 2. zk., 173.-189. or.
- PEREZ DE ARMIÑO, Karlos, (2007). «Aproximación a Los Debates sobre Las Causas de Las Guerras Civiles Contemporáneas», in de CASTRO, José Luis eta ORUETA, Gorka (ed.), *Escritos de Internacionalistas en Homenaje al Profesor Iñaki Aguirre Zabala*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SARKEES, Meredith Reid, «Patterns of Civil Wars in the Twenty-First Century: The Decline of Civil War?», in NEWMAN, Edward, eta DeROUEN, Karl Jr., (ed.), *Routledge Handbook of Civil Wars*, Londres eta New York, Routledge, 2014, 236.-256. or.
- SCHUURMAN, Bart, «Clausewitz and the “New Wars” Scholars», *Parameters*, 2010, 89.-100. or.
- SENARCLENS, Pierre de, «El Paradigma “Realista” y Los Conflictos Internacionales», *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, 127. zk., 1991, 5.-18. or.
- SINGER, Joel David, SMALL, Melvin, *The Wages of War, 1816-1965: A Statistical Handbook*, New York, Wiley, 1972.
- SIPRI, *Yearbook 2001*, Stockholm, Stockholm International Peace Research Institute, 2001.
- SOLLENBERG, Margareta, eta WALLENSTEEN, Peter, «Appendix 1A. Patterns of Major Armed Conflicts 1990-2000», in SIPRI, *Yearbook 2001*, Stockholm, Stockholm International Peace Research Institute, 2001, 52.-68. or.
- THEMNÉR, Lotta eta WALLENSTEEN, Peter, «Armed Conflict, 1946-2013», *Journal of Peace Research*, 51(4), 2014, 541.-554. or.
- WALLENSTEEN, P. eta AXELL, K, «Armed Conflict at the End of the Cold War, 1989-1992», *Journal of Peace Research*, 30, 3. zk., 1993.
- WALLENSTEEN, Peter, «Theoretical Developments in understanding the Origins of Civil War», in NEWMAN, Edward, eta DeROUEN, Karl Jr., (ed.), *Routledge Handbook of Civil Wars*, Londres eta New York, Routledge, 2014, 13.-27. or.
- WALLENSTEEN, Peter, *Understanding Conflict Resolution. War, Peace and The Global System*, Londres, Sage Publications, 2002.
- WRIGHT, Quincy, *A Study of War*, Chicago, University of Chicago Press, 1942.

10.

Giza Eskubideak

MIREN ODRIOZOLA GURRRUTXAGA

1. DEFINIZIOA

Giza duintasunean eta Estatuaren boterearen mugaketan dago oinarrituta giza eskubideen kontzeptua.¹ Norbanakoaren duintasuna Nazioarteko Gizartearen ondasun juridikotzat jotzen du Nazioarteko Zuzenbideak; horregatik, edozein kasutan babesten du, edozein izanda ere babestua den norbanakoaren egoera, inguruabarrak edo ezaugarriak.² Gizaki izate hutsagatik inolako Estatuk edo gizartek ukatu ezin dituen eskubideak dira giza eskubideak:³ norbanakoaren nazionalitatea, arraza, etnia, erlijioa, ideologia edo bestelako ezaugarriak gorabehera, edozein gizakik dituen eskubideak dira.

Hiru dira egin daitezkeen sailkapenak. Hasteko, giza eskubideen artean, eskubide positiboak eta negatiboak bereiz ditzakegu. Negatiboek norbanakoaren eskubide jakin bat urratzea debekatzen dute; esaterako, tortura edo tratu txarrak edo apalesgarriak jasotzeko debekua.⁴ Positiboek, aldiz, norbanakoaren aldeko egintza positibo jakin bat galdatzen dute; adibidez, hezkuntza-eskubideak botere publikoen parte-hartze positiboa eskatzen du.⁵

Bigarrenik, hiru eskubide mota hauek bereiz daitezke: eskubide indibidualak, taldean egikaritzen direnak eta kolektiboak. Norbanakoak du eskubide indibidualen titulartasuna. Bizitzeko eskubidea dugu eskubide indibidualen adibide garbia.⁶ Badira, halaber, taldean egikaritzen diren eskubide

¹ GÓMEZ ISA, F., «International Protection of Human Rights» in F. GÓMEZ ISA, eta K. DE FEYTER (ed.) *International Human Rights Law in a Global Context*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2009, 21. or.; FORSYTHE, D.P., *Human Rights in International Relations*, 3. argit., Cambridge University Press, New York, 2012, 3. or.

² DíEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 2009, 649. or.

³ O'BRIEN, J., *International Law*, Cavendish Publishing Limited, London – Sidney – Portland, 2002, 470. or.

⁴ DíEZ, T., BODE, I., FERNANDEZ DA COSTA, A., *Key Concepts in International Relations*, SAGE Publications Ltd, Londres, 2011, 89. or.

⁵ *Ibid.*, 89.-90. or.

⁶ O'BRIEN, J., *International Law, cit.*, 481. or.

indibidualak; esate baterako, biltzeko eskubidea.⁷ Eskubide kolektiboetan, aldiz, talde jakin batek du horien titulartasuna:⁸ horixe da askatasun ideologikoaren eta erlijiosoaren kasua.⁹

Hirugarrenik, eskubide zibil eta politikoak, batetik, eta, bestetik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak bereiz daitezke. Hurrengo atalean azalduko dugun bezala, sailkapen horren zergatia ulertzeko, Gerra Hotzaren barruan 1966an adostutako bi hitzarmen hartu behar ditugu kontuan: *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena* (EZPNH); eta *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena* (EESKNH). Lehenengoi lehen belaunaldiko giza eskubide deritze; azkenei, berriz, bigarren belaunaldiko giza eskubide. Izan ere, iraultza burges eta sozialistek aldarrikatu zituzten, hurrenez hurren.¹⁰

Deskolonizazio-prozesuaren ondorioz, hirugarren belaunaldiko giza eskubide deritzenak ere badira.¹¹ Nazioarteko erantzun koordinatuak eskatzen dituzten arazoei aurre egiteko eskubideak dira; besteak beste, autodeterminazio-eskubidea, bakerako eskubidea, garapenerako eskubidea, ingurumen garbirako eskubidea eta baliabide naturalak erabiltzeko eskubidea.¹² Hala ere, hirugarren belaunaldiko giza eskubideak ez dituzte nazioarteko hitzarmen edo tratatuek aurreikusitakoak; hau da, ez dituzte Estatuentzat derrigorrezkoak diren arauetan jaso. Horren ordez, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpenen bidez onartu dira —ebazpen horien balio juridikoa oso eztabaidatua da—. ¹³

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Estatu bakoitzaren eskumena izatetik Nazioarteko Gizartearen kontua izatera pasatu da giza eskubideak sustatzeko eta babesteko ardura.¹⁴ Nahiz eta Estatu bakoitzari giza eskubideak sustatzeko eta babesteko mekanismo propioak ezartzeko eskumena onartzen zaion, Nazioarteko Gizartearen eskumena ere badu eremu berean arauak eta nazioarteko babes-sistemak ezartzeko, eta horrela Estatuaren jarrera kontrolatzeko.¹⁵ Hala, giza eskubideak zehazten dituzten nazioarteko arauak sortu dira, eta horietako batzuek *ius co-*

⁷ *Idem*. Ildo beretik, JÁUREGUI, G., «Derechos individuales versus derechos colectivos: una realidad inescindible» in F.J. ANSUÁTEGUI ROIG (ed.) *Una discusión sobre derechos colectivos*, Dykinson S.L., Madril, 2001, 57. or., baina bi multzotan sailkatu ditu eskubide horiek.

⁸ O'BRIEN, J., *International Law*, cit., 481. or.

⁹ JÁUREGUI, G., «Derechos individuales», cit., 57. or.

¹⁰ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», cit., 40. or.

¹¹ *Ibid.*, 41. or.

¹² *Ibid.*, 41. or.; O'BRIEN, J., *International Law*, cit., 482. or.

¹³ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», cit., 43-44. or.

¹⁴ *Ibid.*, 21. or.; FORSYTHE, D.P., *Human Rights*, cit., 24.-27. or.

¹⁵ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, cit., 650. or.

gens izaera lortu dute;¹⁶ hau da, arau inperatiboak dira Estatu guztientzat, eskubide jakin horri buruzko trataturik sinatu ez arren.

Giza eskubideen nazioarteko babes-sistemak bi taldetan sailka daitezke: Nazio Batuen Erakundearen (NBERen) eremuan garatutako sistema unibertsalak, eta eskualde-sistemak (esaterako, European edo Amerikan garatutakoak).¹⁷ Eskualde-mailako sistema batzuek giza eskubideen babeserako mekanismo juridikionalak ere garatu dituzte: Europako Kontseiluaren eremuan, Estrasburgoko *Europako Giza Eskubideen Auzitegia* (EGEA)¹⁸; Amerikan, *Amerikako Giza Eskubideen Auzitegia*; eta *Afrikako Norbanakoaren eta Taldeen Eskubideen Auzitegia*¹⁹.

Esan bezala, hasieran giza eskubideak Estatu bakoitzaren kontua ziren. 1945. urtera arte, norbanakoaren eta Estatuaren arteko harremana Estatuaren eskumen eksklusiboa zen: Estatuak zeukan bere hiritarren gaineko autoritate juridiko gorenarekin bere jurisdikzioaren mugen barruan.²⁰ Nazioarteko Zuzenbidea, ostera, Estatuaren arteko harremanak arautzeko eta haien arteko gatazkak saihesteko tresna baino ez zen.²¹ Hala ere, garai hartan ere baziren salbuespenak, hau da, norbanakoa babesteko berariazko nazioarteko arauak; besteak beste, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren alorrean gatazka armatuetako biktimak eta haien oinarrizko eskubideak babestea helburu zuten itunak (Genevako 1864ko itunak, eta Hagako 1899ko eta 1907ko itunak).²² Giza eskubideen eremuan, 1945. urtera arteko mugarririk garrantzitsuenak gaur egungo NBERen aitzindari den Nazioen Ligaren sorrera izan zen.

1945. urtea inflexio-puntu bat izan zen giza eskubideen alorrean. *NBERen Gutuna* adostearekin batera, Estatuak nazioarteko hainbat erakunderekin partekatu zuten giza eskubideen gaineko eskumena.²³ Bigarren Mundu Gerran gertatutako basakeriak ikusita eta etorkizunean halakoak ekiditeko, agerikoa zen ezinbestekoa zela giza eskubideen nazioarteko babesa.²⁴ Lehenengo lana giza eskubideen inguruko erreferentzia orokorrak zehaztea izan zen. Edonola ere, motela izan zen prozesua, potentzia handiak Gerra Hotzean bete-betean

¹⁶ *Idem.*

¹⁷ *Idem.*

¹⁸ Oso garrantzitsua da EGEA *Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarekin* (Luxenburgon du egoitza) ez nahastea.

¹⁹ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 38. or.

²⁰ FORSYTHE, D.P., *Human Rights*, *cit.*, 24.-25. or.

²¹ *Idem.*; GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 22.-23. or.

²² FORSYTHE, D.P., *Human Rights*, *cit.*, 24.-25. or.; GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 22.-23. or.

²³ FORSYTHE, D.P., *Human Rights*, *cit.*, 27. or.; JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations and human rights» in S. JOSEPH and A. MCBETH (ed.) *Research Handbook on International Human Rights Law*, Edward Elgar, Cheltenham – Northampton MA, 2010, 1. or.

²⁴ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 29. or.; CASSESE, A., *International Law in a Divided World*, Clarendon Press, Oxford, 1986, 64.-66. or.

sartuta zeuden eta.²⁵ Esandakoaren erakusgarri da *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* (GEDU) ez zutela 1948ra arte onartu.

NBEren Gutunaren (1945) 55. eta 56. artikuluek giza eskubideei egiten diete erreferentzia. Artikulu horiek ez dira gomendio programatikoak, baizik eta NBEri eta Estatu kide bakoitzari giza eskubideen eremuan benetako obligazio juridikoak ezartzen dizkieten xedapenak.²⁶ Hala ere, giza eskubideei egindako erreferentzia orokor hori zehaztu beharra zegoen: 1945. urteaz geroztik, NBEk GEDU (1948) eta giza eskubideei buruzko hainbat tratatu eta hitzarmen onartu ditu.²⁷

1948an NBEko Batzar Nagusiaren ebazpen baten bidez onartu zuten GEDU. Ebazpen horiek Estatuai egindako gomendioak direnez —ez dira lotesleak—, ezinbestekoa zen Estatuentzat derrigorrezkoak ziren arauak adostea eta Estatuak horiek berrestea.²⁸ Horrela, arestian aipatutako bi hitzarmen garrantzitsuak onartu zituzten 1966. urtean (1976an sartu ziren indarrean): EZPNH eta EESKNH. Biak egun berean eta NBEko Batzar Nagusiaren saio berean onartu zituzten arren, giza eskubideei buruzko bi hitzarmen dira.

Horren arrazoia ulertzeko, Gerra Hotzaren testuingurua hartu behar dugu kontuan: mendebaldeko blokeko Estatuak EZPNHn jasotako eskubideei ematen zieten lehentasuna; ekialdekoek, aldiz, EESKNHn aurreikusitakoei.²⁹ EZPNHk automatikoak diren obligazioak aurreikusten ditu; beraz, Estatuak berehala onartu eta bermatu behar dituzten giza eskubideak dira. EESKNHko 2(1) artikulua, ostera, honako betebeharrak ezartzen die Estatu kideei: pausoak ematea hitzarmenean aurreikusitako eskubideak oso-osorik bermatzeko. Ikus daitekeen bezala, zabalegia da obligazio hori, eta zaila da esaten Estatu batek artikulua horrek ezarritakoa ez duela bete.³⁰

EZPNHk, besteak beste, honako eskubide hauek aurreikusten ditu: bizitza, osotasuna, torturaren debekua, askatasun pertsonala, babes judizial eraginkorra, adierazpen-askatasuna, biltzeko askatasuna eta intimitatea. 1989ko abenduaren 15eko *Bigarren Hautazko Protokoloarekin* osatu zuten EZPNH, heriotza-zigorra ezeztatzeko helburuz (1991n sartu zen indarrean).³¹ Hitzarmena betearazteko erakunde nagusia Giza Eskubideen Batzordea da (*Human Rights Committee*).³²

EESKNHk, ostera, honako beste eskubide hauek aurreikusten ditu: lanerako eskubidea eta hura duintasunez gauzatzeko eskubidea, eskubide sindi-

²⁵ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 37. or.

²⁶ *Ibid.*, 35. or.

²⁷ *Ibid.*, 38. or.; JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», *cit.*, 1. or.

²⁸ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, *cit.*, 657. or.; GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 37. or.

²⁹ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 38. or.

³⁰ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», *cit.*, 40.-41. or.; O'BRIEN, J., *International Law*, *cit.*, 487. or.

³¹ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, *cit.*, 656. or.

³² *Ibid.*, 668. or.; O'BRIEN, J., *International Law*, *cit.*, 484. or.

kalak, gizarte-segurantzarako eskubidea, familiaren babeserako eskubidea, bizitza-maila egokia izateko eskubidea, hezkuntzarako eta kulturarako eskubidea.

GEDUk eta aipatutako bi hitzarmenek *Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena* delakoa (*International Bill of Human Rights*) osatzen dute.³³ Hiru horien izaera juridikoari dagokionez, esan bezala, bi hitzarmenak lotesleak dira Estatuentzat; baina doktrinak kritikatu izan du bi hitzarmen horiek betearazteko sistemak ahulak direla.³⁴ GEDU, berriz, ez da loteslea, NBEko Batzar Nagusiaren ebazpen baten bidez izan baitzen onartua. Aitzitik, gaur egun baieztatu daiteke GEDUren arauak nazioarteko ohitura juridikoaren zati direla (eta, horrenbestez, lotesleak): giza eskubideen urraketak nazioarteko ohitura juridikoaren bortxaketak dira.³⁵ Hala ere, GEDU aurreikusitako eskubide guztiak ez dira ohituraren parte (ez dira Estatuentzat galdagarriak),³⁶ eta ez dago argi horietako zeinek duten izaera hori.

GEDUz eta aipatutako bi hitzarmenez gain, NBEk hainbat hitzarmen onartu ditu giza eskubide zehatzen inguruan:

- *Genozidioa Prebenitzeko eta Zigortzeko Hitzarmena* (1948).
- *Genevako Hitzarmenak* (1949) Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren alorrean, gatazka armatuak arautzeko eta haien ondorioak mugatzeko.
- *Arrazazko Diskriminazio Oro Ezabatzeke Nazioarteko Hitzarmena* (1965).
- *Emakumeen Aurkako Diskriminazio Oro Ezabatzeke Nazioarteko Hitzarmena* (1979).
- *Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Anker, Gizagabe eta Apalesgarrien Aurkako Hitzarmena* (1984).
- *Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena* (1989).
- *Langile Migratzaileen eta Haien Ahaideen Eskubideak Babesteko Nazioarteko Hitzarmena* (1990).
- *Ezgaitasunak Dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena* (2006).
- *Pertsona Oro Desagertze Behartuetatik Babesteko Nazioarteko Hitzarmena* (2006).

Hitzarmenez gain, oraindik lotesleak ez diren hainbat adierazpen ere onartu ditu NBEk:

- *Erlizioan edo Sinesmenean Oinarritutako Intolerantzia Ezerezteko Adierazpena* (1981).

³³ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 38. or.

³⁴ O'BRIEN, J., *International Law*, *cit.*, 483. or.

³⁵ *Ibid.*, 511. or.

³⁶ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, *cit.*, 655. or.

- *Bizilekuko Nazionalitatea Ez Duten Norbanakoen Eskubideei buruzko Adierazpena* (1985).
- *Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena* (1986).
- *Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpena* (2007).

Bestalde, nazioarteko auzitegi penalak ere kontuan hartu behar ditugu. Gatazka jakin baterako *ad hoc* sortutako bi nazioarteko auzitegi penalez gain (*Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Auzitegi Penal*a (JNAP) eta *Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penal*a (RNAP), Segurtasun Kontseiluaren ebazpen baten bidez 1993an eta 1994an, hurrenez hurren, eratuak), iraunkorra eta unibertsala den *Nazioarteko Auzitegi Penal*a (NAP) ere kontuan hartzekoa da (1998ko Erromako Estatutuak arautzen du, eta 2002ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean). Bukatzeko, aipatzekoak dira giza eskubideei buruzko bi nazioarteko biltzarrik: lehenengoa, Teheranen 1968an, eta bigarrena, Vienan 1993an.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Lehen esan dugu giza eskubideak pertsona orok dituen eskubideak direla, norbanakoaren ezaugarriak eta inguruabarrak edozein izanda ere. Hortaz, unibertsalak direla uler daiteke. Aldiz, adituek eta Estatuak asko eztabaiatu dute —eta oraindik ere eztabaidatzen dute— ezaugarri horri buruz. Giza Eskubideei buruzko Bigarren Biltzarrean (Viena, 1993), hori izan zen, hain zuzen, aztertutako gaietako bat: mendebaldeko herrialdeek unibertsaltasuna defendatu zuten; Estatu islamiarrak eta «hirugarren munduko herrialdeak», ordea, erlatibismo kulturalaren aldekoak ziren, unibertsaltasuna kolonialismo berri gisa ikusten zuten eta.³⁷ Aipatutako biltzarrean ez zuten adostasunik lortu, eta giza eskubideen unibertsaltasunari buruzko aitorten anbiguo samar bat onartu zuten.³⁸

Zeinen aurrean babesten dute giza eskubideek norbanakoa? Argi dago Estatuaren aurrean babesten dutela; hau da, nazioarteko giza eskubideen sistemak Estatuari zuzenean edo zeharka egozgarriak zaizkion egitateak arautu eta kontrolatzen ditu.³⁹ Baina beste norbanakoen egitateen aurrean ere babesten dutela esan daiteke —nahiz eta oraindik halakorik espresuki ez jaso—. ⁴⁰

Bestalde, giza eskubideak nazioarteko erakundeekin hertsiki lotutako fenomenoak dira: euskarri ideologikoa, instituzionala eta materiala eskaintzen dien nazioarteko erakunde jakin batean dute sorrera giza eskubideek.⁴¹ Esan-

³⁷ GÓMEZ ISA, F., «International Protection», *cit.*, 45.-46. or.

³⁸ *Idem.*

³⁹ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, *cit.*, 650.-651. or.

⁴⁰ *Idem.*

⁴¹ *Ibid.*, 651. or.

dakoarekin lotuta, giza eskubideen nazioarteko sistema bikoitza dela adierazi beharra dago: batetik, eskubide horiek kodifikatzen eta definitzen ditu; eta, bestetik, kontrol-teknikak ezartzen ditu Estatuena portaera ikuskatzeko.⁴² Jarraian ikusiko dugun bezala, kontrola ez da judiziala izaten, eta giza eskubideei buruzko arauak betearazteko sistema oso ahula izan ohi da.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

Eskubideak aldarrikatu arren, argi dago aldarrikapen horrek ezer gutxi-rako balioko duela, non eta horiek betearazteko mekanismo eraginkorrik aurreikusten ez den. Horrela, giza eskubideak zerrendatzeaz eta aldarrikatzeaz gain, NBEk horien egikaritzea kontrolatzeko eta ikuskatzeko nazioarteko hainbat erakunde sortu ditu. Baina Estatuena subiranotasunak garrantzia handia du oraindik; horregatik, betearazteko mekanismoak (*enforcement mechanisms*) oro har ahulak dira: NBEko Segurtasun Kontseiluak bakarrik du nazioarteko komunitatearen gaitzespena baino harago doazen zehapenak ezartzeko ahalmena,⁴³ eta Kontseiluko bost Estatu iraunkorrek beto-eskubidea dute.

Giza eskubideen eremuan, Estatu jakin bati galdagarri zaizkion nazioarteko obligazioak betetzen ote dituen jakiteko nazioarteko kontrol-sistema gehienak ez dira judizialak. Oro har, kontrola komisio, kontseilu eta batzordeen bidez gauzatzen da; horiek ez direnez organo judizialak, ez dute sententzia-balioa duten ebazpenak emateko ahalmenik (eskualde-mailako auzitegiek, aldiz, bai), ezta legez lotesleak diren bestelako erabakiak hartzeko ahalmenik ere.⁴⁴ Beraz, Nazioarteko Gizarteak gaitasun mugatua du giza eskubideak urratzen dituzten Estatuena aurre egiteko. Arauen aldarrikapenaren eremuan lortutako emaitzekin alderatuta, giza eskubideak betearazteko mekanismoak motz geratu dira.⁴⁵

Giza eskubideak betearazteko NBEko erakundeak eta prozedurak bi taldetan sailka daitezke:⁴⁶

- Hitzarmenetan edo tratatuetan oinarritutako erakundeak eta prozedurak: hitzarmen edo tratatu bakoitzak sortzen ditu, eta hura sinatu du-

⁴² *Idem*.

⁴³ CASSESE, A., *International Law*, cit., 224.-225. or.; JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», cit., 1.-2. or.

⁴⁴ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», cit., 26. or.; DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, cit., 651. or.; CASSESE, A., *International Law*, cit., 101.-102. or.

⁴⁵ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», cit., 1.-2. or.; O'BRIEN, J., *International Law*, cit., 483. or.

⁴⁶ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», cit., 5. or.; DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, cit., 669. or.

ten Estatuena gain bakarrik dute eskumena. Beren izenean jarduten duten adituek osatzen dituzte erakunde horiek.

- *NBEren Gutunean* oinarritutako erakundeak eta prozedurak: *NBEren Gutunak* berak (edo Gutunak sortutako erakundeetako batek) giza eskubideen arloan ezarritako erakunde politikoak dira (adituek osatu beharrean, gobernuetako ordezkariak osatzen dituzte).

Hitzarmenetan edo tratatuetan oinarritutako erakundeak dagokienez, ares-tian aipatutako *Giza Eskubideen Batzordea* dugu (*Human Rights Committee*), zeina EZPNH betearazteko erakunde nagusia den. Beraz, hitzarmen jakin batean du oinarria, eta hitzarmen hori betearaztea du helburu.

NBEren Gutunean oinarritutako erakundearen artean, Giza Eskubideentzako Goi Mandataria (*High Commissioner for Human Rights*) dugu: NBEko Idazkaritzaren zati da, giza eskubideei buruzko egungo arazoak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko erakunde da, eta NBEren sisteman giza eskubideen inguruko ikerketa, hezkuntza eta sustapena koordinatzea du helburu.⁴⁷ Giza Eskubideen Kontseiluak ere (*Human Rights Council*) Gutunean du oinarria. NBEko Batzar Nagusiaren 60/25 ebazpenaren bidez sortua (2006an), gobernuartekoa da (politikoa, beraz), eta, munduan zehar giza eskubideak sustatu eta babesteaz gain, eskubide horien urraketari aurre egitea eta gomendioak egitea da beraren lana.⁴⁸

Esan bezala, giza eskubideei buruzko erakundeetako bakar batek ere ez du legez lotesleak diren erabakiak hartzeko eskumena. Erakunde horiek giza eskubideak betearazteko duten boterea honetan datza: giza eskubideak urratzen dituzten Estatuak izendatzea eta horiek lotsaraztea.⁴⁹ Estatu jakin bat giza eskubideak urratzen dituzten artean izendatzeak hainbat ondorio izan ditzake: besteak beste, oposizioko taldeei sinesgarritasuna ematea, komunikabideen arreta lortzea, eta beste Estatuena presioa edo protesta publikoak eragitea.⁵⁰ Hala ere, Estatuak lotsaraztea ez da nahikoa horietan berehalako aldaketak eragiteko.⁵¹ Gainera, horrelako erabakiak ez dira inpartzialak izaten: aliantza eta etsaitasun politikoei garrantzi handia dute gaitzespena zer Estatuak jasoko duen erabakitzeke orduan.⁵²

Giza eskubideei buruzko NBEko erakundeek duten ahalmen mugatu horrez gain, Estatuak badute (bakarrik edo beste zenbait Estaturekin batera) giza eskubideak urratzen dituzten Estatuak alde bakarreko zehapen gogorra-goak ezartzeko aukera ere; zehapen diplomatikoak edo ekonomikoak, hain

⁴⁷ *Vid.* <http://www.ohchr.org/EN/Pages/WelcomePage.aspx#>.

⁴⁸ Giza Eskubideen Batzordea (*Human Rights Commission*) ordezkatu zuen. *Vid.* <http://www.ohchr.org/EN/HRBodies/HRC/Pages/AboutCouncil.aspx>.

⁴⁹ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», *cit.*, 26. or.

⁵⁰ *Ibid.*, 27.-28. or.

⁵¹ *Idem.*

⁵² *Idem.*

zuzen ere.⁵³ Esaterako, *apartheid* sistema dela-eta Hegoafrikari ezarritakoak. Dena dela, zehapen ekonomikoek ere hainbat arazo planteatzen dituzte: errugabeko biztanleen egoera larriagotu dezakete, eta arrazoi politikoetan oinarrituta egon ohi da giza eskubideak urratzen dituen zer Estaturen aurka erabili (eta ez portaera antzekoa duen beste baten aurka).⁵⁴

Indar militarra erabiltzea da giza eskubideak urratzen dituen Estatu bati ezar dakioken zehapenik larriena. Bi kasutan baino ez da zilegi:

- NBEko Segurtasun Kontseiluak Gutunaren VII. kapituluaren oinarrituta baimentzen duenean, alegia, nazioarteko bakeari eta segurtasunari egindako mehatxuen kasuan. Adibidez, 1991. urtean, kurduentzako babeslekua ezartzeko, Iraken aurkako eraso baimendu zuen.⁵⁵
- Neurritzakoa den legezko defentsarako denean, Estatuak indarra erabiltzea erabaki dezakete beren kasa.⁵⁶ Kontuan hartu beharra dago ez dela legezko defentsa neurritzakorik egongo, baldin eta jada beste Estatuaren eraso bertan behera geratu bada edo defentsarako erabilitako bideak ez badira neurritzakoak. Horregatik ezin zitekeen legezko defentsan oinarritu Dorre Bikien erasoengatik AEBk Iraken eta Afganistanen aurka indarra erabiltzeko adierazitako argudioa, jada eraso bertan behera geratua baitzen.

Aipatutako bi kasu horietako bat ez bada, indarraren erabilera legez kontrakoa izango da. Agerikoa da NBEko Segurtasun Kontseiluak horrelako erabakia hartzeko eskumena izateak dakarren arazoa: bost kide iraunkorretako batek (AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Errusia eta Txina) beto-eskubidea erabil dezake —eta hala gertatu izan da maiz—, aliaturen baten aurkako operazio bati baimena ez emateko.

Giza eskubideak betearazteko sistemekikoak bukatzeko, ezinbestekoa da giza eskubideen auzitegiei eta nazioarteko auzitegi penalei erreferentzia egitea. Aipatu bezala, eskualde-mailan giza eskubideak babesteko hainbat auzitegi ditugu: EGEA, *Amerikako Giza Eskubideen Auzitegia*, eta *Afrikako Norbanakoaren eta Taldeen Eskubideen Auzitegia*. Nazioarteko auzitegi penalei dagokionez, esan bezala, 1990eko hamarkadan JNAP eta RNAP eratu zituen Segurtasun Kontseiluak. 1998. urteko Erromako Estatutuari esker, berriz, NAP sortu zen, eta izaera iraunkorra eman zitzaion.⁵⁷ Giza eskubideen urraketak handien erantzule nagusien gain du eskumena NAPk, hots, nazioarteko krimenak eragiten dituzten lider zibil eta militarren gain.⁵⁸ Horren erasugarri da Sudaneko lehendakari Al-Bashirren aurkako atxilotze-agindua

⁵³ *Ibid.*, 28.-29. or.; CASSESE, A., *International Law*, *cit.*, 244.-245. or.

⁵⁴ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», *cit.*, 28.-29. or.

⁵⁵ *Ibid.*, 30.-32. or.

⁵⁶ *Idem.*; CASSESE, A., *International Law*, *cit.*, 230.-236. or.

⁵⁷ DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones*, *cit.*, 676. or.

⁵⁸ JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations», *cit.*, 34. or.

eman duela hainbat gerra krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen erantzule izan daitekeelako.

Ondorioz, esan dezakegu araugintzan gertatu dela arrakastarik handiena; izan ere, gutxieneko estandarrak ezartzeko tratatuak onartzean datza arrakastarik handiena.⁵⁹ Giza eskubideak betearazteko sistemak, aldiz, ahulak dira, askotan arbitrarioki erabiltzen dira, eta hainbatetan errugabeko zibilei eragindako kaltea areagotu egiten dute.⁶⁰ Hori dela eta, betearazte-sistema eraginkorragoak lortzea da orain giza eskubideen nazioarteko sistemak duen erronkarik garrantzitsuen.

5. ADIBIDE PRAKTIKOA

Torturaren eta bestelako tratu txar edo apalesgarrien debekua GEDUko 5. artikuluan jasotako giza eskubidea dugu. Horrez gain, beste hainbat nazioarteko arautan dago aurreikusia. NBEko sistemari dagokionez, EZPNHko 7. artikulua, eta *Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Anker, Gizagabeko eta Apalesgarrien Aurkako Hitzarmena* (1984) aipatu behar ditugu. Eskualde-mailari dagokionez, *Europako Giza Eskubideen Hitzarmeneko* (EGEH) 3. artikulua, eta *Tortura eta Zigor edo Tratu Gizagabeko edo Apalesgarriak Prebenitzeko Europako Hitzarmena* (1987) hartu behar ditugu kontuan.

Ikus daitekeen bezala, maila batean baino gehiagotan eta tresna baten baino gehiagoren bidez aldarrikatutako eta babestutako giza eskubidea da; hori dela eta, giza eskubideen babesaren eta betearazte-sistemaren errealitatea ulertzeko adibide aproposa da. Jarraian, labur-labur azalduko dugu zer jarri duen erakunde horietako bakoitzak Espainiaren aldera aztergai dugun giza eskubidearen alorrean eta zer neurri hartu dituen.

NBEko sisteman duen babesetik hasiko gara. Esan bezala, *Giza Eskubideen Batzordea* EZPNH betearazteko erakunde nagusia da. Aztergai dugun giza eskubidea EZPNHko 7. artikuluan jasota dagoenez, Giza Eskubideen Batzordeak sala dezake eskubide horren urraketa. EZPNHko 40. artikuluari jarraikiz, Estatu kideek igortzen dizkioten txostenen balorazioa egiten du Batzordeak. 2008an, Espainiak bidalitako txostenari egindako balorazioan, tortura ekiditeko mekanismo eraginkorrek falta zituela adierazi zuen, eta hala-koak ezartzeko gomendatu zion Batzordeak. Horretarako, aintzat hartu zituen hiritarren tortura-salaketak, nazioarteko beste erakundeen balorazioak eta gomendioak, eta Gobernu Kanpoko Erakundeen eskariak.⁶¹

NBEko sisteman ere, *Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Anker, Gizagabeko eta Apalesgarrien Aurkako Hitzarmena* (1984) dugu, zeina Es-

⁵⁹ *Ibid.*, 35. or.

⁶⁰ *Ibid.*, 33.-34. or.

⁶¹ Dokumentuaren erreferentzia: CCPR/C/ESP/CO/5, 2009ko urtarrilaren 5ean argitaratua. *Vid.* 13. paragrafoa.

painiak 1987ko urriaren 21ean berretsi baitzuen. Hitzarmen hori betearazteko Torturaren Aurkako Batzordea (*Committee Against Torture*) ezarri zuten. Espainiak aurkeztutako txostenari 2015. urtean egindako oharpenetan, Batzordeak adierazi zuen kezkatuta zegoela hiritarren tortura-salaketengatik eta horiek behar den moduan ez ikertzeagatik: zigorgabetasuna ekiditeko mekanismo eraginkor eta independenteak ezartzeko gomendatu zion Espainiari.⁶²

NBEko sistemarekikoak bukatzeko, *Torturari buruzko Txostengile Berezia* aipatu behar dugu. Giza Eskubideen Batzordeak (*Human Rights Commission*) 1985/33 ebazpenaren bidez sortu zuen *Torturari buruzko Txostengile Berezia*⁶³. Estatu guztien gaineko eskumena du (baita 1984ko Hitzarmena sinatu ez dutenen gainekoa ere), eta beraren egiteko garrantzitsuenetako bat da Estatu bakoitzeko egoera ezagutzeko egonaldiak egitea.⁶⁴ Espainiari dagokionez, beste erakundeek adierazitako kezka bera bistaratu zuen 2004ko txostenean: nazioarteko ikuskapen-mekanismoen gomendioak aintzat hartuta, Espainiak ezarri behar luke plan orokor bat tortura eta bestelako tratu edo zigor anker, gizagabeko edo apalesgarriak prebenitzeko eta zigortzeko.⁶⁵

Ikus daitekeen bezala, aipatutako hiru erakundeek Espainiari eremu honetan neurriak hartzeko gomendioa egin diote aspaldi, hain zuzen ere horrelako urraketak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartzeko gomendioa. Hala ere, ez dute gomendio-izaera baino. Aipatzekoa da, halaber, hiru erakunde horiek gai honekin lotuta Espainiari hainbatetan egindako beste gomendio bat: terrorismo-egintzengatik atxilotutakoei aplikagarri zaien inkomunikazio-erregimena bertan behera uzteko gomendioa.

Eskualde-mailan, aztergai dugun giza eskubidea babesteko Europako Kontseiluaren eremuan diharduten erakundeak aztertuko ditugu. Hasteko, gogoan hartu behar ditugu *Tortura eta Zigor edo Tratu Gizagabeko edo Apalesgarriak Prebenitzeko Europako Hitzarmena* (1987), eta arau horretan oinarrituta sortutako Tortura Prebenitzeko Batzordea (*Committee for the Prevention of Torture*).⁶⁶

Azken hori kontrol-organoa da; Estatuetan egonaldiak egiten ditu giza eskubide jakin horren egoera ikertzeko, eta Estatu bakoitzari buruzko txostena egiten du —bertan oharrak eta gomendioak egiten dizkio Estatuari—.⁶⁷ Ez da organo jurisdikzionala, baina geroz eta gehiagotan erabiltzen dituzte beraren txostenak EGEAren aurrean proba gisa. 2011n Espainian egindako egonaldiari dagokion txostenean, NBEko erakundeek adierazitako kezka eta

⁶² Oharpenak 2015eko maiatzaren 15eko bileran (1328. bilera) onartu zituen Batzordeak (CAT/C/SR.1328). *Vid.* 19. paragrafoa.

⁶³ 2006an Giza Eskubideen Kontseiluak (*Human Rights Council*) ordezkatu zuen.

⁶⁴ <http://www.ohchr.org/SP/Issues/Torture/SRTorture/Pages/SRTortureIndex.aspx>

⁶⁵ Dokumentuaren erreferentzia: E/CN.4/2004/56/Add.2, 2004ko otsailaren 6koa. *Vid.* 65. paragrafoa.

⁶⁶ Ez nahasi Torturaren Aurkako Batzordearekin (*Committee Against Torture*), zeina NBEko sistemaren parte baita.

⁶⁷ <http://www.cpt.coe.int/en/about.htm>

ohar antzekoak jaso zituen Tortura Prebenitzeko Batzordeak: aztergai ditugun urraketak prebenitzeko eta zigortzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea gomendatu zion Espainiari, eta inkomunikazio-erregimenaren gaineko susmo txarra agertu zuen.⁶⁸

Bukatzeko, EGEHeko 3. artikulua eta Estrasburgoko EGEA aipatu behar ditugu. Norbanakoek Hitzarmeneko Estatu kide baten aurka edo Estatu kideek beren artean egindako salaketak aztertzen ditu EGEAk.⁶⁹ Orain arte aipatutako erakundeek ez bezala, Estatu kideentzat lotesleak diren sententziak emateko ahalmena du. Azken urteotan, EGEAk hainbatetan kondenatu du Espainiako Estatu atxilotuen tortura-salaketak behar bezala ez ikertzeagatik. Horrelakoetan, 3. artikuluan jasotako eskubidea urratu dela adierazi, eta kalte-ordaina zehazten du. Hala ere, aipatutako sententzia horiek guztiek ez dute erdietsi Espainiako Estatuak tortura eta bestelako tratu txar, gizagabeko edo apalesgarriak prebenitzeko edo zigortzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea.

Ikus daitekeen bezala, nazioarteko mailan eta eskualde-mailan hainbat hitzarmenek eta erakundek babestutako giza eskubidea izan arren, horiek betearazteko ahalmena ahula da. Horren adibide garbia da Espainiaren kasua: nahiz eta aipatutako kontrol-erakunde guztiek tortura eta bestelako tratu txar, gizagabeko edo apalesgarriak prebenitzeko eta zigortzeko mekanismo eraginkorrak falta dituela salatu eta horiek ezartzea gomendatu dioten, Espainiak ez du halakorik egin, eta, orduetik hona, atxilotuen tortura-salaketak behar bezala ez ikertzeagatik EGEAk ezarritako kondenak pilatzen ari zaizkio.

BIBLIOGRAFIA

- CASSESE, A., *International Law in a Divided World*, Clarendon Press, Oxford, 1986.
- DIEZ, T., BODE, I., FERNANDEZ DA COSTA, A., *Key Concepts in International Relations*, SAGE Publications Ltd, Londres, 2011.
- DÍEZ DE VELASCO VALLEJO, M., *Instituciones de Derecho Internacional Público*, Tecnos, Madril, 2009.
- FORSYTHE, D.P., *Human Rights in International Relations*, 3. argit., Cambridge University Press, New York, 2012.
- GÓMEZ ISA, F., «International Protection of Human Rights» in F. GÓMEZ ISA, and K. DE FEYTER (ed.) *International Human Rights Law in a Global Context*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2009, 21.-48. or.
- JÁUREGUI, G., «Derechos individuales versus derechos colectivos: una realidad inescindible» in F.J. ANSUÁTEGUI ROIG (ed.) *Una discusión sobre derechos colectivos*, Dykinson S.L., Madril, 2001, 47.-65. or.

⁶⁸ Dokumentuaren erreferentzia: CPT/Inf (2013) 6, 2011n egindako bisitari dagokiona, 2013ko apirilaren 30ean argitaratua. *Vid.* Lehenengo eranskina.

⁶⁹ <http://www.echr.coe.int/Pages/home.aspx?p=court&c=>

- JOSEPH, S., KYRIAKAKIS, J., «The United Nations and human rights» in S. JOSEPH and A. MCBETH (ed.) *Research Handbook on International Human Rights Law*, Edward Elgar, Cheltenham – Northampton MA, 2010, 1.-35. or.
O'BRIEN, J., *International Law*, Cavendish Publishing Limited, Londres – Sidney – Portland, 2002.

Sakontzeko bibliografia

- ALSTON, P., GOODMAN, R., STEINER, H.J., *International Human Rights in Context: Law, Politics, Morals*, Oxford University Press, Oxford – New York, 2007.
JOSEPH, S., MCBETH, A., *Research handbook on international human rights law*, Edward Elgar, Cheltenham, 2010.
PECES-BARBA, G., DE ASÍS, R., BARRANCO, M.C., *Lecciones de derechos fundamentales: teoría general*, Dykinson, Madril, 2004.

11.

Nazioarteko Justizia Penal

MIREN ODRIOZOLA GURRUTXAGA

1. DEFINIZIOA

Nazioarteko justizia penal diogunean, nazioarteko auzitegi penalen jarduerari buruz ari gara. Auzitegi horiek Nazioarteko Zuzenbide Penal (hemendik aurrera, NZP) aplikatzen dute. Ezer baino lehen NZPren kontzeptua zehaztu beharra dugu; izan ere, bi zentzutan uler daiteke: zentzu zabalean eta hertsian.

Hainbatek zentzu zabalean erabiltzen du, nazioarteko tratatuetan oinarritutako krimen transnazionalak barne hartuz.¹ Barne-zuzenbideak zigortu ditzakeen krimenak izan arren, egitateek Estatuaren mugak gainditu eta hainbat Estatutan eragina izaten dutenez, komenigarria da arlo horietan nazioarteko kodifikazioa eta kooperazioa ezartzea, halako krimenen kontrako neurriak eraginkorrak izan daitezela.² Hori da, besteak beste, itsaslapurreta-aren, droga-trafikoaren eta giza trafikoaren kasua. Delitu transnazionalak dira; ez, nazioartekoak.³

Hemen, ordea, zentzu hertsian ulertuko dugu NZP: nazioarteko auzitegi penalek epaitzeko eskumena duten krimenak dira —ez dute, aitzitik, krimen transnazionalen gaineko eskumenik—. Erantzukizun penal zuzenean oinarritu, baztertu edo beste modu batean arautzen duten nazioarteko arauak osatzen dute.⁴ Nazioarteko gizartearentzat garrantzitsuak diren krimen larrienak arautzen ditu —nazioarteko *core crime* direlakoak—: genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, gerra-krimenak eta eraso-krimenak.⁵ Zentzu hertsian

¹ AMBOS, K., *Treatise on International Criminal Law; Foundations and General Part, Volume I*, Oxford University Press, Oxford, 2013, 54. or.; WERLE, G., *Tratado de Derecho Penal Internacional*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2011, 99. or.

² GIL GIL, A., *Derecho penal internacional*, Editorial Tecnos S.A., Madrid, 1999, 44. or.; GIL GIL, A., *El genocidio y otros crímenes internacionales*, Colección Interciencias, Valentzia, 1999, 25. or.

³ GIL GIL, A., *Derecho*, cit., 44. or.; GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 25. or.

⁴ WERLE, G., *Tratado*, cit., 78. or.

⁵ *Ibid.*, 79. or.

ulertuta, NZPk bakea, segurtasuna eta gizateriaren ongizatea babesten ditu, zeinak nazioarteko gizartearen ondasun juridikorik garrantzitsuenak baitira.⁶

Horregatik, aipatutako lau *core crimeek* nazioarteko zuzenbidean oinarritutako erantzukizun penal zuzena dakarte; krimen transnazioaletan, berriz, nazioarteko zuzenbideak ez du zuzenean erantzukizun penalik ezarzen: Estatuak portaera jakin batzuk zigortzera behartzen ditu (nazioarteko zuzenbidean oinarritutako zeharkako erantzukizun penala).⁷ Zentzu hertsian ulertuta, NZP nazioarteko auzitegi penalen estatuetan dago kodifikatuta, eta kodifikazio-prozesuan bereziki garrantzitsua izan da Nazioarteko Auzitegi Penal (aurrerantzean, NAP) arautzen duen Erromako Estatutua.

Basakeriaz gainera, nazioarteko krimenen ezaugarri nagusietako bat haien izaera kolektiboa edo masiboa da: pertsona askok hartzen dute parte, eta elkarren artean nolabaiteko lotura duten portaera kriminalak dira. Ez dute zertan nazien garaiko burokrazia eta hierarkia zorrotza izan; plan, kanpaina militar edo inguruabar berean gertatzen diren egitateak direla esan nahi du *masibo* izenondoak. Krimen masiboak izan arren, erantzukizun penala indibiduala da.

Horra hor NZPren erronka handienetako bat: nola zehaztu norbanako baikoitzaren erantzukizun penala izaeraz masiboak diren krimenetan? Zailtasunak zailtasun, NZP Zuzenbide Penal da, eta, ondorioz, horren oinarritzko printzipioak errespetatu behar ditu, bereziki erantzukizun penal indibidualarena.⁸ Horregatik, onartezina da erantzukizun penal kolektiboa dakarten teoriak aplikatzea.

Beste kontu bat da egoera jakin batean, norbanakoek erantzukizun penala izateaz gainera, Estatu batek ere nazioarteko erantzukizuna izatea —krimenen egileek Estatu organo gisa jarduten dutenean—. ⁹ Esaterako, Jugoslavia ohiko gatazkan, Nazioarteko Justizia Auzitegiak (NJA) Bosnia-Herzegovinak Serbia eta Montenegroren aurka tarteratutako salaketa aztertu zuen (azken Estatu horren nazioarteko erantzukizuna aztertu behar zuen genozidioa eragiteagatik edo ez ekiditeagatik); eta Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak (hemendik aurrera, JNAP) gatazka berean parte hartu zuten norbanakoen erantzukizun penal indibiduala du aztergai.¹⁰

NZPren xedea norbanakoa da; ez, Estatua. Nazioarteko Zuzenbide Publikoan, ordea, Nazioarteko Zuzenbidearen aurkako egitate jakin baten ondorioek Estatuarengan edo antzeko subjektuengan bakarrik izan dezakete era-

⁶ *Ibid.*, 82. or.; GIL GIL, A., *Derecho*, cit., 44. or.

⁷ WERLE, G., *Tratado*, cit., 99.-100. or.

⁸ AMBOS, K., *Treatise*, cit., 55. or.; GIL GIL, A., *Derecho*, cit., 52. or.

⁹ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 22.-23. or.; VAN SLIEDREGT, E., *Individual Criminal Responsibility in International Law*, Oxford University Press, New York, 2012, 5.-6. or.

¹⁰ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 22.-23. or.; VAN SLIEDREGT, E., *Individual*, cit., 5.-6. or.

gina (ez egitatea eragin duen norbanakoarengan).¹¹ Nazioarteko krimenak norbanakoek gauzaten dituzte; nazioarteko arau-hausteak, berriz, Estatuak edo antzeko subjektuek bakarrik gauzatu ditzakete.¹² Edonola ere, esan bezala, izan liteke —eta ohikoa da, gainera— testuinguru jakin batean nazioarteko krimenak eta Estatuak eragindako nazioarteko arau-hausteak batera gertatzea: *Bosnia-Herzegovina vs Serbia eta Montenegro* auzian, NJAk argi utzi du Nazioarteko Zuzenbidean «erantzukizun bikoitza» egon daitekeela.¹³

Kapitulu honetan, norbanakoen nazioarteko erantzukizun penala eta hori ezartzeko eskumena duten nazioarteko auzitegi penalak aztertuko ditugu; ez, ordea, NJA eta bestelako nazioarteko auzitegiak.

2. IBILBIDE HISTORIKOA

1899ko eta 1907ko Hagako Hitzarmenak har ditzakegu nazioarteko justizia penalaren lehen mugarriztat. Horiek izan ziren Gerra Zuzenbidea nazioarteko hitzarmen batean kodifikatzeko lehen pauso garrantzitsuak; eta biztanleria zibila, objektu kulturalak eta zibilen ondasun pribatuak babesteko xedapenak jasotzen zituzten.¹⁴ Estatuak obligazioak ezartzeko helburua zuten (eta ez norbanakoengan erantzukizun penala ezartzeko), baina gerora gerra-krimenei buruzko zuzenbidearen iturri gisa erabili dituzte: Hagako Hitzarmenen urraketak Nurenbergeko epaiketetan auzipetu zituzten lehenengo aldiz (egungo nazioarteko auzitegi penalaren Estatuak ere aurreikusi dituzte).¹⁵ Gerra Zuzenbidearen arloan, 1949ko Genevako lau hitzarmenak eta hiru protokolo gehigarriak ere kontuan hartu behar ditugu, zeinek zibilak eta borrokatzeko gai ez diren (edo nahi ez duten) gudulariak babesteko helburua baitute.¹⁶

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren, 1919an Versaillesko Bake Ituna sinatu zuten Alemaniak eta Aliatuek: Alemaniaren errenditza negoziatu eta Alemaniako gerra-kriminalak epaitzea onartu zuten.¹⁷ Horretarako, hiru krimen mota ezarri zituzten: tratatuen urraezintasunaren aurkako krimenak, nazioarteko moralaren aurkako krimenak, eta gerra-krimenak.¹⁸ Lehenengo aldiz, Nazioarteko Zuzenbidearen aurkako krimenengatik sortutako eran-

¹¹ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 95. or.

¹² *Ibid.*, 96. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction to International Criminal Law and Procedure*, Cambridge University Press, Cambridge, 2010, 11. or.

¹³ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 97. or.; VAN SLIEDREGT, E., *Individual, cit.*, 5.-7. or.

¹⁴ SCHABAS, W.A., *An Introduction to the International Criminal Court*, Cambridge University Press, Cambridge, 2011, 2. or.

¹⁵ *Idem.*

¹⁶ AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 12. or.

¹⁷ *Ibid.*, 2. or.

¹⁸ *Idem.*

tzukizun penala jaso zuen tratatu batek, eta, gainera, edozein mailatako norbanakoak erantzule izan zitezkeela ezarri zuen.¹⁹ Alemaniak bere Auzitegi Gorenean (Leipzig) akusatu alemaniarrek epaitzeko arauak onartu zituen, baina hamabi bakarrik epaitu zituen.²⁰

Aurrerapauso handienetako bat Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren gertatu zen, Aliatuek honako bi auzitegi hauek ezarri zituztenean:²¹

- a) Nazioarteko Auzitegi Militarra (NAM), 1945eko abuztuaren 8an lau potentziek hala adosturik Nurenbergen ezarria; eta
- b) Ekialde Urrunerako Nazioarteko Auzitegi Militarra (EUNAM), Japoniako komandante gorenaren (McArthur jeneralaren) dekretuz ezarria.

Hogeita lau agintari nazi auziperatu zituen NAMEk; hemeretzi kondenatu zituen, eta horietako hamabik heriotza-zigorra jaso zuten.²² NAMEko Estatu-tuak espresuki jaso zuen kargu ofiziala izatea eta goiko mailakoen aginduak jasotzea ez zirela erantzukizun penaletik salbuesteko inguruabarrak.²³ Hiru krimen motaren gaineko eskumena zuen auzitegiak: bakearen aurkako krimenak (egungo eraso-krimena du oinordeko), gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak.²⁴ Ikus daitekeen bezala, NAMEk ez zuen genozidioa epaitzeko eskumenik; izan ere, kontzeptu juridiko gisa, genozidioa ez zegoen garatuta Holokaustoaren garaian (1948an onartu zuen NBEko Batzar Nagusiak Genozidioaren aurkako Hitzarmena).²⁵ Horregatik, Nurenbergen gizateriaren aurkako krimenak aplikatu zituzten genozidioaren ordez.²⁶

Aipatzekoa da krimenen orduko definizioa ulertzeko Schabas-ek egiten duen hausnarketa. 1943an, NBEk Gerra-Krimenen Batzordea eratu zuenean, gerra-krimetzat jotzen ziren gudu-zelaian gudularien artean gertatutako delituak (debekatutako armak erabiltzea, gerrako presoek gaineko gehiegike-

¹⁹ Aliatuek Alemaniako enperadore ohiari, Gilen II.ari, nazioarteko moraltasunaren eta tratatuen urraezintasunaren aurkako krimenak egotzi zizkieten, baina enperadore ohiak Herbehereetara alde egin zuen, eta Herbehereek ez zuten hura estraditatu. *Vid.* AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 3. or.

²⁰ *Idem.*

²¹ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years of international criminal justice», *International Criminal Law Review*, 13(1), 2013, 8.-9. or.; SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 5.-7. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 4.-6. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International Criminal Law*, Oxford University Press, 3. argit., Hampshire, 2013, 255. or.

²² SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 6. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 5. or.

²³ VAN SLIEDREGT, E., *Individual, cit.*, 4. or.; SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 5. or.

²⁴ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 6. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 5. or.

²⁵ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 21. or.; SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 7. or.

²⁶ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 21. or.; SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 7. or.

riak, etab.), eta beste Estatu bateko zibilen aurkako delituak, baina ez zituzten jasotzen Alemaniak alemaniarren aurka egindakoak.²⁷ Horregatik onartu zuten Aliatuek Nurenbergeko Estatutuan biztanleria zibilaren aurkako «edozein jazarpen, deuseztapen eta deportazio» gizateriaren aurkako krimen gisa zigortzea.²⁸

Schabas-en arabera, Aliatuak beldur ziren gizateriaren aurkako krimenak haientzat ere aplikagarri izan ote zitezkeen — besteak beste, euren kolonietan egiten ari zirengatik —; horregatik, gizateriaren aurkako krimenak gerra-garaian bakarrik gerta zitezkeela ezarri zuten.²⁹ Genozidioa, ordea, gerra- edo bake-garaian gerta zitezkeela onartu zuten krimen hori zigortzen duen hitzarmenean. Zergatik? Bake-garaian gertatutako nazioarteko delituak basakeria izugarriko kasuetan bakarrik zigortzeko prest zeuden Estatuak (haiei aplikatu ezin izango zitzaielakoan).³⁰ Horrela, 1950ean, genozidioa zen bake-garaian gertatu eta zigortu zitezkeen nazioarteko krimen bakarra.³¹

Aipatzekoa da, halaber, 1945eko abenduan, lau aliatuek *Control Council Law No. 10* onartu zutela beren auzitegi militarren bidez epaiketak egiteko.³² NAMEko Estatutuaren antzekoa zen, baina, gizateriaren aurkako krimenei dagokienez, ez zen beharrezkoa horiek gerra-garaian gertatzea.³³ Egungo Nazioarteko Auzitegi Penaleko Estatutuek ere ez dute baldintza hori eskatzen.³⁴

Hurrengo urratsa 1990eko hamarkadan eman zuen NZPK: NBEko Segurtasun Kontseiluak JNAP eta Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala (aurrerantzean, RNAP) ezarri zituen ebazpen bidez.³⁵ Segurtasun Kontseiluak 827. eta 955. ebazpenak onartu zituen (1993ko maiatzaren 25ekoa eta 1994ko azaroaren 8koa, hurrenez hurren), nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko edo horiek berrezartzeko beharrezko neurriak hartzeko duen eskumenean oinarrituta.³⁶

²⁷ SCHABAS, W.A., «Semantics or Substance? David Scheffer's Welcome Proposal to Strengthen Criminal Accountability for Atrocities», *Genocide Studies and Prevention: An International Journal*, 2 (1), 2014, 32. or.

²⁸ *Ibid.*, 32.-33. or.

²⁹ *Ibid.*, 33. or.

³⁰ *Ibid.*, 33.-34. or.

³¹ *Ibid.*, 34. or.

³² AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 7.-8. or.; SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 7. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International, cit.*, 256.-257. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 54. or. Ondoren, Alemaniako auzitegiek ere arau horretan oinarritutako hainbat epaiketa gauzatu zituzten.

³³ Horrela, 1939aren aurretik biztanle alemaniarren aurka egindakoak ere epaitu zitezkeen. *Vid.* SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 7. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 54. or.

³⁴ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 12. or.

³⁵ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 9. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 19.-22. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International, cit.*, 260. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 58. or.

³⁶ CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International, cit.*, 259. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 58. or.

Bosniako gatazka areagotu ahala, NBEko Segurtasun Kontseiluak eraturako Adituen Batzordeak gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak gertatzen ari zirela esan eta nazioarteko auzitegi penala sortzea proposatu zuen.³⁷ Ondorioz, Segurtasun Kontseiluak, ebazpen bidez, JNAP sortu zuen 1991tik (amaiera-data etorkizunean ezarriko zuela adierazi zuen) Jugoslavia ohiko mugen barruan gertatutakoak epaitzeko.³⁸ RNAP, berriz, Ruandaren eskariz ebazpen bidez eratu zuen Segurtasun Kontseiluak, 1994an Ruandan eta inguruko herrialdeetan gertatutako genozidioa eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren beste urraketa larri batzuk epaitzeko.³⁹

JNAPek eta RNAPek oso estatutu antzekoak dituzte, eta Apelazio Salako magistratuak berberak dira bi auzitegietan⁴⁰ —2003ra arte Fiskaltza bera izan zuten—.⁴¹ Bi estatutuetan, akusatuak kargu ofizialak izateak edo aginduak jaso izanak ez dute bera salbuesteko balio (baina aringarri gisa kontuan har daitezke pena ezartzerakoan).⁴² Genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak eta gerra-krimenak epaitzeko eskumena dute; ez dute, ordea, bakearen aurkako krimenak (eraso-krimena) epaitzeko eskumenik.⁴³

JNAP eta RNAP gatazka jakin baterako *ad hoc* ezarritako nazioarteko auzitegiak dira; NAP, berriz, iraunkorra den nazioarteko auzitegi penal bakarra da.⁴⁴ Estatutu baten bidez ezarri zuten: 1998ko uztailaren 17an adostu zuten Erroman, eta 2002ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean, hirurogeigarren Estatuak Estatutua berretsi ondoren.⁴⁵ 2002ko uztailaren 1etik gertatutako genozidioak, gizateriaren aurkako krimenak eta gerra-krimenak epaitzeko eskumena du; baina krimenak gertatu diren lekuko Estatuak ez badu Estatutua berretsi edo egilearen nazionalitateari dagokion Estatuak ez badu berretsi, NBEko Segurtasun Kontseiluaren ebazpena beharko da prozesua hasteko (NBEko Gutunaren VII. kapituluaren oinarritutakoa).⁴⁶

³⁷ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 10. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 21. or.

³⁸ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 11. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 21. or.

³⁹ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 11. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 22. or.

⁴⁰ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 12. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 22. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International, cit.*, 261. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 61. or.

⁴¹ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 61. or.

⁴² AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 21. or.; GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 53.-55. or.

⁴³ *Ibid.*, 60. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 21. or. Antzera, GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 50.-53. or.

⁴⁴ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 9. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International, cit.*, 262. or.

⁴⁵ SCHABAS, W.A., *An Introduction, cit.*, 19.-20. or.; SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 9. or.; AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 25. or.; WERLE, G., *Tratado, cit.*, 67.-68. or.

⁴⁶ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 10. or.; GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 68. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction, cit.*, 133.-135. or.

Ikerketak formalki hastean, hainbat dira egoera (*situation*) bakoitzetik erator daitezken kasuak (*cases*); eta kasu bakoitzean, pertsona zehatzak epaitzen dituzte.⁴⁷ Hiru bide daude Fiskaltzak egoera jakin baten gaineko ikerketa hasteko:⁴⁸

- a) Estatuaren eskariz (esaterako, Ugandako, Kongoko Errepublika Demokratikoko eta Afrika Erdiko Errepublikako gatazketan), Estatutuko 13(1) eta 14. artikuluetan oinarrituta;
- b) NBEko Segurtasun Kontseiluaren eskariz (esaterako, Darfurko eta Libiako kasuak), Estatutuko 13(b) artikuluan oinarrituta, eta
- c) Fiskaltzaren eskariz (esaterako, Kenyako kasua), Estatutuko 13(c) eta 15. artikuluetan oinarrituta.

Fiskaltzaren eskariz auzia hasi ahal izateko, beharrezkoa da egitateak gertatu diren lekuko Estatu edo egilearen nazionalitateari dagokion Estatu Erromako Estatutuko kide izatea edo krimen jakin horren gaineko eskumena espresuki onartzea.⁴⁹ Horrela, zaila —edo ezinezkoa— da Estatutuko kide ez diren Estatu en lurraldean gertatutakoak edo horien nazionalitateko norbanakoek eragindakoak NAPEk epaitzea, Estatu horrek NBEko Segurtasun Kontseiluan beto-eskubidea badu (esaterako, AEB).⁵⁰ Hori da gaur egun NAPren ustezko unibertsaltasunari egiten zaion kritikarik garrantzitsuenaren.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Nazioarteko auzitegi penal guztiek pertsona fisikoen gaineko jurisdikzioa dute, eta ez dago immunitaterako edo amnistiarako sistemarik estatuburuak eta bestelako gobernuak auziperatuak izan ez daitezkeen.⁵¹ NAMEk eta EUNAMEk ez bezala, egungo nazioarteko auzitegi penalek (JNAP, RNAP eta NAP) ez dute heriotza-zigorra aplikatzeko aukerarik.⁵² *Ratione materiae*, nazioarteko auzitegi penalek genozidioan, gizateriaren aurkako krimenetan, eta gerra-krimenetan daukate eskumena. Ondoren ikusiko dugun bezala, uste izatekoa da etorkizunean NAPEk eraso-krimenean ere edukiko duela eskumena.

⁴⁷ AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 37.-38. or.

⁴⁸ *Ibid.*, 36. or.; GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 68. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction, cit.*, 133.-135. or.

⁴⁹ GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 68. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction, cit.*, 133.-135. or. Estatutuko 12(3) artikulua Estatu kide ez direnei aukera ematen die auzitegiaren eskumena onartzeko *ad hoc* moduko deklarazio bidez. Orain arte bi kasutan bakarrik erabili dute: Boli Kostaren eta Palestinaren kasuan. *Vid.* AMBOS, K., *Treatise, cit.*, 36.-37. or.

⁵⁰ GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 68. or.

⁵¹ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», *cit.*, 10.-11. or.

⁵² *Ibid.*, 22. orr.

2001eko irailaren 11ren ondoren, doktrinan asko eztabaidatu dute noiz eta zein baldintzatan izan litekeen terrorismoa nazioarteko krimena.⁵³ Egungo araudiaren arabera, terrorismoa ez da nazioarteko krimena.⁵⁴ Beste kontu bat da terrorismo-delituek zenbaitetan gizateriaren aurkako krimenen edo gerra-krimenen baldintzak bete ditzaketela, baina, halakoetan, frogatu egin beharko da nazioarteko krimenetako baten baldintza guztiak betetzen ote diren.⁵⁵

Genozidioari dagokionez, Bigarren Mundu Gerran naziek juduen aurka egindakoak izendatzeko helburuarekin, jatorri poloniarra zuen Rafael Lemkin-ek bi partikula konbinatuta sortu zuen *genozidio* terminoa: jatorri greziarrek *genos* («arraz» edo «tribu») eta latineko *cide* («hil»).⁵⁶ NBEko Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 9ko 260 (III) A Ebazpenaren bidez onartu zuen Genozidioa Prebenitzeko eta Zigortzeko Hitzarmena, eta Estatu kideek sinatu eta berresteko irekita geratu zen.⁵⁷ Hitzarmeneko II. artikulua lehenengo aldiz jaso zuen genozidioaren definizioa Nazioarteko Zuzenbidean, eta nazioarteko ohitura gisa eta *ius cogens* gisa dago onartua.⁵⁸ Definizio hori JNAPek, RNAPEk eta Napek bere horretan jaso dute.⁵⁹

Jarraian aipatuko ditugun ekintzetako edozein egiten bada, talde nazional, etniko, arrazazko edo erlijioso bat osorik edo zati batean suntsitzeko asmoarekin, genozidiotzat hartua izango da:⁶⁰

- a) taldeko kideak hiltzea;
- b) taldeko kideen osotasun fisiko edo mentala modu larrian lesionatzea;
- c) taldeari bere suntsitze fisikoa, osoa edo partziala, ekarriko dioten bi-zi-baldintzak nahita ezartzea;
- d) taldearen barruan jaiotzak ekiditeko neurriak ezartzea, eta
- e) umeak indarrez beste talde batera aldatzea.

⁵³ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 80. orr.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction, cit.*, 127. orr.

⁵⁴ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 80. orr.

⁵⁵ *Ibid.*, 81. orr. Gai honen inguruan, *vid.* LANDA GOROSTIZA, J.M., «La sombra de los crímenes contra la humanidad en la política antiterrorista española: reflexiones críticas», *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 12-10, 2010, 1-30. orr.

⁵⁶ GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 127. orr.; LIPPMAN, M., «Genocide» in M.C. BAS-SIOUNI, *International Criminal Law. Volume I. Crimes*, Transnational Publishers, New York, 1999, 590. orr.

⁵⁷ BOLLO AROCENA, M.D., *Derecho Internacional Penal. Estudio de los crímenes internacionales y de las técnicas para su represión*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2004, 109. orr.

⁵⁸ WERLE, G., *Tratado, cit.*, 414.-415. or.

⁵⁹ *Idem.*

⁶⁰ *Ibid.*, 415.-416. or.; AMBOS, *Estudios del Derecho Penal Internacional*, 104. or.; GIL GIL, A., *El genocidio, cit.*, 140. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction, cit.*, 166. or.

Gizateriaren aurkako krimenen arloan, arestian aipatutako garapena hartu behar dugu kontuan: nahiz eta Nurenbergen krimen horiek gerra-krimenekin lotura izatea eskatu,⁶¹ gaur egun ez da halakorik eskatzen.⁶² Gizateriaren aurkako krimenengatik sortutako erantzukizun penala izango du norbanakoak, baldin eta Erromako Estatutuko 7(1) artikuluan aurreikusitako portaeretak bat «biztanleria zibilaren aurkako eraso orokor eta sistematiko baten barnean» gauzatzen badu.⁶³ Hauek ditugu portaerok: hilketak; deuseztatzea; esklabotza; deportatzea edo indarrez mugitzea; askatasun-gabetzea; tortura; indarkeria sexuala; jazarpena; derrigorrezko desagerpenak; apartheidak; eta bestelako portaera gizagabeak.

Inguruabarrari dagokion elementua (eraso orokor eta sistematikoa) ezinbestekoa da egitateak gizateriaren aurkako krimentzat hartuak izan daitezkeen.⁶⁴ Era berean, egileek Estatuko aparatuko kide edo erakunde jakin bateko kide izan behar dute.⁶⁵ Genozidioan ez bezala, nahikoa da egitateak dolo orokorarekin gauzatzea, baina dolo horrek honako hau barne hartu behar du: portaera biztanleria zibilaren aurkako eraso orokor eta sistematiko jakin baten barne dagoena⁶⁶.

Gerra-krimenen bidez, *ius in bello* delakoaren (hau da, gerra-garaian errespetatu beharreko arauen) urraketak zigortu daitezke, baina ez edonolako urraketak, baizik eta Erromako Estatutuko 8. artikulua jasotakoak. Artikulu horrek nazioarteko eta barneko gatazka armatuak bereizten ditu:⁶⁷

- a) Nazioarteko gatazketan, honako hauek zigortzen ditu: (a) Genevako Hitzarmenen urraketa larriak [8(a) artikulua]; eta gerrako arau eta ohituren bestelako urraketa larriak, hau da, Hagako Zuzenbidean eta Genevako Hitzarmenen I. Protokolo Gehigarrian jasotakoak [8(b) artikulua].
- b) Barne-gatazketan, honako hauek zigortzen ditu: Genevako Hitzarmenen 3. artikuluan jasotako urraketa larriak [8(c) artikulua]; eta barne-gatazketan aplikatutako arauen eta ohituren bestelako urraketa larriak [8(e) artikulua].

⁶¹ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 110. or.; BASSIOUNI, M.C., «Crimes Against Humanity» in M.C. BASSIOUNI, *International Criminal Law. Volume I. Crimes*, Transnational Publishers, New York, 1999, 521.-522. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 191. or.

⁶² WERLE, G., *Tratado*, cit., 471. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 191. or.

⁶³ WERLE, G., *Tratado*, cit., 469.-470. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 191. or.; GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 123. or.

⁶⁴ CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 191. or.; GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 123. or.

⁶⁵ WERLE, G., *Tratado*, cit., 484. or. Hala ere, ez dago argi erakunde kontzeptua nola interpretatu.

⁶⁶ CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 199.-200. or.

⁶⁷ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 102.-103. or.; WERLE, G., *Tratado*, cit., 572.-573. or.

Gizateriaren aurkako krimenetan ez bezala, gerra-krimenetan ez da beharrezkoa egitateak eraso orokor eta sistematiko baten parte izatea.⁶⁸ Aitzitik, ezinbestekoa da egitatea gatazka armatu jakin baten barruan gertatzea eta egilearen doloak inguruabar hori barne hartzea.⁶⁹

Atal hau bukatzeko, laugarren *core crime* delakoa aipatu behar dugu: eraso-krimena (*crime of aggression*). Esan bezala, Nurenbergen aplikatu zuten lehen aldiz bakearen aurkako krimen gisa. Krimen horren definizioa ez zen oso zehatza, eta 1974an definizioaren gaineko adostasuna lortu arren (Batzar Nagusiaren 3314(XXIX) Ebazpenaren bidez),⁷⁰ ez zuten Erromako Estatutuan jaso, eta etorkizunean adosteko gai gisa jaso zuten.⁷¹ Erromako Estatutua indarrean sartu ondoren, Estatu Kideen Batzarrak lantalde berezia sortu zuen horretarako.⁷²

Duela gutxi adostu dute Erromako Estatutuko Estatu kideek eraso-krimenaren definizioa eta horren gaineko jurisdikzioa edukitzeko baldintzak. Eraso-krimena izango da, bere izaera, larritasuna eta eskala kontuan hartuta, NBEko Gutunaren ageriko urraketa dakarren eraso-ekintza jakin bat planifikatzea, prestatzea, hastea edo gauzatzea, Estatuaren jardun politiko edo militarra benetan kontrolatzeko edo zuzentzeko kargua daukan pertsona batek egiten duenean.⁷³

Edonola ere, NAPEk ezingo du eraso-krimenaren gaineko eskumena 2017. urtea baino lehen baliatu.⁷⁴ Gainera, ezinbestekoa da erabakia Estatutua zuzentzeko beharrezkoa den Estatu kideen gehiengo berarekin onartzea.⁷⁵

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

Nazioarteko auzitegi penalez gainera, bestelako auzitegi penalek ere auzipetzen dituzte gaur egun nazioarteko krimenak. Jarraian auzitegi mistoek eta barne-auzitegiek arlo honetan zer lan egiten duten azalduko dugu labur.

⁶⁸ CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 199.-221. or.

⁶⁹ *Idem.*; WERLE, G., *Tratado*, cit., 591. or.

⁷⁰ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 78. or.; WERLE, G., *Tratado*, cit., 743.-745. or.; BASSIOUNI, M.C., FERENCZ, B.B., «The Crime Against Peace» in M.C. BASSIOUNI, *International Criminal Law. Volume I. Crimes*, Transnational Publishers, New York, 1999, 319.-320. or.

⁷¹ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 78.-79. or.; BASSIOUNI, M.C., FERENCZ, B.B., «The Crime», cit., 346. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 125. or. Erromako Estatutuko 5. artikulua araber, NAPEk eskumena du eraso-krimena epaitzeko, baina hura definitu arte, ezinezkoa da horren gaineko eskumena izatea.

⁷² WERLE, G., *Tratado*, cit., 762. or.; BASSIOUNI, M.C., FERENCZ, B.B., «The Crime», cit., 346. or.

⁷³ *Resolution RC/Res.6, Adopted at the 13th plenary meeting, on 11 June 2010, by consensus, Annex I, 8 bis (1) artikulua.*

⁷⁴ VAN SLIEDREGT, E., *Individual*, cit., 4. or.

⁷⁵ *Ibid.*; 15 bis (3) eta 15 ter (3) artikulua.

Horien lanaren zergatia ulertzeko, nazioarteko auzitegi penalek dituzten zenbait arazo aipatu nahiko genituzke lehenago:⁷⁶ ez dute frogak lortzeko, atxilotze-aginduak betearazteko eta antzekoetarako mekanismorik —Estatuen kooperazioaren beharra dute—; jatorri eta kultura juridiko ezberdineko magistratuek ohitu behar dute elkarrekin lan egitera; auzien konplexutasunaren ondorioz, luzeegiak dira prozesuak; eta erantzukizunik handiena dutenak bakarrik epaitu ditzaketenez (goi-mailako kriminalak), ez dituzte krimenen egile zuzenak epaitzen —askotan horiek dira biktimek kartzelan ikusi nahi lituzketenak—.

Nazioarteko auzitegi penalek nazioarteko magistratuak baino ez dituzte; auzitegi mistoek edo hibridoek, aldiz, Estatu barneko eta nazioarteko magistratuak dituzte.⁷⁷ Horietako batzuk Estatu jakin bateko gobernuaren eta NBERen arteko akordioaren bidez eratu dituzte: Sierra Leonarako Auzitegi Berezia; Kanbodiako Auzitegi-tako Ezohiko Salak (khmer gorrien erregimenak egindako krimenak epaitzeko); eta Libanorako Auzitegi Berezia. Diliko Panel Bereziak (Ekialdeko Timorren), ordea, NBEk Ekialdeko Timorren ezarritako trantsizioko administrazioaren parte dira. Eta nazioarteko krimenak auzipetzen dituzten Estatu barneko jurisdikzioak ere badira: Kosovon eta Gerra Krimenen Sala Bosnian.

Libanorako Auzitegi Bereziak izan ezik, gainerako guztiek badute gizeriaren aurkako krimenak eta gerra-krimenak epaitzeko ahalmena.⁷⁸ Gainera, Diliko Panel Bereziak eta Kanbodiako Auzitegi-tako Ezohiko Salak genozidioaren gaineko jurisdikzioa ere badute.⁷⁹ Bestalde, auzitegi mistoek barne-zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbidea aplikatzen dutenez, barne-zuzenbidearen zenbait bortxaketa ere epaitzen dituzte; esaterako, Kosovon, gorroto edo intolerantzia nazional, arrazazko, erlijioso edo etnikoa bultzatzea.⁸⁰

Auzitegi mistoen abantailen artean, honako hauek gailentzen dira: ez dira nazioartekoak bezain garestiak; prozesuak ez dira hain luzeak; eta, gertaeren lekuan daudenez, epaiek eragin handiago dute gertalekuko gizartean.⁸¹ Baina alde negatiboa ere badute: gobernu demokratikoa indarrean egon arren, hainbat faktore direla-eta, Estatuko epaileak ez dira beti erabat aske eta inpartzialak; esaterako, Kanbodian, genozidioan parte hartu zuten pertsonen gertukoak egungo gobernuan egoteak eta benetan inpartziala den justiziarik ez

⁷⁶ CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International*, cit., 269.-270. or.

⁷⁷ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», cit., 9. or.; CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International*, cit., 263.-265. or.; WERLE, G., *Tratado*, cit., 73.-74. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 149.-164. or.

⁷⁸ SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years», cit., 10. or. Gerra-krimenak ez dituzte beti NAPEk bezala jaso.

⁷⁹ *Idem.*

⁸⁰ AMBOS, K., *Treatise*, cit., 52. or.

⁸¹ CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International*, cit., 265. or.

izateak bidegabeko epaiak ekarri ditu.⁸² Gainera, ez da beti erraza Estatu barneko eta nazioarteko epaileen arteko kooperazio emankorra lortzea; eta egitateen lekuko gorrotoek eta gatazka sozialek epaia betearazteko beharrezkoa den segurtasuna arriskuan jar dezakete.⁸³

Aztertu beharreko auzien kopurua eta konplexutasuna dela-eta, lan karga handia dute JNAPEk eta RNAPEk; horrela, hainbat kasu igorri dituzte Estatu-tuetako barne-azitegiatar. Baina bestelakoetan ere zenbait barne-azitegi nazioarteko krimenak epaitu dituzte: jurisdikzio unibertsalean oinarrituta, Estatu batzuek beren Zuzenbide Penala erabili dute atzerrian gertatutako nazioarteko krimenak epaitzeko —nahiz eta atzerritarrek atzerritarren aurka egindakoak izan—.

Bi irizpide erabili izan dira delitu jakin bat epaitzeko eskumena zer Estatuk duen zehazteko: lurraldetasuna (egitateak gertatu diren lekuko Estatu) eta nazionalitate aktiboa (egilearen nazionalitateko Estatu).⁸⁴ Baina horiek ez dira oso erabilgarriak nazioarteko zuzenbide penalean; izan ere, esan bezala, krimen masiboak izan ohi dira, zeinetan Estatu bera tartean egoten baita; beraz, zaila da egitateak gertatzen diren lekuko Estatuak edo egilearen nazionalitateari dagokion Estatuak krimen horiek epaitzea.⁸⁵

Nazionalitate pasiboaren irizpidea ere aplikatzen dute Estatu batzuek. Horren arabera, Estatu batek badu bere nazionalitateko pertsonen aurka atzerrian egindako krimenak epaitzeko eskumena.⁸⁶ Baina, Cassese-k dioen bezala, irizpide horrek ez du zentzu handirik nazioarteko krimenen arloan; izan ere, nazioarteko *core crime* direlakoak gizateria osoaren aurkako delituak dira.⁸⁷

Bukatzeko, unibertsaltasun-printzipioa dugu, jurisdikzio unibertsalaren oinarria: krimena non gertatu den eta egilearen nazionalitatea zein den gora-behera, krimen hori epaitzeko eskumena izatea, nazioarteko gizartearen interesak urratzen dituzten egitateak direlako; horregatik, edozein Estatutako auzitegiek epaitu dezakete⁸⁸ (zuzenean lesioa jasan edo ez). Bi modutan uler daiteke: modu hertsian (baldintzapeko jurisdikzio unibertsala), eta modu zabalean (jurisdikzio unibertsal absolutua). Lehenengoak akusatua Estatu horretan egotea eskatzen du; bigarrenak, aldiz, ez: *absentian* egindako epai-
ketak onartuta ez badaude, atxilotze-aginduak eta estradizio-eskaerak igorri beharko ditu.⁸⁹

⁸² *Ibid.*, 266. or.

⁸³ *Ibid.*, 266.-267. or.

⁸⁴ *Ibid.*, 271. or.

⁸⁵ *Idem.*

⁸⁶ *Ibid.*, 277. or.

⁸⁷ *Idem.*

⁸⁸ CERVELL HORTAL, M.J., *Genocidio, responsabilidad internacional e inmunidad de los Jefes de Estado*, Iustel, Madril, 2013, 104.-105. or.

⁸⁹ CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International*, cit., 278.-279. or.

Eztabaida handia dago jurisdikzio unibertsal absolutuaren onarpenaren inguruan: zenbaiten ustez, legezketasun-printzipioaren aurkakoa da; izan ere, egitate jakin bat delitua dela jakiteaz gainera, zenbateko zigorra jasoko duen ere jakin behar du gaizkileak, eta, zigorrei dagokienez Estatuaren arteko ezberdintasuna kontuan hartuta, ezin da esan gaizkileak bazekiela zer zigor jasoko zuen.⁹⁰ Era berean, aipatzekoak dira atxilotze- eta estradizio-aginduak beteazteko dauden zailtasunak, eta halakoek Estatuaren artean sor ditzaketan gatazkak.⁹¹ Azken hori izan zen, hain zuzen, Espainiak bere jurisdikzio unibertsala mugatzeko arrazoia.⁹²

5. ADIBIDE PRAKTIKOA

Nazioarteko krimenen izaera konplexua eta horiek kasu zehatzetan aplikatzeak nolako arazoak dakartzan ulertzeko, genozidioaren adibidea erabiliko dugu jarraian. Kapitulu honetako hirugarren atalean jasotako definiziotik erator daitekeen bezala, genozidioa ez da hilketa kolektiboa, baizik eta gizatalde egonkor bat deuseztatzea helburu duen portaera bat.⁹³ Horiek horrela, talde nazional, arrazazko, etniko eta erlijiosoaren existentzia da babestutako ondasun juridikoa; norbanakoaz gaindiko ondasun juridikoa da, zeinaren titularra ez baita pertsona fisikoa, baizik eta taldea kolektibitate gisa.⁹⁴

Hirutan sailka ditzakegu genozidioaren tipo penala osatzen duten elementuak:⁹⁵

- a) Tipo objektiboa: genozidioaren definizioan zerrendatutako ekintzetako bat edo batzuk egitea; esaterako, taldeko kideak hiltzea. Kontuan hartu behar dugu talde nazional, etniko, arrazazko eta erlijiosoaren aurkako ekintzak bakarrik izan daitezkeela genozidioa; talde politiko, ekonomiko eta kulturalak, berriz, genozidioaren aurkako hitzarmenaren babesetik at daude.
- b) Tipo subjektiboaren barnean, elementu subjektibo orokorra: ekintza dolozkoa izatea.
- c) Tipo subjektiboaren barnean, halaber, doloari gehitzen zaion elementu subjektibo gehigarria: talde nazional, etniko, arrazazko edo erlijioso bat osorik edo zati batean suntsitzeko asmoa edukitzea.

⁹⁰ *Ibid.*, 279. or.

⁹¹ *Ibid.*, 280. or.

⁹² CERVELL HORTAL, M.J., *Genocidio*, cit., 115.-125. or.

⁹³ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 139.-140. or.

⁹⁴ *Ibid.*, 142. or. Antzeko moduan, WERLE, G., *Tratado*, cit., 416.-417. or.

⁹⁵ WERLE, G., *Tratado*, cit., 415.-416. or.

Ekintzaren arabera, honako hauek bereiz ditzakegu:⁹⁶

- a) Genozidio fisikoa: taldea fisikoki suntsitzeko egina; esaterako, ki-deen hilketa.
- b) Genozidio biologikoa: taldea galbidera ekarriz suntsitu nahi denean; esaterako, taldean jaiotzak ekiditeko neurriak ezartzea etorkizunean taldea desagere dadin.

Genozidio kulturala ere bereiz dezakegu: talde jakin baten kultura, hizkuntza, bizimodua eta abar suntsitzeko helburua duena. Beste modu batean esanda, asimilazio bidez taldea suntsitzea xede duena. Dena dela, genozidioaren egungo definizioa kontuan hartuta, genozidio kulturala ezin da juridikoki genozidio gisa zigortu.⁹⁷

Ez da beharrezkoa egitateak plan orokor baten parte izatea —gizateriaren aurkako krimenetan, ordea, bai—; hala ere, gehienetan, hala izango da,⁹⁸ eta, gainera, plan orokorra baliagarria izan daiteke taldea suntsitzeko asmoa frogatzeko. Taldea benetan osorik edo zati batean suntsitzea ere ez da beharrezkoa —ezta biktima kopuru handia eragitea ere—. ⁹⁹ Nahikoa da taldea suntsitzeko asmo hori frogatzea. Baina hori ez da lan erraza; horregatik onartu dute nazioarteko auzitegi penalek egitate eta inguruabar objektiboetatik, lekukoaren testigantzetatik eta bestelako zantzuetatik abiatuta ondorioztatzea suntsitzeko asmoa bazela.

Akayesu kasuan —nazioarteko auzitegi penalek genozidioarengatik zigortu zuten lehen pertsona—, RNAPek egitateen inguruabar orokorra eta basakeria-maila hartu zituen kontuan.¹⁰⁰ Krstić kasuan, berriz, Srebrenican gertatutakoak epaitu behar izan zituen JNAPek. Taldea suntsitzeko asmoa bazela frogatzeko, eraikin kultural eta erlijiosoen aurkako eta taldekideen etxebizitzaren aurkako erasoak erabili zituen JNAPek, eta bereziki eremu geografiko batean babestutako talde baten aurka egindako ekintzak (azken kasu horretan, bosniar musulmanak ziren 7.000-8.000 gizonezko Srebrenican zazpi egunean hiltzea).¹⁰¹ Egitateetan oinarrituta bosniar musulmanen hilketa genozidio xedearekin burutu zela ezarri arren, JNAPek ezin izan zuen frogatuzat jo Krstićek xede hori zuenik (beste goi-kargu batzuek helburu hori zutela bazekiela bakarrik jo zuen frogatuzat).¹⁰²

⁹⁶ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 140. or.

⁹⁷ GIL GIL, A., *El genocidio*, cit., 166.-168. or.; CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction*, cit., 179. or.

⁹⁸ WERLE, G., *Tratado*, cit., 415.-416. or.

⁹⁹ *Ibid.*, 416. or.

¹⁰⁰ *Prosecutor v. Akayesu, Trial Chamber Judgement*, 1998.09.02 (ICTR-96-4-T), 523.-524. paragrafoak.

¹⁰¹ *Prosecutor v. Krstić, Trial Chamber Judgement*, 2001.08.02 (IT-98-33-T), 580. eta 594.-598. paragrafoak.

¹⁰² *Prosecutor v. Krstić, Appeals Chamber Judgement*, 2004.04.19 (IT-98-33-A), 134.-135. paragrafoak. Ondorioz, genozidioa egiten laguntzeagatik eta eragiteagatik zigortu zuten.

BIBLIOGRAFIA

- AMBOS, K., *Treatise on International Criminal Law. Volume I: Foundations and General Part*, Oxford University Press, Oxford, 2013.
- BASSIOUNI, M.C., *International Criminal Law. Volume I. Crimes*, Transnational Publishers, New York, 1999.
- BOLLO AROCENA, M.D., *Derecho Internacional Penal. Estudio de los crímenes internacionales y de las técnicas para su represión*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2004.
- CASSESE, A., GAETA, P., *Cassese's International Criminal Law*, Oxford University Press, 3. argit., Hampshire, 2013.
- CERVELL HORTAL, M.J., *Genocidio, responsabilidad internacional e inmunidad de los Jefes de Estado*, Iustel, Madril, 2013.
- CRYER, R., FRIMAN, H., ROBINSON, D., WILMSHURST, E., *An Introduction to International Criminal Law and Procedure*, Cambridge University Press, Cambridge, 2010.
- GIL GIL, A., *Derecho penal internacional*, Editorial Tecnos S.A., Madril, 1999.
- LANDA GOROSTIZA, J.M., «La sombra de los crímenes contra la humanidad en la política antiterrorista española: reflexiones críticas», *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 12-10, 2010, 1.-30. or.
- SCHABAS, W.A., *An Introduction to the International Criminal Court*, Cambridge University Press, Cambridge, 2011.
- SCHABAS, W.A., «Semantics or Substance? David Scheffer's Welcome Proposal to Strengthen Criminal Accountability for Atrocities», *Genocide Studies and Prevention: An International Journal*, 2 (1), 2014, 31.-36. or.
- SMEULERS, A., HOLÁ, B., VAN DEN BERG, T., «Sixty-five years of international criminal justice», *International Criminal Law Review*, 13(1), 2013, 7.-41. or.
- VAN SLIEDREGT, E., *Individual Criminal Responsibility in International Law*, Oxford University Press, New York, 2012.
- WERLE, G., *Tratado de Derecho Penal Internacional*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2011.

12.

Gobernantza

UNAI VÁZQUEZ PUENTE

Ideologia botere esanguratsu bat da, hegemonian eta horren eraikuntzan islatzen dena (kontzeptu horiek dagoeneko aztertu ditugu lan honetan). Ideologia garatzeko ezinbestekoa da termino berriak sortzea, eragin jakin bat izango duten kontzeptuak asmatzea, zilegitasuna eta eredu zehatzak egituratzea lortzeko helburuarekin. Horrela, azken urteotan helburu horien esparruan, *gobernantza* kontzeptutik haratago kokatzen ditugun termino berriak sortu dira: gobernagarritasuna, gobernamentalitate eta azkenik kogobernaketa. Gobernantza eta bere aintzindaria den gobernagarritasunean sakonduko dugu gehienbat, ezagunenak direnez gero. Beraz, aipatutako kontzeptuak ulertzea bideratuko dugu atal hau, jakinik Estatuak, nazioarteko erakundeak edo oro har sistemak kudeatzeko estrategiak direla.

Hori guztia, Luis Aguilar Villanueva-k nabarmentzen duen moduan «(Latinoamerikako) zientzia politikoak ia dena ikertu baitu, gobernuak bere erabakiak eraikitzen eta garatzen dituen modua izan ezik» edo Nobert Lechner-ek Latinoamerikako ezkerreko pentsamenduaren harira esan zuen bezala, lehentasuna botere estrategia bat eratzeari ematen zitzaion eta ez zen agintzeko estrategiarik planteatzen»¹. Aipu horiek primeran murgiltzen gaituzte garatu beharreko terminoetan eta haien garrantzi kontzeptualean kokatzen gaituzte. Horrela, autoreen arabera, oro har, gobernagarritasun egonkortasun politikoaren ikuspuntutik «nola» gobernatzen den aztertzen duen tresnatzat jotzen dugu. *Gobernantza* gobernuak agenda ezartzeko, politikak diseinatzeko, erabakiak hartzeko eta eraginak ebaluatzeko duten modu zehatza da; alegia, Camou-ren hitzetan «gobernatzearen eta bere buroa gobernatzearen ekintza eta ondorioa»² dena.

¹ MAYORGA, Fernando eta CÓDOVA, Eduardo, *Gobernabilidad y Gobernanza en América Latina*, *Working Paper NCCR Norte-Sur IP8*, Ginebra, 2007, 1. or.

² *Ibidem*, 2. or.

1. GOBERNAGARRITASUNA

1.1. Definizioa

Gobernagarritasunaren hamaika definizio daude. Camouk dionez, «gizartearen eskaeren mailaren eta sistema politikoak (estatuak/gobernuak) horiek modu legitimo eta eraginkor batean asetzeko duen gaitasunaren arteko oreka dinamiko bat da»³.

Bestalde, Joan Prats-ek gehiago sakontzen du terminoan eta honela definitzen du: «soziopolitikoki modu jakin batean egituratutako gizarteen ezaugarri bat da. Gizarte mota horietan aktore estrategiko guztiak erlazionatzen dira aginte erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko, arau eta prozedura formal eta informalez osatutako sistema baten arabera. Sistema horretan formulatzen dituzte beren aukerak eta strategiak»⁴.

Azkenik, Michel Coppedge-ek kontzeptua sinplifikatzen du «sistema politikoa instituzionalizatzen den neurria dela»⁵ esanez.

1.2. Ibilbide historikoa

Edonola ere, definizio abstraktuak egitea baina garrantzitsuagoa da kontzeptuaren beraren sorreraren testuinguru ematea. Adituak nahiko ados daude horretan. Honela azaltzen du Aguilera García-k:

70-eko hamarkadaren erdialdean egindako Hiru Aldeko Batzordearen txosten ezagunarekin lotzen dute (batzorde hori 1973an sortu zen eta beraren sorrera zerikusia izan zuten Chase Manhattan Bank-eko orduko presidenteak, David Rockefeller-ek eta James Carter presidentearen aholkulari izango zen Zbigniew Brzezinski-k, biak bankuekin, negozioekin eta enpresekin lotuak). Txostena 1975ean argitaratu zen eta aipatutako kategoriaren erabilera zen gai nagusia. Txosten horretarako deialdia egiteko arrazoia botere inperialaren erdialdean zein periferian azaleratzen ari ziren asaldura sakonak izan ziren, zeinak mundu mailako inperialismoaren benetako funtsa agerrarazi zuten gertakari politiko, ekonomiko eta militarren ondorio gisa azaldu baitziren. Vietnam-go gerrak, Watergate eskandaluak, 70-ko hamarkada hasieratik munduko botere gune nagusiei eragiten zien krisi ekonomikoak, ongizate estatuaren krisiak, Latinoamerikan erregimen faxistak agertzeak eta bloke sozialistaren eta ezkerreko indarren aurrerabi-

³ *Ibidem*, 1. or.

⁴ *Ibidem*, 3. or.

⁵ *Ibidem*, 3. or.

deak, inperialismoaren erdiguneko herrialdeetan egituren eta botere subjektuen zilegitasuna zalantzan jarri zuten.⁶

Beraz, —gobernagarritasuna— literaturan Hiru Aldeko Batzordearekin agertu zen, neoliberalismoaren proiektu politikoa kontzeptualki gorpuzteko eta proiektuaren akatsak konpontzeko, bereziki aurreikusi zutenean ongizate-estatua bultzatu zuen akordio sozialak porrot egingo zuela. Gaur egun, Garapenerako Nazio Batuen Programak (UNDP) honela definitzen du gobernagarritasuna: «ezarritako arau, instituzio eta praktiken markoa da, norbanakoen, erakundeen eta enpresen jokaera erregulatzeko mugak eta sustapen-neurriak finkatzen dituena». Erakunde honek onartzen du «gobernagarritasun demokratikoaren erronka gobernuen eta eskualdeko herrialdeetako gainerako aktoreen gaitasunak indartzea dela, demokrazia sakontzeko, merkatua eraginkorragoa eta lehiakorragoa bilakatzeko eta ekitate hobetzeko, giza garapenaren kontzeptuari lotu beharreko elementuak baitira»⁷. Definizio horretan kontzeptuaren ezaugarri operatiboa da nagusi, baina beti-ere sistema zehatz baten eraginkortasunari lotuta, demokrazia burgeseko sistema neoliberalari alegia, eta horren arabera, garapenaren kontzeptua berez hazkunde ekonomikoarekin dago lotuta (Barne Produktu Gordinarekin eta antzeko balorazio indizeekin).

1.3. Gaur egungo eztabaidak

Ezin dugu ahaztu terminoaren bultzatzaile nagusietako batek, Munduko Bankuak, honela definitzen duela kontzeptua: gobernu mota honetan Estatuaren eta estatu ez diren aktoreen artean kooperazio eta interakzio handiagoa dago erabaki-sare misto, publiko eta pribatuetan. Horretarako, gobernantzaren «kalitatea» neurten duten adierazle estandar batzuk bultzatzen ditu. Haien hitzetan, «Munduko Bankuak herrialde hauek eta haien aliatuak gizarte zibilaren eta emaile-komunitatearen garapenean babesten ditu, gobernagarritasun adierazle multzo bat eskainiz, ahaleginak despolitizatzen dituztenak instituzioen kalitatearen segimendua egiteko, gaitasunen trebakuntzan laguntzeko, gobernagarritasuna hobetzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko. Honako hauek dira»⁸:

⁶ AGUILERA GARCÍA, Luis, «Gobernabilidad y Gobernanza: cinco tesis a la luz del capitalismo neoliberal del siglo XXI», eskuragarri *Cuba siglo XXI* aldizkarian, La Habana, 21. alea, 2002ko iraila, eskuragarri esteka honetan: http://www.nodo50.org/cubasigloXXI/politica/aguileral_310802.htm

⁷ *Ibidem*.

⁸ Munduko Bankua, prensa-oharra 2005/454/WBI, «Banco Mundial presenta nuevo indicadores de gobernabilidad para 209 países», 2005/05/06. Hemen eskuragarri: <http://web.worldbank.org/WBSITE/EXTERNAL/BANCOMUNDIAL/NEWSSPAINISH/0,,contentMDK:20483194~pagePK:64257043~piPK:437376~theSitePK:1074568,00.html>

- *Adierazpena eta kontuak ematea*: giza eskubideak, eskubide politikoak eta zibilak neurtzen ditu.
- *Egonkortasun politikoa eta indarkeria eza*: gobernuaren aurkako indarkeria mehatxuak edo gobernuan aldaketak izateko aukera neurtzen ditu, terrorismoa barne.
- *Gobernuaren eraginkortasuna*: burokraziaren eskuduntza eta zerbitzu publikoen eskaintzaren kalitatea neurtzen ditu.
- *Errregulazioa*: merkatuaren aurkako politiken eragina neurtzen du.
- *Zuzenbide Estatuak*: kontratuen konplimentuaren, poliziaren eta justiziaren kalitatea neurtzen du, independentzia judiziala eta krimenaren eragina barne.

Ustelkeriaren kontrola: onura pribaturako botere publikoaren abusua neurtzen du, eskala handiko eta txikiko ustelkeria barne (baita eliteak estatuaz jabetzen diren ere).

1.4. Adibide praktiko bat

Munduko Bankuaren webguneko gobernagarritasunari eta gobernantzari buruzko estatistikei begiratu gero⁹, gobernagarritasun indize altuenak (edo onenak) dituzten herrialdeak Mendebaldeko herrialdeak direla ikusiko dugu. (1. Mapa)

Mapa ikustean, deigarria da Latinoamerikaren kasuan indize txarrena duten herrialdeak Kuba eta Venezuela izatea, biak AEBek aurkari politikotzat katalogatutakoak. Gainera, «Adierazpena eta kontu ematea» kategorian izatea, eskubide zibilak, politikoak eta giza eskubideak neurtzen dituen kategorian hain zuzen ere. Hala, nahiz eta Kubako sistema alderdi bakarreko demokrazia sozialista izan, eskubide zibil eta politikoak adierazten dituen demokrazia ordezkatzailerik burgesaren ereduarekin talka egiten duena; ezin dugu ahaztu Venezuelako Errepublika Bolivartarreko sistema alderdi anitzeko demokrazia ordezkatzailerik burgesa dela eta 1999ko Konstituzioaren bidez botereen banaketan are gehiago sakondu zuela, Hauteskunde-Boterea independentetzat hartuz. Alegia, logikoa izango zela estatistika horietan aurrera egitea. Kontran, nabarmentzekoa da bi herrialde horien datuak Ekuatore Ginea-ko erregimen militarren tarte berean daudela.

⁹ Ikus MBaren web orri ofizialeko estatistika atala, gobernantza indizea: <http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#reports>



2012, Voice and Accountability


1. MAPA¹⁰

Munduko gobernagarritasun adierazleen mapa orokorra. 2012. Adierazpena eta kontu ematea

Era berean, beste konparazio batzuk eginda (Munduko Bankuaren datu basean oinarrituta beti) joera berdina ikusten dugu, alegia, bi herrialde hauen kriminalizazioa. AEBren emaitzak Kubakoekin eta Venezuelakoekin alderatuta eta bestalde, Kolonbia eta Mexikoren datuak kontutan hartuta, joera nagusia Kubak eta Venezuelak indize txarrenak izatea dela ikusiko dugu (ikus 1. koadroa). Hau guztia kontutan izanda aukeratutako herrialdeak, Mexiko eta Kolonbia, indarkeria, ezegonkortasun eta ustelkeria maila esanguratsuak dituztela baina AEBen ildo politikoarekin bat datozen herrialdeak dira. Horren adierazle kooperazio militarra zein ekonomiko da, AEB-k Merkatu Libreko Itunak sinatu dituzte eta AEBren base militar handienak bertan kokatuak daude.

¹⁰ Iturria: Munduko Bankua: <http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#reports>



1. KOADROA¹¹

**Munduko Gobernagarritasun Adierazleen koadro konparatiboa.
Balore guztiak.**

FLASCO-ko Kontseilu Nagusian aurkeztutako txostena aztertuz gero, ordea, Mexikon eta Kolonbian ustelkeriaren pertzepzioa (gobernagarritasun onaren beste adierazleetako bat) Venezuelan baino handiagoa dela agertzen da (2. koadroa). Horen arabera, 2000. eta 2005. urteen artean Kolonbian eta Mexikon ustelkeriaren pertzepzioa 3,7 – 3,6 puntutan zegoen; Venezuelan aldiz 2,7 – 2,3 puntutan. Indarkeriaren datuekin gauza bera gertatzen da; izan ere, estatistiken arabera Kolonbian mila biztanleko 80,4 hilketa daude eta Venezuelan berriz 14,7¹².

¹¹ Iturria: Banco Mundial. <http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#reports>

¹² ROJAS ARAVENA, Francisco, «La Gobernabilidad en América Latina: Balance reciente y tendencias a futuro», San José, FALCSO, 2005, 17. or.

**Percepción de Corrupción en América Latina y el Caribe
(2000 – 2004)**

Pais-Año	2000	2001	2002	2003	2004
Argentina	3.5	3.5	2.8	2.5	2.5
Belice	▲	▲	▲	4.5	3.8
Bolivia	2.7	2.0	2.2	2.3	2.2
Brasil	3.9	4.0	4.0	3.9	3.9
Chile	7.4	7.5	7.5	7.4	7.4
Colombia	3.2	3.8	3.6	3.7	3.8
Costa Rica	5.4	4.5	4.5	4.3	4.9
Cuba	▲	▲	▲	4.6	3.7
Ecuador	2.6	2.3	2.2	2.2	2.4
El Salvador	4.1	3.6	3.4	3.7	4.2
Guatemala	▲	2.9	2.5	2.4	2.2
Haití	▲	▲	2.2	1.5	1.5
Honduras	▲	2.7	2.7	2.3	2.3
México	3.3	3.7	3.6	3.6	3.6
Nicaragua	▲	2.4	2.5	2.6	2.7
Panamá	▲	3.7	3.0	3.4	3.7
Paraguay	▲	▲	1.7	1.6	1.9
Perú	4.4	4.1	4.0	3.7	3.5
Surinam	▲	▲	▲	▲	4.3
Uruguay	▲	5.1	5.1	5.5	6.2
Venezuela	2.7	2.8	2.5	2.4	2.3

2. KOADROA¹³

Antzeko datuak eskaintzen dizkigu Villoria Mendieta-k *Transparency International-en* 2004rako landutako Ustelkeriaren Pertzepzio Indizean oinarrituta. «Bi herrialdek besterik ez dute 10etik 5 baino balorazio altuagoa lortu eta beraz, azterketa gainditu: Txilek eta Uruguai»¹⁴. Datu horiekin, autoreak ondorioztatzen du Latinoamerikako herrialde askotan jarraitu diren politika ekonomikoak ez direla barne eztabaida baten ondorio izan, baizik eta Munduko Diru Funtsak (MDF) nagusiki bultzatutako kanpo jazarpen bat egon

¹³ Iturria: www.globlacorruptionreport.org, www.transparency.org; 10 (ustelkeria maila txikien) eta 0 (ustelkeria maila handiena). ROJAS ARAVENA, Francisco, *La Gobernabilidad en América Latina: Balance reciente y tendencias a futuro*, San José, FALCSO, 2005, 20.or.)

¹⁴ ILLORIA MENDIETA, Manuel, «Gobernanza económica y cohesión social tras el Consenso de Washington: Institucionalidad, agenda, estrategias», 79-108 or., VIDAL BELTRÁN, José María eta PRATS i CATALÁ, Joan, *Gobernanza, diálogo euro-iberoamericano*, Madrid, Colex gaitalexea, 2005, 80. or.

dela, irizpide teknokratikoak erabiliz eta herrialde horietako instituzioak eta politika ahaztuz eta mesprextatuz egina.¹⁵

1.5. Ondorioa

Horregatik, gobernagarritasunaren inguruan gaur egun dagoen eztabaidaren testuinguruan, erreferentziatzat har genezake Jesus Pastor kubatarren definizio hau: «governagarritasunaren kontzeptuak horo har irudikatzen du agente batek sistema zuzentzearen eta kontrolatzearen duela, sistema gobernagarria eta ekintzaren aktore elementua funtsez desberdinduz»¹⁶. Horrela beraz, nabarmena da gobernagarritasuna argi eta garbi sistema jakin baten funtsezko kontraesanak moldatzeko moduagatik baldintzatuta dagoela. Gaur egun, gobernu guztien ahoetan dagoen kontzeptu honek joera kontserbadorea du, demokrazia ordezkatzaille burgesa oinarritzat hartuz. Autoreak dioen bezala:

Governagarritasuna jarduera politikoaren inguruko kontzeptu bat da, Mendebaldeko demokraziaren kanonen barruan zilegitasun handiko Estatuak «eraikitzeko» helburua adierazten duena; hain zuzuen asimilatze eta ordezkatzeko, gizarte zibilaren dibertsitatea adierazteko, gobernu jakin baten agintalditik haragoko epe luzerako politikak sortzeko gai diren estatuak. Eta horrekin guztiarekin lotuta, dinamika sozial jakin bat lortu nahi da, non aurkakotasunak gatazkarik piztu gabe konpontzen diren, krisi edo konfrontazio kaltegarriak saihestuz; dinamika sozial horretan hiritarrek gai publikoetan parte hartzeko, politika publikoak eratzeko eta horiek betetzen direla ikuskatzeko espazioak aurkituko dituzte, muga batzuen barruan.¹⁷

Oro har, sistema-mundu kapitalista hobetzea da kontua, demokrazia ordezkatzaille burgesen modelo neoliberalaren eredu hartuz. Zerbait aldatzea denak berdin jarrai dezan, gizarte zibilari protagonismoa ematea bere arazoaren konponbidea bilatzeko, baina egiturazko aldaketarik gabe. Susana Murillo-k pobrezia eta MBak honi aurre egiteko proposatzen dituen aldaketei dagokienez honela laburbiltzen du ideia hau: proposamenaren gakoa «ezparekotasuna» eta «governagarritasuna» (jabetza eskubidearen euskarriak) modu orekatuan egokitzea da, bat nagusitzen bada bestea ahultzen da eta»¹⁸. Autoreak proposamen horrek gizarte zibilean eragin zuzena duela azpimarratzen

¹⁵ *Ibidem*, 80. or.

¹⁶ GARCÍA BRIGOS, Jesús P., *Gobernabilidad y democracia: Los órganos del poder popular en Cuba*, Habana eta Caracas, Cuba siglo XXI, 2007, 25.or.

¹⁷ *Ibidem*, 27-28 or.

¹⁸ MURILLO, Susana, «La retórica posmoderna como dispositivo de control: nueva cuestión social y reconfiguración de la sociedad civil»; MURILLO, S eta SEOANE, J., *Posmodernidad y neoliberalismo. Reflexiones críticas desde los proyectos emancipatorios de América Latina*, Buenos Aires, Luxemburg argitaletxea, 2012, 5.or.

du, izan ere, Estatuarekiko paper berri bat betetzera bultzatzen dute eta baita, ondorioz, lidergo mota berriak aintzat hartzera ere. MBren adierazpenak azpimarratzen ditu:

Ezparekotasun edo ezberdintasun historiko eta instituzionalaren sustrai sakonak direla eta, ekintza soziala eta lidergo politiko erabakigarria ezinbestekoak dira. Horren ondorioz, instituzio politiko integratzaileagoak lortzeko aurrerapausoak eman beharra dago, zeren botere-organoetako ezparekotasuna horo har ezberdintasuna birsortzen duten mekanismo askoren oinarria da.¹⁹

Horrela, autorearen ustetan, 90eko hamarkada erdialdeaz geroztik, gailenduz joan da «gobernu onaren» diskurtsoa, non «Estatua, ideia horiei jarraiki, ez den agente zuzeneko agentetzat hartzen, prozesuen katalizatzaile eta bultzatzailetzat baizik»²⁰.

2. GOBERNANTZA

2.1. Definizioa

Nazio Batuek eta adituen talde batek osatutako *Gobernantza Kodearen* definizioaren arabera, latinezko *gubernare* eta grekerazko *kuberan* hitzetan du jatorria. Gobernantza, beraz, agintzeko edo gidatzeko ekintza edo modua da.²¹

Beraz, hitzaren esanahia gobernu bano zabalagoa da, aktore guztien arteko harreman eta interakzio konplexuak biltzen baititu; sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren artekoak besteak beste.²²

2.2. Ibilbide historikoa

Orain arte azpimarratu dugun bezala, *governantza* terminoa nabarmenki zabaldu da azken urteotan eta globalizazioa dela medio sortutako marko transnazional berrien testuinguruan zabaldu da gainera: gizartean parte hartzeko modu berriak, komunikabide sare berriak, teknologia berriei esker *mass mediak* zsortzea eta pertsonalizatzea, etab. Horiek guztiak gaur egun demokrazien ezaugarri dira. Testuinguru horretan jaio zen *governantza* (*governance*) terminoa, «gobernu (*government*) hitza baino harago joateko as-

¹⁹ *Ibidem*, 8.or.

²⁰ *Ibidem*, 8.or.

²¹ Ikus Nazio Batuen webgune ofiziala, Gobernantza atala, hemen eskuragarri: <http://www.un.org/es/globalissues/governance/>

²² STAVRIDIS, Steilos, et. al. (koord.), *Gobernantza global multi-nivel y multi-actor. Ejemplos de Europa, el Mediterráneo y América Latina*, Zaragoza, Zaragozako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2011, 18.or.

moarekin; izan ere, hitz hori erabaki publikoak hartzeko eredu jakin batzuekin lotzen zen, zeinak nabarmenki hierarkikoak ziren marko zaharretan agertzen baitziren»²³. Beraz, gobernantza hiru ikuspunturekin lotzen da: «governantza demokratiko»-aren helburu nagusia hiritarrek ekintza publikora hurbiltzea da; «governantza eraginkorra»-ren helburua efizientzia eta emaitza onak lortzea da (teknokrata); azkenik, «governantza ona»-k merkatuen funtzionamendu eraginkorra bermatuko duten marko instituzionalak bultzatzen ditu, garapena errazteko eta kapital soziala sortzeko helburuarekin.²⁴ Azken bertsio hori Munduko Bankuaren ikuspuntua da. Horrela, gobernantzaren ardatzak edo esparruak hauek dira:²⁵

Instituzio politikoak.

Zuzenbide Estatua.

Merkatuen funtzionamendu egokia bermatzen duten instituzioak.

Gestio publikoa.

Gizarte zibila.

Zenbait adituren arabera, herrialde bateko gobernantzaren kalitatea bere gizarte zibilarekin lotuta dago, hura kapital sozial gisa ulertuta. Horrela deitzen zaie herritarren parte-hartze zibikorako sareei. Baina bi oinarritzko premisa nabarmentzen dira kapital sozial hori kontuan hartzeko:²⁶

Horizontalak dira. Ez dute inolako subordinaziorik.

Lotura ahuletan —*weak ties*— oinarritzen dira lotura indartsuetan (esaterako, ahaidetasunean, ideologian edo taldearen interes ekonomikoan) oinarritu beharrean. Beraz, elkarte altruistak, boluntario sozialak, ekintzaile zibikoak, klubak eta bestelako erakunde artistiko edo kulturalak dira; ez ordea familiak, elizak, alderdiak edo sindikatuak.

Governantza zentzu honetan erabili eta definitzen da: «kontrol hierarkiakoaren eruditik aldentzen den gobernatzeko modu berri bat adierazteko frekuentzia (—tresna—), modu kooperatiboago bat non aktore estatal eta ez estatalek sare misto publiko-pribatuetan parte hartzen duten»²⁷. Errealitatea ordea bestelakoa da, izan ere, aktore ez estatal pribatuen parte-hartzea aipatzean, gehien bat enpresa buruei egiten zaie erreferentzia. Horregatik, gobernantzaren erronka demokratikoa, Nicolas Sartorius-ek planteatzen duen bezala, hauxe da:

²³ LONGO, Francisco, «Los principales atributos de la gobernanza en las democracias avanzadas», *Think Tank* izeneko 9. topaketan emandako hitzaldia, *El papel a jugar por Euskadi en la globalización*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2009, 10.or.

²⁴ *Ibidem*, 13.or.

²⁵ *Ibidem*, 15.or.

²⁶ *Ibidem*, 24-25or.

²⁷ CERILLO i MARTÍNEZ, Agustí, «La Gobernanza hoy: Introducción», CERILLO i MARTÍNEZ, Agustí *La gobernanza hoy: 10 textos de referencia*, Madrid, Administrazio Publikorako Institutu Nazionala, 2005, 12.or.

Garapenerako zuzendaritza bat bermatzeko, sektore publikoaren nagusitasunak sostengatuta egon behar du sistema politiko demokratikoetan, hori baita hiritarrek boterea kontrolatzeko eta gehiengoaren interesa interes partikularri gailentzeko modu bakarra. Beraz, gobernantza global progresistak ezingo luke funtzionatu giza eskubideen aldeko etengabeko borrokarik gabe eta instituzio globalen eta gobernu nazionalen demokratizazioa aldarrikatu gabe. Boterea (ahalduntzea) hautetsitako instituzioetan kokatzea eta jardura politikorako erdigune gisa berreskuratzea beste pauso bat da norabide berean.²⁸

2.3. Egungo eztabaida adibide praktiko baten bidez. Kogobernantzatik kogobernaketara

Aztertu dugun bezala, gobernantza instituzio publiko nahiz pribatuek (gizarte zibila ere tartean, kapital sozial gisa definituta) elkarrekin lan egiteko duten gaitasuna da. Horregatik, Jan Kooiman-ek eta beste autore batzuek «*Kogobernantza*» terminoa proposatzen dute, «governuen helburuetarako interakzio molde antolatutak erabiltzean datzana. Gobernuan, esparru soziopolitikoan, gobernu horizontalerako funtsezko formak dira: aktoreak elkarlanean aritzen, koordinatzen eta harremanetan jartzen dira gobernu aktore nagusia izan gabe»²⁹. Horrela, autoreak koordinazioa, kooperazioa eta antzeko kontzeptuak hartzen ditu kontuan beti, «ko-» aurrizkidun interakzio sozialak gobernu molde gisa aztertzeko, ezinbestekoa iruditzen zaio zubi teoriko bat ezartzea «ko» antolakuntza sozialeko mailen artean: «ko» mikro, meso eta makro³⁰:

«Ko-» mikro: kolaborazioaren kontzeptua hartuko dugula planteatzen du. Kontzeptu hau aktoreen artean garatzen den interakzio bat da, non maila intenzionalean aktoreak indibidualak diren eta maila estrukturalen, antolakuntza akordio formal bat dagoen edo lan taldetzat hartzen diren.

«Ko-» meso: *koordinazio* hitza nabarmentzen da interakzio sozialen erdiko mailan, non aktoreak erakundeak diren: «gauzak elkarrekin egitearen» maila intenzionala alde biko akordioetan edo akordio aldeaniztunetan adierazten da, erakundearen barnean edo erakundeen artean, eta interakzio sozial horien maila estrukturala bereizkuntza sozialaren sektore edo azpisektoreetan agertzen da.

«Ko-» makro: Estatuaren eta merkatuaren, hierarkien, sareen eta abarren artean koordinazio moduko bat dago. Hemen, instituzio sozialetako interakzio maila intenzionala maila zabalago bat da, non merkatuko aktoreak (industriak esaterako) gobernuarekin negoziatzen aritzen diren; interakzio horien

²⁸ SARTORIUS, Nicolas (dir.), *Una nueva gobernanza global: propuestas para el debate*, Madrid, Fundación Alternativas, 2010, 141. or.

²⁹ KOIMAN, Lan, «Gobernar en gobernanza», 57-81 or., CERILLO I MARTÍNEZ, Agustí (Coord.), *op. cit.*, 66. or.

³⁰ *Ibidem*, 67.or.

maila estrukturalak esparru nazional ez gain, nazioarteko esparruak ere hartzen ditu; besteak beste, itunak, akordio globalak, globalizazioa, nazioarteko zuzenbidea edo antzeko prozesuak.

Modelo horren barruan, eredu gisa nabarmentzekoa da Ameriketarako Bolibartar Alternatibako Mugimendu Sozialen Kontseilua (CMS-ALBA)³¹, alegia, ALBA-TPC³² izenez ezagutzen den Latinoamerikako erakunde bolibartarrean antolatuta dagoen gizarte zibilaren inizatibak eta parte hartzea barne biltzen duen egitura.

³¹ Mugimendu Sozialen Kontseilua Ameriketarako Bolibartar Alternatiba-Herrien Merkataritza Ituna (ALBA-TCP) erakundearen integrazio eta parte-hartze sozial zuzena errazteko mekanismo nagusia da, espazio antiimperialista eta antineoliberal da, segurtasun sozial eta alaitasun maila altuagoa lortzeko lan egiteko konpromisoa duena, naturarekin, justizia sozialarekin eta herrien benetako burujabetzarekin armonia mantenduz. Bere helburua ALBA-TCPko herrialdeetako Mugimendu Sozialak artikulatzea da, baita erakundearen osatzen ez duten herrialdeetako ere, saiakera honekin identifikatuz gero eta ALBA-TCP prozesua zabaldu eta garatzeko ekarpenak egiteko baldintzarekin. (ALBAren VI Goi Bilerako adierazpena, 2008). Ikus: VÁZQUEZ PUENTE, Unai, «Los Movimientos Sociales Globales en América Latina y El Caribe», *Hegoa Lan Koadernoak*, 63. alea, 2014, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV), 20.or.

³² 2004ko apirilaren 14ean Venezuelako Errepublikako Bolibartarreko Presidenteak eta Kubako Estatu Kontseiluko Presidenteak akordio bat sinatu zuten Ameriketarako Bolibartar Alternatiba (ALBA) martxan jartzeko. Akordio honek oinarri batzuk zituen, horien artean garantzitsuenak hauek:

- *Merkataritza eta inbertitza ezin dira bere horretan helburuak izan*, garapen jasangarri bat lortzeko tresna bat baizik, izan ere, Latinoamerika eta Karibearen benetako integrazioa ezin da merkatuaren alaba itsua izan, ezta kanpo merkatuak zabaltzeko edo merkataritza berpizteko estrategia hutsa ere. Hori lortzeko, Estatuaren esku-hartze eraginkorra behar da, jarduera ekonomiko erregulatu eta koordinatzeko.
- *Eskualdeko herrialdeen integrazio energetikoa*, produktu energetikoen modu egonkorrean banatuko direla ziurtatuko duena, Latinoamerikako eta Karibeko gizartearen onurarako.

Oinarri hauek desberdintasun argi bat ezartzen dute ALCaren integrazio modeloarekin, herrien arteko elkartzasuna eta herrialdeen garapen endogenoa abiapuntutzat hartuz. ALBAk bere proiektua eta oinarriak garatzen joan da, 2006an Bolivia sartzearekin eta, Evo Morales Presidentearen proposamena jarraituz, Herrien Merkataritza Ituna (TCP) sortzearekin AEBek bultzatutako Merkataritza Askeko Itunaren alternativa gisa. Hurrengo urteetan beste herrialde batzuk sartzen dira: Nikaragua 2007an, Dominika eta Honduras 2008an eta azkenik Ekuador eta Karibeko Saint Vincent eta Grenadinak eta Antigua eta Barbudak 2009ko ekainak 24an. Horrela, integrazio espazio bolibartarrak Ameriketarako Bolibartar Alternatiba-Herrien Merkataritza Ituna izena hartzen du, ALBA-TCParen hazkunde politikoak argi uzten duelako jada benetako indar eraginkor bat dela. Izen aldaketa hau proiektuaren sendotasunaren ondorio bat da, beste proiektuarekiko (betiko porrot egin duen ALCarekiko) kontrajarrera fasea gainditu eta eskualdean eragin erreala duen bloke bihurtzearen ondorio alegia. Honen harira, Chavezek esan zuen «ALBA proposamen teoriko bat izatetik botere plataforma politiko eta geopolitiko izatera pasa dela. Topaketako erabakiak taldea aliantza politiko ekonomiko eta sozial gisa finkatu dela adierazten du, menperatzeko ahaleginen aurrean independentzia, burujabetza, autodeterminazioa, nor-tasuna eta herrien interesak babesteko helburuarekin». Ikus: VÁZQUEZ PUENTE, Unai, «La Alianza Bolivariana por los Pueblos de Nuestra América – Tratado de Comercio de los Pueblos (ALBA-TCP). Nuevo Paradigma en la era de la globalización. Más allá de la integración económica», UGALDE ZUBIRI, Alexander, *América Latina en la turbulencia global: Oportunidades, amenazas y desafíos*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2013, 439-452 or.

Eredu edo kasu horren ezaugarri berritzailea hurrengoa da:

Normalean, edozein erakunde edo mugimendu soziala, gizarte zibilaren parte den heinean MBak proposatutako gobernantzaren arabera *meso* mailan kokatua egon beharko litzake. Baina CMS-ALBAren kasuan nabarmena da *makro* mailan ere eragina duela, Estatuarekin eta ALBA-TPC bezalako Erakunde Internazionalekin erlazio eta konexio zuzena duelako. Nabarmen-tzekoa da ALBAren Gizarte Mugimenduetako Kontseiluak, antolakuntza eta egitura mailan, Ministro Kontseiluaren parean kokatzen dela eta organigra-man gainetik Presidenteen Gailurra besterik ez duela.

Beraz, orian arteko esperientzietatik haratago doan «*kogobernantza*» mota bat da, paradigma berri bat planteatzen duena non garrantzitsuena ez da merkatuekiko harremana, gizarte zibil antolatuarekiko harremana baizik. Ko-gobernantza forma hau Foucault-en «gubernutasunaren» (*Governmentality*) planteamenduari hurbiltzen da: «helburutzat biztanleria, forma nagusitzat jakintza, ekonomia eta politika, eta funtsezko tresna teknikitzat segurtasun tresnak dituen botere mota zehatz, konplexu hau ezartzeko beharrezkoak diren instituzioek, prozesuek, analisiak, gogoetek, kalkuluek eta praktikek osatutako kontzeptua da.»³³. Bilatzen dena, beraz, eredu berri bat da. Guzzini-k dioen bezala, antolaketa, koordinazio eta botere politiko mota honen ondorio nagusia «biztanleriak eta aktoreek orokorrean, neurri andi batean, ez dutela instituzio zapaltzaileen beharrik eta hauek desagertzen ez diren arren, haien eragina asko gutxitzen dela izango litzateke. Egunerokotasuneko erabakien autorregulazioaren eta autokontrolaren aurrean egongo ginateke eta, beraz, pertsonak modu kontziente eta boluntario batean hartuko lukete parte sisteman, haren zilegitasuna inolaz ere zalantzan jarri gabe, haien jokaera moldatuz eta sistema hori etengabe erreproduzitzen»³⁴. Baliteke planteamendu hau idealista xamarra izatea (edo maximalistegia), inklusio Estatuaren beharra gainditu nahi duten planteamendu anarkistekin eta komunistekin alderagarria. Baina agerikoa da ere CSM-ALBA irekitako espazioan gizarte zibil antolatuak «modu kontziente eta boluntario batean hartzen duela parte sisteman, haren zilegitasuna inolaz ere zalantzan jarri gabe, haien jokaera moldatuz eta sistema hori etengabe erreproduzitzen», ikuspuntu kritikoa gutxietsi gabe.

Ondorio gisa, esan dezakegu eredu berritzaile baten aurrean gaudela Isabel Rauber-ek horrela ulertzen duena: «Ko-bobernaketa gizarte zibil antolatuaren, gobernuen eta nazioarteko erakundearen arteko *ko-gobernaketa* da». Autorearentzat, Estatuaren eta gobernuen ateak irekitzen dira gizartearen gehiengoaren parte-hartzeari, erabakiak hartzeko, hauek indarrean jartzeko

³³ FOUCAULT, «La Gubernamentalidad» *Estética, ética y hermenéutica*, Barcelona, paidós, 1999, 195.or.

³⁴ GUZZINI, Stefano y NEUMANN, Iver B., *The diffusion of power in global governance: international political economy meets Foucault*, London, matter and selección Argentina, 2012, 21-22 or.

eta emaitzak ikuskatzeko, eraketa politikoak eta gobernuko zein estatuko instituzioen oinarri juridikoen eraldaketak ahalbideratuz».³⁵ Gizarte zibil antolatuentzat eta zehazki gizarte mugimenduentzat, haiek aldarrikatu eta erai-akitakoaren erantzukizuna hartzea esan nahi du honek (ko-gobernantza-k), alegia, gobernantzaren protagonista zentral gisa aritzea, hau da, elkarrekin gobernatzea. Azken finean, autoreak azpimarratzen duen bezala, «norberaren boterea artikulatu eta eraikitzekeo prozesu kolektiboak sakontzea, aldi berean Estatuaren eta gobernuaren espazioak eraldatuz eta kapitalaren botere hegemonikoarekin lehia sakonduz»³⁶, hasieran zehaztu dugun bezala, gobernagarritasuna eta gobernantza terminoen bultzatzailea dena.

BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTUEN ITURRIAK

- AGUILERA GARCÍA, Luis, «Gobernabilidad y Gobernanza: cinco tesis a la luz del capitalismo neoliberal del siglo XXI», eskuragarri *Cuba siglo XXI* aldizkarian, La Habana, 21. alea, 2002ko iraila. Hemen esteka: http://www.nodo50.org/cuba-sigloXXI/politica/aguilera1_310802.htm
- CERILLO I MARTÍNEZ, Agustí, «La Gobernanza hoy: Introducción», CERILLO I MARTÍNEZ, Agustí *La gobernanza hoy: 10 textos de referencia*, Madrid, Instituto Nacional de Administración Pública, 2005.
- FOUCAULT, «La Gubernamentalidad», *Estética, ética y hermeneútica*, Barcelona, paidós, 1999.
- GARCÍA BRIGOS, Jesús P., *Gobernabilidad y democracia: Los órganos del poder popular en Cuba*, Habana eta Caracas, Cuba siglo XXI, 2007.
- GUZZINI, Stefano y NEUMANN, Iver B., *The diffusion of power in global governance: international political economy meets Foucault*, Londres, matter and selection argitaletxea, 2012.
- KOIMAN, Lan, «Gobernar en gobernanza», 57-81 or., CERILLO I MARTÍNEZ, Agustí (Coord.), *La gobernanza hoy: 10 textos de referencia*, Madrid, Instituto Nacional de Administración Pública, 2005.
- LONGO, Francisco, «Los principales atributos de la gobernanza en las democracias avanzadas», *Think Tank* izeneko 9. Topaketan emandako hitzaldia, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- MAYORGA, Fernando eta CÓDOVA, Eduardo, «Gobernabilidad y Gobernanza en América Latina», *Working Paper NCCR Norte-Sur IP8*, Geneva, 2007, p.1.
- Munduko Bankua, prensa oharra 2005/454/WBI, «Banco Mundial presenta nuevo indicadores de gobernabilidad para 209 países», 09/05/2005, eskuragarri hemen: <http://web.worldbank.org/WBSITE/EXTERNAL/BANCOMUNDIAL/NEWSSPANSISH/0,,contentMDK:20483194~pagePK:64257043~piPK:437376~theSitePK:1074568,00.html>

³⁵ RAUBER, Isabel, *Revoluciones desde abajo, gobiernos populares y cambio social en Latinoamérica*, La Paz, FBDM Alderdi Anitzeko Demokraziarako Fundazio Bolibartarra, 2011, 3. edizioa, 212.or.

³⁶ *Ibidem*, 215.or.

- Munduko Gobernagarritasun Adierazleen koadro konparatiboa. Balore guztiak. Iturria: Munduko Bankua. <http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#reports>
- Munduko Gobernagarritasun Adierazleen mapa orokorra. 2012. Adierazpena eta Kontuak Ematea, Iturria: Munduko Bankua: <http://info.worldbank.org/governance/wgi/index.aspx#reports>
- MURILLO, Susana, «La retórica posmoderna como dispositivo de control: nueva cuestión social y reconfiguración de la sociedad civil»; MURILLO, S eta SEOANE, J., *Posmodernidad y neoliberalismo. Reflexiones críticas desde los proyectos emancipatorios de América Latina*, Buenos Aires, ed. Luxemburg, 2012.
- Nazio Batuak (web orri ofiziala), Gobernantza atala, eskuragarri hemen: <http://www.un.org/es/globalissues/governance/>
- RAUBER, Isabel, *Revoluciones desde abajo, gobiernos populares y cambio social en Latinoamérica*, La Paz, FBDM Fundación Boliviana para la Democracia Multipartidaria, 2011, 3. edizioa.
- ROJAS ARAVENA, Francisco, «La Gobernabilidad en América Latina: Balance reciente y tendencias a futuro», San José, FALCSO, 2005.
- SARTORIUS, Nicolas (dir.), *Una nueva gobernanza global: propuestas para el debate*, Madrid, Fundación Alternativas, 2010.
- STAVRIDIS, Steilos, et. al. (Coord.), *Gobernanza global multi-nivel y multi-actor. Ejemplos de Europa, el Mediterráneo y América Latina*, Zaragoza, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Zaragoza, 2011.
- VÁZQUEZ PUENTE, Unai, «Los Movimientos Sociales Globales en América Latina y El Caribe», *Hegoa Lan koadernoak*, n.º 63, 2014, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).
- VÁZQUEZ PUENTE, Unai, «La Alianza Bolivariana por los Pueblos de Nuestra América – Tratado de Comercio de los Pueblos (ALBA-TCP). Nuevo Paradigma en la era de la globalización. Más allá de la integración económica», UGALDE ZUBIRI, Alexander, *América Latina en la turbulencia global: Oportunidades, amenazas y desafíos*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2013, 439-452 or.
- VILLORIA MENDIETA, Manuel, «Gobernanza económica y cohesión social tras el Consenso de Washington: Institucionalidad, agenda, estrategias», 79-108 or., VIDAL BELTRÁN, José María eta PRATS I CATALÁ, Joan, *Gobernanza, diálogo euro-iberoamericano*, Madrid, Colex argitaletxea, 2005.

13.

Autodeterminazio Eskubidea

ENEKO COMPAINS SILVA

Munduko mapa politikoa —alegia, mundua Estatutan banatzen duen mapa— ez da zerbait aldaezina. Are gehiago, errealtateari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Estatu berrien sorkuntza gaurdaino etenik izan ez duen fenomeno bat dela. Azkeneko adibidea Hego Sudan dugu, 2011ko uztailaren 9an independentzia aldarrikatu zuena eta gaur egun munduan dagoen Estatu subiranorik gazteenaren «titulua» duena. Baina ez da azken urteetan ikusi dugun adibide bakarra, eta seguruenik, gainera, adibide berriak ikusteko parada izango dugu etorkizunean. Zergatik?

Batetik oraindik ere munduan badirelako deskolonizazio-prozesua gauzatzeke duten lurraldeak.¹ Nazio Batuen Erakundeak *lurralde ez-autonomo* gisa izendatuak dituen lurraldeak dira horiek, eta, Nazioarteko Zuzenbideari jarraikiz, autodeterminazio-eskubidearen jabe lirateke. Hortaz, horietakoren batek hurrengo urteetan independentzia politikoa eskuratzea ez litzateke guztiz harrigarria izango.

Bestetik, gainera, autodeterminazio-eskubidean oinarririk izan ez arren, sezesio-prozesu berriak martxan nola jarri diren ikusten ari garelako munduko zenbait tokitan, baita Europaren bihotzean ere (Eskozia eta Katalunia kasu). Ez dakigu prozesu horien bidez sezesiorik gauzatuko den ala ez, baina bistan da gaia egunerokora ekarri dutela.

Zer dira zehazki autodeterminazioa eta sezesioa? Nori dagozkie? Nola gauzatzen dira? Galdera horiei erantzutea izango da hurrengo lerroen zioa.

1. DEFINIZIOA

Autodeterminazioa, definizioz, herri orok, kanpoko esku-hartzerik gabe eta berdintasun-printzipioa oinarri, bere gobernu forma erabakitzeko, bere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bilatzeko eta bere burua libreki egituratzeko duen eskubidea da, eta nazioarteko zuzenbideak arau askotan jasoa du.

¹ Badia Martí-k 16 lurralde zerrendatzen ditu. BADIA MARTÍ, Anna M., «Planteamientos actuales político-jurídicos en torno al derecho a la autodeterminación de los pueblos», in: CASANAS, Joan, *La autodeterminación de los pueblos*, Icaria, Bartzelona, 2008, 91.-92. or.

Sezesioa, bestalde, herri bat bere jatorrizko estatutik bereizteko ekintza edo prozesua litzateke. Hau da, herrialde bateko populazioaren zati bat eta lur-eremu bat bereiztea, izan Estatu independente bat sortzeko, izan beste batean integratzeko. Beraren oinarrian, askotariko arrazoi politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak daude,² eta gehienetan Estatuen barne-aferatzat hartu ohi dira (alegia, ez da Nazioarteko Zuzenbidean arautzen).

2. IBILBIDE HISTORIKOA

Autodeterminazioaren ideari buruzko lehen aipamenak marxismoaren mundutik etorri baziren ere,³ eskuarki Woodrow Wilson Estatu Batuetako presidenteari egozten zaio ideia horren aitatasuna. 1919. urtea zen. Lehen Mundu Gerra bukatu berritan, Kongresuaren aurrean egindako diskurtso batean, bakerako 14 puntu aurkeztu zituen, Europa berreraikitze eta gerra berriak ekiditeko. Tartean, «nazionalitateen printzipioa» aipatu zuen, zeinaren arabera nazio orok bere Estatua izateko eskubidea izango baitzuen.⁴ Printzipio horren arabera jaioko ziren, esaterako, handik denbora batera Txekoslovakia eta Jugoslavia.

Baina hasierako garai haietan, argi gera dadila, Wilson presidenteak formulatutako ideia printzipio politiko bat besterik ez zen, balio juridiko loteslerik gabekoa. Eta, gauzak horrela, muga-aldaketa gehienak, oraindik, interes ekonomiko, politiko edo geostrategiko hutsengatik egin ziren; batzuetan, gainera, tratatu sekretuen bidez. Hamabi herri-galdeketa egin ziren soilik, irabazleek erreklamatzan ez zituzten lur-eremuetan gainera.⁵ Eta ge-

² Sezesionismoaren definizioa eta arrazoiak inork baino sakonago aztertu ditu Jason Sorens-ek. SORENS, Jason, *Secessionism, Identity, Interest and Strategy*, McGill-Queen's University Press, Quebec (Kanada), 2012, 52.-74. or.

³ Marxek eta Engelsek, adibidez, ideia horri heldu zioten XIX. mendean, Poloniako eta Irlandako arazo nazionaleri aterabidea emateko bitarteko gisa, betiere klase-ikuspegi batetik, langileriarentzat onuragarria zelakoan. Eta Lenin izan zen, XX. mendearen hasieran, mundu mailako lehen liderra teoria politiko orokor batean printzipio hau garatzen. Honela irakur daiteke beraren lanetariko batean: «*En la práctica, teniendo en cuenta la correlación objetiva de las clases en Rusia, la renuncia a defender el derecho de autodeterminación equivale al peor oportunismo [...]. Semejante Estado de cosas plantea al proletariado de Rusia una tarea doble, o mejor dicho, bilateral: luchar contra todo nacionalismo y, en primer término, contra el nacionalismo ruso; reconocer no solo la completa igualdad de derechos de todas las naciones en general, sino también la igualdad de derechos respecto a la edificación estatal, es decir, el derecho de las naciones a la autodeterminación, a la separación*». LENIN, Vladimir Ilich, *El derecho de las naciones a la autodeterminación*, De Barris, Barcelona, 2000, 137. eta 140. or.

⁴ Haren ustez ez zegoen ezer demokratikoagorik «existentzia ukatzen zieten herriei hitza ematea baino». SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y la Autodeterminación*, Erein, Donostia, 2001, 26. or.

⁵ OBIETA CHALBAUD, José A., *El derecho de autodeterminación de los pueblos: un estudio interdisciplinar de derechos humanos*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1980, 15. or.

rraren amaieraren ziurtagiri izandako *Versailleseko Itunak* indarrean jarri zuen Estatu-sisteman Estatu batzuk desagertutako inperio zaharrak bezain plurinazionalak ziren.

Nazioen Sozietatea⁶ eratzeko hitzarmenean⁷ berdin gertatu zen: ez zuen nazionalitateen printzipioa jaso, eta, aitzitik, lurralde-osotasunaren printzipioa babestu zuen.⁸

Gaia nolabait bazter utzi zen Bigarren Mundu Gerraren amaierara arte. Orduan bai, nazioarteko dokumentu batzuetan islatzen hasi zen determinazio askearen printzipioa. Hala nola, *Gutun Atlantikoan*, non, Churchillek eta Roosevelt-ek sinaturik (Erresuma Batuko lehen ministroa eta AEBko presidentea ziren hurrenez hurren), indar nazionalsozialista eta faxistek menderatutako herrientzat aipatutako printzipioa aurreikus-ten baitzen. Edo *Nazio Batuen Gutunean*⁹ bertan, non autodeterminazioa, printzipio orokor gisa jaso baitzen, bi artikulutan gainera (1.2 eta 55. artikulua).

Edonola ere, oraindik ezin zen benetako eskubide batez hitz egin,¹⁰ eta gatazka, gainera, pizturik zegoen deskolonizazio-prozesua autodeterminazioa oinarri egin nahi zutenen eta prozesu hura balaztatzeko autodeterminaziori izaera juridikoa ukatzen ziotenen artean.¹¹

Bide horretan funtsezko urratsak 1960. eta 1961. urteetan egin ziren. 1960an, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen *Deskolonizazioaren Gutuna* esango zitzaion 1514 (XV) Ebazpena, «*herri kolonialei independentzia ematearen ingurukoa*». Han, bigarren paragrafoan, oso argi mintzatzen zen: «*Herri guztiak dute libreki determinatzeko eskubidea. Eskubide honetan oinarrituz libreki ezartzen dute beren kondizio politikoa, eta, era berean, beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala hornitzen dute*».¹²

⁶ Nazioen Sozietatea Nazio Batuen Erakundearen aurrekari zuzena da.

⁷ Gaztelaniaz, «Pacto de la Sociedad de Naciones». *Ikus*: http://ocw.uc3m.es/periodismo/periodismo-internacional-ii/lecturas/leccion-7/Pacto_de_la_Sociedad_de_Naciones.pdf

⁸ Remiro Brotóns-ek dio Sobietar Batasuna eta AEB Nazioen Sozietatearen sortzaile ez izateak autodeterminazio-printzipioa alboratzea ahalbidetu ziela Europako potentzietei. REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste.), *Derecho Internacional*, McGraw Hill, Madrid, 1997, 107. or.

⁹ Gaztelaniaz, «Carta de Naciones Unidas». *Ikus*: <http://dudh.es/carta-de-las-naciones-unidas/>

¹⁰ Remiro Brotónsek, adibidez, nabarmentzen du Gutunak ez zituela egoera kolonialak SESBk eta AEBk nahi bezala konpondu. REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste), *Derecho Internacional, op. cit.*, 108. or.

¹¹ *Ibid.*, 110. or.

¹² Gaztelaniaz: «Declaración sobre la concesión de la independencia a los países y pueblos coloniales. Resolución 1514(XV) de la Asamblea General de Naciones Unidas.

Ikus: <http://www.un.org/es/decolonization/declaration.shtml>

Hurrengo egunean onartuko zen 1541(XV) Ebazpenarekin¹³ eta urtebete geroago onartutako 1654(XVI)¹⁴ Ebazpenarekin osatuko zen deskolonizazio-prozesuaren diseinu juridikoa, autodeterminazioa zer lurralderi zegokien eta zer helburu zuen zehaztuz, eta ebatzitakoa betetzeko organo bat sortuz.

Argi zegoen zeini zegokien: herrialde kolonialei egiten ari zitzairen erreferentzia (fideikomisoei eta lurralde ez-autonomoei). Autodeterminazioaren helburuei dagokienez, hasierakoak zabaldu ziren, eta, horrela, lehen ebazpena independentziaz soilik mintzatu bazen ere, bigarrenak asoziazio askeari eta integrazioari zabaldu zizkien atak, betiere herrien erabaki librean oinarrituak baziren. Prozesu guztia bideratzeko, hirugarren ebazpenak komite berezi bat izendatu zuen (24en komitea deitua), hurrengo urteetan deskolonizazioa sustatu eta kontrolatu zuena.¹⁵

Ezbairik gabe, horiek oso urrats garrantzitsuak izan ziren, baina ikuspegi juridiko huts batetik, oraindik urrats mugatuak ziren, adierazpen hutsa baitzen deskolonizazioaren gutuna. Eskubideari egiten zitzaion erreferentzia, oraindik ere, printzipioetan oinarritutako jarrera bat zen. Baina kontua da hurrengo urteetan harreman «sinbiotiko» bat gertatu zela deskolonizazio-prozesuaren eta autodeterminazioaren printzipioaren artean. Remiro Brotonsek dioen bezala, printzipioak deskolonizazioa errazten zuen; eta deskolonizazioak printzipioa juridikoki eratu eta finkatu zuen.¹⁶

Gauzak horrela, 1966an, autodeterminazioa eskubide gisa finkatzeko funtsezko bi hitzarmen adostu ziren Nazio Batuen Erakundearen barruan: *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko hitzarmena* eta *Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmena*.¹⁷ Berez, ez zioten autodeterminazioaren definizioari ezer berririk gehitu, baina esan liteke aurrez printzipio gisa jasotzen zena eskubide bilakatu zutela. Horretarako, bi tratatuetan, modu berean jaso zen autodeterminazio-eskubidea, baita lehen artikuluan jaso ere, gaiak zuen garrantziaren adierazgarri.

Eta ibilbide horretan, handik urte gutxitara, beste urrats erabakigarri bat egin zen, *Estatuen laguntasun- eta kooperazio-harremanetarako printzipioei*

¹³ Gaztelaniaz: «Principios que deben servir de guía a los Estados miembros para determinar si existe o no la obligación de transmitir la información que se pide en el inciso e del Artículo 73 de la Carta. Resolución 1541(XV) de la Asamblea General de Naciones Unidas». *Ikus*: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/1541\(XV\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/1541(XV))

¹⁴ Gaztelaniaz: Resolución de la Asamblea General por el que se establece el Comité Especial de descolonización. Resolución 1654(XVI) de la Asamblea General de Naciones Unidas. *Ikus*: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/1654\(XVI\)%20](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/1654(XVI)%20)

¹⁵ REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste), *Derecho Internacional, op. cit.*, 110.-111. or.

¹⁶ *Ibid.*, 109. or.

¹⁷ Gaztelaniaz: «Pacto Internacional de derechos civiles y políticos» eta «Pacto Internacional de Derechos económicos, sociales y culturales». *Ikus*: <http://www.migracion.gob.bo/web/upload/ddhh6.pdf> eta http://www.sipi.siteal.org/sites/default/files/sipi_file_file/p5_pactint_derechos_economicos_sociales_culturales.pdf

buruzko adierazpena sinatzean, 2625 (XXV) Ebazpena.¹⁸ Han, berdintasunaren ideiarri loturik, autodeterminazioaren kontzeptua garatu zen.

Orduz geroztik, hainbat adierazpen eta dokumentutan jaso da, eta uni-bertsalki onartutako eskubideak eta nazioarteko legedia garatzeko inspirazio-iturri bilakatu da.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK: AUTODETERMINAZIOAREN EDUKIA

Autodeterminazio-eskubidearen edukiari dagokionez, nazioarteko araudian hitzez hitz jaso denari erreparatzen badiogu, bi eskumen biltzen dituela ondoriozta dezakegu. Batetik, norbere estatus politikoa askatasunez erabakitzeko ahalmena; eta, bestetik, norbere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala hornitzeko ahalmena.

Aipatzekoa da Wilson presidenteak lehenbizikoz ideia formulatu zue-nean antzeko ideiak zituela buruan.¹⁹ Herriek, beraren iritzian, aukera izan behar zuten beren gobernu forma erabakitzeko eta herri gisa baztertu edo zapalduko ez zituen gobernu demokratiko batean ordezkaturik egoteko. Herri guztiek izan behar zuten (Estatua eduki ala ez) ordezkapenezko gobernu bat izateko eskubidea. Berek hautatutako agintariak izan behar zituzten, era demokratikoan ordezkatzeko zituztenak, hala beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bermatzeko. Azken batean, ordezkari-tza-sistema demokratiko bat izateko eskubideaz ari zen XX. mende hasieran AEBko presidente izan zena. Baina horrekin batera, zioen, herriek kanpoko edozein uztarritatik libre behar zuten egon. Hau da, herri guztiei zegokien erabakitzea zein subiranoren pean bizi nahi zuten.

Bada, aurreko ikuspegiarekin bat eginik, eskuarki, autodeterminazioak bi alde dituela esan ohi da. Barne-autodeterminazioa eta kanpo-autodeterminazioa. Barne-autodeterminazioa gobernu demokratiko eta ordezkatzailerik izateko eskumena litzateke, herri guztiei dagokiena. Kanpo-autodeterminazioa, berriz, jatorrizko Estatuarekin zer harreman mota izan nahi duen erabakitzeko eskumena litzateke,²⁰ eta, ikuspegi bat baino gehiago dauden arren, doktrina iusinternazionalistaren gehiengoaren arabera, herri kolonialei dagokie soilik.²¹

¹⁸ Gaztelaniaz: «Declaración relativa a los principios de derecho internacional sobre las relaciones amistosas y de cooperación entre los Estados». *Ikus*: <http://dudh.es/declaracion-sobre-los-principios-de-derecho-internacional-referentes-a-las-relaciones-de-amistad-y-a-la-cooperacion-entre-los-estados-de-conformidad-con-la-carta-de-las-naciones-unidas/>

¹⁹ SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y...*, *op. cit.*, 31. or.

²⁰ Honela dio Javier Ruipérezek: «En una primera aproximación, podemos decir que, en su significación interna, el derecho de autodeterminación aparece referido a los modos y las formas en que el Pueblo del Estado va a ser gobernado. Por el contrario, desde la perspectiva exterior, aquél se traduce en el derecho de los pueblos a pertenecer al Estado de su elección». RUIPÉREZ, Javier, *Constitución y Autodeterminación*, Tecnos, Madrid, 1995, 50. or.

²¹ REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste), *Derecho Internacional*, *op. cit.*, 125. or. eta hur.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

Statu quoan eragiten dituzten aldaketa sakonak direla eta, autodeterminazioa eta sezesioa oso gai eztabaidatuak dira. Hurrengo lerroen bidez, doktrinak mahaigaineratutako galdera nagusietako batzuei erantzuten ahaleginguduko gara. Edo, behinik behin, erantzun biribilik ezean, erantzun horietara hurbiltzen.

4.1. **Lehenengo galdera: Nazioarteko Zuzenbideak babesten duen Estatuaren lurralde-osotasuna muga bat da sezesioa lortu nahi duten herrientzat?**

Jakina denez, Nazioarteko Zuzenbideko arauak Estatuaren lurralde-osotasunaren printzipioa babesten dute. Horrek, lehen irakurketa batean, Nazioarteko Zuzenbideak herrien sezesio-aukerei muga jartzen diela pentsatzera eramantzen gintzake. Baina horrela al da?

Arazoa sakon aztertzen badugu, gauza batez jabetuko gara: lurralde-osotasunaren printzipioa Estatuaren betebeharra da; Estatuari dagokionez, eta ez Estatuaren azpiko entitateei edo Estatuaren baten parte diren herriei. Hau da, Estatu baten beste bati bere lurralde-osotasuna errespetatzeko eskatzen ahal dio, baina ezin du Nazioarteko Zuzenbideak biltzen duen printzipio hori baliatu bere barruan egon daitezkeen aldarrikapen sezesionistei muga jartzeko.²²

Hori da, hain zuzen ere, Nazioarteko Justizia Auzitegiak Kosovoren auzian ebatzi zuena: lurralde-osotasunaren printzipioa Estatuaren arteko harremanei eragiten ziela, eta ez sezesioa lortu nahi zuten mugimenduen (kasu hori aurrerago aztertuko da).

Horregatik, nazioarteko komunitateak askotan mugimendu sezesionistak begi onez ikusten ez dituela egia bada ere, Nazioarteko Zuzenbidea sezesioaren aurrean «neutrala» dela esan beharra dago, ez baitu ez debekatzen, ez eta onesten ere. Eta batzuen iritzian sezesioaren aurkako presuntzio bat dagoela esan baliteke ere, horrek ez du muga absoluturik ezartzen, zeren sezesioa lortzeko baliatzen den titulua edo prozeduraren arabera presuntzio hori hautsi baitaiteke.

Noiz izan daiteke benetako muga lurralde-osotasuna? Bada, sezesioa bide ez-zilegietatik lorturik bigarren Estatu baten sezesio hori onartzen duenean, orduan bai, beste Estatu baten jarriko lukeelako kolokan jatorrizko Estatuaren lurralde-osotasuna.

²² URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze juridiko-politikoa», in: AA.EE., *Euskal Estatuari bidea zabaltzen*, Ipar-Hegoa fundazioa, Euskal Herria, 2013, 59. or.

4.2. **Bigarren galdera: *Nori dagokio autodeterminazio-eskubidea? Soilik herri kolonialei? Nortaz ari da Nazioarteko Zuzenbidea «herri guzti»ek autodeterminaziorako eskubidea dutela dioenean?***

Hemen arazoaren iturburua argia da. Nazioarteko Zuzenbideak ez du zehazten «herri» kontzeptuaren definiziorik. Hurbilpen bat egiteko bai, elementu objektibo eta subjektiboak mahaigaineratu ohi dira. Lehenen artean ditugu hizkuntza propioa, kultura, arraza, lurraldea edo bizimodua; bigarrenean, berriz, nortasun propio baten kontzientzia eta hura gordezteko gogoia. Baina, esan bezala, kontzeptu iluna izaten jarraitzen du, definizio argirik gabekoa.²³ Eta, hori horrela izanik, bistan da ez dela adiera bakarreko formularik aurkituko zeinaren arabera Estatu baten parte den jendarte batek «herri» izaera duen; ez behintzat, kolonialismoaren edo inbasioen ondorioz jatorrizko Estatu baten barruan kokatu diren jendartez ari ez bagara.²⁴

Horrela, adibidez, badira autore batzuk (Zourek, Brossard, Turp...) uste dutenak, nazioarteko araudiak autodeterminaziorako murrizketarik aurreikusten ez duen neurrian, eskubide hau herri kolonialetatik harago zabaltzen dela; are gehiago, eskubideak izaera unibertsala duela eta herri guztiei dago kiela. Haien ustez, esaterako, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean edo Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jaso izanak herri kolonialetatik harago eramaten du eskubide hori.

Euskal Herrian, Urrutiak, Iñarritik, Nikolasek eta beste batzuek antzeko ikuspegia defendatzen dute. Haien iritziz, autodeterminazioa testuinguru kolonialari loturik garatzen hasi bazen ere (aplikazio-kasuak oso antzekoak izanik hasieran), gerora garapen bat izan du, Nazioarteko Zuzenbidearen printzipio nagusietariko bat bilakatzeraino, Estatu guztiek errespetatu beharrekoa testuinguru kolonialetatik harago ere.²⁵

Beren jarrera aldezteko, oso egoera ezberdinetan aplikatu dela gogoratzen dute, eta horren adibide jartzen dituzte deskolonizazioaren ondoren izandako beste hamaika prozesu, Estatu berriak ekarri dituztenak: Bangladesh; Alemaniaren bateratzea; Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna-

²³ Joan Albert Vicens-ek esaten du herria giza kolektibitate bat dela, lotura kultural, etniko eta historikoak dituen. *Nazio* hitza, *herri* hitzaren itzulpen politikoa litzateke. Baina hori esanda ez da zehaztasun handirik lortzen, eta, hori horrela izanik, *herria* kontzeptua iluna dela dio. Adibideak jartzen ditu gainera: herri katalanaz edo herri eskoziarraz hitz egiten da, baina baita herri espainolaz eta herri britainiarraz ere. Herri deitzen zaie Westfalia ereduko Estatu-nazioei (Espainia, Frantzia, Belgika, Alemania...), baina baita haien barruko nazio txikiak: Katalunia, Euskal Herria, Korsika, Flandria, Bavaria...). VICENS, Joan Albert, «Sobre el Pueblo como sujeto de derechos» in: CASAÑAS, Joan (ed.), *La autodeterminación de los pueblos*, Icaria, Bartzelona, 2008, 25.-26. or.

²⁴ SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y...*, *op. cit.*, 33. or.

²⁵ URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren...», *op. cit.*, 61.-63. or.

ren haustura; Georgian eta Azerbaijanen izandako sezesio-prozesuak (Osetia, Abjasia eta Karabakh Garaia, hurrenez hurren); Jugoslaviaren eta Txekoslovakia-aren zatiketak; Eritrearen eta Hego Sudanen independentziak...

Baina dirudienez, doktrina iusinternazionalista gehienaren iritzian, nazioarteko araudia «herri guzti»ez aritzean ez da, benetan, herri guztiez ari, baizik eta menderakuntza koloniala edo atzerriko potentzia baten menderakuntza pairatu duten herriez soilik, eta baita, kasu batzuetan, Estatu baten parte izanik, erabateko bazterketa pairatzen duten jendartez (izan giza eskubideen bortxaketa masiboa dagoelako, gobernu ordezkatzailerik ez dagoelako, eta abar).²⁶

Adibide gisa, Remiro Brotónsen ikuspegia hartuko dugu; oso kritiko ageri da autodeterminazio-eskubidea orokortu nahi dutenekin. Beraren usuez, autore horiek autodeterminazioa nazioarteko araudian «orokortasunez» jaso dela baliatzen dute beren «kausa separatistei» mesede egiteko; halere, tratatuen irakurketa oso batek —eta testuingurua kontuan hartzeak— ez du horrelako planteamendurik babesten. Azken batean, esaten du, Nazioarteko Zuzenbidea Estatuaren emaitza da, eta ez dago pentsatzerik haiek «joera suizida»rik dutenik. Autodeterminazioa, beraz, herri kolonialei egokituko litzaike soilik (pare bat kasu salbuetsita).²⁷

Esan bezala, aho batezko erantzun bat topatzerik ez dago, zeren, praktikara joanda, doktrina nagusiaren iritziaren kontra dauden adibideak aurki daitezke. Europar Batasuneko erakundeek, esaterako (Parlamentuak bereziki), herrien autodeterminazioaren alde egin dute hainbat adierazpen eta erabakitan, bai deskolonizazio-kasuetan (Ekialdeko Timor edo Mendebaldeko Sahara), bai deskolonizaziotik kanpoko kasuetan ere (Hego Sudan edo Txetxenia).²⁸

4.3. Hirugarren galdera: *Noiz eta zeren arabera dira sezesioak zilegi?*

Orain arte gertatutako sezesio-saiakeren gainean egon diren ebazpenei erreparatzen badiegu, ez da erraza galderari erantzutea. Errazagoa, kontrako

²⁶ SOROETA LICERAS, Juan, «El Derecho Internacional y del Derecho interno canadiense ante el desafío de Quebec», *Cursos de DDHH de Donostia-San Sebastián*, 1. lib., 1999, 107.-108. or.

²⁷ REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste), *Derecho Internacional*, *op. cit.*, 125. or. eta hur. Nolanahi ere, autore honek gogorarazten du ezerk ez duela eragozten Estatu batek, barne-araudian, bere barruan bizi diren herriei autodeterminaziorako eskubidea onartzea Estatuaren batasunaren gainetik. Hori izan zen, esaterako, Jugoslaviaren kasua. *Ibid.*, 131. or.

²⁸ Adibideok Urrutiak, Iñarritik eta Nikolasek aipatutakoak dira. Dokumentuen erreferentzia gehitzen dute gainera: Ekialdeko Timor (DOC 219, 30/7/1999), Mendebaldeko Sahara (DOC 104, 14/4/1999), Hego Sudan (DOC 167, 01/06/1998), Txetxenia (DOC 17, 22/1/1996). URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren...», *op. cit.*, 74. or.

galderari erantzutea litzateke. Alegia, noiz ez litzatekeen zilegi nazioarteko komunitatearentzat sezesioa.

Eta noiz ez litzateke zilegi? Bada, printzipio demokratikoa oinarri hartzen ez denean. Hori da, adibidez, Kanadako Auzitegi Nagusiak orain urte batzuk Quebec-eko auziaz emandako epai ospetsutik ondorioztatzen dena. Edo Nazioarteko Justizia Auzitegiak Kosovoren aldebakarreko independentzia-aldarrikapenez esandakotik ondoriozta daitekeena.

Beraz, esan behar da, hutsune bat dago nazioarteko araudian, ez baita inon jasotzen sezesio-prozedura bat nola egin behar litzatekeen. Ez da, ez babesten, ez eta debekatzeko ere, eta «neutrala» dela esan daiteke.²⁹ Nolanahi ere, prozedurari lotutako muga batzuk daude:³⁰ bortxa erabiltzea, adibidez, debeku da, *ius cogens* arauen aurka egitea dakarrelako. Prozesuak, gainera, negoziatua behar du izan, eta soilik negoziazioek porrot egin dutenean zilegi litzateke aldebakartasuna. Eta, bukatzeko, ibilbide guztiak demokratikoa behar du; gehiengo argi batek erabaki behar du, bide demokratiko eta baketsuak erabilia.

4.4. **Laugarren galdera: Zeintzuk dira gaur egun independentzia lortzeko onartzen diren prozedurak?**

Nagusiki lau: batetik, oraindik deskolonizazio-prozesuei lotzen zaizkien autodeterminazio-prozesuak; bigarrenik, *remedial secession* delakoa, zein角度an, testuinguru kolonialetik kanpo, oinarritzko eskubideen bortxa sistematikoa dela-eta, herri batzuei bereizteko eskubidea onartzen baitzaie; hirugarrenik, sezesio adostua (Montenegron bezala); eta laugarrenik, aldebakarreko sezesioa, aipatutako baldintzak beteta.

Europar Batasunak sezesio-prozesuen inguruan agertutako jarrerak aipamen bat merezi du. Oro har, herriei ez die sezesio-eskubidea aitortzen, auzi horiek Estatu kideen barne-aferatzat jotzen baitira. Baina, bestetik, esan beharra dago gatazkak bideratzeko aukera sortu denean jarrera eraikitzailea izan duela, baldintza demokratikoak bultzatuz eta arauen interpretazio malgua eginez. Eta aldean arteko akordioa egon denean isiltasuna edo jarrera baikorra azaldu du.³¹ Montenegron (2006) edo Eskozian (2014) egondako galdeketen aurrean izandako jarrerak horren adierazgarri izan litezke. Eta

²⁹ Urrutiak, Iñarritik eta Nikolasek defendatzen duten ideia da, baina Sanzok berak ere onartu egiten du ideia hau, esanik nazioarteko zuzenbidean sezesioa baimendurik ez dagoela baina ezta espresuki debekaturik ere. Fenomeno sezesionistak barne-arazotzat hartuak dira, eta Nazioarteko Zuzenbideak ez du esku hartzen. SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y...*, *op. cit.*, 44. or.

³⁰ URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren...», *op. cit.*, 67. or.

³¹ *Ibid.*, 74. or.

baita, 2010ean, Kosovo Estatu gisa onartzeko Europar Parlamentuak onartutako adierazpena.

Bukatzeko, ezin azken elementu bat aipatu gabe utzi: gauza bat da arauk diotena eta beste bat errealitateak erakusten duena. Esperientzia historikoak askotan erakusten du nola arau juridikoak *de facto*ko aldaketan menpeko diren askotan, errealitate berrien menpeko. Nazioarteko araudiak, egoeraren arabera, errealitate berri bat aitortu dezake, egoera hori bera egonkortzeko urratsak zeintzuk izan diren aintzat hartu gabe. Gustatu ala ez, nazioarteko dinamikan, askotan, «indartsuenaren legea» nagusitzen da indarrean dagoen nazioarteko legediaren gainetik.³² Horren adibide izan liteke, esate baterako, 2014an Krimeako Errepublika Errusiar Federazioan integratzea.

5. ADIBIDE PRAKTIKOAK. QUEBECEKO ETA KOSOVOKO KASUAK

Kapitulu hau amaitzeko, bi sezesio-prozesu azalduko dira, amaiera desberdina izan zutenak.

5.1. Quebec

Quebec Kanadako probintzia frankofono bat da, aspaldidanik autogobernua handitzeko aldarrikapen abertzale indartsuak izan dituena. Bertan, 1980. eta 1995. urteetan, *Bloc Quebecois* koalizio nazionalistaren hauteskunde-garaipenekin batera, herri honen etorkizun politikoaren inguruko bi galdeketa antolatu ziren. Garaiko Konstituzioak eta legeek ez zutenez horrelako galdeketen inguruan ezer aipatzen, araudiaren interpretazio zabal bat eginez, ez zen arazorik ikusi haiek antolatu ahal izateko.³³

Edonola ere, aipatu behar da ez zegoela guztiz argi zein zen galdeketen irismena, erabilitako galderak, egia esateko, ez baitziren guztiz argiak izan. Ez zen zuzenean independentziaren gainean galdetzen, ezta *Estatu* hitza aipatzen ere. Kanadari asoziazio politiko eta ekonomiko berri bat eskaini ondoren Quebecen subiranotasunaz galdetzen zen; eta horrek, noski, interpretazio askorako aukera ematen zuen.

Gauzak horrela, 1996an, bigarren galdeketa egin ondotik, Kanadako Gobernuak Auzitegi Nagusiari gauzak argitzeko eskatu zion. Zehazki, aldebakarreko sezesioa Konstituzioarekin eta Nazioarteko Zuzenbidearekin bateragarria zen galdetu zuen Gobernuak, eta baita, bi zuzenbideen artean desadostasunik egotekotan, zein aplikatu behar litzatekeen. Gobernuak,

³² SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y...*, *op. cit.*, 43. or.

³³ 1980an indarrean zegoen 1867ko Konstituzioak ez zuen gaiaz ezer aipatzen, eta 1995ean indarrean zegoen 1982ko Konstituzioak ere ez.

noski, erabateko konfiantza zuen Auzitegiak sezesioari atea itxiko zizkiola,³⁴ baina ez zuen halakorik egin. 1998ko abuztuaren 20an argitaratu zuen txostenean, hainbat adierazpen mamitsu jaso zituen sezesioaren inguruan, batzuen eta besteen harridurarako.

Batetik, Auzitegiak esan zuen Quebecen bazituela herri bati dagozkion ezaugarriak; baina, hori esatearekin batera, esan zuen nazioartean jasotzen zen autodeterminaziorako eskubideak soilik ohiz kanpoko hiru kasutan zabaltzen zizkiola atea sezesioari: testuinguru kolonialean, indarrezko menderakuntza zegoenean, eta talde bati bere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala lortzeko gobernura heltzea debekatzen zitzaioenean. Auzitegiaren iritziz, hiru kasu horietan sezesioa onargarria zen, barne-autodeterminazioaren ukapena baitzegoen. Baina ez zen hori Quebecen kasua. Auzitegi Nagusiaren iritziz, Estatu demokratikoek beren lurralde-osotasuna errespetatua izateko eskubidea zuten nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik,³⁵ eta, hortaz, sezesioa ezin zen, kasu horretan, aldebakarreko erabakiz egin.

Baina, bestetik, Auzitegiak idatzita utzi zuen horrek ez zuela inolaz ere esan nahi Quebecen kasuan sezesioa ezinezkoa zenik. Auzitegiaren aburuz, erreferendum batek ez zuen, bere horretan, aldebakarreko independentzia aldarrikapena zilegi bihurtzen; baina, halere, sezesioa negoziatzeko zilegitasuna ematen zuen. Zer esan nahi zuen horrekin? Bada, Quebecen hala nahi bazuen, Kanadako Konstituzioa ezin zela sezesioa gauzatzeko muga bat izan. Auzitegi Nagusiaren ustetan, Kanadako Federazioaren parte bakoitzak aldaketa konstituzionalak susta zitzakeen, sezesioa barne, eta Kanadako gainerako probintziak hori negoziatzera beharturik zeuden. Nola bait esateko, Auzitegi Nagusia esaten ari zen Kanadako ordenamendu konstituzionalak ezin zuela ez ikusiarena egin Quebecen herritarren borondatea sezesioaren aldekoa bazen. Kotsentsua hausten bazen, berri bat bilatu beharko zen.³⁶ Eta Quebecen sezesio-akta zuzenketa konstituzional izaten ahal zen.

Hori bai, hiru baldintza bete beharko ziren sezesioa posible izateko: erreferendumean sezesioaren gaineko galdera argia egitea; sezesioaren aldeko gehiengo sozial argi bat agertzea, eta sezesio-prozesu osoa negoziatua izatea. Kanadako Estatuak azken horri uko egingo balio, orduan, eta soilik orduan, Quebecen zilegitasuna irabaziko luke independentzia aldebakartasunez aldarrikatzeko, eta Auzitegiaren aburuz, gainera, pentsatzekoa zen nazioarteko onespina lortzea errazagoa izango zela Kanadaren itxikeriaren aurrean.

³⁴ SOROETA LICERAS, Juan, «El Derecho Internacional y del Derecho interno canadiense ante el desafío de Quebec», *Cursos de DDHH de Donostia-San Sebastián*, 1. lib., 1999, 119. or.

³⁵ *Ibid.*, 124. or.

³⁶ *Ibid.*, 119. or.

Hiru baldintza horiekin, hain zuzen, *Clarity Act* delakoa onartu zuen Kanadako Kongresuak 2000. urtean, eta, horrela, Auzitegi Nagusiak finkatutakoa lege bilakatu zen herrialdean.

Gaur egun, Nazio Batuen Erakundeak, Europako Kontseiluak, Europar Batasunak eta nazioarteko beste eragile batzuek aintzat hartzen dituzte Kanadako Auzitegi Nagusiak orduan esandakoak. Eta, gainera, aplikazio praktikoa izan dutela esan liteke, zeren, kasualitatea izan ala ez, Montenegroren sezesio-prozesurako (Europar Batasunak monitorizatu zuen) irizpide horiek ezarri ziren; alegia, galdera garbia formulatzea, gehiengo garbi bat agertzea (zehazki % 55) eta prozesua Serbiaren eta Montenegroren artean adostua izatea.³⁷

5.2. Kosovo

Kosovo, European independentzia lortu duen azken Estatuak du. Serbiako probintzia autonomo zenak 2008ko otsailaren 17an aldarrikatu zuen independentzia aldebakartasunez, jatorrizko Estatuarekin inolako adostasunetara heldu gabe. Serbia, uste izatekoa zenez, ez zen besoak gurutzaturik geratu, eta Nazio Batuen Erakundeak osoko bilkuran eskatu zuen Nazioarteko Justizia Auzitegiak kasua argitu zezan iritzi aholku-emaile baten bidez. Sinetsirik zegoen Auzitegiak arrazoia eman eta aldebakarreko independentzia-aldarrikapena legez kontraktat joko zuela. Baina honek ez zuen halakorik egin.

Auzitegiak esan zuenez, Nazioarteko Zuzenbideak ez ziren inolako erreferentziarik egiten gisa horretako adierazpenei, eta, hortaz, ezin zitekeen esan hori egitea debeku zenik. Lurralde-osotasunaren printzipioa Nazioarteko Zuzenbidean jasotzen zen, bai, baina ez ziren estatuz azpiko entitateei eragiten, Estatuak baizik. Beraz, Nazioarteko Zuzenbidearen babespean, ezin zitzaion Kosovori leporatu, Estatu batzuek nahi bezala, Serbiaren lurralde-osotasunaren aurka egitea, ez baitzen Estatu bat. Eta, gauzak horrela, aldebakarreko independentzia-aldarrikapena Nazioarteko Zuzenbidearen kontrakoa ez zela iritzi zion.

Baina Auzitegiaren iritziak, esan beharra dago, debekatua ez egoteak ez zuen esan nahi Kosovo Nazioarteko Zuzenbideak ematen zion eskubide bat erabiltzen ari zenik. Nazioarteko Zuzenbidea neutrala zela besterik ez zuen gogorarazi. Eta berariazko debeku edo baimen baten faltan, gauzak egiteko moduari erreparatu behar zitzaiola. Izan ere, horrek bereizten ziotuen, Auzitegiaren iritziak, Kosovo eta beste herrialde batzuk. Horrela, Estatu batzuek oroitarazi zutenan Hego Zipreren eta Srpska Errepublikaren

³⁷ URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren...», *op. cit.*, 74. or.

aldebakarreko independentzia-adierazpenak legez kontraktotzat jo zirela, Auzitegiak argi esan zuen adierazpen horiek legez kontrako egiten zituena ez zela aldebakartasuna, bortxa erabili izana baizik. Alegia, independentzia-aldarrikapen horiek bortizkeria legez kanpo erabiliz egin ziren, *ius cogens*eko arauen aurka eginez. Horrexek bihurtzen zituen legez kanpoko.

Edonola ere, Auzitegiaren ustez, kasua *sui generis* zen. Ezin zitekeen kasu horri emandako konponbidetik, besterik gabe, arau orokorrik atera. Kasuan-kasuan ikusi behar zen. Eta hori, gerora, oso kritikatu izan da, batzuek uste zutelako bazela arau orokorrik aplikatzea. Izan ere, Kosovon eskubideen urraketa iraunkor bat gertatzen ari bazen, zergatik ez planteatu sezesioa konponbide gisa? Zergatik ez tratatu Kosovoko afera *remedial secession*eko kasu gisa, Nazio Batuen 2625(XXV) Ebazpenak bildutakoa aplikatuz? Soroeta Liceras-en ustean, esaterako, horixe litzateke konponbidetik zuzenena.³⁸

BIBLIOGRAFIA

- BADIA MARTÍ, Anna M., «Planteamientos actuales político-jurídicos en torno al derecho a la autodeterminación de los pueblos» in: CASANAS, Joan, *La autodeterminación de los pueblos*, Icaria, Bartzelona, 2008.
- LENIN, Vladimir Ilich, *El derecho de las naciones a la autodeterminación*, DeBarris, Bartzelona, 2000.
- OBIETA CHALBAUD, José A., *El derecho de autodeterminación de los pueblos: un estudio interdisciplinar de derechos humanos*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1980.
- REMIRO BROTONS, Antonio (eta beste), *Derecho Internacional*, McGraw Hill, Madril, 1997.
- RUIPÉREZ, Javier, *Constitución y Autodeterminación*, Tecnos, Madril, 1995
- SANZO, Luis, *El Pueblo Vasco y la Autodeterminación*, Erein, Donostia, 2001.
- SORENS, Jason, *Secessionism, Identity, Interest and Strategy*, McGill-Queen's University Press, Quebec (Kanada), 2012.
- SOROETA LICERAS, Juan, «El Derecho Internacional y del Derecho interno canadiense ante el desafío de Quebec», *Cursos de DDHH de Donostia-San Sebastián*, 1. lib., 1999.
- , «La opinión consultiva de la Corte Internacional de Justicia sobre Kosovo de 22 de julio de 2010: una interpretación judicial sui generis para un caso que no lo es. Aplicabilidad de la cláusula de salvaguardia de la resolución 2625(XXV) o de la «secesión como remedio»», *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 25. zk., 2013ko ekaina.

³⁸ SOROETA LICERAS, Juan, «La opinión consultiva de la Corte Internacional de Justicia sobre Kosovo de 22 de julio de 2010: una interpretación judicial sui generis para un caso que no lo es. Aplicabilidad de la cláusula de salvaguardia de la resolución 2625(XXV) o de la “secesión como remedio”», *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 25. zk., 2013ko ekaina, 18. or. eta hur.

- URRUTIA LIBARONA, Iñigo; IÑARRITU GARCÍA, Jon; NIKOLAS EZKURDIA, Zelai, «Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze juridiko-politiko», in: AA.EE., *Euskal Estatuari bidea zabaltzen*, Ipar-Hegoa fundazioa, Euskal Herria, 2013.
- VICENS, Joan Albert, «Sobre el Pueblo como sujeto de derechos» in: CASAÑAS, Joan (ed.), *La autodeterminación de los pueblos*, Icaria, Bartzelona, 2008.

14.

Gizarte Zibil Globala

ANDER GUTIÉRREZ-SOLANA JOURNOUD ETA IRATXE PEREA OZERIN

1. DEFINIZIOA

Gizarte zibilaren nozioaren sorrera, bere adiera klasikoetako edozeinetan, lurraldearen ideiekin eta muga nazionalekin lotuta egon izan da. Gizarte zibila ikertzen zen zuzenbidea sortzeko prozedura nazionaletan eragina zuelako. Hortaz, gizarte zibilaren nozioa estatu modernoekin batera garatzen hasi zen.¹

Gizarte zibil globalaren definizioa ez da aho batekoa, eta, askotan, ikuspegi kontrajarriekin aurkezten da. Agian, ez da beharrezkoa, ezta komenigarria ere, adiera itxia ematea; izan ere, etengabeko bilakaeran ari den ikerketa-arlo bat da, eta zaila da definizio bakar bati lotzea.²

Ildo horretan, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) dokumentuetan kontzeptu hori erabili ohi da enpresa-sektore pribatuak, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) eta beste elkarte batzuk aipatzeko.³ Bitxiki, ez da hori gertatzen Nazio Batuen idazkari nagusiak gizarte zibilaren eta Nazio Batuen arteko harremanak aztertzeko sorturiko Aditu Taldearen txostenean. Hala, bada, «Gu, herriak: gizarte zibila, Nazio Batuak eta gobernantza globala» txostenean gizarte zibila honela definitzen da: «herritarren elkarrekin (familia, lagunak eta negozioak ez direnak), boluntarioz osatuak, beren interesak, ideiak eta ideologiak sustatzeko. Terminoak ez ditu bere barruan hartzen irabazi-asmoa duten jarduerak (sektore pribatua) edo gobernu-jarduerak (sektore publikoa)».⁴

¹ Kaldor, M., *Global Civil Society. An Answer to War*, Cambridge, Polity, 2003, 31. or.

² Abad, M., «El pluralismo como puente hacia el multilateralismo: el informe del grupo de personas eminentes encargado de examinar la relación entre las Naciones Unidas y la sociedad civil, de 2004», *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 9. zk., 4. or.

³ Pons, X., «Las Organizaciones Internacionales No Gubernamentales y el Derecho Internacional: planteamiento de tendencias y problemas actuales», Abellán, V. eta Bonet, J., (zuz.), *La incidencia de la mundialización en la formación y aplicación del Derecho Internacional Público*, Bartzelona, Bosch editor, 2008, 46.-47. or.

⁴ Ikusi: A/58/817 Dok., 14. or.

Van Rooy-ren hitzetan, gizarte zibila honela ikusten da: «leku baten gisa, espazioa okupatzen duten eragileen konstelazio gisa; *Estatu* deiturikoa eta *merkatu* deiturikoa ez bezalakoa». ⁵ Era berean, adierazi behar da enpresa-erakundeek ez dutela parte hartzen eztabaida publikoetan, forma ematen diotela agenda globalari eta herritarren eskaeretan lehentasunak eraikitzeari. Haien jarduna ilunagoa da, publizitaterik gabea, *lobbie* gisa jarduten dute beren helburu ekonomikoak bermatzeko.

Gizarte zibilaren zati gisa sektore pribatuaren aipu hori literatura espezializatutik at dago. Mary Kaldor arloko autore gailenaren arabera, gizarte zibila «metodo bat da, eta haren bidez kontratu sozial bat, edo hainbat, negoziatzen eta errepikatzen dira banakoen, gizon-emakumeen, eta boteregune ekonomiko eta politikoen artean». ⁶

Definizio hori, askoz ere egokiagoa da, botere ekonomikoa bere lekuan kokatzen duelako. Gainera, gizarte zibil nazional tradizionalerako nahiz azken urteetan nazioarteko harremanetan protagonismo handia hartu duen gizarte zibil globalerako balio du. Globalizazioak markatutako nazioarteko errealitate berri horrek gizarte zibilaren egokitzapena ekarri du. Haien asmo politiko eta pertsonalak areagotu dira estatu-eremutik harago. Aldi berean, aliantzak aldatu dira, eta nazioartekotu egin dira. ⁷

Horren haritik, Lisa Jordan-en ustean, nazioarteko esferan ere, enpresen eta botere publikoen interesen lekua erabat bestelakoa da gizarte zibilarenarekin alderatuta. Egile horren esanetan, «ideien, instituzioen, balioen, erakundeen, sareen eta banakoen esfera bat da, familiaren, Estatuaren eta merkatuaren artean dagoena, eta gizartearen muga nazionalak, politikoez edo ekonomikoez harago jarduten du». ⁸

Hala ere, ez da ahaztu behar gizarte zibila osatzen duten taldeek beren helburuak ⁹ eta agenda politikoa dituztela. Gizarte zibil globalak «esfera publikoan jarduten du bere interesak, pasioak edo ideiak adierazteko asmoz», ¹⁰ eta ez du gizarte osoa barne hartzen. Hala ere, GKE-ek eta mugimendu sozialek (biak ala biak gizarte zibil globalaren baitakoak) funtzio bakarra dute munduko politikan, arau etiko globalen artikulazioa sozializatzen baitute maila globaletan. ¹¹ Gizarte zibil globalaren erakargarritasu-

⁵ Van Rooy, A., *The Global Legitimacy Game*, New York, Palgrave MacMillan, 2004, 6. or.

⁶ Kaldor M., *op. cit.*, 44. or.

⁷ *Ibidem*, 76. or.

⁸ Jordan, L., «Global Civil Society», Edwards, M. (ed.), *The Oxford Handbook of Civil Society*, Oxford, Oxford University Press, 2001. 95. or.

⁹ Bodansky, D., «The legitimacy of international governance: a coming challenge for international environmental law», *American Journal of International Law*, 93. lib., 3. zk., 1999, 617.-619. or.

¹⁰ Casquette, J., *Política, cultura y movimientos sociales*, Bilbo, Bakeaz, 1998, 28. or.

¹¹ Payne, R.A. eta Samhat, N.H. *Democratizing Global Politics*, Albany, State University of New York Press, 2004, 47. or.

naren muina datza gizateriaren ordezkariak egiazko batekiko antzekotasunean; izan ere, ez du loturarik lurralde jakin eta zehatz batekin, eta herrien interesei lotuta dago. Jakina, taktikoki ez dago ordezkariak hori, baina gizarte zibil globala da gizateriaren iritziak nola edo hala jakiteko modu bakarra.¹²

2. IBILBIDE HISTORIKOA

José Vidal Beneyto-ren arabera, gizarte zibilaren eboluzio historikoak botere absolutuaren adierazpen mota guztien (politikoak, kulturalak, ideologikoak, erlijiozkoak) kontrako jarduera izan du ardatz.¹³ Aldi berean, nahiz eta hasieran esparrua nazionala izan, azken hamarkadetan eremu transnaziionalera hedatu da globalizazio-prozesuekin batera. Hala, lau fase nagusi bereiziko ditugu:

i) Gizarte zibilaren hastapenak. Gizarte zibilaren kontzeptuak protagonismoa hartu zuen erregimen absolutistak desagertzen hasi zirenean XVII. eta XVIII. mendeetan, eta «ordena sekular konstituzionala» adierazten zuen. Absolutismoaren kontra agertu zen. Garai horretako teorialariek greziar filosofo klasikoen ideiak hartu zituzten oinarri. Antzinako Grezian *politike koinona* (gizarte/komunitate politikoa) hitza erabiltzen zen, latinez *societas civilis*. Zibilizazioak botere politiko mota jakin bat adierazten zuen, zeinak guztien ona interes pribatuaren gainean jartzen zuen. Hala, Ilustrazioko autoreek gizarte zibila gizarte politiko gisa ulertzen zuten, non monarkek edo buruek nolabaiteko legislatura baten aurrean erantzun behar zuten. Ikuspegi horretatik, gizarte zibilak estatua barne hartzen zuen.

Estatu-nazioaren sorrerarekin, ordea, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. ean estatu-burokrazia agertu zen, eta bestelako instituzio publikoak (banku zentralak, armada profesionala edo hezkuntza-sistema publikoa) ezartzen hasi ziren, gizarte zibilaren instituzioak. Merkatu-ekonomia ere hedatu zen. Norbanakoen eta estatuaren artean antolakuntza-eremu berri bat sortu zen. Eremu horretan elkarteak eta hainbat asoziazio mota agertu ziren, besteak beste estatuak bere funtzioak betetzen zituela eta aberastasuna modu bidezkoan banatzen zela bermatzeko. Gizarte zibilaren egungo ideia asoziazionismoaren kontzeptzio liberal horrekin lotu da.

Eskubide politikoak eta zibilak eskatzen ziren heinean, gizarte zibila eta estatua urruntzen ziren. Baina XX. mendean gizarte zibilaren eskaerak eskubide sozial eta ekonomikoak gero eta gehiago jorratzen zituzten, eta

¹² Wapner, P., «Civil Society» in Weiss, T.G., eta Daws, S. (ed.), *The Oxford Handbook on the United Nations*, New York, Oxford University Press, 2007, 255. or.

¹³ Vidal Beneyto, J., «Introducción. La dimensión pública de la sociedad civil», *Hacia una sociedad civil global*, Madrid, Taurus, 2003, 21. or.

sektore pribatua ere elkarriketaren beste aldera pasatu zen. Gizarte zibilaren hastapen horietan, langile-mugimenduak aktore nabarmenak izan ziren.¹⁴

ii) Protesta globala (1960-1970ko hamarkadak). XX. mendearen lehenengo erdian langile-mugimenduek berebiziko protagonismoa izan zuten sozialdemokraziaren eta ongizate-estatuaren hedapenean Mendebaldean. Baina 1960ko hamarkadan bestelako gizarte-mugimenduek hartu zuten zentraltasuna. Kolektibo horiek salatzen zuten gobernu sozialdemokratik edo gizarte-mugimendu tradizionalak ez zituztela euren aldarrikapenak kontuan hartzen. Militantzia emakumeek, ikasleek, populazio beltzak edo LGBTIQA¹⁵ kolektiboek osatzen zuten; hau da, klase-menpekotasunaz aparteko diskriminazioak pairatzen dituzten sektoreek.¹⁶ Aldi berean, Hegoaldean askapen nazionalen mugimenduak ugaritu ziren, eta deskolonizazio-prozesua abiatu zen. Iparraldean Hegoaldeko borroka horiekin elkartasuna sortzen hasi zen, batez ere Vietnamgo eta Aljeriako erresistentzia antkolonialekin, eta Latinoamerikako gerrillekin. Ekialdeko Europan, sobietar errepublika batzuetan Moskuren kontrako oposizioa areagotu zen.

1968an protesta globala gorengo mailara iritsi zen: AEBn Vietnamgo gerra salatzeko mobilizazio masiboak antolatu ziren, eta Martin Luther King-en hilketaren ondoren *Black Power* mugimenduaren protestak areagotu ziren; ikasle-mugimenduek beren indarra frogatu zuten Frantziako Maiatzean, baina baita Japonian edo Mexikon ere; Pragako Udaberria izan zen. Garai hartan «feminismo erradikal»eko korronteak ere gora egin zuen, eta Europako Ekialdean ekologismoa hedatu zen. Hain zuzen, 1968. urtea goreneko unea izan zen 1965-1975eko protesta globaleko hamarkadan.¹⁷

Gertakari horiek kontestazio sozialaren garrantzia nabarmendu zuten nazioarteko eremu politikoan. Arlo akademikoan, hain zuzen, 1980ko hamarkadatik aurrera gizarte-mugimenduei buruzko azterlanak ugaritu ziren, hasiera batean ikuspegi nazional batetik.¹⁸ Bestalde, lotura berriak eta estuagoak eratu ziren munduko gizarte-mugimenduen artean. Internazionalismo berri bat sortu zen, Iparraldeko eta Hegoaldeko erresistentzien artean

¹⁴ Kaldor, M., *op. cit.*, 17.-23. or. eta 48.-49. or.

¹⁵ LGBTIQA: Lesbiana, Gay, Bisexual, Transgenero/Transexual, Intersex, Queer eta Asexual.

¹⁶ Arrighi, G., Hopkins, T.K. eta Wallerstein, *Antisystemic Movements*, Londres, Verso, 1989; gaztelaniaz: *Movimientos antisistémicos*, Madrid, Akal, 1999, 67.-76. or.

¹⁷ Pastor, J., *El año 1968*, Madrid, Cuadernos del Mundo Actual, Grupo 16, 1994, <http://www.iade.org.ar/modules/noticias/article.php?storyid=2348>.

¹⁸ Tarrow, S., *Strangers in the Gates: Movements and States in Contentious Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 2012, 181. or.

aliantzak eragin zituenen.¹⁹ Gizarte zibileko aktoreen arteko harreman transnazionalak areagotu ziren, eta hala gizarte zibil globala eratzeko bidea zabaldu.

iii) Europako gizarte zibila (1980ko hamarkada). Aurreko mobilizazio globalen zikloarekin lotuta, 1980ko hamarkadan Europan gizarte-mugimenduek Gerra Hotzaren dinamiken kontra jardun zuten.

Horren harira, Mary Kaldor-ek azpimarratzen du Ekialdeko intelektua- len rola gizarte zibilaren kontzeptua berreskuratzeko. Adam Michnik poloniar- rak, Václav Havel²⁰ txekiarrak edo George Konrad hungariarrak, sobie- tar komunismoaren kontra arituak hirurak, autoantolaketa eta norbanakoen rola defendatzen zituzten estatu-egiturari aurre egiteko. Politika alterna- tiboia edo kontra-botere bat sortu behar zela argudiatzen zuten, Estatuare- kiko modu paraleloan. Intelektual horien aburuz, ideia horiek baliagarriak ziren Ekialdeko Europan, baina baita Gerra Hotza gainditzeko ere, eta poli- tika alternatibo bat sustatzeko maila globalean. Ekintzaile horiek eta haiek sustaturiko mugimenduek, 1980ko hamarkadan zehar, sobietar sistema ko- munistaren kontrako manifestazioak bultzatu zituzten, SESBren amaieran parte izan zutenak.²¹

Aldi berean, Mendebaldeko Europan Gerra Hotzaren kontrako oposi- zio hori mugimendu antinuklearrek eta bakearen aldekoek ordezkatu zu- ten. Mugimendu horietan, hiritarrek estatuen segurtasun-politiken aurrean zer rol zuten azpimarratzen zen. Kaldor-en arabera, ekintzaile horiek argu- diatzen zuten Europa AEBren eta SESBren arteko gatazkatik askatu behar zela, eta horretarako Ekialdeko gizarte zibilarekin bat egitea beharrezkoa zela. Hala, hiritarren rol transnazionala goraipatzen zen, eta 1980ko hamar- kadaren amaieran *Europako gizarte zibil* terminoa erabiltzen hasi zen.²² Aipagarria da Ekialdeko eta Mendebaldeko Europako mugimendu ekolo- gisten, bakezaleen eta feministen sare transnazionalak eratzeko zerikusia izan zuela Txernobil-en 1986an izandako istripuaren mundu mailako oihar- tzunak.²³

iv) Globalizazioa (1990-2000ko hamarkadak). Esan bezala, globaliza- zioarekin batera, mundua esparru bakartzat hartzen hasi zen.²⁴ Espazio- eta denbora-mugak gainditzeak aukera eman die herritarrei eremu globalean

¹⁹ Antentas, J.M. eta Vivas, E., «Internacionalismo(s) ayer y hoy», *Viento Sur*, 100, 2009ko urtarrila, 33.-40. or.

²⁰ Václav Havel Txekoslovakiako lehendakaria izan zen (1989-1992), eta Txekiar Errepu- blikako lehenbiziko lehendakaria (1993-2003).

²¹ Kaldor, *op. cit.*, 50.-59. or.

²² *Ibidem*, 59.-71. or.

²³ Corry, O., «The green legacy of 1989: revolutions, environmentalism and the global age», *Political Studies*, 62. lib., 2. zk., 2014ko ekaina, 309.-325. or.

²⁴ Globalizazioaren inguruko kapitulura jo.

parte hartzeko, eta norbanakoen ahalduntze-prozesua ere gertatu da.²⁵ Aldi berean, ordea, globalizazioak ez ditu ekarri instituzio global eraginkorrak, herritarrek eremu globalean ordezkatzeko dituztenak. Testuinguru horretan, gero eta gehiago nabarmentzen dira estatuz gaindiko aktore jakin batzuk, Estatuan, enpresa transnazionalen edo nazioarteko finantza-instituzioen jokaera behatzen dutenak. Batzuen arabera, «gizarte zibil global sortuberri» bat osatzen dute, globalizazioarekin batera sortu dena.²⁶

Aktore horien artean 1990eko hamarkadatik aurrera GKEak eta gizarte mugimendu transnazionalak ugaritu dira, eta gerostik haien inguruko azterlanek gero eta zentraltasun gehiago hartu dute Nazioarteko Harremanetan. Izan ere, garai horretan eratu zen Globalizazioaren Aurkako Mugimendua, zeinak oihartzun handia lortu zuen 1999an Seattle-n egindako mobilizazio masiboaren ondorioz.

Hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, fase horietan zehar sortutako aktore sozial guztiek —bai eremu nazionaletakoek, bai espresuki eremu globalekoak direnek— gizarte zibil global sortuberria osatzen dute.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Gizarte zibilaren ezaugarri nagusiak sakonago aztertzeko, hura osatzen duten taldeak, jarduteko metodoak, funtzioak eta barne-egitura berrikusi behar dira.

Gizarte zibil globalaren definizio bakar bat ezartzeko ezintasunak hurbilketa orokorrak egitera behartzen gaitu. Erreferentzia-esparru gisa, onartua dago gizarte zibil globala gizarte-mugimenduen sare bat dela, hainbat jarduerara-arlo dituen (tokikoa, nazionala, eskualdekoa) nazioarteko ikuspegian. Haren ekintza-unitate bakarra puntuala edo estrategikoa izan daiteke. Gizarte-ekintza ulertzeko erakundeen, mugimenduen eta moduen askotarikotasuna da, beraz, gizarte zibil transnazional berriaren giltzarrietako bat. Orobat, «gizarte zibil transnazionala ez da Estatu baten parte; ez zaio lurraldetasun edo subiranotasun jakin bati atxikitzen. Gainera, ez da merkatuaren parte ere, haren alderdi filantropiko gisa».²⁷ Horrenbestez, kanpoko eragile bat da eragina

²⁵ Arenal, C., «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las Relaciones Internacionales», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2008*, Leioa, UPV/EHU, 2009, 229.-230. or.

²⁶ Arenal, C., «Mundialización...», *op. cit.*, 242.-243.or.; Sanahuja Perales, J.A., «¿Un mundo unipolar, multipolar o apolar? La naturaleza y la distribución del poder en la sociedad internacional contemporánea», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2007*, Leioa, UPV/EHU, 2008, 357. or.

²⁷ Serbin, A., «La sociedad civil transnacional y los desafíos de la globalización» en PoDESTA, B. (koord.), *Ciudadanía y Mundialización. La sociedad civil ante la integración regional*, Madril, CEAL, 2000, 29. or.

duena eta presioa egiten duena Estatuan, merkatuan eta enpresetan, eta gobernuarteko erakundeetan.

Egia esanda, historian zehar izan diren mugimendu sozial eta herritarren bilakaeraren emaitza da gizarte zibil globala. Gizarte zibilaren kontzeptua horien egungo garapena da, baina baita indarrean dirauten haren beste modalitate batzuen batura ere. Hortaz, baieztatu daiteke gizarte zibil globalaren barruan badirela gizarte-mugimenduen hainbat azpitipo.²⁸

Hasteko, lehengo gizarte-mugimenduak hartuko ditu bere barruan, funtsean langileak eta nekazariak. Horiek nazio mailan jarduten dute, baina baita nazioartean ere, masa-mugimenduetan oinarritutako estrategiak erabiliz, Estatuako egituretan eragina izateko eta horiek eraldatzeko asmotan.

Bigarren, «gizarte-mugimendu berri»ek²⁹ ere parte hartuko dute. Gai global espezifikokoekin lotuta daude, eta ez ditu hainbeste kezkatzen politika tradizionalak; kasurako, mugimendu feministak eta ekologistak. Nolanahi ere, haien helburua botere-eremuetan eta iritzi publikoan eragina izatea da.

Gizarte zibil globala osatzen duen hirugarren talde mota «mugimendu sozial berri-berriak»³⁰ dira, edo elkartasunaren aldeko mugimenduak. Sareon jardueraren oinarria nazioarteko lankidetzak, etorkinen defentsak, baztertutako sektoreenganako solidaritatea eta abar dira.

Azkenik, globalizazioaren aurkako mugimendua, globalizazio neoliberalaren kontrakoa edo mugimendu altermundista deiturikoa gehitu behar dira. Talde hori arestian aipatutako hiru azpitipoen batura da: ezkerreko antolakunde politikoak, mugimendu indigenak, erlijio talde progresistak, nekazarien erakundeak eta talde espezifikoak (ATTAC, RCADE, etab.).

Hura osatzen duten taldeak ezaugarritzeaz harago, beharrezkoa da aztertzea nola jokatzeko duen eta nola eragiten dien haren jardunak nazioarteko harremanetako beste eragile batzuei. Gizarte zibil globala arlo lauso batean mugitzen da, nazionalaren eta nazioartekoaren artean eta publikoaren eta pribatuaren artean (ikus grafikoa). Hori horrela, haien jatorrizko estatura *itzultzen* dira eskakizunak egiteko, gobernuarteko erakundeetan jarduten dute multilateralitasunaren ikurtzat, eta, teoriarik, balio komunaren ikurtzat. Gainera, enpresa transnazionalerik presioa egiten diete beren estrategiak eta jarduteko moduak aldatzeko. Horrela, gizarte zibil globalaren diskurtsoa gizarte zibil nazionalaren nahiz erakunde zibil transnazional handien (GKEak, sindikatuak...) diskurtsoa da.

²⁸ Kaldor, M. *op. cit.*, 66. or.

²⁹ Serbin, A., *op. cit.*, 27. or.

³⁰ Ibarra, P., *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*, Madril, Síntesis, 2005, 261. or.

Gizarte zibil globalari pertsonak edo taldeak boluntarioki atxikitzen zaizkio, gizarte-harremanak sortuz, «nortasunak garatuz eta mugen gai-netik partekatutako interesen alde lan eginez».³³ Gizarte zibil globala lortzen ari den indarrak eta, gisa berean, mugimendu zibiko eta politiko mota desberdinen arteko elkarlanak uste sendo bat dute atzean (gero eta zabalduagoa bera), hain zuzen, beharrezkoa dela sistema osoari presioa egitea helburu jakin bat lortzeko (iraunkortasuna, bidezko merkataritza, armen kontrola...),³⁴ Gizarte zibil globalak gaitasuna du nazioarteko agenda politikoan gaiak markatzeko, eta gaitasun horrek berekin dakar ohiko bide formal eta burokratikoak gainditzea, erabaki-hartzeak luzatzen edo mugarik gabe atzeratzen dituztenak.³⁵

Lehentasun saihetsezina duten ekintzak nabarmentzeko gaitasunarekin batera, gizarte zibil globalak beste abantaila garrantzitsu bat ere badu: nazioarteko hainbat balio sortzeko eta ezartzeko gaitasuna (giza eskubideak, ekologia, garapenerako eskubidea). Horiek ez dituzte nahitaez errespetatu behar gobernatzaileek edo botere faktiko handiek, baina horiek ez betetzeak kalte larria eragiten die haien irudiei. Beste ikuspuntu batetik begirata, alderdi horrek zerbitzu didaktiko baten itxura hartzen du herritarrentzat berentzat.³⁶ Gizarte zibil globalak jarrera onargarriaren estandarra markatzen du. Edozein subjektuk, nazioarteko edozein eragilek, publiko nahiz pribatu, estandar horren arabera jokatu behar du irudi jakin bati eutsi nahi badio. Nolabait ere, gizarte-mugimenduen funtzioetako bat betetzen dute sistema demokratiko formaletan: arazoak edo arriskuak identifikatzea.³⁷

Gobernatzaileen irudiari eragiteko gaitasuna da gizarte-mugimenduen gaitasun historiko bat. Nolanahi ere, gizarte zibil nazionalarekin dituen aldeak handiak dira. Estatu batean, gizarte zibila funtsezko bitartekoa da gobernu-organoen eta herritarren artean. Gizarte zibil globalaren ahulgune nagusia da ez dagoela herritar globalik izan, ez baitago Estatu globalik, ezta *demos* bat ere.³⁸

Ez dago mundu mailako herritarrik, eta hori gizarte zibil globalean bertan islatzen da. Hura osatzen duten talde eta mugimendu gehien-gehienek Iparraldeko eta Mendebaldeko herrialdeak ordezkatzeko dituzte, eta herrialde txiroetatik etorritako taldeen gabezia sumatzen da. Hegoaldeko elkarte zibilak kategoria txikiagoko parte-hartzaile gisa sentitzen dira sare globaletan, eta kanpainak Iparraldeko herritarren kezka adierazteko joera dutela sala-

³³ Wapner, P., *op. cit.*, 255. or.

³⁴ Clark, J., *op. cit.*, 100. or.

³⁵ Florini, A., *The Coming Democracy. New Rules for Running a New World*, Washington D.C., Brookings Institution Press, 2005, 141. or.

³⁶ Ibarra, P., *op. cit.* 276. or.

³⁷ Casquette, J., «Movimientos sociales y democracia», *Cuadernos Bakeaz*, 55. zk., 4. or.

³⁸ Florini, A., *op. cit.*, 139. or.

tzen dute, baita Hegoaldeari dagozkion gaietan ere.³⁹ Mendebaldeko mugimenduen parte-hartze handia gehiago izateari eta gaitasun ekonomikoari zor zaie hein handian. Eremu horietako ongizate- eta hezkuntza-maila altuek areagotu egiten dute klase ertaineko pertsonen kopurua, eta herrialde horietako mugimenduetan eta taldeetan parte hartzeko aukera errazten dute.⁴⁰ Ordezkaritza-desoreka horrek elikatu egiten du mugimenduak estrategia zabal adostu bat lortzeko duen ezintasuna, eta gaien arabera taldeen ordezkaritza desberdinarekin funtzionatzeko joera du aldizka.

4. GAUR EGUNGO EZTABAIDAK

4.1. Gizarte zibil globala eta nazioarteko zuzenbidea egitea

Gizarte zibil globalarekin lotutako eztabaida bizienetako bat da ea zer eragin eta parte-hartze duen nazioarteko zuzenbideko arau berriak egiteko prozeduretan. Nazioarteko arauak egiteko modu tradizionalan (ohituren bidez edo estatuen arteko itunen bidez) eragina gutxienekoa izan arren, ezin daiteke gauza bera esan nazioarteko erakundeen araei dagokienez. Hain zuzen ere, gizarte-mugimenduek eta GKE-ek gobernantza inklusiboago eta demokratikoago bat lortzeko eginiko presioak nazioarteko gobernuarteko erakundeak behartu ditu zenbait bide irekitzera globalizazioaren «galtzaileak» ordezkatzen dituzten eragileekin eztabaidatzeko.⁴¹

Baiezta daiteke, hortaz, GKE eta gizarte zibil globaleko beste erakunde batzuek —esaterako, sindikatuek eta nekazarien elkarteek— parte hartzen dutela nazioarteko gobernuarteko erakunde batetik sortutako nazioarteko arau baten bizitzako etapa guztietan. Hori horrela, *de iure* mekanismoak finkatu dira, nola horiek eratzeko prozesuan, estatuen arteko elkarrizketetan, hala haiek betetzeari buruzko nazioarteko prozesu judizialetan.⁴²

Laburbilduz, eta Nicolas Leroux-en⁴³ proposamenari jarraituz, nazioarteko erakundeetan arauak sortzeko barne-prozeduretan gizarte zibil globaleko erakundeen parte hartzeko lau modu aipa daitezke: kontsulta-estatusa, ikuskera korporatiboa, bide operazionala eta bide ia itxia.

Eredu liberalaren bideak, kontsultarenak, gizarte zibil globaleko erakundeen eta nazioarteko gobernuarteko erakundeen arteko elkarketa-sistema bat

³⁹ Clark, J., *op. cit.*, 120. or.

⁴⁰ Florini, A., *op. cit.*, 136. or.

⁴¹ Tussie, D. eta Piggiozzi, M.P., «Pressing ahead with new procedures for old machinery: global governance and civil society» in Rittberger, V (ed.), *Global Governance and the United Nations System*, New York, United Nations University Press, 2001, 160.-161. or.

⁴² Leroux, N., *La condition juridique des Organisations Non Gouvernementales internationales*, Brusela, Bruylant, 2010, 243. or.

⁴³ *Ibidem*, 315.-316. or.

dakar berekin. Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (ECOSOC) eredia da, nazioarteko gobernuarteko gainerako erakundeen zati handi batek kopiatua. Hartara, GKEak NBEen sar daitezke onetsitako kontsultarako elkarte gisa. Estatus⁴⁴ horrek aukera ematen dio erakunde bati politika eta araudi berrien arloan aholkuak emateko eta bultzatzeko, baita nazioarteko antolakuntzaren ikuspegian kanpotik eragiteko ere. ECOSOC ereduaren eta NBEren eta gizarte zibil globalaren arteko bitartekari gisa aritzen diren organo subsidiarioen⁴⁵ bitartez bideratzen da haren parte-hartze zuzena. Nolanahi ere, GKE eta talde sozial askok nahiago dute barne-antolakuntzan ez sartu, lanari kanpoan eutsi, presioa eginez, agenda sortuz, goi-bilera paraleloak kudeatuz edo sinpleki NBEren hitzaldietan parte hartzeko izena emanez baina kontsulta-estatuturik gabe.⁴⁶

Ikuskera korporatiboa salbuespena da, erabakigarria eta adierazgarria. Bide horren erakusgarri bakarra Lanaren Nazioarteko Erakundea da, eta araudi berri bat bultzatzerakoan ahotsa eta botoa duten gizarte-eragileak (eta merkatukoak)⁴⁷ sartzen ditu tartean. Estatuena ez diren eragileen parte-hartze osoa dakar horrek araudi-prozeduretara eta nazioarteko gobernuarteko erakundeen barne-egituretara.⁴⁸ Txertatze hori integratzailea eta irekitasunaren aldekoa da zalantzarik gabe, eta hainbat ondorio gehigarri dakartza: erakundeen gaitasun kritikoa murrizten du, eta nazioarteko gobernuarteko erakundeei edo han onartutako araei buruzko eztabaida publikoa minimizatzen du, ordezkarritasun aski dutelakoan.⁴⁹

Bide operazionalak harreman esplizituak ekartzen ditu, neurri batean edo bestean, baina zentzu praktiko eta tekniko argia dauka. Munduko Bankua litzateke bide horren adibide bikaina. Ez du hartzen, beraz, gizarte zibil globalaren erakundeekiko harremanei buruzko araudi-aurreikuspenik. Dena dela, praktikak erakusten du kontaktu biziak izaten direla hainbat gaietarako, esaterako: laguntza teknikoa, kontsultak, programen kudeaketa eta elkarrizketak. Lotura estua, baina betebeharririk ez. Praktika horiek aztertzeak erakusten du, halaber, eredu honen azpiko azken politikek nekez jasotzen dutela gizarte zibil globalaren ikuspegia.⁵⁰

Azkenik, bide ia itxiaren adibide onenak Munduko Merkataritza Antolakundea edo Nazioarteko Diru Funtsa dira. Munduko Merkataritza Antolakundeak ia ez du harremanik gizarte zibilarekin, dela landutako gaien

⁴⁴ Gai horri buruz, ikusi: Teijo, C., *Organizaciones Internacionales No Gubernamentales y Derecho Internacional*, Dilex, Madril, 2005, 149.-186. or.

⁴⁵ Fasulo, L., *An Insider's Guide to UN*, New Haven, Yale University Press, 2009, 77. or.

⁴⁶ Wapner, P., *op. cit.*, 258. or.

⁴⁷ Lanaren Nazioarteko Erakundean, estatu bakoitzak lau boto ditu: bi gobernuaren ordezkarientzat, bat estatuko langileen ordezkarientzat eta laugarrena enplegatzaileen ordezkarientzat.

⁴⁸ Leroux, N., *op. cit.*, 327. or.

⁴⁹ Gutiérrez-Solana, A., *La legitimidad social de las organizaciones internacionales*, Bar-tzelona, Marcial Pons, 2014, 220. or.

⁵⁰ Leroux, N., *op. cit.*, 333.-335. or.

garrantziagatik eta eraginagatik, dela barne-egitura ahula izategatik.⁵¹ Harremanak *ad hoc* parte-hartzeetan zehazten dira Munduko Merkataritza Antolakundearen Ministro Biltzarretan, eta ez dute egitura eta leku finkorik negoziazioetan.⁵²

Ikus daitekeenez, gizarte zibil globalak nazioarteko zuzenbidearen garapenean duen eragina askotarikoa da. Aktibismo globala da, zalantzarik gabe, giza eskubideei buruzko nazioarteko araudiaren, lan-baldintzen, ingurumenaren babesaren edo genero-gaien sorburua.⁵³ Beste arlo batzuetan, ordea, arau komertzialetan kasurako, haren eragina erresistentzia-borroketan kontzentratzen da.

Laburbilduz, gizarte zibil globaleko erakundeek gobernantza globalean parte hartzen dutela pentsatzeko joera dago, pixkanaka nazioarteko erakundeen eztabaidetan sartzen ari direlako, erakunde horiek kontuak emateko eta prozedurak gardentzeko eragina izan dutelako.⁵⁴ Nolanahi ere, ohikoena da nazioarteko gobernuarteko erakundeen dinamika eta eztabaidetan gonbidapen bidez soilik parte hartzea gai zehatzetarako eta informazioa osorik eskuratu gabe,⁵⁵ hala nola Nazio Batuek antolatutako hitzaldi sektorialetan edo Munduko Merkataritza Antolakundearen eztabaidetan.⁵⁶

Nazioarteko zuzenbidearen garapenean parte hartzeko hainbat modu izateak erakusten du gizarte zibil globalaren funtzioak ez daudela araututa prozesu horretan. Era horretan, lankidetzaren aitortza juridikoari buruzkoa izan behar du eztabaidak; betiere nazioarteko gobernuarteko erakunde bakoitzaren berezitasunetan oinarrituta.⁵⁷

4.2. Gizarte zibil globala nazioarteko aktore gisa

Celestino del Arenal-en arabera globalizazioaren ondorioz «gizarte zibil global sortuberria» agertu da.⁵⁸ Globalizazioaren testuinguruan, mundua leku bakarra, globala eta berehalakoa dela ulertzen da, neurri batean estatuaren erreferentzia gainditurik. Nazioartean eta estatu azpiko mailan, gizakiak eta haien arazoak mundu-gizartearen erreferentzia gisa kokatzen ditugu. Hala, gizartearen humanizazioa eta norbanakoen ahalduntzea gertatu dira, eta ondorioz gizarte zibil globala agertu da. Izan ere, gizarte zibilaren eragina na-

⁵¹ *Ibidem*, 337. or.

⁵² Gutiérrez-Solana, A., *op. cit.*, 166. or.

⁵³ Tussie, D. eta Piggiozzi, M.P., *op. cit.*, 161. or.

⁵⁴ Abad, M., *¿Una alternativa solidaria frente a la barbarie? Las ONG en la nueva sociedad global*, Madril, CIDEAL, 2004, 97. or.

⁵⁵ Lindblom, A.-K. *Non-governmental Organizations in International Law*, Cambridge, CSICL, 2005, 448. or.

⁵⁶ Payne, R.A., eta Samhat, N.H., *op. cit.*, 111.-121. or.

⁵⁷ García, C.R., *ONGs y derecho internacional*, Madril, Iustel, 2007, 319.-327. or.

⁵⁸ Ikus globalizazioaren inguruko kapitulua.

zioarte-mailan areagotu da, aktore transnazionalen jardueragatik, eta Estatuaren kanpo-politikan gizarte zibilak duen protagonismoagatik.⁵⁹

Prozesu horretan informazio-gizartearen garrantzia azpimarratzen da, zeinak norbanakoen parte-hartzea (indibiduala edo kolektibo gisa) ekarri baitu nazioarteko harremanetara: batetik, gizon-emakumeok oro har komunikazio-sistema globaletara sarbidea daukagulako; bestetik, parte-hartze hori eta ahal-duntze-prozesua direla-eta rol aktibo bat hartzen dugulako, nazioarteko aktore (indibidual edo kolektibo) bihurturik. Aldi berean, informazioaren sozializazio horrek nazioarte-mailan mundu bakar bateko hiritarra izatearen pertzepzioa sortzen du, eta agenda nazionalen konbergentzia ere gertatzen da.⁶⁰

Humanizazio hori transnazionalizazio-prozesuarekin batera gertatu bada ere, Arenalek bi dinamika horiek bereizi behar direla ohartarazten du. Gizarte zibil global sortuberri hori sistema transnazionalean sartuta dago, baina giza dimentsiora mugatuta. Izan ere, aipatutako Vidal Beneytok edo Keane-k gizarte zibil globalaren definizio zabala eskaintzen dute, jarduera transnazionala duen edozein gobernuz kanpoko aktore kontuan hartuz; adibidez, enpresa transnazionalak.⁶¹ Arenalek, aldiz, definizio mugatuago bat proposatzen du, Kaldorren ikuspegian oinarritzen dena: «erakunde formal eta informal oro, norbanakoentzat irekia erabakitzaileek haien ahotsak entzun ditzaten».⁶² Gizarte zibil globalaren bidez norbanakoek eztabaida publiko globaletan parte har dezakete.⁶³

Hala, transnazionalizazio- eta humanizazio-prozesu horien ondorioz giza aktore pribatu askotarikoek gizarte zibil global sortuberria osatu dute. Aldi berean, agenda nazionalen konbergentzia dela eta, gero eta gehiago aktore horien interesek eta helburuek bat egiten dute. Ikuspegi horretatik gizarte zibil globala nazioarteko aktore gisa uler genezake.

5. ADIBIDE PRAKTIKOA: GIZARTE ZIBIL GLOBALA, MUGIMENDU SOZIAL TRANSNAZIONALAK ETA GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA

Askotan gizarte zibil globala mugimendu sozial transnazionalekin erlazionatzen da, batez ere Globalizazioaren Aurkako Mugimenduarekin. Hala ere, azken horiek gizarte zibil globaleko aktoreen parte lirateke, beste aktore batzuekin batera. Aipatutako Kaldorren definizioa kontuan hartuta, gizarte-mugimendu transnazionalez gain, aipa ditzakegu: GKEak, nazioarteko jar-

⁵⁹ Arenal, C., «Mundialización...», *op. cit.*, 229.-232.or.

⁶⁰ *Ibidem.*

⁶¹ Vidal Beneyto, *op. cit.*, 23.-24. or.; Keane, J., «Reflexiones sobre la sociedad civil global», Vidal Beneyto, J., *Hacia una...*, *op. cit.*, 70. or.

⁶² Kaldor, *op. cit.*, 79.; Arenal, «Mundialización...», *op. cit.*, 244. or.

⁶³ Kaldor, *op. cit.*, 148. or.

duera duten estatuko edo tokiko mugimendu sozialak, nazioarteko federazio sindikalak edo irismen globaleko komunikabide alternatiboak. Hau da, hiritar globalaren ahotsa erabakiguneetara eramaten saiatzen den aktore oro.

Dena den, egia da, gizarte zibil globalaren goraldiari erreparatuta, mugimendu sozial transnazionalen rola azpimarratu behar dela. Izan ere, ikuspegi akademiko batetik bi kontzeptuek garrantzia hartu zuten 1990eko hamarkadan. Ikuspuntu historiko batetik, esklabotzaren kontrako sare transnazionala edo emakumeen sufragioaren aldeko kanpaina globala askotan aipatzen dira aurrekari gisa, biak XIX. mendekoak. Hain zuzen, aktibismo feminista mugimendu sozial transnazionalen adibide esanguratsua bihurtu da. Emakume sufragistek oihartzun handia izan zuten XX. mendearen hasieran Latinoamerikan, Ipar Amerikan, Europan eta Ozeanian, eta sare eta kanpaina transnazionalen adibide historiko dira. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, arestian aipatu protesta globalarekin batera, protagonismoa berreskuratu zuen aktibismo feministak. Baina gaur egungo erakunde eta mugimendu feminista transnazional asko, egitura iraunkorrakoak dituztenak, Globalizazioaren Aurkako Mugimenduaren inguruan eratu ziren.

Izan ere, 1960-1970eko hamarkadetan agertu ziren eremu nazionaleko mugimendu, elkarte edo GKE askok 1990eko hamarkadan hartu zuten izaera globala. Garai horretan globalizazio-prozesuak finkatu ziren, eta horien kontrako oposizioa eratu zen.⁶⁴ Adibidez, 1970eko hamarkadan kanpo-zorra salatu zuten Hegoaldeko tokiko eragileek *Jubileo Sur*, *Hirugarren Munduko Zorra Deustatzeko Batzorde (CADTM)* eta ildo bereko sare transnazionalak osatu zituzten garai horretan. Brasilgo diktadura militarren kontra aritu ziren nekazari-mugimenduek 1984an *Lurrik Gabekoen Mugimendua (MST)* sortu zuten, zeina 1993an *Via Campesina* sare globalaren sustatzaile nabarmena izan zen. Nazio Batuen Emakumearen Hamarkadan (1965-1975) agertu ziren emakume-elkarte eta erakunde feminista askok 1998. urtean Montrealeko (Kanada) nazioarteko topaketan parte hartu zuten, eta *Emakumeen Mundu Martxa* sortu zuten. Erresistentzien globalizazio horretan globalizazio-prozesu berak ekarri dituen transnazionalizazioa, humanizazioa eta kontzientzia globala gako izan ziren.

1990eko hamarkadan eta milurtekoaren hasieran eragile horiek Globalizazioaren Aurkako Mugimenduaren parte izan ziren. Aldi horretan aritu zen nazioarteko aktore berri bati buruz hitz egin daiteke, nahiz eta milurtekoaren lehenengo hamarkadaren amaieran estatus hori eztabaidatzen hasi zen.⁶⁵

⁶⁴ Ikus globalizazioaren inguruko kapitulua.

⁶⁵ Bringel, B., Echart, E. eta López, S., «Movimiento antiglobalización. Crisis globales y luchas transnacionales» in Grau Aznar, E. eta Ibarra, P., (ed.), *Crisis y respuestas en la red: anuario de movimientos sociales 2009*, Bartzelona, Betiko Fundazioa eta Icaria, 2009, 210.-218. or.; Bringel, B., Echart, E. eta López, S., «Movimiento antiglobalización. De Seattle a Copenhague (con escala en la Amazonia): o del movimiento antiglobalización al nuevo activismo transnacional» in Grau Aznar, E. eta Ibarra, P., (ed.), *Jóvenes en la red: anuario de movimientos sociales 2010*, Bartzelona, Betiko Fundazioa eta Icaria, 2010, 191.-201.or.

Bere helburuak eta agenda zeuzkan aktore bat, autonomiaduna, baliabideak mobilizatzeko gai zena eta nazioarte-mailan eragina zuena. Beraren lorpenen artean aipa daitezke: 1999ko mobilizazioak Seattle hirian (AEB) Munduko Merkataritza Erakundearen negoziazioak gelditzea; Nazioarteko Diru Funtzaren eta Mundu Bankuaren ordezkariekin elkarrizketak Pragan (Txekiar Errepublika) 2001ean; Ameriketako Merkataritza Askeko Akordioaren (ALCA) kontrako oposizioak, Latinoamerikan, 2005ean ituna bertan behera uzten laguntzea eta ALBA integrazio-prozesuaren oinarriak sustatzea; aldarrikapen indigena eta feminista batzuk nazioarteko agenda politikoan sartzea, eta mugimendu horien ordezkarien parte-hartzea Latinoamerikako gobernu batzuetan; CADTM sarearen parte-hartzea Ekuadorren zorraren auditoretzan (2007-2009); eta batez ere garai horretan nagusitu zen pentsamolde neoliberala zalantzan jartzea.⁶⁶

Hortaz, gizarte-mugimendu transnazionalak eta zehazki Globalizazioaren Aurkako Mugimendua (eta horren parte izan diren eragile askotarikoak) gizarte zibil globalaren aktore nabarmenak dira.

BIBLIOGRAFIA

- ABAD, M., *¿Una alternativa solidaria frente a la barbarie? Las ONG en la nueva sociedad global*, Madril, CIDEAL, 2004, 97. or.
- , «El pluralismo como puente hacia el multilateralismo: el informe del grupo de personas eminentes encargado de examinar la relación entre las naciones unidas y la sociedad civil, de 2004», *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 9. zk., 4. or.
- ARENTAS, J.M. ETA VIVAS, E., «Internacionalismo(s) ayer y hoy», *Viento Sur*, 100, 2009ko urtarrila, 33.-40. or.
- ARENAL, C., «Mundialización, creciente interdependencia y globalización en las Relaciones Internacionales», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2008*, Leioa, UPV/EHU, 2009, 184.-268. or.
- , «Mundialización...», *op. cit.*, 242.-243.or.; Sanahuja Perales, J.A., «¿Un mundo unipolar, multipolar o apolar? La naturaleza y la distribución del poder en la sociedad internacional contemporánea», *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2007*, Leioa, UPV/EHU, 2008, 181.-286. or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2008/2008_4.pdf.

⁶⁶ Echart, E., *Movimientos sociales y relaciones internacionales. La irrupción de un nuevo actor*, Madril, Catarata/Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (UCM), 2008, 23.-76. or. eta 91.-120. or.; Echart, E., López, S. eta Orozco, K., *Origen, protestas y propuestas del movimiento antiglobalización*, Madrid, Catarata/Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (UCM), 2005; Perea Ozerin, I., *Incidencia de las Revoluciones en los Movimientos Sociales Transnacionales. El caso de la Revolución Cubana y su influencia en el Movimiento Antiglobalización*, Doktore-tesia, UPV/EHU, 2014, 147.-212. or. eta 282.or.

- ARRIGHI, G., HOPKINS, T.K. ETA WALLERSTEIN, *Antisystemic Movements*, London, Verso, 1989; gaztelaniaz: *Movimientos antisistémicos*, Madril, Akal, 1999, 67.-76. or.
- BODANSKY, D., «The legitimacy of international governance: a coming challenge for international environmental law», *American Journal of International Law*, 93. lib., 3. zk., 1999, 617.-619. or.
- BRINGEL, B., ECHART, E. ETA LÓPEZ, S., «Movimiento antiglobalización. Crisis globales y luchas transnacionales» in Grau Aznar, E. eta Ibarra, P., (ed.), *Crisis y respuestas en la red: anuario de movimientos sociales 2009*, Bartzelona, Betiko Fundazioa eta Icaria, 2009, 210.-218. or.;
- , «Movimiento antiglobalización. De Seattle a Copenhague (con escala en la Amazonia): o del movimiento antiglobalización al nuevo activismo transnacional» in Grau Aznar, E. eta Ibarra, P., (ed.), *Jóvenes en la red: anuario de movimientos sociales 2010*, Bartzelona, Betiko Fundazioa eta Icaria, 2010, 191.-201. or.
- CASQUETTE, J., «Movimientos sociales y democracia», *Cuadernos Bakeaz*, 55. zk., 4. or.
- , *Política, cultura y movimientos sociales*, Bilbo, Bakeaz, 1998, 28. or.
- CLARK, J., *Worlds apart. Civil Society and the Battle for Ethical Globalization*, Connecticut, Kumarian Press, 2003, 95. or.
- CORRY, O., «The green legacy of 1989: revolutions, environmentalism and the global age», *Political Studies*, 62. lib., 2. zk., 2014ko ekaina, 309.-325. or.
- ECHART, E., LÓPEZ, S. ETA OROZCO, K., *Origen, protestas y propuestas del movimiento antiglobalización*, Madril, Catarata / Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (UCM), 2005.
- ECHART, E., *Movimientos sociales y relaciones internacionales. La irrupción de un nuevo actor*, Madril, Catarata / Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (UCM), 2008, 23.-76. or. eta 91.-120. or.
- FASULO, L., *An Insider's Guide to UN*, New Haven, Yale University Press, 2009, 77. or.
- FLORINI, A., *The Coming Democracy. New Rules for Running a New World*, Washington D.C., Brookings Institution Press, 2005, 141. or.
- GARCÍA, C.R., *ONGs y derecho internacional*, Madril, Iustel, 2007, 319.-327. or.
- GUTIÉRREZ-SOLANA, A., *La legitimidad social de las organizaciones internacionales*, Bartzelona, Marcial Pons, 2014, 220. or.
- IBARRA, P., *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*, Madril, Síntesis, 2005, 261. or.
- JORDAN, L., «Global Civil Society», Edwards, M. (ed.), *The Oxford Handbook of Civil Society*, Oxford, Oxford University Press, 2001. 95. or.
- KALDOR, M., *Global Civil Society. An Answer to War*, Cambridge, Polity, 2003, 31. or.
- KEANE, J., «Reflexiones sobre la sociedad civil global», VIDAL BENEYTO, José (zuz.), *Hacia una sociedad civil global desde la sociedad mundo*, Madril, Taurus, 2003, 69.-118. or.
- LEROUX, N., *La condition juridique des Organisations Non Gouvernementales internationales*, Brusela, Bruylant, 2010, 243. or.
- LINDBLOM, A.-K. *Non-governmental Organizations in International Law*, Cambridge, CSICL, 2005, 448. or.

- PASTOR, J., *El año 1968*, Madril, Cuadernos del Mundo Actual, Grupo 16, 1994, <http://www.iade.org.ar/modules/noticias/article.php?storyid=2348>.
- PAYNE, R.A. ETA SAMHAT, N.H., *Democratizing Global Politics*, Albany, State University of New York Press, 2004, 47. or.
- PEREA OZERIN, I., *Incidencia de las Revoluciones en los Movimientos Sociales Transnacionales. El caso de la Revolución Cubana y su influencia en el Movimiento Antiglobalización*, Doktore-tesia, UPV/EHU, 2014, <https://addi.ehu.es/handle/10810/17355>.
- , «El papel del feminismo en el Movimiento Antiglobalización: contribuciones y desafíos», *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 105, 2014, 67.-88. or., http://www.cidob.org/es/publicaciones/articulos/revista_cidob_d_afers_internacionals/105/el_papel_del_feminismo_en_el_movimiento_antiglobalizacion_contribuciones_y_desafios
- PONS, X., «Las Organizaciones Internacionales No Gubernamentales y el Derecho Internacional: planteamiento de tendencias y problemas actuales», Abellán, V. eta Bonet, J., (zuz.), *La incidencia de la mundialización en la formación y aplicación del Derecho Internacional Público*, Bartzelona, Bosch editor, 2008, 46.-47. or.
- SANAHUJA PERALES, José Antonio, «¿Un mundo unipolar, multipolar o apolar? La naturaleza y la distribución del poder en la sociedad internacional contemporánea», *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanen Ikastaroak 2007*, Leioa, UPV/EHU, 2008, 297.-383. or., http://www.ehu.es/cursosderechointernacionalvitoria/ponencias/pdf/2007/2007_10.pdf
- SERBIN, A., «La sociedad civil transnacional y los desafíos de la globalización» en Podesta, B. (koord.), *Ciudadanía y Mundialización. La sociedad civil ante la integración regional*, Madril, CEAL, 2000, 29. or.
- TARROW, S., *Strangers in the Gates: Movements and States in Contentious Politics*, Cambridge, Cambridge University Press, 2012, 181. or.
- TEIJO, C., *Organizaciones Internacionales No Gubernamentales y Derecho Internacional*, Dilex, Madril, 2005, 149.-186. or.
- TUSSIE, D. ETA PIGGIROZZI, M.P., «Pressing ahead with new procedures for old machinery: global governance and civil society» in Rittberger, V. (ed.), *Global Governance and the United Nations System*, New York, United Nations University Press, 2001, 160.-161. or.
- VAN ROOY, A., *The Global Legitimacy Game*, New York, Palgrave McMillan, 2004.
- VIDAL BENEYTO, J., «Introducción. La dimensión pública de la sociedad civil», *Hacia una sociedad civil global*, Madril, Taurus, 2003, 15.-68. or.
- WAPNER, P., «Civil Society» in Weiss, T.G., eta Daws, S. (ed.), *The Oxford Handbook on the United Nations*, New York, Oxford University Press, 2007, 254.-265. or.

Talde lan honen helburua, NAZIOARTEKO HARREMANETAKO 14 GILTZA-HITZ, Nazioarteko Harremanetako nozio gakoekiko hurbiltze berri bat eskaintzean datza. Diziplina honetako hamalau indar-idea eta kontzepturen aukeraketaren bitartez, lan honek eztabaidarako gaiekin lehenengo kontaktua suposatuko du. Sarritan, irakasgai honetako zailtasunetariko bat termino zehatzen erabileran datza; diziplina beraren garapena markatu eta azalpen bat merezi duten nozioak. Aukeratutako metodologiak, kasu honetan tematikoa baino, kontzeptuala, ez dauka eskuliburu klasikoa ezta esanahiez osatutako ohiko hiztegi bilakatzeko asmorik. Irakaskuntza anglosaxoiaren metodologietan oinarriturik, ideia gako bakoitza sakonki aztertzen da, diziplinaren autore nagusien aipamenaz eta erabileraz, eta ikasleek uler dezaten idazkera lañoaz.

Gako bakoitzak egitura berdintsua dauka: doktrina-definizioak aztertu, fenomeno edo gako teorikoan zehar ibilbide historikoa egin, kontzeptu bakoitzeko oinarritzko ezaugarriak ordenaturik aurkeztu eta egungo eztabaida teoriko nagusiak errepasatu. Material hau, Europako Unibertsitate Eremuan baliagarri izan dadin, nazioarteko errealitatean teoria enpirikoki aplikatu ahal izateko, atal bakoitzaren amaieran adibide praktikoak eskaintzen dira.

Egitura honen bidez ikasleek, nazioarteko ikasketei aurre egiteko, ezagupen teoriko, doktrinal eta praktikoa nahikoak izango dituzte eskura. Lan honek, beraz, hiru xede ditu: nazioarteko ikasketetan oinarritzko material bilakatzeko, diziplinaren gako eta erakunde desberdinen inguruan kontsultarako gida azkarra eskaintzea eta horien ulermen praktikoa bermatzea.



UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS